LITTERAE VASCONICAE

Euskeraren
Iker Atalak

12

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

BILBAO
2011

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau.

LABAYRU IKASTEGIKO HIZKUNTZA ARLOAREN ALDIZKARIA

Zuzendaria

ADOLFO AREJITA
Labayru Ikastegiko zuzendaria
Deustuko Unibertsitatea

Idazkaritza burua

SEGUNDO OAR-ARTETA
Labayru Ikastegia

Idazkaritza

ASIER ASTIGARRAGA
Arizmendi ikastola
ENEKO BARRUTIA
Bilboko Hizkuntza Eskola
K. JOSU BIJUESCA
Deustuko Unibertsitatea
IGONE ETXEBARRIA
Labayru Ikastegia
S. GARTZIA TRUJILLO
Elizbarrutiko Teologia eta Pastoraltza Institutua
JABIER KALZAKORTA
Deustuko Unibertsitatea
ANDER MANTEROLA
Labayru Ikastegia

Edizio-Taiuketa

IKEDER, S. L.

LABAYRU IKASTEGIA
Larrauri 1-A, 5.a
48160 DERIO
Tel.: 944 060 171 - Faxa: 944 060 173
idazkaritza@labayru.org
www.labayru.org

© Artikuluena, autoreak eurak.
© Argitaraldi honena: Labayru Ikastegia-Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.
ISSN: 1132-0702
Lege Gordailua: BI-847-94
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Gestingraf, S. A. L.

Azala: Baionako katedrala, c. 1836

HELBURUAK

Litterae Vasconicae. Euskeraren Iker Atalak aldizkaria Labayru Ikastegiko Hizkuntza eta Literatura arloko agerkarietako bat da. Hor argitaratzen ditu hizkuntza eta literaturari buruzko ikerketa-lanak, bai gure esparruko bai kanpoko ikerlari eta adituek egindakoak.

Aldizkaria urte birik behin ateratzen da. Aldizkari honetako artikuluak, Latindex katalogoan sailkatu eta zerrendatzen dira.

OBJETIVOS

Litterae Vasconicae. Euskeraren Iker Atalak es una de las revistas del departamento de Lengua y Literatura Vascas del Instituto Labayru. En ella se publican los trabajos de investigación relacionados con la lengua y literatura, de profesores y estudiosos tanto del ámbito vasco como externos.

La revista tiene periodicidad bianual. Los artículos publicados en esta revista son catalogados e indexados en el catálogo Latindex.

OBJECTIFS

Litterae Vasconicae. Euskeraren Iker Atalak est l'une des revues du département de Langue et Littérature basques de l'Institut Labayru. Y sont publiés tous les travaux de recherche portant sur la langue et la littérature que mènent enseignants et spécialistes, tant au Pays basque qu'à l'extérieur.

Sa publication est biannuelle. Les articles publiés dans cette revue sont catalogués et indexés dans le catalogue Latindex.

PURPOSE

Litterae Vasconicae. Euskeraren Iker Atalak is one of the journals of the Department of Basque Language & Literature at the Instituto Labayru. The journal publishes research work concerning the language or literature, by Basque and other lecturers and scholars.

The journal appears twice a year. The articles published in this journal are catalogued and indexed in the Latindex catalogue.

AURKIBIDEA

Aurkezpena 9

LITERATURA

JABIER KALZAKORTA. Jean Elissalderen *Theopane Venard Dohatsua* 11

ANDRES URRUTIA. Lourdesko Ama Birjina, J.B. Eguzkitzaren euskal prosan: *Lourdesko osakuntza arrigarriak* 61

SEBASTIAN GARTZIA TRUJILLO. Hamar euskal literato eta Jainkoa 105

JOSE MARI KORTAZAR. Parroki paperak herri prentsaren aitzindariak 135

HERRI LITERATURA

JESÚS ANTONIO CID. Perfil de Domingo de Eguia (con una desatribución, y una relación de servicios) 147

XABIER ALTZIBAR. Frantziako Iraultza eta Konbentzioko Gerra bertsoetan: testuak, gaiak, testuinguru historikoa 167

JABIER KALZAKORTA & FREDI PAIA. Antonia Gorostola: "Nire amaren esaerak eta kantak" 189

Irudien argibidea 219

AURKEZPENA

Litterae Vasconicae Euskeraren Iker Atalak aldizkariaren 12. zenbaki honek, aurrekoen bidetik, euskal kulturako gaiak ditu aztergai. Ale honetan literatura da nagusi; testu zaharrak, literatura modernoari dagozkion arloak eta herri literatura landu dituzte artikuluen egileek.

Jesús Antonio Cidek, CSICeko kideak, lehenago ere aldizkari honetan erabilitako gaiari heldu dio, "Canción Vizcaína" deritzanaren eta haren protagonista Domingo de Eguíaren berri zehatz orain arte ezezagunak emanez. Izan ere, kantu hori bizkaiera literarioan azken aldiko aurkikuntzarik baliagarrienetako bat da.

Jabier Kalzakortaren eta Xabier Altzibarren artikuluetan Iparraldeko tradizioko testuak berreskuratu eta beren testuinguruan jarri dituzte. Lehenengoak Jean Elissalde *Zerbitzari*k argitaratu barik utzitako bi testu dakartza, Theophane Venard Dohatsuari buruz prosaz egindako bi testu. Bigarrenak, aldiz, Frantziako Iraultza eta Konbentzioko gerrari buruzko euskal testu literarioak landu ditu, idatziak nahiz ahozkoak, kantuak eta bertsoak batez ere.

Han hor hemen sakabanatuta eta atalka zabaldutako testu bat osotu du Andres Urrutiak ere bere lanean, Juan Bautista Eguzkitzak idatzia Lourdesko Amari egotzitako mirariei buruz. Testua bera emateaz gainera, Lourdesko Ama Birjinaren gainean euskal literaturan dauden idazlanak aztertu ditu.

Era berean, ahozko tradizioko pasarte labur politak erreskatatu eta aztertu dituzte Jabier Kalzakortak eta Fredi Paiak, Antonia Gorostola zenak koaderno batean egindako oharrak hona ekarrita. Getxoko herri kulturaren lekuko bihurtu da.

Jose Mari Kortazarrek Durango inguruko parrokietan bertako gorabehera eta jardueren berri emateko argitaratu izan diren parroki paperen eta zelako edo halako argitalpenen katalogo zehatza egiten du. Horren ondoren, tesi hau bota-

tzen du: halakoak gaur egun hainbeste indar hartu duten herri aldizkarien aurrekoak ote dira?

Sebastian Gartzia Trujillok euskal literatura modernoko sei idazleren lanak erlijioaren ikuspegitik aztertu ditu. Irakurketa horretan, bakoitzak bere sinismen-esperientzia nola adierazten duen erakutsi digu.

Litterae Vasconicae
Idazketa Batzordea

JEAN ELISSALDEREN *THEOPHANE VENARD DOHATSUA*

Jabier Kalzakorta
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

LABURPENA

Jean Elissalderen *Theopane Venard Dohatsua*
Jean Elissalde (1883-1961) izkiriatzaile azkaindarrak, 1940. urtean, Theophane Venard (1829-1861) beatoaren gaineko bi testu utzi zituen izkiribaturik. Jean Elissalde *Zerbitzari* lapurtarra XX. mendeko euskal izkiribatzailerik onenetakoa dugu. Artikulu egileak, lan honetan Jean Elissalde "Zerbitzari" eta bere lanen gaineko zertzelada zenbait eman ondoren, testu jatorrizkoak transkribatzen ditu.
Hitz gakoak: Jean Elissalde, Theophane Venard, lapurtera, beato, saindu.

RESUMEN

***Beato Theopane Venard* de Jean Elissalde**
El escritor y académico de la lengua vasca Jean Elissalde (1883-1961), natural de Ascain (Lapurdi), dejó sin publicar, hacia 1940, dos versiones manuscritas en euskera labortano sobre la vida del beato Theophane Venard (1829-1861). Jean Elissalde *Zerbitzari*, continuador de la tradición labortana, es sin duda alguna uno de los mejores prosistas en lengua vasca del siglo XX. En este trabajo el articulista lleva a cabo, además de un estudio introductorio sobre el autor y su obra, la fiel trascripción de las dos versiones manuscritas.
Palabras clave: Jean Elissalde, Theophane Venard, labortano, beato, santo.

RÉSUMÉ

***Le Bienheureux Théophane Vénard* de Jean Elissalde**
L'écrivain et académicien de la langue basque Jean Elissalde (1883-1961), natif d'Ascain (Lapurdi), a laissé impubliées, vers 1940, deux versions manuscrites en euskera labourdin de la vie du bienheureux Théophane Vénard (1829-1861). Jean Elissalde, *Zerbitzari*, continuateur de la tradition labourdine, est sans aucun doute l'un des meilleurs prosateurs en langue basque du XXe siècle. Dans ce travail, l'auteur de l'article réalise, outre une présentation de l'écrivain et de son œuvre, une transcription fidèle des deux versions manuscrites.
Mots-clés: Jean Elissalde, Théophane Vénard, labourdin, bienheureux, saint.

SUMMARY

***Blessed Theopane Venard* by Jean Elissalde**
Some time around 1940, writer and member of the Academy of the Basque Language Jean Elissalde (1883-1961), from Ascain (Labourd), left unpublished two manuscript versions in the Labourd dialect about the life of the Blessed Theophane Venard (1829-1861). Jean Elissalde *Zerbitzari*, who upheld and continued the Labourd tradition, is without doubt one of the finest prose writers in the Basque language of the 20th century. As well as providing an introductory study on Elissalde and his work, the author of this article gives a faithful transcription of the two hand-written versions.
Key words: Jean Elissalde, Theophane Venard, Labourd, blessed, saint.

Artikulua jaso / Fecha de recepción: 2011.05.02.
Artikulua onartu / Fecha de aceptación: 2011.06.22.

Sarrera

Jean Elissalderen[1] (1883-1961) idatzi polit bat ekarri nahi dugu aldizkari honetara. Idatzi hori Theophane Venard[2] martiriaren gainekoa da. Jean Elissalde euskal idazle klasiko moderno bat dugu: lapurdiera edo lapurtera modernoan, Axularren prosa[3] eredutik urruntxo, idatzi zuten idazleetako bat. Idazle eredugarria, prosa zoragarrikoa, hogeigarren mende erditsuan idatzi zutenen artean idazle ximen eta landuenetako bat, den gutieneko dudarik gabe. Idazle landua, baina, era berean, bizi zen garaiko ahozko lapurteran zimendu sendoak zituena.

Artikulu honetan testu bikoitza eskainiko dugu: testu beraren bi bersio. Bi bersio hauek argitaratzea beharrezkoa dela iruditzen zaigu, testuak ez direlako, hitzez hitz, berdin-berdinak. Klasiko baten testu beraren bertsio bat baino gehiago badaude, denak argitaratu behar direla deritzagu, batetik besterako aldaera txiki, eta are aldakuntza handiak konparatzeko. Aldaerak aldaera, beste erredakzio bat eskaintzen dutelako ere bai, jakina. Mogelen *Versiones Bascongadas* direlakoetan, esaterako, euskalki diferenteak, eta are euskalki bereko bertsio diferenteak, ezagutzen ditugu. Euskal literaturan dugun urre apurra, gorde beharrean, zergatik ez erakutsi?

Gure transkripzioan, testuak dauden-daudenean eskainiko ditugu, jatorrizko ortografia eta puntuazioarekin. Bi testu hauek, uste dugunez, ez dira inon argitaratu. Jean Elissalderen testu argitaratuen bila batean eta bestean ibili gara, eta ez ditugu bi testu hauek ikusi. Bakarren bat argitaratua egongo balitz ere, uste dugu

---

[1] Guk, Hegoaldeko tradizioan, *Elizalde* idatziko genuke. Iparraldeko tradizioan, ordea, *Elissalde* dugu. Beste bi idazle aipatu beharko banitu *Eliss-* dutenak, *Elissamburu Jean Baptiste* eta berorren lehengusu *Elissamburu Michel* aipatuko nituzke.

[2] Theophane Venard martiria izan zen. Nola idatzi behar dugu izen hau euskaraz? Frantses martiri hau, frantsesez, *Jean Théophane Vénard* zeritzan. Modu laburtuan ezagutzen dugu, ordea, *Théophane Vénard*. Jean Elissaldek behin baino gehiagotan frantses erara jartzen du, bi tilde dituela. Gehienetan, ordea, tilderik gabe. Guk ere geure idatzietan tilderik gabe idatziko dugu.

[3] Axularrek bi omenaldi handi izan ditu gure aldizkarietan. Lehena, 1943an, *Aintzina* aldizkarian; bigarrena, FLV aldizkarian, 1974an. Lehen omenaldi honetan parte hartu zuen gure Elissaldek "Axular" izenburua duen lan polit batekin. Axular maisu handi bat izan da euskal idazle guztientzat. Ez dugu uste, hala ere, Elissaldek haren ildoan jarraitu zuenik.

biak batera argitara emanik osotasun handiago bat hartuko luketela. Bi testu hauek ondo transkribatzea izango da gure xede nagusia. Lan hori egin ondoren, testuko hiztegi, testu- markatzaileak, sintaxia eta abar azter litezke. Gure helburua, ordea, mugatua da: testu seguru bezain fidagarri bat eskaintzea.

Testuetako bat noiz idatzi den badakigu: 1940an. Bestea ere garaitsu berean idatziko zen, seguru asko. Eskainiko ditugun bi testuetatik ez dakigu zein den lehena. Uste dugu A testua, edo guk eskainiko dugun lehena, dela zaharrena. J. Elissaldek A testua edo eskainiko dugun lehena idatzi zuenean 57 urte zituen eta ordurako euskaltzain oso eta iskribatzaile aritua zen.

Jean Elissalderen gainean berri apur batzuk ere emango ditugu. Ez dugu autore interesgarri honen gaineko azterketarik egingo. Haren euskal testuen irakurle eta miresle garen aldetik, iritzi zenbait emango ditugu.

Jean Elissalde: bizia eta euskal lanak

Hona hemen Elissalderen bizi-zertzelada batzuk. Azkainen, Lapurdin, jaio zen Jean Elissalde 1883 urtean. Mende hasieran, 1909an, apeztu zen. Lehen Mundu Gerran edo Gerla Handian *Eskualduna* astekarian idatzi zituen gerrako kronikak. Saint-Pierre eta Elissalde ditugu gerra krudel hartako berriak eman zituzten euskal idazle zoragarri bi. Verdungo bataila luze eta odolgiroko kronika ere badugu, Etchegoin senpertarraren balentria eta guztikoa. Kronika hauen bilduma polit bat Patri Urkizuk argitara du.

Gure Herria aldizkariaren sortzaileetako bat izan zen 1921ean. Azkaine bere sorterria gai harturik hainbat idazlan egin eta argitara eman zituen *Gure Herria* aldizkarian. Lan hauetako gehienak *Azkaine gure sorterria* liburuan eman zituen berriro argitara Piarres Xarritonek 1985 urtean. *Eskualduna* astekarian idazten hasi zen Elissalde, eta, gerora, batez ere *Gure Herria* aldizkarian ikusi zuten argia bere lan barreiatu gehienek. *Gure Herria* aldizkariko bi lan gailentzekotan, "Arthoxuritzetan" izenburupean bildu zituen ipuin labur eta izkirimiriak aipatuko nituzke. Ipuin labur hauezaz gainera baditu ipuin luzeagoak ere. Bidaia-kronika[4] interesgarri bat ere badu, *Metsikorat* izenburuarekin[5]. Gure idazlea izengoiti askoren

[4] Bidaia kronika eta hainbat xehetasun gehiagoren berri jakin nahi duenak Roger Idiart-en artikulua irakur beza. Hona zer dioen Roger Idiartek: "Zerbitzari-k bigarren piaia luzea Ameriketan egin zuen, Blazy Uztaritzeko erretorarekin eta Aita Donostia musikari famatuarekin, Uztaritzeko Semenario berriaren eraikitzeko sos galdez. Hango Eskualdunek ongi-etorri ederra egin zioten. Hiruak ere frango artixtak bait ziren, diru-ixtorio hortan ez zuten funts handirik egin, bainan jendearen bihotza hunkirik, moltsa polliki beteta itzuli ziren."

[5] Gaur egun testu hauek sarean ikus eta irakur litezke. Armiarma delakoan, *Artho-xuritzetan, Azkaine gure sorterria, Banhar deitu salbaiak, Bi gogorrak antzerki* lana, *57ª gerlan* eta *Metsikorat* irakur litezke.

azpian ezkutatzen da: "Zerbitzari", "Azkaindarra", "Bilharia". Izengoiti guztien artean, ordea, zaharrena dugu ezagunena: "Zerbitzari".

Irakurri ditugun haren liburu eredugarrien artean, hona zenbait: *Ama Maria Pasionekoa* (Bayonne: La Presse, 1930), *Ichtorio Saindua. Testament Zaharra. Jesu. Christo. Eliza* (Lille 1943) eta *Bahnar deithu Salbaiak. J. Elissaldek eskuararatua* (Bayonne, 1936).

Bestalde, 1931 urteko *Euskera* agerkarian dago argitaraturik euskaltzain oso izendatu zuteneko hitzaldia. Elissaldek egin zuen sarrera-hitzaldia ezagutzen dugun testurik zoragarrienetako bat da eta nornahiri gomendatuko genioke irakurtzea. Garai bateko euskaltzaletasunaren miraila garbia ere bada, nola ez. Azkue baten antzo maite zuen baserritarrekin hitz egitea eta euskara ezpainetatik hara biltzea, bere bizitasunik handienean. Hona pasarte bat gure esanaren lekukotzat:

> *Egundainoko errana da. Eta huna molde hori: behinere ez gaiten etxetik athera paper xuri muthur bat gabe eta bi soseko lapitz batekin baizik. Alabainan ez da den gutieneko dudarik nun-nahi zerbeit kausituko dugula, kausi dezakegula bederen, eskuarazko izena ez dakiogunik.*
>
> *Bada, holako zerbeit ikusten dugularik, jo dezagun lasterka lehen atxo xaharraren ganat eta othoizka galde dezogun: Amatto, zer erraten duzu huni? Amatto, zer erraten duzu horri? Eta amattok erran izena lapitzaz ezar berehala paper muthurrean... eta paper muthur hori hel guzietarat heda dezaken norbeiti. Herri guzietan, Jainkoari esker, norbeit atxeman ditake oraino Eskuararen alde zerbeit egin nahi duenik!*

Sentsibilitate horren adibide dira 1931tik 1935era argitaratu zituen "Euskal Herriko landareak" lan bikaina edo L. Dassancerekin batera lehenago, 1923tik 1926ra bitartean, idatzi zuen "Eskual herriko hegaztinak eta choriak" lan eredugarria. Izkribuz ari zenean ere, ezagutu zuen euskara bizi-bizia hartu zuen eredu nagusitzat. Biltzaile bezala norbaitek akatsen bat edo beste egotz liezaioke. Elissaldek bildu eta argitara zituen esaera zaharrak, bere betean, herri-herrikoak ote dira? Esaera zaharrak ez ote daude apurren bat itxuraldatuak? Ez ote da Oihenarten eskolakoa? Oihenarten esaera zaharretako askok ez dirudite garai bateko euskaldunen ezpainetatik transkribatuak, birmoldatuak edo apurren bat ukituak baino...

Elissalde prosistari, ordea, ez diogu akatsik aurkitzen. Iparraldean loratu zen garai bateko urrezko aro ttipi baten ordezkari aparta dugu. Jean Hiriart-Urruty (1859-1915) ondoko idazle andanan, aurreneko lerroan dago Elissalde. Idazle horietako gehienak XIX. mende bukaera aldera jaio ziren eta *Eskualduna* astekarian hasi ziren idazten, eta, gerora, *Gure Herria* aldizkarian. *Gure Herria* aldizkariaren sortzaile-taldekoa da, beraz, gorago esan dugunez, gure Jean Elissalde. 1921 urtean, Gerla Handia bukatu ondoren. Jean Elissalderen garaikideak dira Jules Moulier "Oxobi" (1888-1958), Jean Saint-Pierre (1884-1951); eta apur bat geroagokoak, Léon Léon (1896-1962), Dominique Soubelet (1897-1970), Pierre Lafitte

(1901-1985) eta Pierre Narbaitz (1910-1984)[6]. Jean Elissalde, gure kultura-gizonen erreferentzia bat ematera, on Jose Migel Barandiaranen garaikidea zela esango genuke[7].

Pilotari eta pilotazale handia ere izan zen; ibaietako arrantzaria eta onddoketaria ere bai. Emile Larrek aitortu didanez, bere belaunaldiko euskaltzaleek maisutzat hartu zituzten Jean Elissalde eta honen belaunaldiko hainbat idazle.

Atal hau bukatzeko esan dezagun Jean Elissalderen izakera eta nortasunaren gainean Roger Idiart herrikideak lan polit bat idatzi zuela haren jaiotza mendeurrenean[8].

Jean Elissalderen erlijio lanak

Prosa erlijiotsuan Elissalderen hiru liburu ezagutzen ditugu nagusiki. *Ama Maria Pasionekoa,* 1930ekoa, *Bahnar deithu salbaiak,* 1936koa, eta *Ichtorio Saindua. Testament Zaharra. Jesu-Christo. Eliza,* 1943koa. Azken bi hauek itzulpenak direla esaten da garbiki liburuaren azalean berean. Elissalderen prosa erlijiotsu hau izan liteke balio gehien duena. Hona haren mendeurrenean Villasantek idatzi zituen hitzak:

> *Oker ez banaiz, prosazko lanak dira Zerbitzariren obran parterik baliosena. Aita Dourisboure Indotxinako mixiolariaren istorioak kontatzen dituen liburua, Zerbitzari berak erregalatu zidan Gerezietan* (Bahnar deithu Salbaiak). *Liburu hau frantsesetik itzulia da, baina zein jator. Berehala igartzen da euskararen jitea eta muina barnetik bereganatuak zituela gure Zerbitzarik*[9].

Argitara gabe gelditu ziren, beraz, *Baionako diosesako katichima* delakoa eta guk argitara emango ditugun Theophane Venard dohatsuaren bi bersioak. Aurreko lanak itzulpen-moldapenak diren bezala, Theophane Venard-en bi bersioak ere nonbaitetik hitzez hitz itzuliak baino testu moldatuak ditugu. Zein obratan oinarritu zen bi bersio hauek egiteko? F. Trochu-ren *Le bienhereux Théophane Vénard ouvrage couronée par l'Academie Française,* 1929ko edizioan. Gutun laburretako itzulpena, begi-bistakoa denez, jatorrizko testuari lotuagoa dago gainerako narrazioa baino.

---

[6] Zerrenda, jakina, luzeagoa da. Hona hemen nola dioen Luis Villasantek bere *Historia de la literatura vasca* liburuan, 308 orrialdean: "En 1921 se juntaron un grupo de jóvenes deseosos de hacer algo más en pro del vascuence. Entre los reunidos estaban los siguientes sacerdotes: Saint-Pierre, Blazy, Barbier, Apezteguy, Elissalde y nuestro Moulier; y los paisanos Dassance, hermanos Dufau, Choribit, los dos Souberbielle, Garmendia, etc. De aquellos contactos salió la creación de la revista *Gure Herria.*"

[7] Erreferentzia hau ez da alferrikakoa, gure ustez. Berriki argitara eman diren on Jose Migel Barandiaranen egunerokoetan, Saran deserriraturik zegoela idatzitako egunkarian, hainbat aldiz agertzen da Jean Elissalderen izena.

[8] IDIART, Roger: "*Zerbitzari* Jean Elissalderen mendeurrena", *Euskera* 1984,! 203-207 or.

[9] VILLASANTE, Luis: "Jean Elissalde 'Zerbitzari'ren mendeurrena" 1883-1983, *Euskera* 1984-1, 201-202 or.

Saindu eta are martiri baten bizitza eredugarri eta harrigarria da Jean Elissaldek idazten duena. Modu berean jokatu zuen *Maria Pasionekoa* lanean. Bizitza eredugarri bat bere jaiotza-egunetik hil zen eguneraino. Gaur eguneko begiz ikusirik, garai bateko zenbait saindu eta dohatsuren bizitzaren kondaketa sinesgaitz egiten zaigu. Sainduen bizitzetan bizimolde eta gertaera harrigarriak kontatzen dira. Era berean, hainbat kasutan sainduen bizitzak kontatzen dituzten liburuek prosa harrigarria eskaintzen dute. F. Trochu hagiografoa ere idazle ona izan zen; eta Theophane Venard-en bizitza kontatu zuenean, Frantziako Akademiak sariztatu egin zuen lana. Nola, beraz, euskaltzain idazle batek nolanahika idatzi saindu eredugarri baten bizimoldea?

Uste dugu, Orixerekin batera, Basilio Joannateguik (1837-1921) idatzi zuen *Sainduen Bizitzea* (Bayona, 1890) euskaraz dugun libururik ederrenetako bat dela. Joannateguiren liburua eleberri labur askoren bilduma zoragarria dela deritzagu, saindu bakoitzaren bizitza eleberri labur bat bezala irakurtzen eta gozatzen dugulako.

Theophane Venard-en euskarazko bi bersio hauek non idatziak diren asmatzen ez da zail. Jean Elissalde 1909an apeztu zen, Nay-en, Theophane Venard dohatsu egin zuten urte berean. 1926an, Zuberoan, Liginagan dago erretor eta 1932 urtean Gerezietan, Lapurdin. Theophane Venard dohatsuaren idatzia Gerezietan egina zen, alemanak Euskal Herrira sartu ziren urte berean.

Ohar pare bat Theophane Venard-en gainean

Ez da ene asmoa Theophane Venard martiriaren gaineko xehetasunez janztea lan hau. Lan horrek nik ez dudan jakituria eskatzen du. Esan dezadan, hala ere, Theophane Venard-en izena ezaguna egiten zitzaidala. Izan ere, *Teresa Lisieux-koa Idazlan Guztiak* liburua bururen buru irakurri behar izan nuen 1996 urtean, argitaratu baino lehen, liburuko euskararen irizpideak bateratzeko; eta liburu honetan behin baino gehiagotan agertzen zen Theophane Venard dohatsuaren aipamena. Frantziako bizitza erlijiotsuan eragin handia izan zuen dohatsu honek, Teresa Lisieux-koaren idatzietan agertzen denez.

Theophane Venard-en bizitza (1829-1861) Charles Cornay (1809-1837) martiriaren oso antzekoa zen. Theophane Venard-ek zortzi urte zituela hil zuten, Ekialdean, Charles Cornay. Bederatzi urte zituenerako Charles Cornay-ren bizitza irakurri eta saindu egiteko gogo bizia hartzen du Theophane Venard-ek. Santu askoren bizitzetan bezala, T. Venard-ek umezaroan hartutako erabakia azken muturreraino eramango du. Gaur eguneko begiz ikusirik harrigarri egiten zaizkigu era honetako argitasun eta segurantziak. Harrigarri egiten zaigu gure martiriak zerutikako premonizio edo aintzin-argi bat izan eta saindutasuneko bidean hain urrats sendoak ematea. Erran gabe doa, bide batez, Balentin Berrio-Otxoa ere

Vero modo di decapitazione usato nel Tonchino, secondo un rozzo disegno originale tonchinese.

garaitsu berekoa dela: jaio eta hil modu bertsuan eta garai bertsuan egin zuten. Balentin Berrio-Otxoa bi urte gazteagoa zen (1827-1861), baina urte berean eta modu berean hil zuten. Garai hartan misionestak oinazeturik hil ohi zituzten Tonkin alde hartan. Theophane Venard-en jarrera alai eta sainduak mira sortu zuen bere inguruan eta ez zuten, beste misionest asko bezala, oinazeztatu. Erran gabe doa borrero hordiaren gertaera latzak nornahiren ileak lazteko adinakoak direla.

Balentin Berrio-Otxoa 1988an, ekainaren 19an, saindutu zuten, gure Theophane Venard bezalaxe. Uste dugu Jean Elissalde poztuko zela, gaur bizi balitz, bere testuak argia ikusi duelako eta Theophane Venard, saindu bihurturik, aldaretara jasoa izan delako.

Hiztegi eta esapideen gaineko ohar bat edo beste

Testu aberatsak dira Theophane Venard-en gaineko bi kontakizunak. Lokailuak, juntagailuak, testu-markatzaileak aztertzeko egokiak. Hiztegi eta erramoldeetan ere aberatsak dira, gure ustez. Aditzen erabilera ere guztiz markagarria da –ari izan transitiboan, esaterako– eta hainbat aditz interesgarri aurkituko ditugu: *alditxartu, berebaitaratu, –z emokatua, zertaratu*... Alderdi aberats asko dituzte testu hauek, baina guk dasta edo zirriborro bat eskainiko dugu bakarrik. Atal honetan ohar bat edo beste egingo dugu, beraz.

Ohar gaitezen, kasurako, *erran gabe doa* delakoak esaldiaren bukaeran, "hain zuzen ere" baten balioa izan dezakeela. Esaldiaren hasieran, ordea, konpletiboak sortzen ditu:

A testuan, lehen atalean: ***Erran gabe doa*** *ederki baliatu zue**la** hura ere, Poitiers-eko aphezgeiekin zen ondoko urthean.* B testuan, azken atalean: *Otsailaren lehenean ethorri zen erregearen mezua: hiltzeko mezu bat,* **erran gabe doa**.

Hainbat esapide erabiltzen ditu Elissaldek: *bortz ahalak egin*, *han harat joan*, "ibilbide luzea egin" esateko; *saindutasunaren bidean han harat joana zen*, "oso ibilbide luzea egin duela" adierazteko; *minez porroskatua* "minaren minez hautsia egon" adierazteko; *erroz gora* "hankaz gora" zentzuarekin; *ez zen eskuen gurutzatzeko egina,* "alferkerian egotekoa ez izan". Herri-konparantzak ere badarabiltza. A testuan, *arrosa bezen fresko* eta *choria bezen alegera* darabiltza. B testuan, *arrosa bezen fresko* berdin dio, baina *choria bezen alegera* ikusi beharrean, *sasiko choria bezen alegera* dakar. Lehen eta bigarren dokumentuan, *hortzez eta haginez lehiatu* esapidea ikusten dugu, gaztelaniazko "defenderse, competir con uñas y dientes" esapidearen antzekoa dela dirudi, inolaz ere.

Posposizioetan ere aberatsa da. Norantza edo direkzioa adierazteko; *nori buruz* bere jatorrizko eta benetako zentzuan, *Anverseko portuan hartuko dut untzia,* ***Chinari buruz*** edo *Egunetik egunera* ***saindutasunari buruz*** *urrats handiagoak*....

Oro hitza nola darabilen argigarria da. *Orotan*, *orotarat*, eta abar zein zuzen eta argi erabiltzen dituen... *Oro baino lehenago* esapidea, eta abar.

Hitzen artean, desberdindu egiten ditu *erreka* eta *ibai*. *Erreka* bere euskaran "ibaiaren ohea" da, "lecho del río". A testuan, II atalean, *Ibai-gorria bere errekatik jalitzen baitzen burrunban, beretarik egiteko* esaldia honela ulertuko genuke: "Ibai gorria bere ohetik ateratzen baitzen indar handiz pikardiak edo kalte handiak egiteko". Ibaia bulartu ondoren bere ohetik ateratzen da, eta kalte handiak egiten ditu. Kalte edo pikardia horiei *desmasia* deituko die Jean Elissaldek.

Testu aberatsa da, beraz, edozein alderditatik azterturik. Gure lan honetan ez diogu ekin era bateko eta besteko aberastasunen berri emateari. Gure helburua askoz apalagoa izan da: langintza horretarako beharrezkoa den testua ahalik eta ondoen ematea.

Eskuidatziaren ezaugarriak

Jean Elissaldek bi dokumentu ditu *Theophan Venard dohatsua* izenburua dutenak. Bi dokumentu hauek letra argiz daude idatzirik. Testua iluntzen edo zailtzen duten zirriborrorik ez dute eskuidatziek. Bi dokumentu hauek Jean Théophane Vénard (1829-1861) dohatsu frantsesaren gainekoak dira. Euskaraz idazteko orduan, gorde behar ote dira zorioneko tilde horiek? Lehen dokumentuan, *Theophane Vénard dohatsua* dator, deiturak tildea duela, eta, bigarrenean, tilderik gabe: *Theophane Venard dohatsua.* Guk lan honetan, gorago jarri dugunez, Elissaldek jarri zuen bezalaxe transkribatuko ditugu bi dokumentuok.

Lehen dokumentuak duen izenburu osoa *Baionako diosesako katichima eta Theophane Vénard dohatsua* da. Dokumentu hau Pierre Lafittek utzia da Baionako Museo edo Erakustokian[10]. Data ere badakigu: 1965eko ekainaren hogeita bian, Elissalde hil eta laugarren urtera. Dokumentu edo agiri honek Ms 65. 4 du signatura. Dokumentu honetako bigarren zatian dator Thophane Venard-en gaineko idatzia. Lehena katixima bat dugu. Kaier eskuidatzi hau zenbakiturik dago. Zenbakiak eskuinaldeko orrialdeek dituzte bakar-bakarrik. Bigarren dokumentu honetako zenbakiak eskuinaldeko plaman bakarrik daude. Orotara 103 zenbakitik 112 zenbakira arteko plamak hartzen ditu dohatsuaren kontakizunak. Plamak, ordea, gehiago dira, hogei guztira. Kaieraren azalean zein Theophane Venard-en kontakizunaren ondoren, Elizalderen izen-deiturak eta izenpea datoz. Dokumentu honetako atalak zenbaki erromatarrez agertzen dira. Zortzi atal orotara.

Bigarren dokumentua beste kaier edo koaderno batean idatzia dago. Eskuidatzi honek duen signatura Ms. 76 da. Kaier hau egoera txarragoan dago. Eskuidatzien berri ematen duen inbentario-kaierean "Cahier en mauvais état" dakar. Kaier honen azalean txapeldun pilotari bat agertzen da, frontoian pelota-jokoan, eskuineko eskuan xistera bat duela. Jean Elissalde ezagutu zutenek pilotazale handia zela dioskute; eta horren erakusgarri ttipi eta polit bat da, dudarik gabe, kaieraren azala. Kaier honetan eskuineko plaman bakarrik idatzi zuen Jean Elissaldek. Zenbakiak ere eskuinaldean daude bakarrik. Orotara, hogeita hamaika orrialdetan idatzia dago. Kaier honetako bi orrialde falta dira, ordea. Testua laugarren orrialdetik aurrera gordetzen da. Azalaren ondorengo orrialdean *Theophane Venard dohatsua* dakar zeharretara idatzia, azpian izenpea duela. Testu hau ez dago aurrekoa bezala zenbaki erromatarretan ataldu edo zatitua. Testu honetako atalak, zenbakiak izan beharrean, hitzak dira. Hona atalen izenburuak: *Parisen, Tonkinen, Gerla girichtinoeri, Soldadoen aztaparretan, Hiltzerat kondenatua, Presondegitik, Martir.*

Izenburu hauek, jakina, aurreko zenbaki erromatarrei dagozkie. Bigarren zenbakia *Parisen* da, hirugarrena *Tonkinen*, laugarrena *Gerla girichtinoeri*, eta abar. Bigarren eskuidatzi honek, beraz, lehen atala falta du.

Dokumentuen neurriei gagozkiela, antzera xamarrekoak dira. Lehen dokumentuak, A delakoak, 17 zentimetro ditu zabaleran eta 22 luzeran. Bigarren dokumentuaren neurriak: 17 zentimetro eta erdiko zabalera eta 23 zentimetro luzera. Bi kaierak, bestalde, koadro txikiz hornituak dira. Bi kaieretan Jean Elissalderen idazkera zaindu eta argia dator. Idazle ximen eta arretatsuaren dokumentu apartak dira bi-biak.

---

[10] Dokumentu hau, ordea, *Diccionario Retana de autoridades de la lengua vasca* hiztegirako ez zen erabili. Hiztegiaren egileak Manuel de la Sota, Pierre Lafitte eta Lino Akesolo izan ziren. Jean Elissalde (*Zerbitzari*) lapurtarraren hiru lan erabili zituzten: *Aita P. Dourisburek egina "Bahnar deithu Salbaiak", Jean Elissalde apezak eskuararatua* (Bayonne, 1936), *Atsotitzak, zuhur-hitz eta erran-zahar* (Baiona, 1936), eta *Kantari Berria* (Baiona, 1920).

AZKEN ONDORIO BEZALA

Hona transkribatu ditugun bi testuak ez dira, hitzez hitz, berdinak. Garai desberdinetan idatziak izango dira, seguru asko. Guk transkribatu dugun bigarrena gerokoagoa dirudi.

Gure ustez, nola ez, testu apartak dira, idaztankera zaindu eta indartsuaren adibide zoragarriak. Testu bakoitzean, kondaketaz gainera, estilo epistolarra ere dastatzeko aukera dugu. Bi testuek, kondaketaren aldetik, oso ondo eramandako haria erakusten dute. Testuaren bukaera aldera, bestalde, klimax indartsu batera iristen gara: Theophane Venard borrero hordiaren eskuetan bosgarren aizkorakadan lurrera zerraldo erortzen deneko pasartera.

Elissaldek zioenez, "Eskual-Herriko chokho gordeetaraino" nahi zuen hedatzea Theophane Venard-en izena eta omena. Neurri batean saindu ezaguna da, dudarik gabe, beste batean, beste dohatsu-saindu asko bezalaxe, desezaguna. Bigarren testuak, nola ez, badu profezia kutsu bat "ororen ustea da, guk ez bada, gure ondokoek bederen ikusiko dutela Sainduen lerroan".

THEOPHANE VÉNARD DOHATSUA. LEHEN DOKUMENTUA, A TESTUA

I

1940! Duela ehun eta hameka urthe, hazilaren 21ean sortu zen Theophane Venard, S. Loup-sur Thouet deithu herrichkan, Deux Sevres-etako departamenduan. Aita eta ama girichtino hoberenetarik zituen[11]: egun berean bathaia-arazi zuten beraz haurra[12]. Aita errienta zen: herriko haurreri harek erakasten ziozkaten othoitzak eta katichima: orobat harek zaintzen zituen igande guzietako mezabezperetan. Ondikotz, etzuen hain osagarri ona amak, eta elizako urratsetarik kampo guti ikusten zen bideetan.

Jean-Theophane Venard haur erne ta bichi bat izatu da, eta bichia bezen jostakina. Eskolarat abiatu orduko, hainitz pausatu zen haatik. Eta liburueri zoin gogotik eman zen!

Eskolako orenetarik kampo aski lakhet zuen sukaldean amattoren laguntzea, bainan oraino lakhetago etcheko ahuntzaren zaintzerat joaitea norapeit. Egun batez, demboraren aiseago iragaiteko, Fedearen Hedameneko liburu bat berekin eremanik, etzen guti harritu han ikusteaz nola paganoek Tonkinen hil zuten Charles Cornay. Bada, Charles Cornay herritarra zen. Herritarraren heriotzeak hala hunkitu zuen nun arrats hartan berean hauzoko andere bati martiraz mintzatu baitzitzaion: "Anderea, badakizu Charles Cornay, Tonkineko eskualdean martir hil dela?"–"Ba, badakit, haurra: heriotze ederra segurki!"–"Ni ere Tonkinerat joanen naiz handitzearekin."–"Zertako?"–"Charles Cornay bezala martir hiltzeko!". Andereak etzuen orduan nihori deusik erran, bainan geroztik zenbeit aldiz errepikatu ahal ditu Theophane ttipiaren hitzak!

Doué-la-Fontaine delako hiriak ez ditu eremu handiak, bainan han bada bederen ikastegi bat hauta. Harat igorri zuten Theophane, aitari apheztu nahi zuela erran zioneko. Han bururatu behar zituen eskolak. Hartze onekoa, bethi lagun guzien aintzinean ibili zen orotan. Bainan jada haren ikasteko errechtasunari bezen ohartuak ziren oro haren othoitzeko kharrari. Oraino odol beroskoa omen zuen haatik. Theophane Vénard ez bide da beraz gero[13] ezagutu dioten aingeru eztitasunerat bere jitea ongi eta ongi zapatu gabe heldu!

Hemezortzi urthetarat zoan, Montmorillon-eko eskola handiago batetarat igorri zutelarik. Etzuen urthe bat baizik han iragaiteko. Erran gabe doa ederki balia-

[11] Lehen idatzialdian *ziren* jarri du, gero, zuzenketa eginez, *zituen*.
[12] Lehen idazkeran *beren haurra* jarri du Elissaldek, gero, *beren* posesiboa ezabatu egin du.
[13] Hitz bau baino lehen, Elissaldek *orok* hitza jarri eta ezabatu du.

tu zuela hura ere, eta Poitiers-eko aphezgeiekin zen ondoko urthean. Jada[14] etzuen gehiago urrungo misioneak baizik gogoan eta misionest ona baino hobea izaiteko chedeak zabilkan orotan. Oro orok baino hobeki egin nahi zituen. Hainbertzetaraino nun diosesako Aphezphikuak 103/ batere ez baitzuen gordetzen "Theophane Venard baino lore ederragorik etzuela diosesako baratze handi guzian". Eta halere ichtudiant gazteak bere chedea gordea zeraukan bethi: etzion oraino nihori salatua bere indarrak han nunbeit higatu nahi zituela, jende basen artean. Burhasoeri bereri behin edo bertze hitz erdi bat erran bazioten, munduko gorena! Sudiakre egin ondoan mintzatu zen haatik lañoki: Huna aitak nola ihardetsi zion berehala: "Nere semetto guziz maitea, gogoari emana nion hurbilsko ikusiko zintudala aphez eta zure alderat bilduko nintzela, hiltzeko. Ametsak! Bainan deusik ez dut eginen zu, hartu duzun chede handitik urruntzeko: Jainkoak urrunerat deitzen zaituenaz geroz, zoazi. Deusek etzaitzala gibela. Badakit goldeari lotzen denak ez duela gibelat behatu behar. Badakit ere Jainkoaren deiari jarraikitzeko aitamak uzten dituena, Jainkoak ez duela uzten, bainan ba ederki laguntzen eta sariztatzen. Aski da hola. Nik baietz erraitea nahi baduzu, haur maitea? Bai, zoazi. Nik benedikatzea nahi duzu? Bai, benedikatzen zaitut. Eta nere bihotzmin guziaren gatik, atsegin hartuko dut zure atseginaz: zoazi beraz. Azken agurraren eguna baino lehen, har zatzu nere musu gozoenak".

Azken agurra! Jada bazakien Theophane gazteak zer gostako zitzaion agur hori. Alabainan, munduan oro baino maiteago zituen aita, bi anaia eta arrebak utzi beharko zituen! Ama hila zuen jada, doidoia hamahirur urthe zituelarik. Bainan aita han zen oraino etchean bere ile churiekin, han ere arreba on bat, han bi anaia maite, bat jada aphezten hasia, eta horieri agur erran beharko zioten bethikotz. Bethikotz! Utzi beharko zituen, gibelat behatu gabe!

Sakrifizio handia! Ez da handiagorik lurrean. Bainan otsailaren 27an, belhauriko aitaren aintzinean, misionest-gaiak gogotik egin zuen sakrifizioa halere. Eta aitak benedikatu zuelarik, nigarrik gabe ihardetsi zion: "Aita, etzaitut gehiago ikusiko lur huntan. Halere, ikus arte. Bainan ikus arte… zeruan!"

Poitiers-eko geltokian hartu zuen Pariserako treina, Beneditano batek harat segiturik. Treina abiatzean Beneditanoak oihu egin zuen oraino: "Agur, eta agur: etzaitela batere lotsa: Aphezpiku bezala ikusiko zaitut oraino hemen gaindi". Eta misionest-geiak ihardetsi zion: "Ni, Aphepiku? Mila aldiz nahiago dut martir!" Haurreko amets bera oraino! Ametsa, ala Jainkoak igorri aintzin-argi bat?

[14] Elissaldek hitz hau baino lehen *Bainan* idatzi du. *Bainan* delakoa ezabatu eta esaldia *Jada* batez hasi du Elissaldek.

II

Horra Thophane Venard Pariseko misionest-ikastegian. Zer atsegina harentzat Jainkoak hautatu bidean kausitzea eta nola eman zen berehala lanari misionesgoari doazkon jakitate eta saindutasunaren lehenbailehen ukhaiteko! Hala-hala, handik laster misionesten buruzagiek etzuten aski espantu misionest-gai gazteaz.

Eta berak zer othe zion? Huna ilabete bat eta erdiren buruan zer erraiten zion bere arrebari: “Oi, zoin maite ditudan etche huntako ichiltasuna, hemengo ikasgai/guziak, nere lagunen begitartea, eta guziz hemengo kapera ederra bere orhoitzapen handiekin eta airean dabilan hainbertze martir sainduen usain onarekin!”





103

Theophane Vénard dohatsua

I

1940! Duela ehun eta hameka urthe, hazilaren 21ean sortu zen Theophane Venard, St Loup-sur-Thouet deithu herrichkan, Deux-Sevres-etako departamenduan. Aita eta ama girichtino hoberenetarik zituen: egun berean bathaia-arazi zuten beraz ~~[illegible]~~ haurra. Aita errienta zen: herriko haurreri harek erakasten ziozkaten othoitzak eta katichima: orobat harek zaintzen zituen igande guzietako meza-bezperetan. Ondikotz, etzuen hain osagarri ona amak, eta elizako urratsetarik kampo guti ikusten zen bideetan.

Jean-Theophane Venard haur erne eta bichi bat izatu da, eta bichia bezen jostakina. Eskolarat abiatu orduko, hainitz pausatu zen haatik. Eta liburueri zoin gogotik eman zen!

Eskolako orenetarik kampo aski lakhet zuen sukaldean amattoren laguntzea, bainan oraino lakhetago etcheko ahuntzaren zaintzerat joaitea norapeit. Egun batez, demboraren aiseago iragaiteko, Fedearen Hedameneko liburu bat berekin eremanik, etzen guti harritu han ikusteaz nola paganoek Tonkinen hil zuten Charles Cornay. Bada, Charles Cornay herritarra zen. Herritarraren heriotzeak hala hunkitu zuen nun arrats hartan berean hauzoko andere bati martiraz mintzatu baitzitzaion: «Anderea, badakizu Charles Cornay, Tonkineko eskualdean martir hil dela?» — «Ba, badakit, haurra: heriotze ederra segurki!» — «Ni ere Tonkinerat joanen naiz handitzearekin.» — «Zertako?» — «Charles Cornay bezala martir hiltzeko!» Andereak etzuen orduan nihori deusik erran, bainan geroztik zenbeit aldiz errepikatu ahal ditu Theophane ttipiaren hitzak!

Doué-la-Fontaine delako hiriak ez ditu eremu handiak, bainan han bada bederen ikastegi bat hauta. Harat igorri zuten Theophane, aitari apheztu nahi zuela erran zioneko. Han bururatu behar zituen eskolak. Hartze onekoa, bethi lagun guzien aintzinean ibili zen orotan. Bainan jada haren ikasteko errechtasunari bezen ohartuak ziren oro haren othoitzeko kharrari. Oraino odol beroskoa omen zuen haatik. Theophane Vénard ez bide da beraz ~~[illegible]~~ gero ezagutu dioten aingeru eztitasunerat bere jitea ongi eta ongi zapatu gabe heldu!

Hemezortzi urthetarat zoan, Montmorillon-eko eskola handiago batetarat igorri zutelarik. Etzuen urthe bat baizik han iragaiteko. Erran gabe doa ederki baliatu zuela hura ere, eta Poitiers-eko aphezgeikin zen ondoko urthean. ~~Bainan~~ Jada etzuen gehiago urrungo misioneak baizik gogoan eta misionest ona baino hobea izaiteko chedeak zabilkan orotan. Oro orok baino hobeki egin nahi zituen. Hainbertzetaraino nun diosesako Apezphikuak

Jean Elissalderen eskuidatzietako bat.

Egiazki, Pariseko misionest-ikastegi hortan zangoak emaiteko zoriona ukhan duten guziak ez dire bertzela mintzo. Bai, zoin maitagarriak diren etche hortan oro: ichiltasuna: othoitzak: liburuak: irakasleak! Hauk, urrungo misionetan ibiliak dira berak. Badakite beraz nola moldatu behar diren misionet-geiak. Holako irakasleekin Theophane Venard bezalako ikasleek bide egiten dute. "Egundaino etzuen deusetan huts ttipiena egiten" horra zer erraiten duten hartaz han ezagutu duten guziek. Egunetik egunerat saindutasunari buruz urrats handiagoak egiten ari zituen, eta etchekoak batere etziren harritu berak eginikako othoitz hau igorri ziotelarik, maiz eta maiz egin zezaken harekin batean: "Oi, nere Jainkoa, iduriz minez porroskatuak behar luketelarik, gure bihotzetan sor-araz zatzu kontsolamendua eta atsegina. Gure arteko atchikimendua sekulan baino azkarrago da, elgarretarik hain urrun garelarik bizkitartean, eta elgarretarik urrun, menturaz bethikotz. Oi Jauna, garbi zazu atchikimendu hori. Bai, maita dezagula segurki elgar, bainan maita zuretzat. Izan gaitela bat, bainan bat zu baitan. Halabiz".

Orai sakrifizio handia egina da. Orai misionest-geiak ez du gehiago gibelat behatuko. Ez ditu oraino hogoita bi urthe eta jada "han" nahi luke. Beraz zer egun ederrak harentzat diakretu eta apheztu den egunak! Ekhainaren 5ean apheztua, zonbeit egunen buruko bazakien buruzagiek erranik, urrungo misionetarat joaiteko hautatua zela. Huna zer erran zioten etchekoeri: "Berritz ere erran dezagun elgarrekin: Benedikatua izan bedi Jainkoa! Banoa beraz, etcheko maiteak, banoa, zuek oro hemen utzirik, zeruan baizik gehiago elgar ez ikusteko! Anverseko portuan hartuko dut untzia, Chinari buruz. Aita ona, arreba eta anaia maiteak, besarkatzen zaituztet nere bihotz guziaz".

1852garren urthea zen, buruila erditan goiti joana, bere egun argi eta gochoekin, Pariseko misionesten kaperan urthe guziez egiten den partiadako elizkizun ederra egin zelarik Theophane Venard eta bere lagunen ohoretan.

Hain chuchen egun hartan kaperan bazen soldado bat, Theophanen herritarra, ikusterat ethorria: Rene Midy. Laster ohartu omen zen bere adichkidearen begitarte sainduari. Misionest chahar eta misionest-gei, lerro-lerro oro hurbildu ziren misionest berrien ganat, zangoetan musu eman zioten, ohi den bezala, eta gero bi mateletan besarkatu. Misionesten kantua ari zen dembora hortan:

Zoazte berri onaren mandatari onak:
Zer gozoa zuentzat egungo egunak!
Ez, orai etzaituzte deusek estekatzen:
Zoazte, adichkideak! Zoin urus zarezten! etc.

Kantu horrek iduri zuen Theophane Venard gaztearen bihotzeko 104/ sentimendu eta aspaldiko ametsen erraiteko egina zela. Elizkizun ederra bururatu eta René Midy joan zitzaiolarik agur baten egiterat, misionestak bihotz guzia zabaldu zion, bere etchekoeri eginen zuen bezala. Soldadoak geroztik erran izan duenaz

"Thephanek etzuen gehiago gizon bat iduri, bainan Jainkoak zerutik igorri norbeit".

Etzen errech dembora hartan Chinarat heltzea. Nihor ez da beraz harrituko itsasoaren iragaiteko eta Hongkong-eko ugartean sartzeko Theodore Venard eta haren hirur lagunek lau ilabete handi eman zituztela erraiten badugu. Hongkongen, han kausitzen ahal diren bizitzeko errechtasunen gatik, Pariseko misionestek badute etche bat egina. Misionest berri guziek guti edo aski han egon behar dute, han gaindiko mintzaireri ohartzeko, hango bizimoldeari egiteko. Erran ditake Hongkong-en hartzen dituztela azken eskolak.

Errana dugu haurrean Tonkineko eskualdeaz egina zuela amets gure misionestak. Chinarat manatua zen eta arras buruzagien manuari zagon Theophane Vénard. Eta horra nun 1854ean, otsailean, Parisetik manu berri bat heldu zaion "Theophane Venard, berehala zoazi Tonkinerat". Zer atsegina! Ahuntzaren zain bidearen hegian amestua zuen bezala, Tonkinerat joan behar zuen! Huna zer ihardetsi zioten Pariseko buruzagieri: "Edozoin chokho maitatuko nuen segurki, bainan oro baino gehiago maitatuko dut Tonkineko chokhoa. Paregabea da neretzat. Milesker beraz. Jainkoari egun guziz othoitz egiten dut eta eginen bethi izan nadien misionest on eta saindu". Eta etchekoeri bereri ez diote gehiago gordeko egundainotik bihotzean garraiatu duen esperantza handia: "Tonkinerat igortzen naute! Tonkinerat noa! Charles Cornay gure herritarra han hil zen, martir. Han ichuri dute orobat beren odola, duela lauzpabortz urthe doidoia, aita Schoeffler eta Bonnart-ek. Han dire oraino erlisioneari gehienik aiher diren paganoak…".

Eta etchekoen guthunaren bururatzeko, hitz aski harrigarri hauk anaia aphez edo aphezgeiari buruz: "Errozu othoi Paziot jaun aphezari lehenbailehen molda dezan untzi bat nere ondokinentzat".

III

Tonkinerat joaiteko manua ukhan orduko, Theophanek kantu bat moldatu zuen misionest liburu guzietan irakur ditakena. Kantu horren arabera, segur Theophane Venard etzoala han eskuen gurutzatzeko chedearekin. Bidean hamabortz egun luze eman zituen/ eta uztailaren 13ª zen Vinh.tri delako hiri batean bere Apezpikua besarkatu zuelarik.

Berrogoita hameka urthe zituen Retord jaun Apezpikuak eta jada bazuen hogoita bortz urthe hurbil urrungo misionetan zela. Bihotz handi eta azkarreko gizona, eta behinere paganoek bake handirik utzi etziotena. Egundainotik haren oihua hau izana zen: "Biba gabezia eta gurutzea!" edo bertze hau: "Biba atsegina, halere!" Apezpikua eta misionest berria ongi elgar aditzeko eginak ziren beraz.

Iduri luke hoinbertze martir hoin dembora gutiz ikusi duen misione batek aski gaizki moldatua behar lukeela, han eta hemen deus handirik gabe, ez elizarik, ez komenturik, ez ikastegirik, ez eta bertzerik. Bada, itsasotik Ibai-Gorriraino doan misione hortan baziren elizak, baziren ikastegiak, bazen komentu bat, eta orotarat berrehun mila girichtino.

Erlisioneari eta misionesteri hain aiher zen erregea, Tu Duc, aski urrun egoiten zen handik: Hue-ko jauregian. Han gaindi Erregeren mandatari ziren suprefet eta gaineratekoekin elgar aditzea aski errech zen. Bertzalde Apezpikuak halako erroak eginak zituen herrian nun nihor ez baitzen gehiago menturatzen erhiaren altchatzerat haren kontra. Gogo onez eman nahi etziotena, Aphezpikuak bazakien bortchaz hartzen. Oro egun argiz eta agerian egiten zituen beraz. Theophane Vénard Vinh. Tri-rat heldu zen egunean berean, goizean eginak bazituen lau sudiakre, bortz diakre eta hirur aphez. Eta den gutienekorik gorde gabe gero!

Theophane Venard ilabete bat eta erdi egon zen apezpikutegian eta han indar berriak hartu zituen lanari lotzeko. Vinh-tri-n kausitu zuen eskolako eta bideko lagun handi bat, Joseph Theurel, orduan apezpikutegiko moldiztegiaren buruzagi zena. Urthe bat bazuen jada, Joseph Theurel han zela. Pentsatzeko da beraz kontseilu eta argi frango eman zituela bere adichkideari. Hain gogotik hartzen zituen oro! Eta dudarik gabe horra zertako igortzen zuen etcherat hitz hau: “Gocho da hemen bizitzea!”

Gocho segurki han bizitzea, bainan sobera iduritzen zitzaion, han luzez egoiteko, zokho guzietako paganoak oihuka ari zaitzaizkola, konbertitzerat joaiteko! Jada mintzaira bazakien guti edo aski. Hobeki ikas zezan, Apezpikuak igorri zuen Ke-Roan delako elizadian bizi zen herriko aphez baten ganat. Han zer jauzia egin zuen! Ilabete baten buruko predikatzen ari zen… anamitaz eta aditu zuen norbeitek dioenaz “haren predikuak arras pollitak ziren, argiak, eta gustagarriak!”. 105/

Umiasainduz eri zen haatik: eri, jada hirurgarren aldikotz, eta hirurgarren egoitza batean. Airez kambiatzeko, urez Ke.Dam-erat ereman zuten. Umiasaindusaindu arratsean urruna behar izan zuen handik ere, etsai batzueri eskapatzeko. Girichtino baten etchean behin gordea egonik, jo zuen Ithurri-Hori-ko ikastegiraino. Han kausitu behar zuen eta han kausitu aita Castex, Apezpikuaren ordaina. Agur erran zioneko, aita Castex-ek ihardetsi zion: “Hemen ez da bertze agurrik, gure jaun Apezpikuaren oihua baizik: Biba atsegina, halere!”

Ondoko bi urtheetan, oraino eri, ezin predika, ezin kofesa, ezin erietan ibil, aita Theophanek zenbatetan ez othe du oihu hori bere buruari errepikatu, ez lotsatzeko: “Biba atsegina, halere”. Alegeratu nahiko zuen eta gero eta eriago zoan, bethi eztulak ithoa, asma tzar batekin. Eta hola zelarik noiz-nahi ihesi joan behar berritz! Azkenean Apezpikutegirat joan behar izan zuen berritz. Nola khambiatua

jada! Apezpikuak besarkatu zuen: "Oi, nere haur maitea Jainkoari sofrikarioa galdetu diozu beraz bethiko laguntzat?" Eta hala-hala zen. Theophanek Venard aitak, bertzerik ezin gehiago eginaz, bere sofrikarioak eskaintzen zituen konberti ziten paganoak!

Misionest gazteak uste izan zuen orduantche harenak egin zuela, sekulan etzela altchatuko. Huna zer gaztiatzen zioten etchekoeri: "Jainkoak emana zautan osagarria eta Jainkoak khendu daut. Beldurra badut sekulan ez naizela sendatuko, ezkerreko bulharra bederen hunkitua duket. Bainan othoi etzazue odol gaichtorik egin. Othoitz egizue bakarrik eritasuna balia dakidan saindutzeko". Eta Pariseko buruzagieri: "Egizue hainitz othoitz, nere gorputza hiltzen bada, bizi dadien arima. Jesusek eta Mariak lagunt zaitzatela oro. Elgar ikusiko dugu zeruan!".

Eta egiazki haren arima bizi zadien, zer etzuen egiten misionest onak? Beha zen erraiten duen aita Thinh, gehien-gehinik ikusi duen aphez anamitak: "Ez ditake erran zoin kartsua zen, zenbat othoitz egiten zuen Jainkoari eta Ama Birjinari. Eri handi zelarik, zenbatetan ez du mina garhaitu Meza Saindua, liburuko othoitz handia eta Arrosarioa erraiteko! Ez dut arras ezinbertzean baizik ikusi horien uzten. Meza Sainduaren aintzinean luzez belhauniko egonen zen bildutasun handienean, gero kartsuki erranen zuen meza, ez lasterregi, ez emekiegi, hein on batean. Meza ondoan, mirikuak manatu erremedio bat hartu orduko, berritz othoitzean hasiko zen, Jainkoari eskerren bihurtzeko. Liburuko othoitz handia bethi oren beretan erraiten/ zuen eta othoitz ez du naski egundaino utzi, Apezpikuak berak arrosarioa manatu dien[15] egunetan baizik. Arratsetan etzen sekulan ohean sartuko azken arrosario bat erran gabe. Theophane Vénard erran ditake othoitzez ezin asea zela".

Eri, etzezaken ez predika ez kofesa elizan. Bainan zenbat girichtino etzitzaion gambararat heldu. Nihaur hari kofesatzen nintzen. Ez ditake asma hura baino gidari hoberik nihorentzat, eta bereziki zoin ederki eta zer amodiorekin mintzo zitzaitzun Ama Birginaz!".

Bai, jada saindutasuneko bidean han-harat joana zen Theophane Vénard: hemendik goiti erranen ditugun guziek ez dute bertzerik frogatuko.

Misionest gazteak segurki uste izan zuen hiltzea udako bero ikharagarrietan. Ez da gaztetasuna bezalako erremediorik eta, udazkena ethorri orduko, phizkortu zen.

Horra aita Theophane Venard chutik. Zer galdetzen du berehala? Berritz paganoen erdirat joaitea. Apezpikuak etzuen utzi, segur on zukeela pausatzea oraino. Ondoko Haustez berekin ereman zuen haatik konfirmazioneko itzulia diosesan egiteko. Oi, misionest gaztearen zoriona!

---

[15] Zer jartzen du eskuidatzian *duen* edo *dien*? Guk uste *dien* jartzen duela.

Herriz herri ibili ziren, orotan predikatu, orotan kofesatu: Kien-Be eta But-Son deithu herrietan egon ziren gehienik, nihun ez baitzen han bezenbat girichtino: batean bi mila, bertzean mila. Aphezpikuaran orduko izkiribuetan irakurtzen dugunaz "lan handia egin zuten". Aste Sainduko Ithurri-Horietan ziren…

Aphezen urratseri hain aiher ziren eskualde batean, nola ibil zitazken hola? Theophanek etcherat igorri guthun batek ihardetsiko du galde horri: "Ez da dudarik: Jainkoak zaintzen gintuen eta Andredena Mariak laguntzen!".

Itzuli handi hori bururaturik Apezpikua bere egoitzarat itzuli zeneko, harat bilduak ziren jada diosesako aphez guziak, elgarrekin urtheko erretretaren egiteko. Zer egun gocho eta sainduak iragan zituzten elgarrekin Mgr Retard, Mgr Jentat, aita Castex, aita Titaud, aita Charbonnier, aita Theurel, aita Mathevon, aita Vénard eta aphez anamita guziak!

Bakotcha bere alderat abiatu zireneko, dembora hurbildua zen nun urthe guziez Ibai-Gorria bere errekatik jalitzen baitzen burrumban, beretarik egiteko. Desmasia ikharagarrienak egin zituen urthe hartan. Vinh-tri etzuen haatik guti baizik jo, aita Theophanek pezoin handi batzu aspaldi eginaraziak baitzituen uren oldarraren hausteko. Hala-hala urek berritz errekan sartzean han-hemenka utzi zituzten zikhinkeriekin[16]/105, zer izurritea gerochago! Gutiz gehienak eritu ziren hirian. Oro baino lehenago, Theophane Venard. Gutik egin zuen sukhar ustelak ez baitzuen ereman. Sasi-miriku batek aski laster sendatu zuen halere bere gisako erremedio batzuekin. Hola nun Apezpikuak gerochago Pariseko buruzagieri hau heltzen baitzioten: "Aita Theophane Venard? Berritz arrosa bezen fresko da eta choria bezen alegera. Oraiko ustearen arabera, lehengo eta behingo misionest da segurki!". Bainan nork dakizka sekulan Jainkoaren chedeak?

IV

Hue-ko jauregitik ethorri manu guzien gatik, ordu arte Ninh-tri-ko inguruetako suprefetek etzioten gerla handirik egiten misionesteri. Suprefet horietarik handiena –eman dezagun prefeta zela– Hung delako bat, berenaz arras eztia zen, eta etzuten harek baino gehiago egin nahi bertzeak. Alabainan Hung etzen nor-nahi: Tu-Dug erregearen aitaginarreba zen. Demboraz begietako min tzar batekin egona zen eta Apezpikuaren katichima erakasleetarik batek sendatua. Katichima-erakasle horrek Paul Tinh zuen izena eta dembora hartan preso zen. Hung sendatzea sari bazuen paper balios bat ukhana: nun-nahi eskola bat idek zezaken eta erakats. Vinh-tri-ko eskolako buruzagi zen mementoan.

[16] Hitza bi orrialdetan idatzi du, batean *zikhinke* eta bestean *rietan*.

Horra nun girichtinoen kontrako errabia berri bat lotzen zaion Erregeri: Zer? Aita Schoeffler eta aita Bonnard hilez geroztik, hainbertze suprefetek ez dutela gehiago aphez bakhar bat nihun atchemaiten ahal? Eta eskuin eta ezker manu berriak igorri zituen suprefeteri, higi ziten beren onetan. Eta bazterrak higitu ziren eta suprefetak berak buru orotarat hedatu soldado tropak. Vinh-Tri inguratu zuten eta laster hartu. Ustez bere paperarekin zer nahi ardietsiko zuen, Paul Tenh joan zitzaion suprefetari. Suprefetak papera sakelan ezarri zuen eta Paul Tinh preso altchatu, bere burua jujeen aintzinean garbi zezan. Bildu ziren jujeak, Hung buru. Paul Tinh bere aintzinean ikusi zuelarik harritu zen. Zuzen kontra emana zion papera ukhatu zuen beraz... eta Paul Tinh hiltzerat kondenatu. Apirilaren 6ean martir bat gehiago bazen Tonkineko lurretan!

Viinh-tri erroz gora ezarri zuten laster soldadoek. Beharrik, Mgr Retard jada norapeit itzalia zen bere aphez eta ichtudiant guziekin. Bainan ondoko egun batez aita Charbonnier[17]/ eta aita Theophane Vénard lagun harturik, berritz bere hiri maiterat itzuli zelarik, zer bihotzmina! Gutik egin omen zuen ez baitzen alditchartu eta lurrerat erori. Laster berebaitaratu zen halere eta Jainkoaren ganat itzuli, bethiko hitzak ezpainetan: “Biba atsegina, halere!”.

Etzen haatik misionestentzat gehiago hiri hartan bizitzerik: zelatariz emokatua zen Hung bera, bezperan oraino, ichilka bederen, girichtinoen adichkidea, etzen gehiago batere gizon ezti bera: burutik joana iduri zuen. Etzuten misionest gaichoek bakotcha bere alde joaitea baizik. Mgr Retard eta aita Charbonnier-ek hartu zuten oihan handi batetako bidea eta aita Theophane Vénard abiatu zen Ithurri-Horietako eskualdeari buruz.

Noizpeit harat heldu zelarik, zer bihotz haustea! Aita Castex lurrean etzana zen, ezin higi, erromatismek jana. Etzen urrun joaiten ahal gaicho misionesta. Doidoia elizakoen hartzeko dembora ukhan zuen eta hil zen. Apezpikuaren ordaingoa hilak egiten zuen eskualde hartan. Hilaren kargua aita Teophane Venard, oraino hain gazteari, eman zion Apezpikuak. Etzitaken hautu hoberik. Etzen batere urguilutan sartu eta huna, labur laburra, zer erraiten zion ondoko egunetan bere arrebari: “Hemendik goiti herriz-herri ibili beharko dut nahi eta ez, oro ongi doazin ikusteko, makhur doazin guziak chuchentzeko, behar orduetan dispentsa zenbeiten emaiteko, bai eta zenbeit aldiz Apezpikuaren plazan konfirmatzeko. Orobat erretreta zenbeit beharko dut predikatu. Hitz batez, begiak idekiak atchiki beharko ditut, orai arte baino hobeki, fedea azkar eta garbi egon dadien bihotzetan”.

---

[17] Orrialde-aldaketa, batean *Char*, eta, bestean, *bonnier* jarri du Elissaldek.

Eskualde hartan bada hirur ehunbat mila pagano. Misionestak ez ditu segurki oro ikusten ahal. Halere aita Theophanek zenbat bathaio etzuen egin han gaindi, zenbat eri ikusi eta konbertitu. Bethi gordeka ibiliz haatik!

Artha handia hartzen zuen, orobat, meneko zituen aphez eta katichima erakasle guziez: etzioten gutitan errepikatzen orok baino hobeak izan behar zutela, orok baino othoitz gehiago egin, ikasteko orok baino liburu gehiago irakurtu. Sakelako sosak etzituen aski batzuen eta bertzeen laguntzeko. Han gaindi ez dute behin ahantziko nola behin bere soineko ederrenak eman ziozkan erromes bati, ahalgerik gabe joan zadin mezarat eta misionestaren ikusterat.

Eta zer mina zabilkan bihotzean ikusiz guzien gatik, oraino hainbertze eta hainbertze pagano belhauniko Jainko faltsoen aintzinean: "Oi, zoin nigar-egingarri den eskuin eta ezker behatzearekin[18] /107 hoin eliza guti ikustea hoinbertze herritan! Debrua da nausi: Jesu-krichto gure Jaunaren adichkideak gorde behar dute, ez badute gaichtoek hiltzerat kondenatzea nahi!"

Bainan huna nun oraino gehiago phizten den girichtinoeri hasia dioten gerla. Soldadoak etchez etche abiatzen dire nun zer ikusiko duten, nun nor atchemanen duten. Gehiago dena bide gurutze guzietan gurutze batzu zabal-zabala emanak dituzte, orok zangopean erabil detzaten. Nor-nahi preso baderamate: bi Apezpiku: zenbat aphez, eta katichima-erakasle hainitz. Hainbertze girichtino berri, bertzalde. Eta berritz odola purrustan ichurtzen hasten da. Bi Apezpikuetarik bati lephoa moztu zioten, bertzea mila pusketan ezarri. Eta nor zen berritz ere gaichtaginen manatzaile eta buruzagi? Hung.

Eskuin eta ezker bildu zituen zituenetan, batzu baziren Hung-ek hainitz gehiago kitzikatzen zituenak: aphez churiekin bizi ziren hango aphez eta katichima-erakasleak. Aphez churiak nun gordeak ziren erran-arazteko zer etzuen asmatzen? Zango azpiak larrutzen ziozkaten, behatzak errotik atheratzen, gorputz guzia burdin gorriekin erretzen. Eta holako! Bainan girichtinoek, hango aphezek eta katichima-erakaslek ez dituzte ezpainak egundaino ideki othoitz egiteko baizik!

Horra zertaratua zen Hung. Ithurri-Horietan etzuen ikustekorik. Sudurra sartu zuen halere eta Erregeri jakinarazi han gaindi bazela frango aphez oraino, eta hainitz girichtino. Horra zertako 1858ean, ekhainaren 11an hirur mila soldadoz goiti etche guzian harrotzen hasiak ziren argiko. Hirur aphez anamita atchemanik, laster hilarazi zituzten. Bainan aita Theophane Venard, aita Theurel eta ichtudiant bat mendietarat eskapatuak ziren ordukotz. Zelatariak hurbildu ziren, ondikotz, harat ere, eta bakotchak bere alde hartu zuen.

---

[18] Transkribatzaileak *behatzearekin* bi orrialdetan idatzi du, batean, *behatze,* eta, bestean, *arekin*.

Aita Theophanek nahiago izan zuen hiltzekotz, bere girichtinoen erdian hil eta etzen hainitz urrundu. But. Dong-en bada serora komentu bat: harat jo zuen eta han atherbea galdetu. "Mariaren adichkideek" lorietan eman zioten bat, komentutik aski hurbil. Han aski trankil bizitzen ahalko zen, behin bederen, aita Theophane Venard. Etzen eskuen gurutzatzeko egina: lana behar zuen, lana nahi, eta laster, irrisku guzien gatik, eskuin eta ezker hedatu zen.

Bi urthe, lanez betheak, bi urthe handi hantchet iragan zituen. Zer ongia eginez! Nihori etzion halere "Mariaren Adichkideeri" bereri bezenbat egin, elheez baino gehiago etsenpluez: "Ez da gisa guziez aphez sainduagorik agertu gure eskualdetan[19]"/ erranen dute hainbertze serorek Erroman, Theophane Venard dohatsuen herrunkarat altchatzeko auzia hasiko delarik.

Behin, ikusterat joaiteko zukeen irrisku handiaren gatik, serorek batere etzioten erran nunbeit bazela eri handi bat. Nola kechatu zitzaioten jakin zuelarik!: "Gizon gaichoa sakramendurik hartu gabe hil balitz, nork izanen zuen hobena? Nahiago dut, gero, nihaurek hil, laguntzarik gabe nor-nahi hiltzen ikusi baino!"

Gerizatik athera etzitakelarik, liburuetan iragaiten zuen bere dembora. Hura bezalako gizonek sekulan ez dakite aski! Horra zertako orai herri hetarat doazin misionestek ez duten ordukoek bezalako buru hausterik: liburu gehienak badituzte hango mintzairan eginak. Ez gerizatik athera etzitakelarik ere, etzagon lo aita Theophane Vénard….

V

1860: urtharrila. Aita Theophane Venard But-Dong-en zagon, emazte erromes baten etchean gordea. Berri-berritan aphezpikutua, Joseph Theurel ere harekin zen. Zer bihotzmina ukhan zuen aita Theophanek Mgr Retord apezpiku adichkidearen hil berria ekarri ziotelarik! Zer bihotzmina orobat "Mariaren Adichkideen" komentu maitea paganoek erroz gora ezarri zutela ikasi zuelarik! Serora guziak alde guzietarat barraiatuak ziren. Ondikotz, zerbeit gehiagoren jakiteko, bera nihorat etzitaken mentura. Choko-moko guzietan etzen gehiago zelataririk baizik. "Menturaz, –etchekoeri erraiten ditu hauk nolazpeit igorri guthun batean– menturaz, galdetuko dautazue nola bizi naizen sekulan argirat atheratu gabe, airerik gabe, higitu gabe? Galde dezadazue orobat nola ez dutan burua galdu? Nere zilhoan ezin chuti, urrats bat nihorat ezin egin: armiarma, garratoin eta aphoak jana! Eta horien gainerat sekulan berri on bat ez ikasten: bethi tzarrak: bethi gero eta tzarragoak! Eta ezin jakin holako bizia noiz bururatuko den! Orai eta bethi ez dut hau baizik erranen? burua ez galtzeko, zerutik norbeitek ongi lagundu nau!".

[19] Bi orrialdetan idatzi du *eskual/detan* hitza.

Oren gaichtoetan ez bazuen burua galdu, eta gehiago dena bethi alegera egon bazen, froga da hiltzeak etzuela hainitz lotsatzen, froga Jainkoaren aintzinean agertzeko 108/ prest zela. Etzuen dudarik, bertzalde, gerlaren ondotik bakea ethorriko zela. Bake eder eta aberats bat Tonkineko Elizarentzat.

Zerbeitek erraiten zion haatik bakearen eguna etzuela ikusiko, bainan halere bake horrentzat ari zen lanean bere zilho latzgarrian. Haren arabera bakea ethorri eta zer egin beharko zen paperean ezartzen ari zen, norbeitek balia zezan egun batez. Han ere etzuen demborarik galdu nahi...

Gau batez, ilhun tuntari oharturik, handik ihes egitea deliberatu zuen betbetan eta lasterka jo zuen Dong-Bao-rat. Etzuen han ere hainitz kokatu behar. Jada ikusten bezala zuen "orena" hurbiltzen ari zaitzaiola. Oren handia! Haur haurretik igurikatzen zuen orena! But-Dong-eko komentutik urruntzean seroreri errana zioten: "Banoa hemendik segur nere odola Jainkoarentzat ichuri beharko dutala! Nun eta nola, ez dakit. Bainan segur naiz!" Bada, egunetik egunerat segurago iduri zuen…

Egia erran, aspaldi etzuen bere othoitz guzietan bertzerik galdetzen: martir hiltzea. Apezpikuari galdetu zion chede hortarat othoitz egiteko baimena! Galdetua… eta ardietsia zuen.

Hori ardietsi zuelarik[20], etzen haatik choro bat bezala bidez bide abiatu, lehenbailehen atcheman zezaten etsaiek: gordeka ibili zen oraino eta bethi, chendra gaichtoenetan barna, ahal bezenbat demboraz ongia egiteko. Jainkoak nahiko zuen arte, hots! Hazilean, egundaino bezala But-Dong-en zen. Horra nun ikasten duen Mgr Jeantet bere mendietan arras eta arras ezintzen ari dela. Etzaio gisa, hura oraino aski aise bizi delarik, Apezpikua ezin biziz ibiltzea, eta jakin-arazten dio But Dong-en hobeki litakeela, ethortzeko, hura joanen dela mendietarat. Eta aita Theophane Venard lothu zen bideari. Aski gaizki hartu zuten Kim-Bang-en eta etzen gelditu. Dong-Bao-rat jo zuen eta han, Pierra bere katechima erakasle hoberenarekin, andere Can, hautuzko girichtino baten etchean gorde. Etchea ugarte batean da. Ez du iduri sasoin hartako urekin nihor menturatuko dela harat. Ondikotz, andere onaren jendakian[21] baziren paganoak eta batek salatu zituen.

Biharamun goizean soldadoek preso zeramatzan aita Theophane Venard eta Pierre katichima-erakaslea, hura gaichtagin handiak bezala kaiola batean preso, zortzi gizonak bizkarrean, eta hau, taula zilhatu batean burua sartua, oinez. Etzu-

[20] Lehen idazkeran, *Hori ardietsi zelarik* jarri du Elissaldek. Gerora zuzendu du adizkiaren gainean, *ze– horren* gaintxoan, *–u–* bat jarririk.

[21] Elissaldek nola idazten du eskuidatzian *jendakian* edo *jendekian*?

ten ihes abiatzeko beldurrik. Phu-Ly-ko presondegirat ereman zituzten, suprefeta herri hortan egoiten zelakotz. Harat/ orduko misionest gaichoari gathe bat ezarri zioten lephotik, zangoak ere hartzen ziozkana. Ongi preso zen. Preso, bethikotz. Hitz hau etcherat igortzen ahal izan zuen haatik, nolazpeit: "Nere maiteak: Jainkoak nahi izan du oraikoan gaichtoek atcheman nezaten. Hazilaren hogoita hamarrean atcheman naute eta kaiola batean preso ekarri. Bihar suprefetaren aintzinean agertu beharko dutala jakina dut, jada. Ez naiz lotsa: Jainkoa nerekin da eta Andredena Mariak ez nau ahantziko. Agian hitz bat edo bertze igortzen ahalko dautzuet oraino. Bizkitartean, zer gerta ere, zaintzale pagano baten bidez nere azken agurra balitz bezala igortzen dautzuet agur hau. Orai arte bederen suprefetak ez daut ongirik baizik egin eta ez dezaket segurki erran gaizki-gaizki naizela. Hainitz jende heldu zaut ikusterat eta ororekin mintza naiteke. Erran gabe doa ororí erlisioneaz mintzatzen nitzaiotela, eta badire frango arras gustatzen zaiotenak. Kasik konbertitu nahi lukete, bainan Erregeren beldur dire. Horra beraz nun naizen martiren bidean, orai: egia da Jainkoak egundainotik ttipiak hautatu dituela handien erhausteko! Nere guduak ikasi orduko agian ikasiko ditutzue orobat nere garhaitiak. Ez dut hortako nere indarretan kondatzen, bainan bai Jainko guziz botheretsuak igorriko dautan laguntzan. Etzaituztet ahanzten: bainan martir hiltzen banaiz, oraino gehiago orhoituko naiz. Jainkoa baitan agur, guziz maiteak! zeruan elgar ikusiko dugu". Bainan Phu-Ly-n etzen deusik gertatu. Abendoaren 4ean Hanoi-ko hiri nausitzat ereman zituzten hirur ehun soldadoek, aita Theophane Venard bethi bere kaiolan, Pierre oinez eta bere taula lephotik. Etzen oraino eguna.

VI

Hanoi-ko bidean ez omen zen segurki nigarrez joan aita Theophane Venard: "Zoriona ageri zuen begitartean" dio bidean ikusi zuen norbeitek. Berak urtharrilaren 2an igorri guthun batean, huna zer erraiten duen: "Ikusten nauzue trankilki nere kaiolan, ikusteko bildua den jendetzearen erdian? Noiz-nahi adi nezaken: Zoin pollita den gizon churia! Iduri luke horren begitartetik phestarat deramatela! Ez ahal da biziki lotsatua! Ez du bekaturik horrek! Etzen Anamerat ongiaren egiteko baizik ethorria, eta halere hiltzerat kondenatuko dute!/109 Kondenatuko dudarik gabe!"

Hanoi-en jujeak beha zauden jada. Juje-nausiak egin ziozkan galde guziak.

–Zertako ethorri zare gure Anamerat?

–Egiazko Erlisionea ezagutzen ez duteneri ezagut-arazterat.

–Nork igorri zaitu?

–Ez Frantziako erregeak, ez-eta Frantziako bertze buruzagiak: nere-nere baitarik nahi izan ditut paganoak konbertitu eta eskolako buruzagiek gidatu naute hunat.

–Badakizu gure legeak gizon churieri debekatzen diotela lur hautan sartzea? Zertako beraz hunat ethor heriotzearen ondotik?

–Nausien-nausiak, zeruko Erregeak manatzen dauku ez dakiteneri erlisionearen predikatzea! Nun-nahi bizi diten lurreko Erregeeri obeditzen dugu, bainan are gehiago zeruko Erregeari!

–Hiltzeak etzaitu lotsatzen?

–Batere. Bertzalde, hunat egiazko sinhestearen hedatzerat ethorria bakarrik, etzait iduritzen heriotzerik merezitu dutala, bainan Anamitek hil-arazten banaute, gogotik hilen naiz Anamitentzat.

–Herrarik baduzu preso hartu zaituztenen kontra?

–Den gutienekorik. Gure Erlisioneak etsaien beren maitatzen manatzen dauku.

Gurutzefika bat eskuetarat eman zioten hainbertzenarekin eta zangopean ibil zezan erran, hiltzerat kondenatzea nahi ez bazuen. Misionest sainduak hartu zuen gurutzefika eta besarkatu ondoan juje-nausiari ihardetsi:

–Zer? Gurutze maite hunen erlisionea predikatu dut orai arte, eta nahi zinuke ukha dezadan, lotsaz? Bizia ez dut aski maite, holako itsuskeriarik egiteko.

–Bainan hiltzeak hoin guti lotsatzen eta, nola bada gordetzen zinen guk ez atchemateko?

–Jainkoak ez du nahi nihork sobera konda dezan bere indarren gainean eta bere burua etsaieri eskaint dezan. Bainan ni preso hartzea onhartu duenaz geroz, badakit ez nauela utziko, bururaino lagunduko nauela!

Katichima-erakasle dohakaberen aldi, gero. Ederki ihardetsi zuen harek ere galde guzieri. Alta, makilkaldi ederrik hartu zuen burutik beheiti, bainan etzioten amor eman-arazi. Nihor etzen haatik menturatu misionestaren hunkitzerat erhi puntaz ere. Bainan Pilatus berriek hiltzerat/ kondenatu zuten. Katichima erakasleak lekhuak hustu behar zituen, bakarrik. Eta bi jujamenduak igorriko[22] ziozkaten Erregeri, bere zigiluan finka zetzan.

Aita Theophane Venard ezarri zuten kaiola berri batean eta berritz presondegirat ereman. Eskualde hartan etchekoek eta adichkideek jatekoa igor dezokete

[22] Nola da *igorriko ziozkaten* edo *igorri ziozkaten*? Eskuidatzian *–ko* ezabatuxea da eta dudak ditugu batera edo bestera transribatzeko.

preso duten jende edo adichkideari. Juje-nausiak bere gain hartu zuen misionestaren haztea. Etzuen haatik luzez atchiki behar hitza, eta bertze norbeit urrikaldu ez balitz, aita Theophane Vénard laster hilen zen gosez!

Handik goiti misionest maiteak ez du gehiago sainduki hiltzea baizik ukhanen buruan. Ezin sinhetsia da haren zoriona. Komentuetan fraile eta serora-geiek erretreta bat egiten dute, botuak egin baino lehen: aphezgeiek orobat, apheztu aintzinean. Martir-geia hala hala eman zen erretretan. Hil baino bi ilabete lehenago, arras bere baitan sartua zen. Haren atsegina hain handia zen haatik nun, noiznahi, kantuz hasia baitzen zaintzaleen sudurrean.

Zaintzale horietan bazen soldado girichtino bat. Bere burua berehala ezagutarazi zion misionestari. Hunen azken berriak haren bidez dakizkagu. Azken bi ilabete horiek, ichtudiantak bere dembora bezala iragan omen zituen: Othoitz-handiko liburu eta arrosorioa bethi eskuetan, othoitz berak bethi oren beretan erranez, batzuetan chutik, bertzeetan belhauniko. Gauaren parterik handienean[23] ere othoitzean iragaiten, edo elizako kantu ederrenen kantatzen: Ave Maris Stella, Salve Regina eta bertzeak. Eguberriz, eguberriko kantuak eman omen zituen haatik, lerro-lerro, oro gogoz.

Polizako gizon bat ere, girichtinoa, aski maiz ethortzen zitzaion ikusterat. Hunen bidez asko eta asko letra igortzen ahal izan zituen eskuin eta ezker, bereziki Mgr Theurel, bere adichkide handiari. Batean komunione Saindua galdetu zion. Bainan nola egin? Ostia Saindua untzi batean ezarririk, untzia emazte chahar bati fidatu zion, eta emazteak presondegirat heldu. Geroztik hainitzetan komuniatu zuen misionestak, hola. Delako emaztea aski maiz presondegian zabilan, preso zireneri puskateria batzuen saltzen. Erran gabe doa girichtinoa zela.

Zaintzaleen aintzindaria ohartua zen emazte chahar haren jokoari, bainan etzezaken sala: bera girichtino[24] zen. Gehiago dena, behin berak aphez bat kaiolatik hurbil-arazi zuen, aita Theophane Venard kofesa zadien. Oro beraz, erran ditake kasik nahi bezala zoazkiola misionest sainduari. Salbu, Tu-Duk bethi (110)/ ichilik zagon, eta martir-geia beha zagon manua etzen ageri. Zeruetarat hegaldatu nahia zen, aspaldi.

VII

Erran ditake saindutasuneko gradu gorenerat heldua zela orduan Theophane Vénard. Etzituen halere hautsiak lurreko lokarri maiteak. Ikusterat heldu zitzaizkon bi chaharreri paper eta lapitzak galdetuak ziozkatzen. Ekharri zituzten.

---

[23] Eskuidatzian, *handienia* ikusten dugu.

[24] Ez gaide seguru hemen *girichtino* idatzi ondoren –a ttipi bat jarri ote dion hitzari: *girichtinoa*.

Geroztik zer eskutitz miresgarriak bere buruzagieri, bere adichkideeri, eta guziz etchekoeri! Huna eskutitz horietarik zenbeit.

"Geandet jaun Aphezpikuari eta aphez-lagun guzieri: Nihork ez daut tapalako bat bera eman: nihork ez nau trufatu. Orok aldiz begitarte ona egin dautet. Uste dut nihork ez luken nahi hil nazaten. Guti jasaiten dut beraz bertze zenbeiten aldean. Askiko dut doidoia buruaren eskaintzea eta zeruan izanen naiz Jesusen aintzinean: Jauna, huna zure martira. Eta Andredena Mariari hurbildurik nere martir-korona eskuetarat emanen diot: Agur, Ama; agur, Erregina! Eta orduan martiren sailean sartuko naiz bethiko. Halabiz:

Agur, adichkideak, adichkide onak,
Ilhuntzen ari baita, parti gaiten denak:
Bainan ichil zatzuen zuen nigar minak,
Nihun ez du parerik nere atseginak!…"

"Mgr Theurel bere adichkideari: Jaun maitea, huna nun hurbiltzen ari zautan aspaldi igurikatzen nuen eguna: menturaz, bihar izanen da. Nola-nahi, laster ditake. Nere kaiolako oren luzeetan jada izpirituz zerurat airatzen naiz noiz-nahi. Bai, joantchea da dembora: adios erran behar dugu elgarri. Zuk San Martinen hitza errepika zazu: Jauna, zerbeitetako on banaiz oraino, lanak ez nau lotsatzen! Nik aldiz erranen dut: Joaiteko orena hurbildua da: Kristo da Bizia: neretuko dut nere heriotzeaz! Erranen dut orobat liburu sainduekin: Oi, zoin ederra den sainduen egoitza! Boza bat jada aditua badut: Zorion Jainkoa baitan hiltzen direneri! Behinere zerbeitetan huts egin badautzut, othoi barkha zadazu. Nork ez lezoke barkha Jesu-Krichtorentzat preso denari? Nere azken agurra doala nere Aphezpiku onari eta nere aphez-lagun guzieri. Ez dakit bertze hitzik hel-arazten ahalko dutan. Gogotik lanean ariko nintzen zuenkin: hain maite nuen misione hau! Izerdien orde, Jainkoari eskainiko diot odola… Ezpata hor dut buruaren gainean, eta ez naiz lotsa! Jainkoak laguntzen nau, zer atsegina dutan! Noizetik noizerat kantu batzu kantatzen diozkatet eta zaintzen dauden soldado gaizoeri!… Burua moztuko dautedalarik, Ama Ona, har zazu zure/ zerbitzari ttipia. Ave Maria… Jauna, zuri eta orori, agur!"

"Venard jaunari: Aita maite-maitea: erregeren hitzak luzatzen du: eskutitz hau igor dezakezut beraz oraino. Presondegiko bizia ez da hain ezin jasana. Guziek aski begitarte egiten dautet: zenbeit badire maitagarriak. Handienetik ttipienerat, orok nahiago lukete naski ez banintz hiltzerat kondenatua. Ez dut orai arte deus ikusi: gero ez dut deus handirik ikusiko, ezpatakaldi ttipi batek lephoa moztuko dautanaz geroz, nausiak behatzkaldi batez baratzean lorea mozten duen bezala. Oro, lore batzu gare lurrean, Jainkoak mozten dituen lore batzu. Zenbeit goizago, bertzeak berantago. Ez dire bardinak arrosa, julufraia eta bertze loreak: bakhotchak badu bere usaina. Gu ere gusta gakiola nausiari gure usain edo distiradura-

rekin… Aita maitea, chahar zaite eta saindu. Bizi huntako gurutzea arinki eremazu heriotze eder baten galbarioraino. Aitak eta semeak elgar ikusiko dute zeruan. Ni, egun batentzat sortu lorea bezala, lehenik noa. Agur, Jainkoa baitan…"

"Andere Mélanie Venard arrebari: nere azken orenak hurbiltzen ari baitire, hitz berezi bat nahi dautzut igorri, arreba maitea: egundainotik gure bi bihotzek hain ongi elgar aditu dute! Egundaino deus ez dautazu gorde, nik ere ez zuri. Haurrean, urthetik urtherat eskoletarat joaiten nintzelarik, zuk biltzen zintuen nere jauntzi eta gainerateko guziak, zuk alegeratzen ninduzun zure elhe maitagarriekin: zuk zinuen gehienik parte hartzen nere ichtudiant atseginetan, eta badakit zoin ongi lagundu nauzun gero eta gero ere zure othoitzez. Behinik behin 1851ko Otsailaren 26eko gau hura ez dut ahanzten ahal. Zure solas saindu eta onak ez gintuen erabili buruz buru, san Bernatek eta bere arrebak bezala! Eta gero itsasoak iragan ditudalarik toki hauk nere izerdiez eta nere odolaz bustitzeko, sekulan ez nauzu ahantzi: chuchen zure boza heldu zitzautan bere tenorean, bethi azkar egon nadin. Gisa da beraz azken oren hautan anaia arrebaz orhoitzea eta azken hitz hau heltzea. Gauerdi da: nere kaiola lantza eta ezpataz inguratua da: bi urhatsetan kartetan ari dire nere zaintzaleak. Noizetik noizerat atabala jotzen dute, pan pan pan, ez lokartzeko. Argi ttipi bat badut aldean, hola igortzen dautzut hitz hau. Noiz-nahi berri handiaren beha nago. Bihar hilen othe naute? Ez dakit. Bainan zer heriotze ederra! Aspaldi igurikatzen nuen heriotzea! Biziaren hastapena! Uste guzien arabera, lephoa moztuko dautet: ikaragarrikeria horrek zeruko athea zabalduko daut. Berria ikasiko duzularik, nigar eginen duzu, bainan ez dut dudatzen zure nigarrak atseginezko nigarrak izanen direla. Beha zazu orduan anaiari eta ikus zoin ederra den martiren koronarekin! Oraino zenbeit egun, menturaz zenbeit oren eta nere arima hegaldatuko da zerurat! Zerua, egiazko aberria, garhaitiaren saria! Hautatuen egoitzan sartuko naiz, gizonaren begiak ikus ez detzazken edertasunak ikusiko ditut, musika ederrenak adituko, atsegin ezin asmatuak jostatuko eta gozatuko! (111)/ Bainan aintzinean ogi bihia behar da eho, mahats bihia lehertu. Aitaren gostuko ogia, aitaren gostuko arnoa izanen othe naiz? Agian ba. hori igurikatzen dut bederen Salbatzaile onaren laguntzarekin, Ama maitearen gerizan. Horra zertako, nahiz oraino lurrean naizen, jada kantuz eta kantuz aditzen nauzun zeruan banintz bezala. Eta zu, arreba maitea, zaude oraino eta bethi bertute eta obra onen alhor ederrean. Uzta handi bat bil zazu zeruko, fedea, esperantza, karitatea, pasientzia, eztitasuna, iraupena, eta ororen buruan heriotza saindu bat. Agur Jainkoa baitan, Melania! Agur Jainkoa baitan, arreba maitea! Agur".

"Eusebe anaia aphezari: Anaia maite-maitea. Etzinezake ongi har, eta arrozoina zinuke, zuri ere nik ez hitz berezi bat igortzea. Merezi duzu, igorri dauzkidatzun hainbertze eskutitz eder eta maitagarrirentzat. Badu haatik hainisko dembora batere zure berririk ez dutala. Pentsatzen dut apheztua zarela orai. Menturaz,

misionest. Dena dela, eskutitz hau irakurtuko duzularik, zure anaia Theophane ez da gehiago bizi izanen: zuk ere zure indar guziez bilhatu behar duzun egoitza batean izanen da: zeruan. Lephoa moztua izanen diote paganoek, odol guzia ichuria izanen du Jainkoarentzat. Martir hila izanen da! Haur-haurretik ez dut bertze ametsik egin. Bederatzi urthetako, etcheko ahuntzaren zain joaiten nintzelarik, ez nuen begirik Charles Cornay zeruan den gure herritarraren bizia eta heriotzea irakurtzeko baizik eta jada nor-nahiri erraiten nuen: Nik ere Tonkin-erat joan nahi dut eta martir hil! Eta orai Jainkoak hala nahi du… Anaia maitea, ez othe ditutzu nik bezala eskerrak bihurtu nahiko haur ezdeus batez hola artha hartzen duen Jainko guziz Onari? Eusebe, nere bihotz guziaz maitatu ditut eta maite oraino Anamitak. Hainitz urthez egon behar izan banu hemen, uste dut hortzez eta haginez lehiatuko nintzela hemengo Elizaren sor-arazterat. Ez dut osagarri handia, bainan deusek ez ninduen lotsatuko. Erran dezagun orai, gizonak chedeak hartzen baditu, Jainkoak egiten dituela obrak. Bizia eta heriotzea Haren eskuetan dire. Bizia emaiten badauku, bizi gaiten Harentzat: heriotzea igortzen badauku, hil gaiten Harentzat! Zu, anaia maitea, oraino gazte uzten zaitut lurrean: bethi ibil zaiten chuchen bethi zuhurtziak eta umiltasunak gida zaitzatela. Jainkoa eta Maria baizik ez duzu begietan izanen. Eta, zer nahi gerta dakizun, etzare lotsatuko hola, eta porturat helduko zare. Argia hiltzen ari zaut. Anaia maitea, ikus arte… zeruan!/

VIII

Otsailaren lehenean ethorri zen Erregeren mezua. Hil mezu bat, erran gabe doa. Soldado girichtino batek hartu zuen eta heldu mezu hori Hung dohakabearri. Lo zagon Theophane Venard. Goiz hartan hitz bat igorri zion oraino Mgr Theurel-i: "Uste baino gehiago irauten du nere beilak. Mezulari frango ikusten dut, bainan batzuek eta bertzek deusik ez dute neretzat. Goiz guzieri agur erraiten diotet gogotik, azkena direlakoan, eta sekulan ez da azkena: eternitateko athe ederrek ez dute oraino zabaldu nahi. Bainan egin bedi Jainkoaren nahia, ez nerea!…"

Horra zer sentimedutan zen Theophane Venard, hil-mezua ethorri zela erran ziotelarik. Kanderailu zen. Andredena Mariaren phesta-egun batez sortua, Andredena Mariaren phesta-egun batez hil behar zuen beraz. Ez da dudarik hori ere gogoan erabili zuela laster.

Zortziak eta erditan soldadoek bere kaiolatik atheratu zuten eta jujeen antzinerat joanarazi, eta auzitegiko irakurtzaileak irakurtu zion erregearen mezua: "Errege bezala manatzen dugu lephoa motz dezoten Ven deithu aphez churiari. Hogoita hameka urthe ditu. Horren burua, orok ikus dezaten, ziri baten puntan hirur egunez atchiki ondoan, urerat igorria izan dadiela".

Misionestak berritz ere erran zioten etzela harat ethorri behar ez den zerbeiten egiteko, bainan ba egiazko sinhestearen hedatzeko, eta oraino bere bortz eginahalak egin zituen jujeen buruan sar-arazteko zer den Jesus maitearen erlisionea. Eta jujetarik urruntzean, harat bildua zen jendetzeari berritz ez mintzatu nahi izan zuen: "Badakizue ez dutala nik deus gutieneko hobenik, eta horrengatik hil-arazten naute. Bainan bazinakite nere zoriona! Nere herria utzi dut, itsasoa iragan, eta hunat ethorri naiz zueri egiazko Jainkoaz mintzatzeko, zuetarik hainitz eta hainitz zeruko zorionerat hel-arazteko. Oi, zer saria dutan! Heriotzea,… bainan heriotze guzietan ederrena!" Eta orduan, burua aphal, espanturik gabe, bera joan zen soldadoen erdirat. Batek jada han zuen altchatua haizkora. Misionest sainduak agur ezti bat egin zion ororen artetik.

Harat bilduak zirenetan chede oneko zenbeit baziren: gutiz gehienak chede tzarrez ethorriak ziren haatik: martiraz trufatu nahi zuten. Irriak eta trufak sartu zitzaizkoten Theophane Venard, lotsatua ikusteko orde, kantuz aditu zutelarik. Eta ororen erdian iragan zen misionesta, bildotsa otsoen erdian, otsoak oldartu gabe. Bazoan, lephoa oineri lotzen zioten gathe ikharagarriaren gatik, arin eta zalhu, alegrantzia handi bat begitartean, hamabi soldadoen artean. Soldadoak manatzen zituen aintzindaria hurbildu zitzaion eta ahapetik erran ezpatak chorrochtu/112 beharrak zituela oraino, eta aita Theophanek ihardetsi zion lañoki: "Etzazula hortaz bururik hauts: gaztigua luzeago eta gutiziagarriago da nere kasuan!"

Ibai-Gorriaren aldean gelditu zen jendetzea. Soldadoek berehala gatheak khendu ziozkaten misionestari eta, doidoia azken benedizione baten emaiteko dembora utzirik, ur hegian landatua zuten pazotari estekatu. Burua gora, begiak zeruari, Theophane Venard othoitzean ari zen. Aitzindariak zerbeit erran zion haizkora eskuan zagon soldadoari, eta hunek bere indar guziez misionesta lepho gibelean jo. Bainan edana zitaken soldadoa. Mathelan atcheman zuen martira, eta burua etzen bortzgarren ukhaldian baizik erori. Berria laster hedatu zen eskualde guzietarat, eta guziek goretsi zuten martiraren bihotz handi eta indarra.

Handik laster Fedearen Hedameneko liburuek Theophane Venard misionestaren eskutitzak agertu zituztelarik, Frantziak etzuen doidoia izenez baizik ezagutzen. Geroztik hainitz liburu ederrek ederki ezagutarazi dute, Eskual-Herriko choko gordeetaraino. Hemen agertu chehetasunak ez dire orhoitarazteko baizik. Mende hau ahal bezalakoa da: gure beharrak sekulan baino handiago dire. Urrikal dakigula beraz Theophane Vénard dohatsua. Badu gure laguntzeko ahala…

TEOPHANE VENARD DOHATSUA BIGARREN DOKUMENTUA, B TESTUA

PARISEN

Horra Theophane Venard Parisen, misionesten ikastegi handi eta famatuan. Zer atsegina Jainkoak hautatu bidean kausitzea, eta Theophane amodio eta khar handienerakin hasi zen lanean, urrungo misionesgoak galdetzen dituen jakitate berezi era saindutasunaren lehenbailehen ukhaiteko. Horra zertako buruzagiek handik laster aski espantu etzuten beren misionest-gei berriaz!

Berak zer othe zion? Huna handik ilabete bat eta erdiren buruan zer igortzen zuen arrebari: "Oi, zoin maite ditudan etche huntako ichiltasuna, hemengo ikasgei guziak, nere lagunen begitarteak, eta guziz, guziz, hemengo kapera ederra bere orhoitzapen handiekin eta barnean dabilan hainbertze eta hainbertze martiren usain saindu onarekin!" Egia erran, Pariseko misionesten ikastegi hortan behin zangoak sartzeko zoriona ukhan duten guziak ez dire bertzela mintzo. Bai, zoin eta zoin maitagarriak diren etche hortan oro: ichiltasuna: othoitzak: liburuak: irakasleak: ikasleak!

Irakasleak, bethi urrungo misionetan ibiliak dire berak. Badakite beraz nola moldatu behar diren misionest-geiak. Ez da harritzeko gisa hortako irakasleekin bide egiten badute Theophane Venard guziek! "Egundaino deusetan etzuen huts ttipiena eginen" horra zer erraiten duten Theophane Venard han ezagutu dutenek. Egunetik egunerat saindutasunean urhats handiagoak egiten ari zituen eta etchekoak batere etzituen harritu, berak eginikako othitz hau behin igorri ziotelarik, maiz eta maiz harekin bat egin zezaten: "Oi, Jainko Ona, iduriz phorroskatuak behar luketen gure bihotzetan, sor-araz zatzu bakea eta atsegina. Elgarretarik hoin urrun izanagatik, elgarretarik hoin urrun bethiko, gure arteko amodioa 4/ sekulan baino handiago da. Jainko Ona, bethi garbi izan bedi amodio hori. Bai, maita dezagula segurki elgar, bainan maita zutan eta zuretzat! Bat izan gaitela, bainan bat zutan!"

Orai sakrifizio handia egina da. Egina osoki. Orai misionest-geiak ez du gehiago gibelat behatuko. Ez ditu oraino hogoita bi urthe eta jada "han" nahi luke. Beraz zer egun ederrak harentzat, lehenik diakretu, gero apheztu den egunak!

Ekhainaren bortzean apheztua, zenbeit egunen buruko bazakien, buruzagiak erranik, urrungo misionetarat joaiteko hautatua zela. Huna zer igorri zioten berehala etchekoeri: "Berritz ere erran dezagun elgarrekin. Benedikatua izan bedi Jainkoa! Banoa beraz, etcheko maite-maiteak, banoa, zuek oro hemen utzirik, zeruan baizik elgar gehiago ez ikusteko! Anvers-eko portuan hartuko dut untzia, Chinako erresumari buruz. Aita ona, arreba eta anaia maiteak, besarkatzen zaituztet nere bihotz guziaz".

Mila zortzi ehun eta berrogoita hamabigarren urthea zen, buruila erditan goiti joana bere egun argi eta gochoekin, Pariseko misionesten kaperan urthe guziez egiten den partiadako elizkizun eder eta hunkigarria egin zelarik Theophane Venard eta bere lagunen ohoretan. Hain chuchen egun hartan kaperan bazen soldado bat, Theophanen herritarra, ikusterat ethorria: Rene Midy. Laster ohartu omen zen bere adichkide eta haurreko lagunaren begitarte sainduari. Misionest chahar eta misonest-gei, oro lerro-lerro hurbildu ziren misionest berrien ganat, zangoetan musu eman zioten ohi den bezala, eta gero bi mateletan besarkatu. Misionesten kantua ari zen dembora hortan:

"Zoazte berri onaren madatari onak:
Zer gozoa zuentzat egungo egunak!
Ez, orai etzaituzte deusek estekatzen:
Zoazte, adichkideak! Zoin urus zarezten! etc"

Kantu horrek iduri zuen bereziki Theophane Venard gaztearen 5/ bihotzeko sentimendu handi eta aspaldiko amets ederraren erraiteko asmatua eta moldatua zela. Elizkizun hunkigarria bururatu eta Rene Midy joan zitzaiolarik agur baten egiterat, misionest berriak bihotz guzia zabaldu zion, bere etchekoeri eginen zuen bezala. Soldadoak geroztik erran izan du "Theophanek etzuela egun hartan gizon bat iduri, bainan ba Jainkoak zerutik igorri norbeit".

Etzen errech dembora hartan Chinarat heltzea. Nihor ez da beraz harrituko Hongkong-eko ugarterat heltzeko Theophanek bere hirur lagunekin lau ilabete handi eman bazituen. Han diren bizitzeko errechtasun guzien gatik, Hongkongen Pariseko misionestek badute etche bat egina. Guti edo aski misionest berri guziek behar dute egonaldi bat egin han, bai hango mintzaireri ohartzeko, bai hango bizimoldeari egiteko.

Haurrean Tonkineko eskualdeaz egina zuen amets gure misionestak, bainan Chinari buruz igorria zen eta arras buruzagien manuari zagon. Eta horra nun betbetan Hongkong-erat manu berri bat heldu zaion Parisetik: "Berehala zoazi Tonkinerat". Zer atsegina! Huna zer ihardetsi zioten buruzagieri: "Edozoin chokho maitatuko nuen segurki, bainan oro baino gehiago maitatuko dut Tonkinekoa. Paregabea zaut: milesker beraz. Jainkoari egun guziz othoitz egiten dut eta eginen izan nadien misionest on eta saindu". Eta etchekoeri bereri ez diote gordeko egundaino bihotzean garraiatu duen amets handia: "Tonkinerat igortzen naute: Tonkinerat noa. Charles Cornay han hil zen martir. Han ichuri dute orobat odola, duela lauzpabortz urthe doidoia, aita Schoefler eta Bonnart-ek. Han dire oraino erlisioneari gehienik aiher diren paganoak…" 6/



4

Parisen.

Horra Theophane Venard Parisen, misionesten ikastegi handi eta famatuan. Zer atsegina Jainkoak hautatu bidean kausitzea, eta Theophane amodio eta khar handienarekin hasizen lanean, urrungo misionesgoak galdetzen dituen jakitate berezi eta saindutasunaren lehenbailehen ukhaiteko. Horra zertako buruzagiek handik laster aski espantu etzuten beren misionest-gei berriaz!

Berak zer othe zion? Huna handik ilabete bat eta erdiren buruan zer igortzen zuen arrebari: « Oi, zoin maite ditudan etche hun tako ichiltasuna, hemengo ikasgei guziak, nere lagunen begi tarteak, eta guziz, guziz, hemengo kapera ederra bere orhoitzapen handiekin eta barnean dabilan hainbertze eta hainbertze martiren usain saindu onarekin! » Egia erran, Pariseko misionesten ikastegi hortan behin zangoak sartzeko zoriona ukhan duten guziak ez dire bertzela mintzo. Bai, zoin eta zoin maitagarriak diren etche hortan oro: ichiltasuna: othoitzak: liburuak: irakasleak: ikasleak!

Irakasleak, bethi urrungo misionetan ibiliak dire berak. Badakite beraz nola moldatu behar diren misionest-geiak. Ez da harritzeko gisa hortako irakasleekin bide egiten badute Theophane Venard guziek! « Egundaino deusetan etzuen huts ttipiena eginen » horra zer erraiten duten Theophane Venard han ezagutu dutenek. Egunetik egunerat saindutasunean urhats handiagoak egiten ari zituen eta etchekoak batere etzituen harritu, berak eginikako othoitz hau behin igorri ziotelarik, maiz eta maiz harekin bat egin zezaten: « Oi, Jainko Ona, iduriz phorroskatuak behar luketen gure bihotzetan, sor-araz zatzu bakea eta atsegina. Elgarretarik hoin urrun izanagatik, elgarretarik hoin urrun bethiko, gure artako amodio

Elissalderen bigarren bertsioaren hasiera.

TONKINEN

Tonkinerat joaiteko manua ukhan zueneko, atseginaren atseginarekin, aita Theophanek kantu bat moldatu zuen orai misionest-liburu guzietan irakur ditakena. Delako kantuaren arabera Theophane Venard etzoan segur Tonkinerat han eskuen gurutzatzeko chedearekin. Bidean hamabortz egun luze emanik, uztailaren hamahiruan heldu zen Vinh-tri hirirat eta han bere Aphezpikua besarkatu.

Berrogoita hameka urthe zituen Retord jaun Aphezpikuak eta jada bazuen hogoita bortz urtheko bat misionetan zela. Bihotz handi eta azkarreko gizona eta paganoek behinere bake handirik utzi etziotena. Mihiaren puntan bethi oihu bera entzuten zioten orok: "Gora gabezia eta gurutzea, bainan oraino gorago atsegina, guziengatik!" Aphezpikua eta misionest berria ongi elgar aditzeko eginak ziren beraz.

Iduri luke hoinbertze martir hoin dembora gutiz ikusi duen misionea hein tcharrean ditakela, deus handirik gabe, ez elizarik, ez komenturik, ez ikastegirik, ez-eta bertzerik. Bizkitartean itsasotik Ibai-Gorriraino hedatzen den misione hortan baziren elizak, baziren ikastegiak, bazen komentu bat, eta orotarat berrehun mila girichtino.

Erlisioneari eta misionesteri hain aiher zen erregea, Tu Duc, aski urrun egoiten zen handik: Hue-ko jauregian. Han gaindi erregearen mandatari ziren suprefet eta gaineratekoekin aski errech zen elgar aditzea. Bertzalde Aphezpikuak halako erroak eginak zituen nun nihor ez baitzen gehiago menturatzen erhiaren altchatzerat haren kontra. Gogo onez eman nahi etziotena, Aphezpikuak bazakien bortchaz hartzen. Oro egun argiz eta agerian egiten zituen beraz. Theophane Venard haren ganat ethorri zen goiz hartan berean bazituen eginak lau sudiakre, bortz diakre, eta hirur aphez. Eta den gutienekorik[25] 7/ gorde gabe gero!

Theophane Venard ilabete bat eta erdi egon zen aphezpikutegian eta han indar berriak hartu zituen lanari lotzeko. Zoriona ukhan zuen Vinh-tri-n kausitzeko eskolako eta bideko lagun bat, aphezpikutegiko moldiztegiaren buruzagi zena. Jada urthe bat bazuen han zela. Pentsatzeko da kontseilu eta argi frango eman ziola bere adichkideari. Theophanek hain gogotik hartzen zituen! Eta horra dudarik gabe zertako igorri zuen hitz hau etcherat: "Gocho da hemen bizitzea!"

Gocho segurki han bizitzea, bainan han luzez egoiteko sobera iduritzen zitzaion zokho guzietako paganoak oihuka, karrasiaka ari zitzaizkola joaiteko eta joaiteko heien konbertitzerat! Jada mintzaira bazakien guti edo aski. Trebatzeko, Aphezpikuak igorri zuen Ke-Roan-eko aphez baten ganat. Zer jauzia egin zuen han! Ilabate baten buruko predikatzen ari zen anamitaz, eta norbeitek erran due-

[25] Hemen orrialdeak hitz bat erdibitzen du. Zazpigarren orrialdean gutiene idatzi du eta hurrengoan korik.

naz, behin misionest gazteak atseginekin aditu zuen "haren predikuak arras pollitak zirela, argiak eta gustagarriak!" Urguilua? Ez: arimen amodioa!

Umiasainduz eri zen: eri, jada hirurgarren aldikotz: urez ereman zuten Ke-Damerat, hango airea hobe zukeela, bainan harat heldu orduko, urrundu behar izan zuen etsai batzuen aztaparretarat ez erortzeko. Girichtino baten etchean behin gordea egonik, jo zuen Ithurri-Hori-ko ikastegiraino. Han kausitu zuen aita Castex, Aphezpikuaren ordaina. Agur erran zioneko, misionest zaharrak ihardetsi zion: "Hemen ez da bertze agurrik gure jaun Aphezpikuaren oihua baizik: "Gora atsegina, guzien gatik!" Ondoko bi urthetan, bethi eri, ezin predika, ezin kofesiorik adi, ezin erien ikusten ibil, aita Theophane gaichoak zenbatetan ez othe du oihu hori bere buruari, ez lotsatzeko, errepikatu: "Gora atsegina, guzien gatik!" Alegeratu nahiko zuen, bainan gero-ta eriago 8/ zoan eztulak ithoa, asma tzar batekin. Eta hola zelarik, noiz-nahi berritz ihesi joan behar! Azkenean aphezpikutegirat joan zen bigarren aldikotz. Nola kambiatua jada! Besarkatu zuen Aphezpikuak: "Oi, nere haur maitea! Jainkoari sofrikarioa galdetu diozu beraz bethiko laguntzat?" Eta egia zen. Aita Theophanek, bertzerik gehiago ezin eginez, sofrikarioa galdatzen zion Jainkoari paganoen konbertitzeko…

Orduantche misionest gazteak uste izan zuen harenak egin zuela, sekulan etzela altchatuko. Huna zer igortzen zioten etchekoeri: "Jainkoak emana zautan osagarria: khendu daut, eta beldurtzen hasia naiz sekulan ez naizela sendatuko: ezkerreko bulharra bederen hunkitua duket. Bainan etzazue odol gaichtorik egin: othoitz egizue bakharrik, othoitz eritasun hau balia dakidan saindutzeko". Eta Pariseko buruzagieri: "Egizue hainitz othoitz, hiltzen bada gorphutza, bizi dadien arima. Jesusek eta Mariak lagunt zaitzatela oro. Elgar ikusiko dugu zeruan!"… Eta egiazki bizi zadien arima, zer etzuen egiten aita Theophanek? Huna zer erraiten duen aita Thinh gehien gehienik han ikusi duen aphez anamitak: "Ez ditake erran zoin kartsua zen, zenbat othoitz egiten zuen Jainkoari eta Ama Birjinari. Eri handi zelarik, zenbatetan ez du mina garhaitu Meza Saindua, liburuko Othoitz handia eta Arrosarioa erraiteko! Ez dut arras-arras ezinbertzean baizik ikusi horien uzten! Meza eman aintzinean luzaz belhauniko egonen zen bildutasun osoan, gero kartsuki baino kartsukiago emanen zuen, ez lasterregi ez emekiegi, hein on batean, eta Meza eman ondoan, mirikuak manatu erremedio bat berehala harturik, berritz othoitzean hasiko zen Jainkoari eskerren bihurtzeko. Liburuko Othoitz handia bethi oren beretan erraiten zuen eta Othoitz hori ez du naski egundaino utzi, Aphezpikuak berak arrosorioa ordainez manatu dion egunetan baizik. Arratsetan sekulan etzen ohean sartuko azken arrosorio bat erran gabe. Erran ditake 9/ eta erran behar da Theophane Venard othoitzez ezin asea zela"…

"Eri, etzezaken ez predika es kofesiorik adi elizan. Bainan zenbat eta zenbat girichtino etzitzaion heldu etcherat! Nihaur hari kofesatzen nintzen. Ez ditake asma gidari hoberik, eta bereziki zoin ederki eta zer amodiorekin mintzatzen zitzaukun zeruko Ama onaz!".

Bai, segur, saindutasuneko bidean han-harat joana zen aita Theophane, eta hemendik goiti erranen ditugun guziek ez dute bertzerik frogatuko.

Misionest gaztea nola etzen hil udako bero ikharagarrietan? Egiazki ez da gaztetasuna bezalako erremediorik, eta udazkenean sendo zen. Sendo eta pizkor. Berehala badakizue zer galdetu zuen? Berritz paganoen erdirat joitea. Aphezpikuak etzuen galde hori onhartu, aita Theophanek on zukeela behin eta behin pausatzea oraino. Ondoko Haustez berekin ereman zuen haatik konfirmazioneko itzulia diosesan egiteko. Oi, misionest kartsuaren zoriona!

Herriz herri, orotan predikatu zuten, orotan kofesio hainitz aditu, bainan Kien-Be eta But-Son deithu herrietan egon ziren gehienik: nihun etzen han bezenbat girichtino: batean mila, bertzean bi mila. Aste Sainduko Ithurri-Horietan ziren.

Aphezen urratseri hain aiher ziren eskualde batean nola ibil zitazken hola? Aita Theophanek ihardetsiko dauku: "Ez da dudarik, den gutieneko dudarik, Jainkoak zaintzen gintuela eta Andredena Mariak laguntzen!"

Itzuli handi hori bururaturik Aphezpikua bere egoitzarat itzuli zeneko, harat bilduak ziren jada diosesako aphez guziak, elgarrekin urtheko erretretaren egiteko. Zer egun gocho eta sainduak iragan zituzten hantche Mgr Retord, Mgr Jeantet, aita Castex, aita Titaud, aita Charbonnier, aita Mathevon, aita Theurel, aita Theophane Venard eta hainbertze aphez anamitek.

Bakhotcha indar berriekin bere lanetarat itzuli ziren. 10/ Ibai-Gorria bere errekatik atheratu zen: urthe guziez egiten da. Bainan zer desmasiak etzituen egin urthe hartan! Vinh-Tri etzuen haatik hala jo, aita Theophanek pezoin handi batzu aintzinerat eginaraziak baitzituen uren oldarraren hausteko. Hala-hala, berritz errekan sartzean, urek zer-nahi zikhinkeria hedatu zuten non-nahi. Zer izurritea beraz gerochago! Gutiz gehienak eritu ziren hirian. Oro baino lehenago, kasik erran gabe doa, aita Theophane Venard, eta gutik egin zuen sukhar ustelak ez baitzuen ereman. Sasi-miriku batek aski laster sendatu zuen halere zer-nahi belhar eta berze bere gisako erremedio batzuekin: hala sendatu nun Aphezpikuak Pariseko buruzagieri hitz hauk igortzen baitziozkaten: "Aita Theophane Venard? Berritz arrosa bezen fresko da eta sasiko choria bezen alegera. Oraiko iduriaren arabera behingo eta behingo misionest da segurki!" Bainan nork dakizka sekulan Jainkoaren chedeak? 11/

GERLA GIRICHTINOERI

Erregearen ganik ethorri manu guzien gatik, ordu arte Vinh-Tri-ko inguruetan suprefetek etzioten gerla handi-handirik egiten misionesteri: ez ikusiarena egiten

zuten naski. Suprefet nausia –eman dezagun prefeta– Hung delako bat, berenaz arras gizon eztia zen, eta etzuten prefetak baino gehiago egin nahi suprefetek. Alabainan Hung etzen nor-nahi: emaztea, erregearen beraren alaba zuen. Demboraz begietako min tzar batekin zagolarik, Aphezpikuaren katichima irakasletarik batek arthatu zuen, eta sendatu. Katichima irakasle horrek Paul Tinh zuen izena eta dembora hartan preso zen. Hung sendatzea sari, paper bat bazuen nun-nahi eskola egiteko dretchoa ematen ziona: Vinh-Tri-ko eskolaren buruzagi zen geroztik.

Horra nun girichtinoen kontrako errabia berri batek hartzen duen erregea betbetan? Zer? Aita Schoefler eta Bonnard hilez geroztik hainbertze suprefetek ez dutela gehiago aphez bakhar bat nihun atchematen ahal? Eta eskuin eta ezker manu zorrotzak igortzen ditu suprefeteri, higi diten beren onetan. Bazterrak kechatu ziren beraz eta berehala, suprefetak berak buru orotarat hedatu soldado tropak. Vinh-Tri inguratu zuten eta laster hartu. Ustez bere paperarekin zer-nahi ardietsiko zuen, Paul Tinh joan zitzaion bere suprefetari. Suprefetak papera irakurtu zuen, sakelan sartu eta Paul Tinh preso ezarri, bere burua jujeen aintzinean garbitzeko erranik. Bildu ziren jujeak, Hung buru. Hau etzen guti harritu bere sendatzailea agertzen ikusi zuelarik. Bainan papera zuzen kontra emana zion eta ukhatu zuen. Paul Tinh hiltzerat kondenatua izan zen, eta aphirilaren seiean martir bat gehiago bazen Tonkineko erresuman…

Vinh-Tri erroz gora ezarri zuten soldadoek, bainan Mgr Retord jada narapeit itzalia zen bere ichtudiant eta aphez guziekin. 12/ Zer bihotzmina haatik ondoko egun batez, aita Charbonnier eta aita Theophane Venard lagun harturik, berritz bere hiri maiterat itzuli zelarik! Hango sarraskiak! Gutik egin omen zuen ez bazen alditchartu eta lurrerat zabal-zabala erori. Laster berebaitaratu zen halere Aphezpiku azkarra eta Jainkoaren ganat itzuli, egundainoko hitzak ezpainetan: “Gora atsegina, guziengatik!”…

Misionestentzat etzen gehiago hiri hartan bizitzerik: zelatariz emokatua zen. Hung bera, bezperan oraino girichtinoen adichkidea ichilka bederen, bertze bat egina zen, eta burutik joana iduri zuen. Etzuten beraz misionest gaichoek bakhotcha bere alde joaitea baizik. Mgr Retord eta aita Charbonniek hartu zuten oihan handi batetako bidea: aita Theophane Venard abiatu zen Ithurri-Horietako eskualdeari buruz…

Noizpeit eta nolazpeit harat heldu zelarik, zer bihotz haustea! Aita Castex lurrean etzana zen, ezin higi, erromatisma gaichtoenek jana. Etzen urrun joiten ahal gehiago gaicho misionesta. Doidoia elizakoen hartzeko dembora ukhan zuen eta hil zen. Aphezpikuaren ordaingoa harek egiten zuen eskualde hartan. Kargu hori aita Theophane Venard oraino hain gazteari eman zion Aphezpikuak. Etzitaken hautu hoberik. Etzen batere urguilutan sartu kargudun berria eta huna,

labur laburra, zer heltzen zion ondoko egunetan arrebari: "Hemendik goiti herriz-herri ibili beharko dut, nahi eta ez, oro orotan ongi doazin ikusteko, makhur doazin guziak chuchentzeko, behar orduan dispentsa baten emateko, bai-eta zenbeit aldiz Aphezpikuaren plazan konfirmatzeko. Orobat erretreta zenbeit beharko dut predikatu. Hitz batez, begiak bethi idekiak beharko ditut atchiki, orai arte baino hobeki, fedea azkar eta garbi egon dadien bihotzetan".

Eskualde hartan bada hirur ehunbat mila pagano. Misionestak ez ditu segurki oro ikusten ahal: halere aita Theophanek zenbat bathaio etzuen egin, zenbat eri ikusi 13/ eta konbertitu. Bethi gordeka ibiliz haatik!

Artha handiena hartzen zuen orobat meneko zituen aphez eta katichima-irakasle guziez: etzioten gutitan errepikatzen orok baino hobeak izan behar zutela, orok baino othoitz gehiago egin, ikasteko orok baino liburu gehiago eskuetan ibili. Sakelako sos guziak etzituen aski ororen laguntzeko. Han gaindi ez dute behin ahantziko nola egun batez bere soineko ederrenak eman ziozkan erromes bati, ahalgerik gabe joan zadin mezarat eta misionestaren ikusterat. Eta zer mina zabilkan bihotzean ikusiz, guzien gatik, hainbertze eta hainbertze pagano oraino belhauniko jainko faltsoen aintzinean: "Oi, zoin nigar-egingarri den eskuin eta ezker behatzearekin hoin eliza guti ikustea herrietan! Debrua da nausi, Jesu-Krichto gure Jaunaren adichkidek gorde behar dute, gaichtoek hiltzerat kondenatzea nahi ez badute!"

Bainan huna oraino gehiago erhotzen diren erlisionearen etsaiak. Soldadoak etchez etche abiatzen dire nun zer ikusiko duten, nun nor atchemanen duten. Eta gehiago dena, herraren herraz, bide gurutze guzietan gurutze batzu zabal-zabala emanak dituzte, orok zangopean leher detzaten. Nor-nahi baderamate preso: bi Aphezpiku, aphez zenbait, katichima-irakasle hainitz. Hainbertze girichtino berri, bertzalde. Eta odola berritz hasten da purrustan ichurtzen! Bi Aphezpikuetarik bati lephoa moztu zioten, bertzea mila puska egin. Nor othe zen gaichtagin ikharagarri horien buru? Hung…

Han eta hemen biltzen zituenetan batzu baziren Hung-ek hainitz gehiago kitzikatzen zituenak: aphez churiekin bizi ziren hango aphez eta katichima-irakasleak. Aphez churiak nun gordeak ziren erranarazteko zer etzuen asmatzen? Zango azpiak larrutzen ziozkaten, behatzak errotik atheratzen, gorphutz guzia burdin gorriekin erretzen. Eta mila holako ikharagarrikeria egiten! Bainan girichtino, aphez eta katichima irakaslek[26] etzituzten ezpainak idekitzen, othoitz egiteko baizik…14/

[26] Pasarte honetan berean *katichima irakaslea*, batean marra edo gidoiarekin dakar, eta, bestean, ez.

Horra zertaratua zen Hung. Ithurri-Horietan etzuen ikustekorik, bainan sudurra sartu zuen halere eta erregeari jakinarazi frango aphez bazela oraino han barna, eta hainitz girichtino. Mila zortzi ehun eta berrogoita hemezortzian mila soldado ethorri ziren beraz Ithurri-Horietarat, eta ekhainaren hamekan etche guzien harrotzen hasi. Hirur aphez anamita atchmanik, berehala hilarazi zituzten. Aita Theophane Venard, aita Theurel eta ichtudiant bat mendietarat itzaliak[27] ziren ordukotz. Zelatariak soberachko hurbiltzen ikusirik, handik ere urrundu behar izan zuten, eta bakhotchak bere alde hartu.

Hiltzekotan, aita Theophanek nahiago zuen bere girichtinoen erdian hil eta etzen hainitz urrundu. But-Dong-en bada serora komentu bat: harat joan zen eta atherbea galdetu. "Mariaren adichkideak" deithu serora gaichtoak bat eman zioten gogotik, komentutik aski hurbil. Han aski trankil bizitzen ahalko zen aita Theophane, behin bederen, bainan etzen eskuen gurutzatzeko egina: lana behar zuen, lana nahi, eta laster irrisku guzien gatik eskuin eta ezker hedatu zen gordeka.

Bi urthe lanez betheak, bi urthe handi iragan zituen holachet misionest bihotzdunak. Eta zer ongia eginez! Nihori etzion halere "Mariaren Adichkideeri" bereri bezenbat egin, elheez baino gehiago egun guzietako etsenpluaz: "Ez da gisa guziez aphez sainduagorik egundaino agertu gure eskualdetan" erranen dute hainbertze serorek Erroman, aita Theophane dohatsuen lerrorat altchatzeko auzia hasiko delarik…

Behin, ikusterat joaiteko bideak zuen irrisku handiaren 15/ gatik, serorek batere etzioten salatu nunbeit bazela eri handi bat. Nola etzen kechatu jakin zuelarik! "Gizon gaichoa sakramendurik gabe hil balitz, nor zitaken Jainkoaren begietan hobendun? Nahiago dut gero, mila aldiz nahiago, nihaurek hil, laguntzarik gabe nor-nahi hiltzen ikusi baino!"…

Hautatu gerizatik athera etzitakenean, aita Theophanek liburuetan iragaiten zuen dembora. Hura bezalako gizonek sekulan ez dakite aski, bethi gehiago jakin nahi eta ikasterat ari. Horra zertako orai herri [hartarat eta eskualde hetarat doazin misionestez ez duten[28]] ordukoek bezalako buru hausterik, hurbiltzeko ere: liburu hautak badituzte hango mintzairan eginak. Ez: gerizatik athera etzitakelarik ere, etzagon lo aita Theophane Venard. Hain laburra da gizonaren bizia, demendreneko dembora ez deuskerietan galtzeko… 16/

[27] Lehen idatzialdian, "eskapatuak" jarri du. Gero, hitz hau ezabatu ondoren, "itzaliak".
[28] Elissaldek hala idatzi du: kortxeteen artean.

SOLDADOEN AZTAPARRETAN

1860: urtharrila. Aita Thephane Venard But-Dong-eko emazte erromes baten etchean dago gordea. Berekin du Joseph Theurel berri-berritan Aphezpiku egina. Oi, zer bihotzmina ukhan duen Mgr. Retord bere adichkide handiaren heriotzea ikasi duelarik! Zer bihotzmina orobat "Mariaren Adichkideen" komentu maitea paganoek erroz gora ezarri dutela heldu diotelarik! Serora guziak alde guzietarat barraiatu direla, badaki aita Theophanek, bainan bertze gehiagokorik ez. Ondikotz zerbeiten ikasteko norat eta nola mentura? Choko-moko guzietan ez da gehiago zelataririk baizik. Etchekoeri berriak zerbeit gisaz igorriko ditu halere: "Menturaz galdetuko dautazue nola bizi naizen sekulan argirat atheratu gabe, airerik kasik gabe, higitu gabe? Galde dezadazue orobat nola bada ez dutan burua galdu? Nere zilho ttipian ezin chuti, urhats bat nihorat ezin egin: zer-nahi mamu, garratoin eta apho beltzek jana! Eta horien gainerat sekulan nihundik berri on bat ez ikasten: bethi berri tzarrak, tzarrenak: gero-ta tzarragoak! Eta ez jakin holako bizia noiz bururatuko den! Bainan, orai eta bethi, ez dut hau baizik erranen: burua ez badut galdu, norbeitek zerutik ongi lagundu nau segurki!"

Oren gaichto horietan burua ez bazuen galdu, miletan galdu aita Theophanek, eta gehiago dena bethi eta bethi alegera egon bazen, froga da hiltzeak etzuela lotsatzen, froga Jainkoaren aintzinean agertzeko prest handi zela. Etzuen dudarik, bertzalde, bakea ethorriko zela oraino, gerlaren ondotik. Bake eder eta aberats bat Tonkineko Elizarentzat!

Zerbeitek erraiten zion haatik bakearen eguna etzuela ikusiko berak,[29] eta halere bere zilhoan bake horrentzat 17/ bake horri buruz ari zen lanean. Bakea ethorri eta zer egin beharko duten berehala, paperean ezar eta ezar ari zen goizetik arratserat, othoitzeko dembora salbu, haren asmu eta kontseiluez balia zadin norbeit, misionest, serora edo katichima irakasle. Han ere etzuen demborarik galdu nahi...

Gau batez, ilhun tuntari oharturik, ihes egitea deliberatu zuen betbetan eta laster batez jo Dong-Bao-rat. Etzuen haatik hainitz kokatu behar Dong-Baon. Ikusten zuen jada "orena" hurbiltzen. Oren handia! Haur-haurretik igurikatzen zuen oren ederra! But-Dong-eko komentutik urruntzean seroreri errana zioten: "Banoa hemendik bainan badakit; segur eta segur odola ichuri beharko dutala Jainkoarentzat! Nun eta nola ez dakit, bainan ez dut dudarik, den gutieneko dudarik." Bada, egunetik egunerat segurago iduri zuen. Zerutik ethorri aintzin-argia? Bichtan da.

[29] Ezabaturik dago "harek" eta azpian idatzirik "berak".

Egia erran, bere othoitz guzietan aspaldi etzuen bertzerik galdetzen aita Theophanek: martir hiltzea. Aphezpikuari galdetua zion chede hortarat othoitz egiteko baimena, eta baimena ardietsia.

Etzen horrengatik choro bat bezala ibilki bidetan, atcheman zezaten etsaiek eta hil. Gordeka zabilan, chendra gaichtoenetan barna bethi, ahal bezenbat demboraz egia hedatzeko eta ongia egiteko. Jainkoak berak hauta zezala orena, hots!

Ondoko hazilean, berritz But-Dong-erat itzulia zen. Horra nun nunbeitik berria heldu zaion arras ezintzen ari dela mendi gainetan. Mgr Jeantet. Etzaio haren bihotz on eta kartsuari gisa iduritzen, hura aski aise bizi delarik –aise bizi othe zen?– Aphezpikua ezin biziz ibiltzea, eta zerbeit gisaz hel-arazten dio But-Dong-en hobeki izanen dela, ethortzeko, bera joanen dela mendietarat. Eta berehala bideari lothu zen aita Theophane Venard. Dong-Bao-ko andere on baten etchean gelditu zen, Pierre bere katichima-irakasle 18/ hoberenenarekin. Etchea ugarte batean, etzuen hainitz iduri sasoin hartako eurite ikharagarriekin nihor menturatuko zela harat. Ondikotz, andere onaren jendakian baziren paganoak, eta batek salatu zuen. Biharamunean, soldadoak preso zeramaten aita Theophane bere lagunarekin: gaichtagin handiak bezala kaiola batean, zortzi gizonek bizkarrean, aita Theophane, eta katichima-egilea oinez, taula zilhatu batean burua sartua. Etzuten segurki soldadoen aztaparretarik atheratzeko mentura handirik. Phu-Ly-ko presondegirat ereman zituzten: herri hortan zagon suprefeta. Harat orduko, misionest gaichoari gathe bat ezarri zioten lephotik, zangoak ere hartzen ziozkana. Ongi preso zen aita Theophane Venard! Preso bethikotz! Hitz bat etcherat igortzen ahal izan zuen, nolazpeit: “Nere maite-maiteak: Jainkoak nahi izandu oraikoan gaichtoek atcheman nezaten. Hazilaren hogoita hamarrean hartu naute eta kaiola batean preso ekharri. Bihar suprefetaren aintzinean agertu beharko dutala jakina dut jada. Ez naiz batere lotsa: Jainkoa nerekin dut eta Andredena Mariak lagunduko nau. Agian hitz bat edo bertze igortzen ahalko dautzuet oraino. Bizkitartean, zer gerta ere, zaintzale pagano baten bidez igortzen dautzuetedan agur hau nere azkena balitz bezala igortzen dautzuet. Orai arte bederen suprefetak ez daut ongirik baizik egin eta segurki ez dezaket erran gaizki-gaizki naizela. Hainitz jende heldu zaut ikusterat eta ororekin mintza naiteke. Erran gabe doa ororen erlisioneaz mintzatzen nitzaiotela eta badire gustatzen zaiotenak: kasik konbertitu nahi lukete, bainan erregearen beldurrak atchikitzen ditu. Horra beraz nola naizen martirgoaren bidean orai. Ni martir! Egia erran, Jainkoak egundaino ttipiak hautatu ditu handien erhausteko! Nere guduak ikasi orduko, ikas detzatzuela orobat garhaitiak! Ez dut hortako nere indarretan 19/ kondatzen, bainan bai Jainko guziz botheretsuak zerutik igorriko dautan laguntza handian. Etzaituztet ahanzten, bainan martir hiltzen banaiz, oraino hobeki orhoituko naiz Jainkoa baitan agur, guziz maiteak; elgar ikusiko dugu zeruan!

Phu-Ly-n etzen deusik gertatu, eta abendoaren lauean soldadoek Hanoi hirirat ereman zituzten bi martir geiak: aita Theophane Venard berritz bere kaiolan, Pierre katichima irakaslea oinez eta bere taula lephotik.

Etzen oraino ethorria eguna. 20/

HILTZERAT KONDENATUA

Etzuen nigarrez iragan Hanoi-eko bidea misionest sainduak. Ikusi zuen norbeitek dionaz "zoriona han zuen begitarte guzian." Berak urtharrilaren lehen egunetan huna zer erraiten zuen: "Ez nauzue ikusten trankilki nere kaiolan sekulako jendetzearen aintzinean? Noiz-nahi hau edo hura aditu dut: Zoin pollita den gizon churia! Begitartetik iduri luke phestarat deramatela! Ez ahal da biziki lotsatua? Ez ahal du bekhatu handirik? Gutarterat ongiaren, eta ongiaren bakharrik egiteko ethorria, hiltzerat kondenatuko dute. Eta dudarik gabe kondenatuko!"

Hanoi-en jujeak beha zauden jada. Juje-nausi edo maipuruak egin[30] ziozkan galde guziak.

–Zertako ethorri zare Anam-eko erresuma huntarat?

–Erlisionea ezagutzen ez duteneri ezagutarazteko.

–Nork egorri zaitu?

–Nehork. Nere-nere baitarik nahi izan ditut paganoak konbertitu eta eskoletako buruzagiek gidatu naute hunat.

–Badakizu gure legeak debekatzen diotela gizon churiari lur huntan sartzea? Zertako beraz hunat ethor heriotzaren ondotik?

–Nausien-nausiak manatzen du ez dakiteneri erlisionearen predikatzea! Nunnahi bizi diten lurreko erregeri obeditzen dugu, bainan are gehiago zeruko Erregeari!

–Hiltzeak etzaitu beraz lotsatzen?

–Batere. Bertzalde, hunat egiazko sinhestearen hedatzeko ethorria bakharrik, etzait iduritzen hiltzea merezitu dutala, horrengatik Anamitek hilarazten banaute, gogotik eta arras gogotik hilen naiz!

–Herrarik baduzu preso zauzkatenen kontra?

–Den gutien-gutienekorik! Erlisioneak etsaien maitatzea manatzen dauku. 21/

[30] Eskuidatzian, *egon.*

Gurutzefika bat eskuetarat eman zioten orduan eta zangopean ibil zezan manatu, hiltzerat kondenatzea nahi ez bazuen. Misionest sainduak behatu zion gurutzefikari eta besarkatu ondoan juje-nausiari ihardetsi:

–Zer derasazu? Gurutze maite hunen erlisionea predikatu dut orai arte eta nahi zinuke ukha dezadan, lotsaz? Bizia ez dut aski maite, holako itsuskeriarik egiteko!

–Bainan hiltzeak hoin guti lotsatzen eta, nola bada gordetzen zinen guk ez atchemateko?

–Jainkoak ez du nahi nihork sobera konda dezan bere indarraren gainean eta bere burua etsaieri eskaint dezan! Ni preso hartzea onhartu duenaz geroz, badakit ez nauela utziko, bururaino lagunduko nauela!

Katichima-irakasle dohakabearen aldi; gero. Ederki ihardetsi zuen harek ere galde guzieri. Alta, makilkaldi ederrik hartu zuen burutik beheiti: etzioten amor-emanarazi. Nihor etzen haatik menturatu misionestaren erhi puntaz ere hunkitzerat! Bainan Pilatus berriek hiltzerat kondenatu zuten aita Theophane Venard: katichima-irakasleak lekhuak hustu behar zituen bakharrik. Eta bi jujamenduak erregeari igorri ziozkaten, bere zigiluaz finka zetzan.

Berehala aita Theophane Venard ezarri zuten kaiola berri batean eta berritz presondegirat ereman. Eskualde hartan etchekoak eta adichkidek jateko igor dezokete preso duten jende edo adichkideari: juje nausiak bere gain hartu zuen misionestaren haztea. Etzuen luzez atchiki hitza eta bertze norbeit urrikaldu ez balitz, aita Theophane Venard laster goseak hilen zuen.

Handik goiti misionest maiteak ez du gehiago sainduki hiltzea baizik ukhanen buruan. Ezin sinhetsia du haren zoriona. Komentu guzietan fraile eta serora-geiak erretreta bat egiten dute, botuak egin baino lehen: aphezgeiak orobat, aphezteko. Martir-geia hala-hala eman zen erretretan. Hil baino bi ilabete lehenago, arras bere baitan sartua zen. Haren atsegina hain handia zen haatik nun noiz-nahi/ 22 kantuz ari baitzen zaintzaleen sudurrean.

Zaintzale horietan bazen soldado girichtino bat: bere burua berehala ezagutarazi zion misionestari. Hunen azken berriak haren bidez ikasi dire. Azken bi ilabeteak ichtudiant batek bere azken demborak bezala iragan omen zituen, Othoitz-handiko liburua eta arrosorioa bethi eta bethi eskuetan, oro oren beretan erranez, batzuetan chutik, gehienetan belhauniko. Gauaren parterik handiena ere othoitzean zeraman edo elizako kantu ederrenen kantatzen: Ave maris Stella, Salve regina eta bertzeak. Eguberriz Eguberriko kantuak eman omen zituen haatik, lerro-lerro, oro gogoz...

Polizako gizon bat, girichtinoa hura ere, aski maiz ethortzen zitzaion ikusterat. Hunekin asko letra igortzen ahal izan zituen eskuin eta ezker, bereziki Mgr Theuvel bere adichkide handiari. Batean komunione saindua galdetu zion. Bainan nola egin? Ostia Saindua untzi batean ezarririk, untzia emazte chahar bati eman zion Aphezpikuak eta emazteak presondegirat heldu. Geroztik hainitzetan komuniatu zuen misionest sainduak, hola. Delako emaztea aski maiz presondegian zabilan, preso zireneri puskateria batzuen saltzen. Erran gabe doa girichtinoa zela.

Zaintzaleen aintzindaria ohartua zen emazte chaharraren jokoari, bainan etzezaken sala: bera, girichtinoa zen. Gehiago dena, behin berak aphez bat kaiolarat hurbilarazi zuen, eta aita Theophane kofesa zadien. Erran ditake beraz oro nahi bezala zoazkiola misionest sainduari. Salbu hau: Tu-duk bethi ichilik zagon eta martir-geiak igurikatzen zuen manua etzen ageri! Zeruetarat hegaldatu nahia zen, aspaldi...23/

PRESUNDEGITIK[31]

Erran ditake[32] saindutasun handienerat jada heldua zela Theophane Venard. Etzituen halere hautsiak lurreko lokarri maiteak. Ikustera heldu zitzaizkon bi chaharreri papera eta lapitz bat galdeturik, ekharri ziozkaten. Ordutik, oi zer eskutitz miresgarriak bere buruzagieri, bere adichkide zenbeiti, eta guziz etchekoeri! Huna eskutitz horietarik zenbeit.

"Mgr Jeantet jaun Aphezpikuari eta aphez-lagun guzieri: Nihork ez daut beharrondoko bat bera eman: nihork ez nau trufatu: orok aldiz begitarte ona egin dautet. Uste dut bat bakharrak ez duela nahi hil nezaten. Guti jasaiten dut beraz bertze zenbeiten aldean. Askiko dut doidoia buruaren eskaintzea eta zeruan izanen naiz, zeruan Jesusen aintzinean: Jauna, huna zure martira! Eta Andredena Mariari hurbildurik nere martir-korona eskuetarat emanen diot: Agur Ama! Agur Erregina! Eta orduan martiren sailean sartuko naiz. Sartuko bethikotz. Halabiz.

Agur, adichkideak, agur lagun onak,
Ilhuntzen hasi baita, parti gaiten denak.
Othoi ichil zatzue zuen nigar minak:
Ez du parerik orai nere atseginak..."

"Mgr Theurel bere adichkideari: Nere jaun maitea, huna, huna nun hurbiltzen ari zautan aspaldi igurikatzen nuen eguna: menturaz bihar izanen da. Nolanahi, laster ethorriko da. Nere kaiolako oren luzeetan noiz-nahi amets batean

[31] Zalantzan ikusten dugu. Batean, *presondegi*, bestean, *presundegi*.
[32] Jatorrizkoan, *dikake*.

bezala zerurat hegaldatzen naiz. Bai, joantchea da dembora. Azken agurra erran dezagun elgarri. Zuk, san Martinen hitza errepika zazu: Jauna zerbeitetako on banaiz oraino, lanak ez nau lotsatzen! Nik aldiz erranen dut: Joaiteko orena hurbildua da, bainan Krichto da Bizia: neretuko dut hilez! Erranen dut orobat Liburu sainduekin: Oi, zoin ederra den Sainduen egoitza! Jada nere 24/ baitan aditua dut: Zorion Jainkoarentzat hiltzen direneri! Huts egin badautzut behinere zerbeitetan, othoi barkha. Nork ez lezoke egin Jesu-Krichtorentzat preso denari? Nere azken agurra doala nere jaun Aphezpiku onari eta aphez-lagun guzieri. Ez dakit bertze hitzik helarazten ahalko dautzutan. Gogotik, gogotik ariko nintzen oraino lanean maite nuen misione huntan: izerdien orde, odola diot eskainiko Jainkoari! Ezpata hor dut buruaren gainean eta ez naiz lotsa: Jainkoak laguntzen nau. Zer atsegina dutan! Salatu behar othe dautzut, atseginaren atseginaz, kantu batzu kantatzen ditudala artetan nere zain dauden soldadoeri? Burua moztuko dautedalarik, Ama Ona, har zazu zure zerbitzari ttipia: Ave Maria. Nere jauna, zuri eta ororri, agur".

Venard jaunari: "Aita maite-maitea: erregearen hitzak luzatzen du: hitz bat igor dezakezut beraz oraino. Guzien buruan presundegiko bizi hau ez da hain ezin jasana. Aski begitarte egiten dautet orok, eta zenbait badire kasik maitagarriak. Handienetik ttipienerat ez othe lukete nahiago batere ez banitz hiltzerat kondenatua? Ez dut orai arte deus ikusi, eta gero ere ez dut segurki deus handirik ikusiko, ezpatakaldi ttipi batek lephoa moztuko dautanaz geroz, behatzkaldi batez nausiak lorea pikatzen duen bezen laster! Oro, lore batzu gare lur huntan, Jainkoak noiz-nahi pikatzen ahal dituen lore batzu. Hauk goizago, bertzeak berantago. Ez dire bardinak arrosa, julufraia eta bertze loreak: bakhotchak badu bere usain berezia. Gu ere gusta gakiola Nausiari gure usain et distiradurarekin.... Aita maitea, chahar zaite eta saindu oraino. Bizi huntako gurutzea arinki eremazu heriotze eder baten galbarioraino. Aitak eta semeak elgar ikusiko dute zeruan. Ni, egun batentzat sortu lorea bezala, lehenik noa. Agur, agur Jainkoa baitan..."

Andere Melanie Venard bere arrebari: "Nere azken orenak hurbiltzen ari baitire, hitz berezi bat nahi dautzut zuri ere igorri, arreba guziz maitea: gure bihotzek bethi ta egin dute. Egundaino 25/ deus ez dautazu gorde, egundaino deus ez dautzut gorde. Haurrean, urthetik urtherat eskoletarat joaiten nintzelarik, zuk biltzen zintuen nere jauntzi eta gainerateko guziak, zuk alegeratzen ninduzun elhe maitagarrienekin: zuk zinuen gehienik parte hartzen nere ichtudiant atseginetan, eta badakit gero eta bethi nola lagundu nauzun zure othoitzez. Behinik behin mila zortzi ehun eta berrogoita hamekan uztailaren hogoita seieko gau bat ezin ahantzia dut, gogoan eta bihotzean landatua. Zer solas saindu eta onak ez gintuen gau hartan buruz-buru erabili, bertze orduz san Bernatek eta bere arrebak bezala! Eta gero itsasoak iragan ditudalarik toki hauk nere izerdiaz eta nere odolaz bustitzeko, sekulan ez nauzu ahantzi: zure boza bethi chuchen heldu zi-

tzautan bere tenorean, azkar egon nadin. Gisa da beraz, gisa baino gisago, azken oren hautan anaia orhoit dadien arrebaz eta azken hitz hau igor dezon. Gauerdi da: nere kaiola lantza eta ezpataz inguratua da: bi urhatsetan jokoan ari dire nere zaintzaleak. Noizetik noizerat, pan ra ta plan, atabala jotzen dute, ez detzan loak har. Argi ttipi bat badut aldean: hari esker igortzen dautzut hitz hau. Noiz-nahi berri handiaren beha nago. Bihar hilen othe naute? Ez dakit. Bainan zer heriotze ederra! Aspaldi igurikatzen nuen heriotzea! Biziaren hastapena! Uste guzien arabera, lephoa moztuko dautet, bainan ikharagarrikeria horrek zeruko athea zabalduko daut. Berria ikasiko duzularik, nigar eginen duzu, bainan ez dut dudarik zure nigarrak atseginezko nigarrak izanen direla. Beha zozu anaiari orduan eta ikusiko duzu zoin ederra izanen naizen martiren koronarekin! Oraino zerbeit egun, menturaz zenbeit oren eta nere 26/ arima hegaldatuko da zerurat. Zerua, egiazko Aberria, garhaitiaren saria! Hautatuen egoitzan sartuko naiz, gizonaren begiak ikus ez detzazken edertasunak ikusiko ditut, musika ederrenak adituko, atsegin ezin asmatuak jastatuko eta gozatuko! Bainan aintzinean ogi bihia bear da eho, mahats bihia lehertu. Aitaren gostuko ogia, aitaren gostuko arnoa izanen othe naiz? Agian! Ama maitearen itzalean, eta Salbatzaile onaren laguntzarekin nola duda? Horra zertako, nahiz oraino lurrean naizen, jada kantuz aditzen nauzun zeruan banintz bezala... Eta zu, arreba maitea, zaude oraino eta [bethi bertuteari eta obra] oneri atchikia. Uzta handi bil zazu zeruko: fedea, esperantza, karitatea, pasientzia, eztitasuna, iraupena, eta ororen buruan heriotze on bat. Agur Jainkoa baitan, Melania! Agur Jainkoa baitan, arreba maitea! Agur!"

Eusebe anaia aphezari: "Anaia maite-maitea: Ez zinezake ongi har, arrazoinekin, zuri ere hitz berezi bat ez igortzea. Merezi duzu, igorri dauzkidatzun hainbertze eskutitz eder eta maitagarrirentzat. Badu haatik zenbeit dembora ez dutala zure berririk. Pentsatzen dut apheztua zarela: menturaz, misionest. [Dena dela, hitz hau ira]kurtuko duzularik, zure anaia Theophane ez da gehiago bizi izanen: zuk ere indar guziez bilhatu behar duzun egoitzan izanen da: zeruan! Lephoa moztua izanen diote paganoek, odol guzia ichuria izanen du Jainkoarentzat. Martir hila izanen da! Ez dut egundaino bertze ametsik egin. Bederatzi urthetako, etcheko ahuntzaren zain joaiten nintzelarik, ez nuen begirik Charles Cornay zeruan den gure herritarraren bizia eta heriotzea irakurtzeko baizik eta jada nornahiri erraiten nuen: Nik ez Tonkinerat joan nahi dut eta han martir hil. Eta orai jainkoak hala nahi du! Anaia 27/ maitea, ez othe ditutzu nik bezala eskerrak bihurtu nahiko haur ezdeus batez hola artha hartzen duen Jainko Onari? Eusebe, nere bihotz guziaz maitatu ditut eta maite oraino Anamitak. Hainitz urthez hemen egon izan behar banu, hortzez eta haginez lehiatuko nintzen hemengo Elizaren sor-arazterat. Ez dut segurki osagarri handia, bainan deusek ez ninduen lotsatuko. Chedeak, gizonak hartzen ditu, Jainkoak egiten obrak, horra egia. Haren eskuetan dire bizia eta heriotzea. Bizia ematen badauku, bizi gaiten Harentzat; heriotzea igortzen badauku, hil gaiten Harentzat! Zu, anaia maitea, oraino gazte

uzten zaitut lurrean: bethi ibil zaite chuchen, bethi zuhurtziak eta umiltasunak gida zaitzatela! Jainkoa eta Maria baizik ez atchik begietan! Eta zer-nahi gerta dakizun, ez lotsa sekulan, eta egiazko portua hunkituko duzu itsasoaren oldar guzien gatik. Anaia maitea, ikus arte, ikus arte zeruan!... 28/

MARTIR

Otsailaren lehenean ethorri zen erregearen mezua: hiltzeko mezu bat, erran gabe doa. Soldado girichtino batek hartu zuen eta heldu mezu hori Hung dohakabeari. Lo zagon oraino Theophane Venard. Goiz hartan hitz bat igortzen ahal izan zion Mgr. Heurel adichkideari: "Uste baino gehiago irauten du nere beilak. Mezulari frango ikusten dut, bainan deusik ez dute neretzat. Goiz guzieri bihotz guziaz agur erraiten diotet, azkena direlakoan, eta azkena sekulan ez da heldu: eternitateko athe ederrek ez dute oraino zabaldu nahi! Bainan egin bedi Jainkoaren nahia, ez nerea!..."

Horra zer sentimendutan zen Theophane Venard, hil-mezua ethorri zela erran ziotelarik. Kanderailu zen. Andredena Mariaren phesta-egun batez sortua, Andredena Mariaren phesta-egun batez hil behar zuen beraz. Ez da dudarik hori gogoan erabili zuela laster...

Zortziak eta erdietan soldadoak hurbildu zitzaizkon, bere kaiolatik atheratu zuten eta jujeen aintzinerat joanarazi, eta auzitegiko irakurtzaileak irakurtu zion erregearen mezua: "Errege bezala manatzen dugu lephoa motz dakion Ven deithu aphez churiari. Hogoita hameka urthe ditu. Burua, orok ikus dezaten hirur egunez pacheta baten puntan atchikirik botatuko da urerat".

Misionestak berritz ere erran zioten jujeeri etzela harat ethorri behar ez den deusen egiteko, bainan ba egiazko sinhestearen hedatzeko, eta oraino bortz eginahalak egin zituen heien buruan sar-arazteko zer den Jesus maitearen erlisionea. Eta auzitegiaren aintzinean, harat bildua zen 29/ jendetzeari buruz, zenbeit hitz erran zituen oraino: "Badakizue nik ez dutala deus hobenik, eta horrengatik hilarazten naute. Bazinakite haatik nere zoriona! Nere herria utzi dut, itsasoa iragan, hunat ethorri naiz zueri egiazko Jainkoaz mintzatzeko, zuetarik hainitz eta hainitz zeruko zorionerat hel diten. Beha zer saria dutan! Heriotzea... bainan heriotze guzietan ederrena!" Eta orduan, burua aphal eta espanturik gabe, bera eman zen soldadoen erdian. Batek jada han zuen altchatua haizkora Misionest sainduak agur ezti bat egin zion ororen artetik.

Harat bilduak zirenetan chede oneko jendeak baziren: gutiz gehienak chede tzarrez ethorriak ziren haatik: martiraz trufatu nahi zuten. Irriak eta trufak sartu zitzaizkoten, lotsatua ikusteko orde, Theophane Venard kantuz aditu zutelarik. Eta aintzinat joan zen misionesta, bildotsa otsoen erdian, otsoak ordartu gabe,

arin eta zalhu lephoa oineri lotzen zioten gathe ikharagarriaren gatik. Hamabi soldado bazituen aldean. Soldado horiek manatzen zituen aintzidaria hurbildu zitzaion misionestari eta ahapetik erran "oraino chorrochtekoak zituela haizkorak". Theophae Venard etzen tantitu eta lañoki ihardetsi zuen: "Etzazula hortaz bururik hauts: gaztigua luzeago eta gustagarriago da nere kasuan!"

Ibai-Gorriaren aldean gelditu zen jendetzea. Soldadoek gatheak berehala khendu ziozkaten kondenatuari eta, doidoia azken benedizione bat emaiteko dembora laburra utzirik, ur hegian landatua zuten pachetari estekatu. Burua gora, begiak zeruari, othoitzean ari zen Theophane Venard. Aintzindariak zerbeit erran zion haizkora eskuan zagon soldadoari eta hunek bere indar guziez misionesta lepho 30/ gibelean jo. Edana zitaken soldadoa, mathelan kausitu zuen martira eta burua etzen bortzgarren ukhaldian baizik erori. Berria laster hedatu zen eskualde guzietarat eta orok goretsi zuten martiraren indar eta bihotz handia.

Handik laster Fedearen-Hedameneko liburuek Theophane Venard misionestaren eskutitz ederrak argitaratu zituztelarik, Frantsesek etzuten doidoia izenez baizik ezagutzen. Geroztik hainitz liburu ederrek hobeki ezagutarazi dute: ezagutarazi Eskual-Herriko chokho gordeetaraino. Ez dire beraz hemen agertu chehetasunak doidoia orhoitarazteko baizik. Mende hau ahal dena da eta gure beharrak sekulan baino handiago dire. Urrikal bekigu Theophane Venard dohatsua. Pio Hamargarrenak ezarri zuen dohatsuen lerroan mila bereratzi ehun eta bederatzian, eta ororen ustea da, guk ez bada, gure ondokoek bederen ikusiko dutela Sainduen lerroan. Erran dezagun ahatik, lan hau bururatu gabe, misionest "saindua", aphez "saindua" erran dugun aldi guziez, ez giniola hitz horri Elizak erranarazten dion erran nahi: badire gizon sainduak, gure mintzatzeko moldean, saindu ez direnak.

Theophane Venard dohatsua, othoitz egizu Frantziarentzat; othoitz egizu Eskual-Herriarentzat; othoitz egizu guretzat...

Jean Elissalde

LOURDESKO AMA BIRJINA, J.B. EGUZKITZAREN EUSKAL PROSAN: *LOURDESKO OSAKUNTZA ARRIGARRIAK*

Andres Urrutia
Euskaltzainburua
Notarioa
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

LABURPENA

Lourdesko Ama Birjina, J. B. Eguzkitzaren euskal prosan: *Lourdesko osakuntza arrigarriak*
J. B. Eguzkitza (1875-1939) idazle bizkaitarrak JAUNGOIKO-ZALE aldizkarian, 1929 eta 1930 urteetan, argitaraturiko 11 testu labur bildu eta aztertu ditu artikulu honek. *Lourdesko osakuntza arrigarriak* izenburu bakar eta nagusiaren azpian txortaturik datozkigu testuok eta fede katolikoaren defentsa sutsua azaltzen dute. Hona hemen, bada, Eguzkitzaren ohiko bizkaiera zahar gozoaren beste erakusgarri bat.
Hitz gakoak: Eguzkitza, Jaungoiko-Zale, Lourdes, 1920ko prosa, mirarien narrazioak.

RESUMEN

La Virgen de Lourdes en la prosa vasca de J. B. Eguzkitza: *Curaciones milagrosas de Lourdes*
Este artículo recopila y analiza 11 breves textos publicados por el escritor vizcaíno J. B. Eguzkitza (1875-1939) en la revista JAUNGOIKO-ZALE durante los años 1929 y 1930. Se engloban estos bajo el único y génerico título de *Lourdesko osakuntza arrigarriak* (Curaciones milagrosas de Lourdes) y suponen un alegato en fervorosa defensa de la religión católica. He aquí, pues, otra muestra más del tradicional y delicado euskera vizcaíno al que Eguzkitza nos tiene acostumbrados.
Palabras clave: Eguzkitza, Jaungoiko-Zale, Lourdes, prosa años 1920, narraciones milagrosas.

RÉSUMÉ

La Vierge de Lourdes dans la prose basque de J. B. Eguzkitza: *Les Guérisons miraculeuses de Lourdes*
Cet article recueille et analyse 11 textes brefs publiés par l'écrivain biscayen J. B. Eguzkitza (1875-1939) dans la revue JAUNGOIKO-ZALE dans les années 1929 et 1930. Ils forment un ensemble intitulé *Lourdesko osakuntza arrigarriak* (Les Guérisons miraculeuses de Lourdes) qui constitue une fervente défense de la religion catholique. Nous avons donc ici un autre échantillon du délicat et traditionnel euskera biscayen auquel Eguzkitza nous a accoutumés.
Mots-clés: Eguzkitza, Jaungoiko-Zale, Lourdes, prose années 1920, récits miraculeux.

SUMMARY

The Virgin of Lourdes in the Basque prose of J. B. Eguzkitza: *Miraculous cures at Lourdes*
This article compiles and examines 11 short texts published by Biscay writer J. B. Eguzkitza (1875-1939) in the journal JAUNGOIKO-ZALE in 1929 and 1930. The texts are grouped under the catch-all title of *Lourdesko osakuntza arrigarriak* (Miraculous Cures at Lourdes) and, taken together, make a passionate defence of the Catholic religion. Another example, then, of the traditional and delicate Biscay dialect of Basque of which Eguzkitza was a master.
Key words: Eguzkitza, Jaungoiko-Zale, Lourdes, 1920s prose, stories of miracles.

Artikulua jaso / Fecha de recepción: 2011.01.10.
Artikulua onartu / Fecha de aceptación: 2011.04.14.

1. SARRERA

Lourdesko Ama Birjinaren historiak luze jo du euskal letretako esparruan. 1858. urtean, Andre Maria Bernardette Soubirous artzain-neskatoari agertu zitzaionetik, ugari izan dira hango agerkunde eta mirakuluak goraipatu dituzten euskal idazleak, batik bat, erlijio katolikoaren aintza eta gorespenerako.

Horien artean, eta garai jakingarri batean, ia-ia XX. mendeko hogeita hamargarren urteetan, Juan Bautista Eguzkitza (1875-1939) abade bizkaitarra izan zen. Horren prosa leuna eta horren eginahal sutsuak bildurik geratu ziren *Lourdesko osakuntza arrigarriak* titulupean, JAUNGOIKO-ZALE aldizkariaren artikulu-sorta batean, inoiz liburu lez argitaratu ez zirenak.

Jaungoiko-Zale *aldizkariaren goiburukoa, 1929koa.*

Egilea eta gaia jakingarri direlakoan, aldi honetako prosa erlijiosoa erakusten dute artikulu hauek, honetarako argitaratuak, hamaika abade bizkaitarrek sortu zuten JAUNGOIKO-ZALE bilkuran. *"Euntes docete"* agindu ebangelikoa zuten haiek goiburua (*"Euntes ergo docete omnes gentes",* Mateo 28, 19) –hau da, "Zoazte, bada, eta egin herri guztiak nire ikasle"–, eta oso-osorik aztertu gabe badago ere, badira haien berri ematen dutenak[1]. Bide beretik jardungo dut neuk ere oraingoan, euskal iralurlearen eskutan jarriz material hau.

---

[1] MANTEROLA, Ander: "Gabirel Manterola (1890-1977)", *Bidegileak*, 41 zk., Donostia-San Sebastián: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2005.
URRUTIA, Andres: "Juan Bautista Eguzkitza (1875-1939)", *Bidegileak*, 24 zk., Donostia-San Sebastián: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2001.

2. TESTUEN EZAUGARRIAK ETA ARGITARATZE-LEKUA

Testuak 11 dira, JAUNGOIKO-ZALE aldizkarian argitaratuak. Esan lez, aldizkari hori izen bereko abade bizkaitarren elkarteak argitaratzen zuen eta erlijio katolikoaren zabalkundea zuen lehen-lehenengo helburua. Haien goiburuak, lehen esandakoaren aldetik, egoki laburtzen zuen asmoa, alegia, kristau euskaldunei, hilero-hilero, erlijioaren inguruko zehaztasunak euskaraz ematea.

Aldizkari honen zimentarria ere izan zen Juan Bautista Eguzkitza aldi batez; Zornotzan zuten bilgunea eta 1917 urterako bera zen buru. Oro har, bere testuek erakusten dute elkartearekin izan zuen konpromisoaren maila.

Lourdesko osakuntza arrigarriak izenburu bakar eta nagusiaren azpian idatzirik datozkigu, bada, JAUNGOIKO-ZALE aldizkarian 11 testu; testuok batu eta bildumatxo hau atondu dugu. Hona hemen euron xehetasun bibliografikoak: argitaratze-urtea, zenbakia eta orrien kopurua.

Jaungoiko-Zale, 1929, 340 zk., 6-7 or.
Jaungoiko-Zale, 1929, 342 zk., 40-41 or.
Jaungoiko-Zale, 1929, 347 zk., 123-125 or.
Jaungoiko-Zale, 1929, 348 zk., 141-142 or.
Jaungoiko-Zale, 1929, 356 zk., 272-274 or.
Jaungoiko-Zale, 1929, 357 zk., 292 or.
Jaungoiko-Zale, 1929, 359 zk., 323-324 or.
Jaungoiko-Zale, 1929, 360 zk., 338-339 or.
Jaungoiko-Zale, 1929, 361 zk., 338-340 or.
Jaungoiko-Zale, 1929, 362 zk., 356-358 or.
Jaungoiko-Zale, 1930, 365 zk., 25-28 or.

Hortaz, liburuxka osotzen dutenik ezin ukatu. Liburuxka horren testuak dira oso-osorik hemen bildu direnak gerogarrenean azalduko diren transkripzio-irizpide grafikoekin.

Lourdesko osakuntza arrigarriak *testu-sortaren erakusgarria. Azken idatziaren burua (1930, 365. zenbakia)*

3. LOURDESKO AMA BIRJINA EUSKAL LETRETAN: NOR, NOIZ, ZER

Mendearen hasieran, 1908an, argitaratu zen Durangon *Ama Birjiñaren agertziak eta gañerako Lurdesko gertaera goguangarriyak* izeneko liburutxoa, Frantzisko Goñi jesuita gipuzkoarrak idatzia. Euskal letretan, Lourdesko mirariei buruz dagoen oihartzunik zaharrenetarikoa dugu Goñik moldatutako tratatu hori. Handik hirurogei urtera ere berrargitaratua izan zen, *Auspoa* argitaletxean, hain izan zen euskaldunen artean entzute handikoa bera.

Liburuaren aurkezpenarekin batera, ekar dezagun hona sarrerako hitz esanguratsu batzuk.

– GOÑI, Frantzisko (1908): *Lourdesko gertaerak: Ama Birjiñaren agertziak eta gañerako Lurdesko gertaera goguangarriyak* (1. argitaraldia).



JHS

AMA BIRJIÑAREN

AGERTZIAK

ETA GAÑERAKO

LURDES-KO GERTAERA GOGUANGARRIYAK

Aita jesuita Franzisko Goñik
euskaraz eskribitua

Eliz agintariaren baimenarekiñ

A. M. D. G.

DURANGO-N
Florentino Elosu-ren etxean
1908-GARREN URTIAN

Aita Frantzisko Goñiren liburu-azala (1908)

> *"Galdetuko duzute agiyan, iya zergatik atzerrikuen istoriya eskribitzen dudan, euskal errikuak utzita; bada, bi arrazoigatik egin dut: Ama Birjiña Lurdeskua gure denboretan oso sonatua delako, eta Berari (uste duanez) asko zor diyodalako (…).*
>
> *Ez izutu eskriturakin ere; euskaraz eskribitzeko legerik oraindik ez dugu, eta orrengatik bakoitzak bere modura eskribitzen du; biño, nik uste dudanez, au da modurik zuzenena eta arrazoizkuena. Pixka bat irakurri orduko, oituko zera; aurrera bada!".*
>
> (F. Goñi,
> *Lourdesko gertaerak:*
> *Ama Birjiñaren agertziak eta gañerako Lurdesko gertaera goguangarriyak,*
> Durango: Florentino Elosu, 1908, 3-4 or.)

Baina, bistan da Iparraldeko Euskal Herritik etorri direla nagusiki Lourdesi buruzko berriak. Hurbiltasun geografikoaz gain, pentsamolde bera ere bazen hortxe.

Gaia agortzeko asmorik gabe, hona hemen abiapuntu gisa, horien inguruan jardun duten euskal idazle zenbaitzuren aipuak:

– BARBIER, Jean (1920): *Ama Birjina Lurden.* Itzulpena da, berak azalean esan bezala, "Pruvost aphezaren frantses liburu batetik egina". Barbierrek badaki, haatik, Lourdes Euskal Herritik gertu izanik ere, inor ez dela deus ere idazten ausartu. Bere hitzak esanguratsu oso dira:


JEAN BARBIER

AMA BIRJINA LURDEN

Les Merveilles de Massabielle

Pruvost aphezaren Frantses liburu batetarik egina

EN VENTE :
LIBRAIRIE LASSERRE
20, Rue Gambetta, 20
BAYONNE

Barbierren Ama Birjina Lurden liburuaren aurrealdea (1920)

> *"Hainbertze lan handi egin delarik orai arte, eskuaraz, nola bada ez zaio nehori oraino bururatu, guri hoin hurbil agertu den Ama Birjinari (eskualdunek, Lurden, hain maiz, beila ederrenez goretsi duten Ama onari) zerbait pullit zor zitzaiola, Eskual Herritik hegaldatu liburutto batean? Gu ez bezala gai zirenik, zonbat ez zen bazterretan?*
>
> *Nehor nehondik agertzen ez delakotz, huna non abiatu naizen, orduan, zorion handirekin, bainan beldur handiagoarekin oraino.*
>
> *Barkatu nahiko dautazu, othoi, Ama ona! Nehor bertzerik ez zen ezagun. Lagunduren nauzu eta, agian, ongi nahi nukeen bezala, gehiago maitaraziko zaitut oraino, ja hoinbertze maite zaituzten eskualduneri!".*
>
> (J. Barbier, *Ama Birjina Lurden,*
> Baiona: Librairie Lasserre, 1920, 6 or.)

– SOUBELET, Domingo (1942): *Lurdeko Ama Birjina: Jesusenganat, Ama Birjinaren eskutik* (1. argitaraldia). Soubelet da, 1942. urtean, hots, munduko bigarren gerra puri-purian dagoela, gaiari berriro ekiten diona. Ezagun zaio, apaiz izanik, gerrak

moztu duela euskaldunen beila Lourdesen. Nahi du, horratio, honen ordezkoa eskaini euskaldunei, maiatzeko hilabeterako bereziki:

> *"Maiatzean, eta urrian fededunak biltzen dira elizetarat, fededunak elgarretaratzen dira etchetan, Ama Birjinaren ohoratzeko, haren othoizteko, haren hobeki ezagutzeko, haren etsenplueri jarraikitzeagatik.*
>
> *Bilkura horietan, irakurtzen egiteko, huna eskuliburu bat:* Lurdeko Ama Birjina.
>
> *Lurdeko gerthakarieri jarraikitzen da cheheki, othoitz berezi bat emaiten duela bururatzean.*
>
> *Doala liburu chumea. Hegalda dadila Eskual Herriko elizetarat, etchetarat eta eskualdunen eskuetarat.*
>
> *Irakurleak lagun ditzala Lurdeko Ama onak, Jesus Jaunaren gero ta gehiago ezagutzen, maitatzen eta haren Ebanjelio sainduari jarraikitzen".*
>
> (D. Soubelet, *Lurdeko Ama Birjina*: *Jesusenganat, Ama Birjinaren eskutik*
> Baiona: D. Soubelet, 1942, 7-8 or.)


YOMINGO SOUBELET
KALONJEA

LURDEKO
AMA BIRJINA

JESUSEN GANAT,
AMA BIRJINAREN ESKUTIK

EN VENTE CHEZ L'AUTEUR:
M. LE CHANOINE SOUBELET
CURÉ D'ASCARAT (B.-P.)

Soubeleten liburu-azala (1942)

Autore berak, hamasei urte geroago, 1958an, liburu are osoagoa euskaldunen eskuetan jarri zuen, Lourdesko gertaeren mendeurrenean ("mende mugakari", azpizenburuan dioen lez).

> *"Badira Lurdeko gerthakariez ehunka liburuak. Guk ere nahi diotegu eskaini eskualduneri, Lurdeko ichtorioa, eskuaraz. Geldituko da liburua, urthe sainduaren orhoitzapen".*
>
> (D. Soubelet, *Lurdeko Ama Birjina*,
> Baiona: Chez l'auteur, 1958, 9-10 or.)

– ETXEBERRI, J. B. (1966): *Frantziako Erregina*. Etxeberriren asmoa, ordea, apalagoa da eta euskaldunen beilak ditu helburu, Lourdesko prozesio eta ibilbideen kontaketa xeheekin.

Etxeberriren Frantziako Erregina *liburuaren aurrealdea (1966)*

> *"Dena dela, gu ere sar gaiten fedezko eta amodiozko sendimentuetan Lourdeko Ama Birjinaren alderat, gogoan erabiliz elgarrekin hango agerpen, beila, eliza-phesta, beila, eliza-phesta biotz altchagarriak".*
>
> (J. B. Etxeberri, *Frantziako Erregina*,
> Baiona: Imprimerie des Cordeliers, 1966, 242 or.)

4. EGUZKITZAREN AHALEGINAK

4.1. Hasierako azalpena: osakuntza harrigarriak

J. B. Eguzkitza, beste autoreak lez, apaiza da, beraz, fede katolikoaren defentsatik idazten du. Hortaz, zalantzarik ere ez du jartzen Ama Birjinaren agerkundeak direnik Lourdeskoak.

Izatez, Bernardatxu neskak ez zekien nor zen agertzen zitzaiona, eta hari galdetu zion. Hark, irribarrez, okzitanieraz erantzun omen zion: *"Que soy era Inmaculada Conceptiou"*. Hizkuntzaren xehetasun honetan bat datoz idazleak, hain zuzen ere, neska honen apaltasuna azpimarratzeko. Frantsesa ere jakin gabe, *patois* zen haren hizkuntza.

Berehala gauza harrigarriak gertatu zitzaizkion Bernardatxuri: sugarretan eskua jarri eta erre ez, agindu zirenak jazo, Andre Mariarengatik eliza bat bertan eraikitzeko eskabidea… eta nola ez, osakuntza harrigarriak.

Hartara, Eguzkitzaren ikuspegia halakoxea da, hain juxtu ere, mirariena.

> *"Lourdesen osakuntza arrigarriak egiten dirala bere senean dagoan gizonak ezin ukatu daike; sasijakitun arroputz batzuk osatze oneik mirariz egiten diranik ez dabe autortu nai. Alatz edo miraria ezin izan daiteken gauzea dala dinoe. Ori baino tentelkeri andiagorik gizonak ezin esan leike! Miraririk ezin jazo daitekela esatea, Jaungoikoa ukatzea beste da; baina Jaungoikoa badago ta berak egindako izatearen legeak bere menpean daukaz; bere menpean badaukaz, nai dauanean lege orreik ausi naiz aldatu daikez. Miraria orixe baino besterik ez da."*
>
> (*Lourdesko osakuntza arrigarriak*, II.)

Barbierren eginahalak Bernardatxuren bizitzatik datoz eta Soubeleten bigarrena da osoena, bitarikoak jasotzen baititu, hots, Bernardatxuren bizitza eta Lourdesko mirakuluak.

Edonondik begira dakiola ere, ikuspegia, lehen esandako moduan, Lourdesko gertaeren apologia eta zabalkundea da, kasu guztietan, erlijio katolikoaren egiatasunaren baieztapenak baitira, egileen ustez, Lourdesko gertaerak eta horien ondokoak.

Eguzkitzak, arean ere, badu beste helmuga bat, Euskal Herriko Hegoaldean Lourdesko Andra Mariarenganako debozio edo eraspena sendotzea, hango mirakuluak goraipatuz. Hainbatez, sona handikoak izan ziren hauek Europa osoan eta horien argigarriak dira esandako liburuak.

Honetara dio lemoarrak:

> *"Izatearen indar utsez naiz osakaien bidez olako osatzerik ez da inoz egin; jakitun arroputzok olakorik egiten ez dakie ta atso zarrak lez barriketan ekin baino isilik egon obeto egingo leukie. Beti asmakizun barrietan ibili barik, egiti ta egizaleak balira, gitxienez be auxe autortu bear leukie: 'Lourdesen egin diran lako osatzerik,* bapateko *osatzerik, egiten gure aurretikoak ez ekien eta guk be ez dakigu; gu baino sendatzaile oberen bat dabil or.* Digitus Dei est hic. *Lourdesko osatze orreitan Jaungoikoaren eskua ta Andra Mariaren bitartekotasun altsua agiri dira»".*
>
> (*Lourdesko osakuntza arrigarriak*, IV.)

4.2. Iturriak

Eguzkitzaren iturriak ezezagunak badira ere, sinesgarri da oso nonbaitetik jaso zuela berak honetarako informazioa.

Nabarmenagoak dira Iparraldeko egileen iturriak. Barbierrek, berbarako, beren-beregi aipatzen du, Pruvost apaizak eginiko *Les Merveilles de Massabielle* izenekoa egokituz idatzi duela bere liburua.

Soubeletenak, aldiz, bere kautan eginiko testua ematen du, eta orobat J. B. Etxeberrirenak. Orotara, apaiz hauek, euren ofizioa zela eta, batetik eta bestetik jasotzen zuten informazioa erabili zuten testuok moldatu orduan.

4.3. Lourdesko geroa: agerkundeen osteko gertaerak

Eguzkitzak, gorago esan lez, Lourdesen gertatu mirakuluak sutsuki hobesten ditu. Batez beste, honakoak dira papereratzen dituen kasuak eta gaixoak.

– Lea Courtout neskatila (II): Pott gaixoaz.

> *"Lea Kurtu [Courtout] neskatileak bere lepazurrean okerrune bi daukaz: gaitz oni erderaz Pott gexoa deritxoe. Parisko Hotel Dieu gexoetxera doa ta Ferran eta Necker sendatzaileak zaintzen dabe; baina onein ardura ta aleginak gorabera, lepazurra beti gexo, beti oker. Lourdesera etorri nai ebala-ta, urtebete osoan askaririk [meriendarik] artu baga egonaz, berrogeita bost franko aurreratzen ditu; baina bere gurasoak etxe-errentea ordaintzeko bear zan beste ez eukela-ta, aurreraturiko dirutxuok gurasoai emoten dautsez eta Lourdesera barik gelditzen da. Urrengo urtean (1895garrenean) Parantze guztiko bidezkundeaz Lea be Lourdesera dator. Bere sendatzaile Cherié jaunaren ageria dakar. Onelan dino: «Emakume onen lepazurra ardatzetik urtenda dago; okerrune naiko andi bi daukaz eta atzeaurreetan konkortxu bi be bai».*
>
> *Dagonilaren [abuztuaren] 21ean Lourdesko bainutokian dago. Uretan sartzen da ta beste barik osatu. Parisera biurtu zanean, lengo sendatzaileari dei egiten dautso. Ikusi ta aztertzen dau ta bere bigarren agerian, onelan dino: «Lepazurra zuzen dago, okerruneak joan dira. Orraitik be, lepazurraren azkenengo atal bietan konkortxua oartzen da. Ezkerreko soinburua bestea baino pizkatxu bat gorago dauko ta bularraren eskomaldea bestea baino argaltxuago». Toki bitan, batean baterantz eta bestean besterantz, okertuta egoan Learen lepazurra, bapatean zuzendu ta osatu zan eta barriro ez zan inoz okertu."*

– Leonia Chartron andereñoa (II): konkorduna.

> *"Leonia Xartron [Chartron] korkotxa zan: lepazurra okertu jakon eta konkor galantak urten eutsan. Sendatzailerik ospatsuekana jo eban, ezertxu be aurreratu barik. 1869garren urteko garagarrilaren 21ean, Lourdesko uretan, begi itxi-idegi baten guztiz osatu zan: bere konkorra be bapatean ibitu, jatsi ta kendu jakon. Osatze au aztertu ta gero, Gagniard sendatzaile janak auxe idatzi eban: «Leonia anderañoaren bapateko osakuntza arrigarria begien aurrean dago ta, zinez, mirari andia da. Izatearen indar utsez gexo onen bapateko osatzea azaldu daiken medikurik ez dago. Gexoa, elbarriaren azkentzaroan sorgortuta egoan, sukarra eukan, zolduta egozan lepazurreko sei atali zornea erioen…, bapatean osatu*

zan». Beste orrenbeste inongo sendatzailek [medikuk] ez dau egundo egin; ezpabe, nork eta noz egin dauan esan daiskuela ta orduan ikusiko dogu; baina bien bitartean osatze au miriariz egin dala sinestu ta esateko eskubide osoa daukagu."

– Villepinte ospitaleko 58 neskatila, izen gabekoak (II): bularrekoaz (24 osatu ei ziren).

– Konstantzia Piquet andereñoa (III): minbizienaz.

"Bularreko gexoa osakaitza da ta aurreratuta dagoanean batez be, ezaugarri agiriak daukaz; baina zauri ta bizienak be nazkagarriak dira ta agirikoak diralako, edonork ikusi daikez eta inork be ezin ukatu.

1894garren urtean Konstantzia Piket, anderañoa, Soulairesko alabea, Lourdesera dator. Iru urte luzean bere bularreko aragiak irunsten diarduan biziena dauko. Levesko sendatzaile ospatsu Martin jaunak, osatebakuntzarik ez eutsan egin nai izan, bere eretxiz emakume onen bizien anditua osatu ezina zala-ta. Dagonilaren 24an Lourdesko bainutokian dago; uretan sartzen da, ezertariko minik ez dau oartzen. Uretatik urtenda bere bularra begiratzen dau eta anditurik ez daukala arrituta dakus. Medikuen egiztatze-lantegira doa. Ogeiren bat mediku dagoz, euren artean Regnauld, Rennesko irakaslea. Bizienaren aztarna bila asten dira, baina alperrik; an ez dago olako gexorik, bapatean zearo osatu da. Len aitatu dogun Martin sandatzailea sinesgogorra zan; baina ori ta guzti be, Piketen osatzean benetan arrigarria zala autortu eban."

– Joakina Dehant andrea (III): bernako zauri ustelduaz.

"Joakina Dehant, ogeita bederatzi urteko emakume belgikarra, Wanfercee-Bauleten jaio ta Gesvesen bizi zanak bere bernan zauri zarra dauko; belaunetik orkatileraino luze, ia arra bete zabal, azurretaraino sakon; giarra ta maminak usteldu jakoz, birekatx, zorne ta zakarra ugari dario: aragiak ustelduaz, kirio ta zanak be laburtu ta bernea ta oina barrurantz okertu jakoz. Emakume onegan bizitz iturria agortu dala dirudi; ogeita bederatzi urte ta ogeita zazpi kilo baino ez daukaz."

– Frantzisko Vion-Dury gizona (III): itsua.

"Frantzisko Vion-Dury zazpi urtean egon zan itsu. Lyongo begi-sendatzaile Dor jaunak bere agerian onelan zinoan: «Vion-Duryri betsare [retina] *biak askatu ta jausi jakoz. Ezkerrekoa atzeratuta dauko ta begi onegaz eguna ala gaba dan be ez dau igarten. Eskomakoaz be, begitik arra bete urrunago ez dau ezer ikusten. Lanik ezin egin daike ta oso itsutzat etsi bear da, bere gexoa osatu ezina da ta»."*

– Aurelia Bruneau andereñoa (IV): gor-mutua.

"Aurelia Bruneau, Chabrisko alabea, gor-mutua da. Ogei urte eukazala, iru egunetan jarraian Lourdesko ur-tanta batzuk botaten ditu bere belarri-zuloetara,

ta 1892garren urteko urrilaren 11n entzumena bapatean datorkio ta entzumenaz batera itz egiteko almena be bai."

– Rosa Evrard neskatxoa (IV): gor-mutua.

"Bost urte geroago (1897garrenean) etorri zan Lourdesera Rosa Evrard, zazpi urteko neskatxua, Wanlingo alabea ta jaiotzaz gor-mutua. Urtebete lenago alabea Lourdesera ekarteko zin-eskaina [promesa] *egin eban bere aitak eta Konjouxen dagoan Lourdeskoaren antzeko aitzulora eroan be bai. Andik aurrera zerbait entzuten eban eta itz bat edo beste esan be bai; baina oso gitxi ta bape ez argi. Lourdesen, ostera, bere mingaina bapatean askatu jakan; argi ta garbi itz egiten asi zan eta Boissarie, ango sendatzaileen buruzagiak, aitak eta erriko abadeak baietz esan arren, neskatilatxu au jaiotzaz gor-mutua zanik sinestu be ezin eban."*

– Pedro de Rudder gizona (V): berna-hezur hautsiaz eta zolduaz.

"1867garren urteko zezeilaren 16an lanetik etxerantz datorrela, Du Bus de Gisignies bizkondearen oianean zugatzak ebagi ta erasten ziarduen anai bi (Knockaert eritxoenak) aurkitu ebazan Rudderek bere bidean. Eratsitako zugatz bat alboko solora jausi jaken eta txikotez loturik bide-ertzera ekarri nairik eta ekarri ezinik ebiltzan anai biok. Olako aldietan oi danez, Rudderek bere laguntza eskini eutsen eta zugatza zoritxarrez bere gainera etorri jakon eta belauna baino beratxuagotik ezkerreko bernazurrak ausi ta birrindu eutsazan."

Jarraian, Zola idazle frantses famatuari egiten dio aurka. Hura sinesgabea, Eguzkitza sinestedun. Honexetarako erabili zuen bere izena, Eguzkitzaren iritziz:

"Zola guzur-saltzailea ta Lourdesko osakuntzak.] 1892garren urtean Zola idazle entzutetsua; baina ospatsua baizen gaizto, lizun eta zikina, Lourdesera etorri zan, emen jazoten zana bere begiz ikusi ta ikasi nai ebala-ta. Bere etorrerea aurretiez iragarri eban, abarrots andiz iragarri be. Lourdesen ate guztiak idegi eutsoezan, nai eban guztia ikusten itxi. Sendatzailea izan balitz be, abegi oberik ez eutsoen egingo Lourdesko sendatzaileen lantegian.

Egia esateko asmuz etorrela zinoan; baina gero, egiak bildurtu baileban, gai onetzaz idatzitako bere liburuan egia urri darabil eta darabilan apurtxua be estaldu nai leuke".

(*Lourdesko osakuntza arrigarriak*, VI.)

Zolak horren ondorioz idatzi zuen liburuan, lau andrazkoen kasuak aipatzen ditu. Laurak osatu zirela ez du ukatzen baina haiena azaleko osakuntza zela dio Zolak; aurrez aurre Eguzkitza du, kontrako argudioak berme eta ziurrak direla esanez. Bizkaitarrak gezurtitzat jo du idazle frantsesa.

> *"Osatu zirala ez dau ukatzen; baina osatze ori azalekoa baino ez zala izan edo beintzat goiko indar barik, izatearen indar utsez egin zeitekena zala adierazo nairik, inon diran asmakizunak darabiltz eta guzur biribilak be bein baino sarriago esaten ditu. Egia ikusteko era ederrik asko euki eban gizon gaizto onek, ez ikustearren begiak itxi ebazan eta zergaitik ez dakigu; baina gitxien uste ebanean, bapateko eriotza negargarriaz, ezertarako asti barik il zala edonork daki".*
>
> (*Lourdesko osakuntza arrigarriak*, VI.)

Klementina Trouvé, Gordet andrea, Maria Lemarchand eta Maria Lebranchu dira lau emakume horiek. Kapitulu bana ematen die Eguzkitzak, horien osatzea egiazkoa zela erakusteko.

Zolak, antza denez, bereari etsi ez, eta hil arte eutsi zion idatzitakoari, Eguzkitzaren haserre bizia sortu arte.

> *"Bere liburu au idatzi ta laster il zan Zola guzur-saltzailea eta zelan il be! Jangoikoaren aurrera agertzeko unetxu bat be ez eban euki. Jangoikoaren zigorra izan ete zan? Ori ez dakigu. Baina asmu txarrez eta arrokeriz onako guzurrak zabaltzea, egia ostikopean erabiltea da; bilatu ta deitzen gaituan Jaunari jarkitea, argiari begiak itxi ta zarratzea da, eta gaiztakeri onetzaz idatzita dago: ez bizitza onetan ez bestean ez dala parkatuko".*
>
> (*Lourdesko osakuntza arrigarriak*, IX.)

Soubeleten Zolarekiko kritika ere gogorra da:

> *"Baina Pariserat itzulita, sendatze mirakuluzko hori ukatzen du, Lurdez egin duen liburu gaichtoan. Erakusten du delako Marie Lebranchu zainetakoak hartua, bainan laster lurrerat eroria, lehertua, ahotik odola botatzen duela, eta ekarria Pariserat agonian, han laster hiltzeko, dudarik gabe.*
>
> *Boissarie medikua kechu da gisa hortako moldeaz (…).*
>
> *Zola irriz ari da, eta medikuari erraiten dio:*
>
> *– Jaun medikua, nik egina dut ene liburua, liburuan ezarri presunak eniak dira. Ez bazira ene liburuaz kontent, utz zazu ene liburua.*
>
> *Izigarri samur da Boissarie, eta erraiten dio:*
>
> *– Liburu tzar eta makur bat egin delarik, denek ezagutzeko gisan egin behar da. Ez da erraiten, liburu hortan ezartzen direla: jakitatea, ichtorioa den bezala eta egia".*
>
> (D. Soubelet, *Lurdeko Ama Birjina*,
> Baiona: D. Soubelet, 1958, 164-165 or.)

Beste osakuntza harrigarri bi ere azaltzen ditu Eguzkitzak, Freymann andrearena (X. kapituluan) eta Gargam gizonarena (XI. kapituluan).

Guztira ere, ondorioak ostendu ezinak dira Eguzkitzarentzat: Ama Birjinarenganako fedeak eraginak dira mirakuluok.

> *"Arrezkero be, sendatzailerik bikainenak osatu ezindakotzat eukezan ainbat gexo osatu dira Lourdesen. Urtero, ta batez be, Pantze guztiko bidezkunde nagusia egiten dan egunetan, gexo askotxu osatu doaz. Baina Lourdesen benetako mirariak jazoten dirala adierazteko, aurrerago aitatu doguzan osatze orreik be naiko dira ta, oraingoz besterik esan bearrik ez dago".*
>
> (*Lourdesko osakuntza arrigarriak*, XI.)

Jakina da, fedearen gainetik, Lourdesen aspalditik antolatuta daudela medikuen batzordeak, osakuntzen aldetik egiaztapenak egiten dituztenak. Elizak ere, bere aldetik, ezarria du aitortzen dituen mirakuluen hurrenkera.

4.4. "Alatza" edo "miraria"? Eguzkitzaren euskara

Bizpahiru ohar egin daiteke Eguzkitzaren hizkuntzari buruzkoak.

A) Lexikoaren aldetik

Eguzkitza, egungo ikuspegitik epaituta, garbizaletzat hartuko genuke euskararen esparruan. Garbizale izendatze hori, hala eta guztiz ere, ñabartu beharko genuke, harenak ez baitira itsu-itsuan behin Sabino Aranak asmatu eta zabaldu zituenak.

Hala, Eguzkitza antzinaren zalea da, lexikoaren eta esamoldeen eremuan batik bat. Lehenesten ditu, arlo horretan, euskararen sakoneko txokotik datozkigun jatorrizko hitzak zein asmatu gabeko berba zaharrak, zaharregiak beharbada, sarritan astun egiten baitute hauek bere idazte-haria.

Ezaugarri horren aldamenean, biak ala biak, bada bestelakoa, egun ere jakinmina pizten duena, lemoarraren diskurtsoaren jarioa garbi eta gozo datorrelako belarrietara.

Bizkaieraz idazten du, eta sinonimia ere ugari darabil, hitzen ezjakintasuna, irakurleen aldetik, bigundu nahian: *kirioa* (nerbioa), *sendatzailea* (medikua), *landerretxea* (babes-etxea), *betsarea* (erretina), *zin-eskaina* (promesa), *oinetakoa* (oskia), *bultzi* (trena), *inartzi* (inbidia), *zerraldoa* (atautea), *bular goiengo azurra* (kabila), *bidai-morroia* (korreoetako enpleaua), *izpela* (ostra), etab.

Nabari denez, hitz bana maileguaren bidez aditzera ematen du, ohikoa izaten zen formula erabilirik.

B) Izen propioen eta exonimiaren trataera

Honetan Eguzkitzak ez darabil irizpide finkorik. Protagonista nagusiaren izena, Bernardette Soubirous, Bernardatxu bihurtzen badu ere, gero ez doa beti bide

beretik eta 'Courtout' *Kurtu* egiten du, 'Chartron' *Xartron*, eta 'Constance Piquet', *Konstantzia Piket* ematen ditu euskaraz.

Oro har, esan daiteke gaixo sendatuen izen-deituretan, izena euskaratu egiten duela, eta deitura, nagusiki, bere horretan uzten duela.

Puntu honetan ere, hurbiltasun-urruntasun efektua lortzen du, aldi berean, hitz egiten digulako entzuleen esparrutik kanpo dagoen zerbaiten aipamen ez ohikoaz, eta Ama Birjinak bultzatua denaz, eta bestetik gertaera harrigarri horien protagonistek irakurleen izenen modukoak dituztelako: *Frantzisko, Maria, Bernardatxu,* etab.

Egoera harrigarri hauek, gainera, Frantzian gertatzen dira; hots, aldameneko herrian eta era berean urruntxo dagoen haretan. Bai, urruntxo, sinesgabeen herri eta aberrian (gogoratu Zolaren liburuak ekarri zuen eztabaida)…

Exonomastikari begiratuz gero, batik bat jatorrizko grafiari eutsiz ageri da Eguzkitza. Behin eta berriro: *Lourdes* bera, zein *Paris, Bordeaux* (eta ez *Bordele*), *Metz, Villepinte, Wanfercee-Baulet, Liege, Lyon, Chabris, Wanlin, Oostacker, Henrichemont, Dieblinge, Soulaires, Leves, Namur, Raen,* edota *Wiesbaden*. Frantzia eta Belgikako hainbat herri dira agerikoak testu hauetan.

Horretan ere desberdindu da Eguzkitza, Barbierren eta Soubeleten ahaleginetatik. Barbierrek frantses izen eta deiturak letra etzanez ematen ditu. 'Lourdes' *Lurde* egiten badu ere, ez ditu leku-izenak euskaratzen xehe-xehe. Soubeletek aiseago jokatzen du eta frantsesezko izen-deiturak eta leku-izenak besterik gabe hartzen ditu.

5. GURE ARGITALPENA

Hitzez hitzezko transkripzioa da esku artean duzuen hau, gure betiko jokabideari jarraituz, jatorrizko testuetako hizkuntza ezaugarriei albait zintzoen eutsi guran.

Utzi egin ditugu, esaterako, *bidar, ospatsu, gexoa, eskar, -keri, lloba, margul, eskoma, anderaño,* edota *ekusi* bezalako tradizioko forma lexikalak, nahiz eta egun aldaeratzat jo, orduko lexiko sistemaren ezaugarri gisa argigarriak iritzi izan diegulako. Bide bertsutik abiatu gara aditz arloan ere, hala *zaite, urteiten, euko, ebilan,* edota *jakan* aditz formak pitean-pitean irakurriko ditu irakurleak.

Lege fonetiko huts-hutsek eragindako formak, ostera, gaurko idazkerara ekarri ditugu: *nausi* > *nagusi, ezaun* > *ezagun, aiskide* > *adiskide, ixilik* > *isilik, aulako* > *aolako* edo *erlejino* > *erlijino*.

Hari horretatik, bada idazki-sorta honetan egin behar izan dugun beste aldaketa sistematiko bat ere, *zetan* > *zertan, zegaitik* > *zergaitik, nok* > *nork, ezetaiko* > *ezer-*

tariko lako galdetzaileena, alegia; gaurko bizkaiera literarioak araututakoak hobetsi ditugu.

Baina ahozkotasunaren erregistroarekin zerikusia duten aldaketen esparrua albo batera utzirik, aipa dezagun testuotako grafiaren gaurkotze-lana sakonean zertan oinarritu den, auzi horretan baitago gure esku-sartzerik nabarmenena.

Batetik, ageri-agerikoa den grafia-aldaketaz gainera (*ñ* > *n*, *y* > *j*, *ll* > *l* eta *r'* > *rr* –"h" grafiarik ez da jarri, hala ere–), apostrofoaren eta marratxoaren erabilerak arteztu ditugu erruz (bateko kendu, besteko ipini, orain banan, gero loturik idatzi beharrak egon dira) eta bestetik, hitz-forma bikoitien aurrean sistema bateratzailearen alde egin dugu eta hitz-forma askotxo, bada, forma nagusi bakarrera murriztu.

Apostrofo eta marratxoari dagokienez, hona hemen adibideen bitartez moldatutako hitz-kateak:

a) *Lourdes'ko* > *Lourdesko, 11'an* > *11n, bai'litzan* > *bailitzan, Bernardatxu'k* > *Bernardatxuk,* etab.

b) *bañu-toki* > *bainutoki, itz-egin* > *itz egin, eleiz-inguruak* > *eleiz inguruak, sasi-jakitun* > *sasijakitun, gexo-zain* > *gexozain, jakin-min* > *jakinmin,* etab.

Banan edo loturik idatzi behar ote dugun hainbat konposizio-hitz ez da gaur egun ere buruko min makala. Hona, bada, Eguzkitzaren idatziotan azaldutako lau-bost adibide:

c) *buru gogorra* > *burugogorra, bez* > *be ez, gaitz epel* > *gaitzepel, busti aldi* > *bustialdi, bapez* > *bape ez,* etab.

Lehentxoago, grafia-sistema bateratzailea indartzeko transkribaketa honek egin dituen ahaleginak aipatu ditugu. Idatzietan zehar, Eguzkitzak hitz-forma batzuetan azaldu duen erabilera aldakorra finkatu nahi izan dugu, koherentziaren mesedetan. Hartara, agerpen kopururik handiena duen formaren alde egin dugu.

– *asmoz / asmuz* > *asmuz*
– *eritxi / eretxi* > *eretxi*
– *monja / moja* > *moja*
– *noiz / noz* > *noz.*

Ohikoa denez garai bateko testuetan, errataren bat edo beste, lantzean behin, zuzendu beharra ere izan da.

6. BIBLIOGRAFIA

Barbier, Jean: *Ama Birjina Lurden*, Baiona: Librairie Lasserre, 1920.

ETXEBERRI, Jean Baptiste: *Frantziako Erregina*, Baiona: Imprimerie des Cordeliers, 1966.

GOÑI, Frantzisko: *Lourdesko gertaerak: Ama Birjiñaren agertziak eta gañerako Lurdesko gertaera goguangarriyak,* Durango: Florentino Elosu, 1908 (1. argitaraldia).

—: *Lourdesko gertaerak: Ama Birjiñaren agertzeak eta gañerako Lurdesko gertaera gogoangarriak,* Auspoa Liburutegia, 20 zb., Tolosa: Auspoa, 1962 (2. argitaraldia).

JAUNGOIKO-ZALE BAZKUNA: *Jaungoiko-Zale*, 340, 342, 347, 348, 356, 357, 359, 360, 361, 362 eta 365 zenbakiak, Zornotza: Jaungoiko-Zale, 1929-1930.

MANTEROLA, Ander: "Gabirel Manterola (1890-1977)", *Bidegileak*, 41 zk., Donostia-San Sebastián: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2005.

SOUBELET, Domingo: *Lurdeko Ama Birjina: Jesusenganat, Ama Birjinaren eskutik,* Baiona: D. Soubelet, 1942 (1. argitaraldia).

—: *Lurdeko Ama Birjina. Mende mugakari (1858-1958),* Baiona: D. Soubelet, 1958 (2. argitaraldia).

URRUTIA BADIOLA, Andres: "Juan Bautista Eguzkitza (1875-1939)", *Bidegileak*, 24 zk., Donostia-San Sebastián: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2001.

7. TESTUAK

I

JAUNGOIKO-ZALE
«Lourdesko Osakuntza Arrigarriak»,
340 zk., 1929
(6-7 or.)

Lourdesko osakuntza arrigarriak

Andra Mariaren Sortze Garbi ta Orbangea, gure sinesteko egitzat Eleizeak irakatsi ebanetik lau urte geroago (1858garrenean), Andra Maria bera agertu jakon Bernardatxu Soubirous, neskatila zintzo, mazal eta errubageari Lourdesko Massabielle deritxan atxeko zulo baten. Amazortzi bidar agertu jakon: zezeilaren 11n lenengoz eta garagarrilaren 16an azkenengoz. Andra Mariaren Agerkundea Bernardatxuk berak baino beste inork ez eban ikusten; baina neskatileak, bere konortetik urtenda, arpegia mirariz aldatuta, zerutik jatsiriko aingerua bailitzan, otoiz-

ketan adi-adi ekiten eutsan luzaro, ta begira eukazan guztiak be, gauza arrigarriren bat jazoten jakola argiro igarten eben.

Zezeilaren 24an, Agertuaren aginduz, ezertariko urik ez egoan tokian bere atzamarrakaz lurra aztertu eban Bernardatxuk, eta azterturiko tokian ura urten zan: lenengoan ur gitxi, gero geiago ta gaur amabost iturri dagoz alatz edo mirariri arrigarrienak egiten dituan ura, gau ta egun, gelditu barik, darioela. Amabost iturri orreiz gainera, bainutokietan ugari erabilten dan ura be angoxea da.

Agertzen jakon andra eder-ikusgarria nor zan ez ekian Bernardatxuk. Epailaren [martiaren] 25ean esan eutsan: «Arren, andrea, nor zarean esaidazu». Agertuak, ezer erantzun barik, irribarre egin eban; baina Bernardatxuk apaltasun andiz, bein eta barriro eskatu eutsan arren bai arren nor zan esan egiola. Orduan andreak, bere eskuak bular gainean batu, zerura begiratu, gero eskuak astiro-astiro zabaldu, burua makurtu ta dinotso: «Sortze Orbangabea naz ni».

Bernardatxuk pantze-izkuntzarik ez ekian: bere erritarren izkuntza apal-txiroa baino besterik ez. Arrokeria iguin, apaltasuna maite dauan zeruko Amak, erritarren izkuntza txiro-apalez itz egiten eutsan neskatxuari, ta pantzeraz barik, bertoko izkuntza apalez esan eutsan: «Sortze Orbangabea naz ni». Bernardatxu gexoki ta tolesgabea baizen burugogorra be bazan, eta Kristinau-Ikasbiderik be ez ekian gitxi baino: bere inudeak Bartresen irakatsi eutsazan otoitzen batzuk eta besterik ez. Sortze Garbiaren izenik be ez eban aurrerago inoz entzun; Eleizeak lau urte lenago sinesteko egitzat irakatsi ebanik ez ekian. Augaitik, neskatila buru-ilunak izen ori aitatzeaz bere entzulak pizka bat baino geiago arritu ziran eta askok, antxe bertan belaunikaturik, ordurako zabal ebilan otoitz au esan eben: «O Maria, orbange sortua, zugana gatozanon aldez otoitz egizu!».

Jorrailaren [apirilaren] 7an kandela-garretan euki eban Bernardatxuk bere esku ezkerra ordu laurenean, erre barik eta ezertariko minik artu barik. Dozuz Lourdesko sendatzailea be an zan beste lagun askoren artean, eta jazoera arrigarri au bere begiz ikusi ebala argi ta garbi autortzen dau. «Bernardatxu belauniko egoan –dino–, esku ezkerrean errosarioa ta eskoman kandela biztua ebazala. Egoan lez, belauniko gorantz joaten asi zan eta gero, bapatean gelditu. Zer egiten eban ez ekiala eskomako eskua ezkerrekoaren azpira ekarri eban: aizetxua be baebilan eta esku ezkerraren atzamar-bitartetik gora joian kandela-garra, argiro ikusten neban. Ordu laurenean egon zan olantxe ta minik artzen ebanik ez zirudian. Arrituta nengoan… Bere zeregina amaitu ebanean, urreratu nintxakon, eskua ikusi neutsan; baina errearen antzik be ez eukan. Kandelea bere eskuetan eukan andreari esan neutsan: “Mesedez barriro biztu egizu…”. Kandela biztua artu ta Bernardatxuri bere eskupean ipini neutsan; baina oraingoan ez zan lena. Erre egiten neutsala-ta, laster alboratu eban bere eskua».

Zezeilaren 27an Agertuak esan eutsan Bernardatxuri: «Abadeakana joan zaite eta emen eleizea ta eleiz inguruak nai dodazala esaiezu». Abadeak sinesgogor egozan gauza onetan eta jaramonik be ez eutsoen egin. Baina agerkundeen ondoren alatz eta osatze arrigarriak be etorri ziran: lenengotan sinesgogor egozan abadeak be, gero burua makurtu bear izan eben. Gaur, aitzulo aurrekoaz gainera, beste eleiza eder-andi bi dagoz Lourdesen, eta lur zabal guztitik urtero bidazti-talde andiak datoz, Jaunaren Ama, sortzez garbia, amazortzi bidar agertu zan toki zoriontsu onetara. «Jaunak lurreko makalak autetsi ditu, sendoak lotsatuta ixteko» (1 Korin. I, 27). Andra Mariak be Bernardatxu, neskatila gexoki-makal eta buru gitxikoa autetsi eban, jakitun arroputzak lotsatuta ixteko. (*)[1]

II[2]

Jaungoiko-Zale
«Lourdesko Osakuntza Arrigarriak»,
342 zk., 1929
(40-41 or.)

Lourdesen osakuntza arrigarriak egiten dirala bere senean dagoan gizonak ezin ukatu daike; sasijakitun arroputz batzuk osatze oneik mirariz egiten diranik ez dabe autortu nai. Alatz edo miraria ezin izan daiteken gauzea dala dinoe. Ori baino tentelkeri andiagorik gizonak ezin esan leike! Miraririk ezin jazo daitekela esatea, Jaungoikoa ukatzea beste da; baina Jaungoikoa badago ta berak egindako izatearen legeak bere menpean daukaz; bere menpean badaukaz, nai dauanean lege orreik ausi naiz aldatu daikez. Miraria orixe baino besterik ez da. Augaitik, miraria ezin daiteken gauzea dala dinoen sasijakitun arroputzok, orretan ondo buru gitxi darakuse. Baina burugogorrak dira, ta miraririk ez autortzearren, inon diran asmakizunak darabilez. Lourdesen osatu diranak kirioetako [nerbioetako] gexodunak izan dirala dinoe ta gexo oneik an artu daben barreneko astinaldi gogorraz, berez osatu dirala adierazo nai leukie; baina kirioetako gexodunak baino osterantzeko gexoak, bularretikoak be askoz geiago izan dira. Adin guztietako notinak eta gexo mueta askotakoak osatu dira Lourdesen: itsu, gor-mutu, urdail eta bularretikoak, unetako gexodunak, lepazur okertuak, anditu, zauri, bizien eta azur-ausiak be aurrez osatu dira ta, gexo oneikin kirioak zer ete dauke zerikusi? Eta osatzeak eurak baino be osatzeko erea oraindik arrigarriago da: zelan osatu

[1] [Jarraituko da.]
[2] [Jarraipena.]

dira? Ez astiro ta geldi-geldika, gexoak naiz berez naiz osakaien bidez osatu oi diranez, berealaxe ta bapatean baino. Zauririk txikienik be, izatearen indar utsez, ez da bapatean osatzen; osakairik onenak erabili arren be, astiro ta geldi-geldika osatzen da beti. Lourdesen ostera, lepazur oker, anditu, zauri zar eta bizienak be bapatean osatu dira. Gizasemearen zozkon eta izatearen indar utsak olakorik inoz ez dauala egiten ondo dakigu.

Lea Kurtu [Courtout] neskatileak bere lepazurrean okerrune bi daukaz: gaitz oni erderaz Pott gexoa deritxoe. Parisko Hotel Dieu gexoetxera doa ta Ferran eta Necker sendatzaileak zaintzen dabe; baina onein ardura ta aleginak gorabera, lepazurra beti gexo, beti oker. Lourdesera etorri nai ebala-ta, urtebete osoan askaririk [meriendarik] artu baga egonaz, berrogeita bost franko aurreratzen ditu; baina bere gurasoak etxe-errentea ordaintzeko bear zan beste ez eukela-ta, aurreraturiko dirutxuok gurasoai emoten dautsez eta Lourdesera barik gelditzen da. Urrengo urtean (1895garrenean) Parantze guztiko bidezkundeaz Lea be Lourdesera dator. Bere sendatzaile Cherié jaunaren ageria dakar. Onelan dino: «Emakume onen lepazurra ardatzetik urtenda dago; okerrune naiko andi bi daukaz eta atze-aurreetan konkortxu bi be bai».

Dagonilaren [abuztuaren] 21ean Lourdesko bainutokian dago. Uretan sartzen da ta beste barik osatu. Parisera biurtu zanean, lengo sendatzaileari dei egiten dautso. Ikusi ta aztertzen dau ta bere bigarren agerian, onelan dino: «Lepazurra zuzen dago, okerruneak joan dira. Orraitik be, lepazurraren azkenengo atal bietan konkortxua oartzen da. Ezkerreko soinburua bestea baino pizkatxu bat gorago dauko ta bularraren eskomaldea bestea baino argaltxuago». Toki bitan, batean baterantz eta bestean besterantz, okertuta egoan Learen lepazurra, bapatean zuzendu ta osatu zan eta barriro ez zan inoz okertu.

*****

Leonia Xartron [Chartron] korkotxa zan: lepazurra okertu jakon eta konkor galantak urten eutsan. Sendatzailerik ospatsuekana jo eban, ezertxu be aurreratu barik. 1869garren urteko garagarrilaren 21ean, Lourdesko uretan, begi itxi-idegi baten guztiz osatu zan: bere konkorra be bapatean ibitu, jatsi ta kendu jakon. Osatze au aztertu ta gero, Gagniard sendatzaile janak auxe idatzi eban: «Leonia anderañoaren bapateko osakuntza arrigarria begien aurrean dago ta, zinez, mirari andia da. Izatearen indar utsez gexo onen bapateko osatzea azaldu daiken medikurik ez dago. Gexoa, elbarriaren azkentzaroan sorgortuta egoan, sukarra eukan, zolduta egozan lepazurreko sei atali zornea erioen…, bapatean osatu zan». Beste orrenbeste inongo sendatzailek [medikuk] ez dau egundo egin; ezpabe, nork eta noz egin dauan esan daiskuela ta orduan ikusiko dogu; baina bien bitartean osatze au mirariz egin dala sinestu ta esateko eskubide osoa daukagu.

*****

Villepinte deritxan gexoetxe bat dago Paristik urrin barik. Bularretik dagozan neskatilentzat egina da. Gexoa bularretik dagoan ala ez ondo aztertu barik, ez dago an sartzerik. Medikuen eretxiz irugarren mailan dagozanentzat berarizko aretoa dago. Iru urte barruan (1896tik 1898ra) berrogeita amazortzi neskatila gexoenetarikoak etorri ziran Lourdesera, ango sendatzaileen eretxiz gaitzepelaren irugarren mailan egozanak, eta euretatik ogeta lau osatu ziran Lourdesen, guztiz eta osoro. (*)[3]

III[4]

Jaungoiko-Zale
«Lourdesko Osakuntza Arrigarriak»,
347 zk., 1929
(123-125 or.)

Bularreko gexoa osakaitza da ta aurreratuta dagoanean batez be, ezaugarri agiriak daukaz; baina zauri ta bizienak be nazkagarriak dira ta agirikoak diralako, edonork ikusi daikez eta inork be ezin ukatu.

1894garren urtean Konstantzia Piket, anderañoa, Soulairesko alabea, Lourdesera dator. Iru urte luzean bere bularreko aragiak irunsten diarduan biziena dauko. Levesko sendatzaile ospatsu Martin jaunak, osatebakuntzarik ez eutsan egin nai izan, bere eretxiz emakume onen bizien anditua osatu ezina zala-ta. Dagonilaren 24an Lourdesko bainutokian dago; uretan sartzen da, ezertariko minik ez dau oartzen. Uretatik urtenda bere bularra begiratzen dau eta anditurik ez daukala arrituta dakus. Medikuen egiztatze-lantegira doa. Ogeiren bat mediku dagoz, euren artean Regnauld, Rennesko irakaslea. Bizienaren aztarna bila asten dira, baina alperrik; an ez dago olako gexorik, bapatean zearo osatu da. Len aitatu dogun Martin sandatzailea sinesgogorra zan; baina ori ta guzti be, Piketen osatzean benetan arrigarria zala autortu eban.

*****

Joakina Dehant, ogeita bederatzi urteko emakume belgikarra, Wanfercee-Bauleten jaio ta Gesvesen bizi zanak bere bernan zauri zarra dauko; belaunetik orka-

[3] [Jarraituko da.]
[4] [Jarraipena.]

tileraino luze, ia arra bete zabal, azurretaraino sakon; giarra ta maminak usteldu jakoz, birekatx, zorne ta zakarra ugari dario: aragiak ustelduaz, kirio ta zanak be laburtu ta bernea ta oina barrurantz okertu jakoz. Emakume onegan bizitz iturria agortu dala dirudi; ogeita bederatzi urte ta ogeita zazpi kilo baino ez daukaz.

1878garren urtean Liegeko bidezkundeaz Lourdesera dator. Irailaren 13an goizeko lauretarako bainutokian dago. Soinekoak eransten Leonia Dorval anderañoak laguntzen dautso; baina zauri izugarri aek ikusirik, ikaratuta dinotso: «Zagozan lez uretan sartzea zorakeri andia litzake ta ni ez nago olako zorakeririk egiteko». «Lurrean etzun nagizu ta uretan neu sartuko naz», erantzun eutsan gexoak. «Ez, il egingo zintzakez eta ez egizu olakorik egin», dinotso lagunak. Baina berak uretan sartu nai dau ta azkenean sartu zan. Sartu bai, baina osatu ez. Orduan lagunak dinotso: «Ez dautsut nik esan?... Zure uste andi ori gorabera, uretan alper-alperrik sartu zara. Il ez zareanean, gaitz erdi». Baina berak erantzuten dautso: «Ez dau ardura; barriro be sartuko naz eta ikusiko dogu». Bederatzietan barriro dator eta lagun gitxi egoalako, luzaro egon zan uretan bere bernako lotzaikiak kendu barik. Uretatik urten ta bernea ikutzen dau eta minik ez dau oartzen. Zelan dagoan ikusteko, lagunak lotzaikiak kentzen dautsaz eta arrituta dinotso: «Joakina, emen ez dago zauririk, osatuta dago». Joakinak bere berna gexoa osatuta ikusirik, bere indar guztiekin deadar egiten dau: «Gora Lourdesko Andra agurgarria! Gauzak ondo egiten daki, gero! Azal barriaz gainera, giarra, mami eta zangoa be osoro barriztau daustaz». Eta egiz. Joakinaren zauria ondo osatuta dago; baina bere berna ta oin okerrak oraindik ez dira zuzendu. Urrego egunean be bainutokira doa ta barriro uretan sartzen da. Gorputz guztian min bizi bat oartzen dau, azurrak karrask egiten dautsoela deritxo. Orduan bira eragiten jakan ardatzaren antzera, Joakinaren berna ta oin okertuak be zuzentzen dira, bera ta laguna begira dagozala: kirio ta zanak luzatzen dira ta belaunak be bere ein eta jasa artzen ditu; baina oraindik ankazurraren edozein igikunek min andia egiten dautso Joakinari. Ori zala-ta larrialdiak emoten dautso ta konorte barik gelditzen da. Il egingo dalakoan bere laguna ikaraz dago; baina gerotxuago konortera dator, begiak idegiten ditu, jagiten da… Oraingotan bai, oraingotan guztiz osatu da, minik ez dauko, gorputza zuzen, lirain, bizkor dago.

Bost egun geroago Namurrera eldu zan eta bere sendatzaile Gustavo Froidbise jaunari aurkeztu jakon. Onek ondo ikusi ta aztertu ondoren, ageri barria idatzi ta emon eutsan, esanaz: «Joakina Dehanteri Lourdeserako emon neutsan agerian aitatzen dodazan ankazur-mina, kirio ta zanen laburtze ta zauriak guztiz joan dira; zauriaren azala oraindik gorrizka dago, baina lengo gexoaren beste aztarnarik be ez. Ori esanaz egia dinot». Lourdesera etorri zanean, ogeita zazpi kilo baino ez eukazala esan dogu; urte batzuk geroago, berberak idatzi eban Lourdesera esanaz: «Irurogeita bost kilo daukadaz eta or izan nintzanetik aurrera, osasun ederra euki dot beti».

*****

Frantzisko Vion-Dury zazpi urtean egon zan itsu. Lyongo begi-sendatzaile Dor jaunak bere agerian onelan zinoan: «Vion-Duryri betsare [*retina*] biak askatu ta jausi jakoz. Ezkerrekoa atzeratuta dauko ta begi onegaz eguna ala gaba dan be ez dau igarten. Eskomakoaz be, begitik arra bete urrunago ez dau ezer ikusten. Lanik ezin egin daike ta oso itsutzat etsi bear da, bere gexoa osatu ezina da ta».

Gudari zala etorri jakon gexo ori ta kaltearen ordez urtean 600 franko emoten eutsoezan. Konforteko landerretxera doa. Sendatzaileak ezin ekarri dautsoen ikusmena Jaungoikoari eskatu dagiola dinotse ango mojak, eta Sor Mariak ontzi baten Lourdesko ura ipinten dautso mai gainean. Oira orduan bakarrik dago; baina mirariz osatzea berari zor ez jakon gauzea zala-ta, miraria eskatzeko ausardirik ez dauko. Alakoren baten bere buruari dinotso: «Koldar andi bat az. Zergaitik orrenbeste bildur?». Bere erritar Chanel zoriontsua bitartekotzat ipinten dau ta bere izenean Andra Mariari otoitz dagiola eskatzen dautso. Gero, bere atzak uretan busti ta begiak igurzten ditu. Irugarren aldian, aiztoa begietatik sartu baileutsen lako min bizi-bizia oartzen dau ta bere artean dino: «Urak onako minik ezin egin daike. Mojeak uraren ordez osakai gogorren bat ipini dau emen». Olan ete dan ikusteko, ur-ontzia ezpanetara daroa. «Urari ikutu neutsaneko, ikusmena bapatean etorri jatan –dino gexoak–. Alboan neukan lagunari dei egin eta esan neutsan: "Simon lengo itsuonek orain badakust; zoaz eta mojai esaiezu"». Badatoz mojak eta Lourdesko ur-ontzia eskuan dauala aurkitzen dabe. Esan eta egin; lengo itsuak orain ederto dakus nor nor dan, zelan jantzita dagoan, eskuetan zer daukan; aren esan bearraz mojak arrituta dagoz. «Arrezkero –dino berak– ogei urte neukazanean lez ikusten dot.»

1893garren urtean begi-sendatzaileen batzarra egin zan Parisen. Dor jauna jagi zan eta guztien aurrean esan eban: «Vion-Duryri betsareak askatu ta alboratu jakozan. Mediku askok ikusi eben, baina batek be ezin izan eban osatu. Zazpi urte ta erdian egon zan olantxe. Gero, ezertariko osakai barik, Lourdesko uraz garbitu zala-ta beste barik, ikusmena barriro etorri jakon. Eskomako begia zuzen dago ta ederto ikusten dau; ezkerrekoaren lertzokoa pizkatxu bat oker dago, baina ikustea ez dautso galerazten. Betsareen jaustea, danik zarrena bada be, osatu ezina danik ez dot nik geiago esango. Vion-Dury osatu dan ezkero, beste edonor be osatu daiteke». Dor sendatzailea protestantea zan eta Vion-Dury mirariz osatu zanik ez eban autortu nai; baina bapateko osatze au mirarizkoa ez bada, mirari barik beste nor osatu dan orrelan erakutsi bear leuskigue gure sineste ta mirarien arerio diran jakitun itsu orreik. Ori ezin egin daben ezkero, mirariak ez leukiez ukatu bear. (*)[5]

[5] [Jarraituko da.]

IV[6]

Jaungoiko-Zale
«Lourdesko Osakuntza Arrigarriak»,
348 zk., 1929
(141-142 or.)

Aurelia Bruneau, Chabrisko alabea, gor-mutua da. Ogei urte eukazala, iru egunetan jarraian Lourdesko ur-tanta batzuk botaten ditu bere belarri-zuloetara, ta 1892garren urteko urrilaren 11n entzumena bapatean datorkio ta entzumenaz batera itz egiteko almena be bai.

Mardelle sendatzaile jaunak dino: «Neskatila onen ardurea gazte-gazte zanetik euki dot eta beragan jaiotzatiko gor-mutuaren ezaugarriak ikusi dodaz. Lengo urrilaren 11n entzumena bapatean etorri jako. Osatze au ziurra, ukaezina da. Lengo gor-mutuak orain badantzu ta mintzo da».

Bost urte geroago (1897garrenean) etorri zan Lourdesera Rosa Evrard, zazpi urteko neskatxua, Wanlingo alabea ta jaiotzaz gor-mutua. Urtebete lenago alabea Lourdesera ekarteko zin-eskaina [*promesa*] egin eban bere aitak eta Konjouxen dagoan Lourdeskoaren antzeko aitzulora eroan be bai. Andik aurrera zerbait entzuten eban eta itz bat edo beste esan be bai; baina oso gitxi ta bape ez argi. Lourdesen, ostera, bere mingaina bapatean askatu jakan; argi ta garbi itz egiten asi zan eta Boissarie, ango sendatzaileen buruzagiak, aitak eta erriko abadeak baietz esan arren, neskatilatxu au jaiotzaz gor-mutua zanik sinestu be ezin eban. Ain zuzen be belgikar sendatzaile gazte bat, Delforge jauna, aurkitzen zan bertan eta oneri agindu eutsan Boissarie jaunak neskatilearen errira joan eta zer zan eta zer ez zan jakin ondoren, berari adierazo egiola. Irailaren 13an idatzi eutsan Boissarie jaunari Haversin, Wanlingo abadeak, zinotsala: «Delforge jaunak beste sendatzaile bi, Lurkin eta Vincent laguntzat artu ta gauzea astiro ta ondo aztertu dau. Ogeita bost testiguk, zin eginaz, autortu dabe Rosa Evrard jaiotzaz gor-mutua zala eta seigarren urtera arte ez entzumenik, ez itz egiteko almenik ez eukala».

Bere aitak Lourdesera eroateko asmua artu ebanetik aurrera zerbait entzuten ebala zirudian eta «Ene Jaungoikoa, aita ta ama…» be esaten ebazan; baina beste gauza andirik ez eta itz orreik be naiko motel. Gor eta mutu zan neskatxa au Lourdesen bere gexo bi orreitatik bapatean eta guztiz osatu zan eta arrezkero ondo dantzu ta argiro itz egiten dau. Delforge jaunak bere aldetik zinoan: «Batzarraldia agiria zan eta bere eretxia agertzeko eskubidea edonork eukan; baina Rosa jaio-

[6] [Jarraipena.]

tzaz gor-mutua ez zala esateko inortxu be ez zan zutindu». Eta Lurkin sendatzaileak: «Lourdeserako urtengo zan aurregunean ikusi ta azertu neban Rosa Evrard neskatilatxua ta itz gitxi batzuk baino ezin ebazan esan eta orreik be, motel edo totel. Lourdestik etorri danean barriro ikusi ta aztertu dot eta, zinez, oberatze arrigarria egin dau. Igidin batzuk, esaterako "t" ta "r", bere adineko ume askok oi daben lez oguzten ditu; gainerakoan dinoana argi esaten dau ta itzak ezin obeto ebagi ta oguzten ditu». Delvaux sendatzaileak bere ageria onelan amaitzen dau: «Rosa Evrard gaur ez da ez gorra, ez mutua». Eta Luis Rutten, Namurgo belarrisendatzaileak dino: «Rosa neskatilatxuak gaur badantzu, esaten jakan guztia aitzen dau ta orrezaz gainera, bere burua entzuten dagoana lez mintzo da. Oguzkeran egiten dituan uts txikiak bere adineko umeak egin oi dabezanen antzekoak dira. Gaur egunean ez da ez gorra ez mutua. Itz egiten bapatean ikasi dau».

Ori dinoenak ez dira eleizara ostera dabiltzan atsoak, sendatzaile ospatsuak baino. Ori ta guzti, gizon arroputz batzuk Lourdesen alatz edo mirarik ez dala egiten dinoe. Begiak itxi ta ukatzea gauza erreza da; baina zentzundun gizonak balira, ukatzeaz naikotu barik, izatearen edo osakaien indarrez bapatean egindako osatzeak, aolako osatze arrigarriak, aurkeztu bear leuskiguez. Izatearen indar utsez naiz osakaien bidez olako osatzerik ez da inoz egin; jakitun arroputzok olakorik egiten ez dakie ta atso zarrak lez barriketan ekin baino isilik egon obeto egingo leukie. Beti asmakizun barrietan ibili barik, egiti ta egizaleak balira, gitxienez be auxe autortu bear leukie: «Lourdesen egin diran lako osatzerik, *bapateko* osatzerik, egiten gure aurretikoak ez ekien eta guk be ez dakigu; gu baino sendatzaile oberen bat dabil or. *Digitus Dei est hic.* Lourdesko osatze orreitan Jaungoikoaren eskua ta Andra Mariaren bitartekotasun altsua agiri dira». (*)[7]

V[8]

Jaungoiko-Zale
«Lourdesko Osakuntza Arrigarriak»,
356 zk., 1929
(272-274 or.)

[Pedro de Rudderen osakuntza arrigarria.] 1867garren urteko zezeilaren 16an lanetik etxerantz datorrela, Du Bus de Gisignies bizkondearen oianean zugatzak ebagi ta erasten ziarduen anai bi (Knockaert eritxoenak) aurkitu ebazan Rudderek bere

[7] [Jarraituko da.]
[8] [Jarraipena.]

bidean. Eratsitako zugatz bat alboko solora jausi jaken eta txikotez loturik bide-ertzera ekarri nairik eta ekarri ezinik ebiltzan anai biok. Olako aldietan oi danez, Rudderek bere laguntza eskini eutsen eta zugatza zoritxarrez bere gainera etorri jakon eta belauna baino beratxuagotik ezkerreko bernazurrak ausi ta birrindu eutsazan.

Du Bus bizkondeak Affenaer sendatzaileari dei egin eutsan berealaxe, eta onek al ebanik ondoen azur ausiok ipini ta lotzaikiz bernea lotu eutsan; baina andik aste batzuetara ezin eroan aleko oinaze-minak eukazala-ta, sendatzaileak bernako lotzaikiok askatu eutsazan Rudder gizaxoari. Zer ikusi eban? Azurrai euren mintza askatu ta jausi jakela, zauria zoldu zala ta azur-zatiak zorne ta birekatx artean igiri lez ebiltzala ekusi eban bere begiz. Zorne ta zakarra erion zauri andi ta zabal bat egin jakon ezkerreko oinaren gainaldean be. Affenaer sendatzaileak alak egin ebazan gexoa osatzeko, baina guztiak alperrik. Beste sendatzaile askogana eroan ta gero, azkenez bizkondeak Brusellesko Thiriart ospatsuaren eretxia jakin nai izan eban. Onek, Rudderen berna ausiak sendatzerik ez eukala-ta, bere aburuz bernea ebagitea baino beste biderik ez egoala esan eban. Rudderek bernea ebagiterik ez eban nai. Oiratu zan eta urtebete osoan ez zan jagi. Azkenez, oian egotez aspertuta, oberik euki ez arren, jagi zan oitik; baina min izugarriak eukazan, oin gexoa ezin eban lurrean ipini ta ebilan apurtxua, makuluz baino ezin zan ibili. Egunean birritan gitxienez garbitzen ebazan bere zauriak eta ain min andia emoten eutsan bernazur ausia ondo lotuta erabili bear izaten eban beti.

Zortzi urte luze eroiazan onelantxe, egokera negargarri onetan. 1875garren urteko jorrailaren 5ean badoa Jabbekeko jauregira, bizkondea ikusi ta Oostackerera joateko baimena eskatu bear eutsala-ta. Oostackeren badago Lourdeskoaren antzeko axpe edo aitzulo bat, belgikarrak Ama samur onen gomutaz egina. Araxe joan nai eban Rudderek Lourdesko Andra goragarriari bere osakuntza eskatzeko; baina jauregiko ugazaba sineste gitxiko gizona zan eta baimenik ez eutsan emon. «Zeuk naien dozun medikurik ospatsuena ekarriko dautsut –esan eutsan ugazabak–; baina Oostackerera joateko baimenik ezin emon neikezu, nire lagunak nire lepotik irri ta barre egingo leukie ta.» Andik laster il zan ugazaba ta Kristian bere llobea gelditu zan Jabbekeko jauregi ta bere bazterren jabe. Osabeak ukaturiko baimena, llobeak emon eutsan Rudder gexoari eta jorrailaren 7an, goizean goiz jagi ta Oostackererako bidea artu eban. Bere azur ausi ta zauriak, zelan ete egozan egun onetan? Guztiz askatu ta alboratu zan azur zati bat Affenaer sendatzaileak atera ta kendu eutsan lentxuago, kaltegarri baino ez zala-ta. Van Hoestenberghe sendatzaileak auxe idatzi eban: «Rudderek bere bernan, belauna baino beratxuago, zauri-zulo andi bat dauko; zauri barruan bernazur biak ausita ikusten jakoz, bata besteagandik atz ta erdi bai urrun. Zortzi urte daroaz onantxe, min andiak daukaz eta zauria zarratuko dan antzik be ez dago. Bernea edozein aldetara biurtu leike, orpotik eldu ta nai dan lez okertu, orpoa aurrerantz eta beatzak atzerantz ipini, kirio ta zanen eragozpen txikia baino beste barik». Jorrailaren 5ean ikusi

ebenak be, beste orrenbeste dinoe: «Rudderek, zauriak garbitzeko, lotzaikiak askatu ebazanean, bere bernea okertu ta zauri-zulotik azurren erpinak atera ta erakutsi euskuzan. Berneak oso askatuta bailegoan, dantzan egiten eban eta edozein aldetara okertu eikean». Bidean joiala ikusi ebenak be orixe baino besterik ez dinoe. Bultzi-gurdian [treneko kotxean] sartzen Pedro Blommek lagundu eban eta oinak dantzan egiten eutsola ikusirik, errukiz esan eutsan: «Baina berna ausi onegaz Oostackerera, zertako zoaz gizaxo andiori? Etxean egon obe zeunke». Rudderek erantzun eutsan: «Oostackeren beste asko osatu dira ta, ni zergaitik ez?» Gantera ezkero, burdinbidea itxita, zalpurdiz joan bear zan. Zalpurtzain-mutil gazteak, Rudder bultzitik eratsi ta zalpurdira berak eroango ebala-ta, besartean artzen dau gizon gexoa. Berna ausia edozertara okertzen jakola ikusirik, erdi barrezka esan eban zalpurtzain [kotxeru] olgetariak: «Zer da au? Onakorik! Ona emen berneak iges egiten dautsan gizon bat!». Baina zorne, iro ta odol ustela eriola ikusirik, barre egiteko gogorik ez eban euki.

Noz edo bein eldu zan Rudder Oostackerera. Atseden pizka bat artu ondoren, badoa Lourdesko Amaren aitzulo aurrera. Ur pizka bat edan ta gero, bere makuluz bira bi emoten ditu aitzuloaren inguru; irugarrena be asi eban, baina ezin izan eban amaitu. Oso nekatuta, zutunik egoteko be adore barik, Andra Mariaren irudi aurrean jesarten da, ta biotz-biotzez otoitz-eskaririk samurrena egiten dautso. Bere oben, erru ta utsegite guztien parkapena eskatu ta gero, Zeruko Ama onari dinotso: «Neure emazte ta umetxuen janaria neure lanaz irabazi nai neuke; baina ezin dot, Ama laztana, ezin dot. Aspaldi onetan neu be inork errukiz emonaz bizi naz. Aurrerantzean neure lanaz bizi nadin, arren, Ama ona, osatu nagizu. Errukior zara ta, erruki zakidaz». Ori esan ebaneko, tximist-indarra gorputzean zear igaro bailitzakon lako dardarea oartzen dau; bere senetik urten eta zer egiten dauan ez dakiala, zazpi urtez erabili ebazan makuluak bertan bera itxi, jagi, irudiaren aurrera joan eta an belaunikatzen da. Bere senera etorri zanean, arriturik dino: «Belauniko ni? Non nago? Ene Jangoikoa!, non nago?» Pozez beterik jagi ta aitzuloaren inguru bira egiten asten da. Bere emaztea deadarrez asten jako: «Zer darabiltzu, gizona? Zoratu egin jatzu, ala?» Gero emazte gaxoari ilunaldiak emoten dautso ta lurrera jausten da. Ondoan egozanak zaintzen dabe. Rudder lagun-aldra andiak inguratzen dau ta itaunka asten jakoz. Bera zutunik dago, oin biak lurrean, berna biak zuzen eta sendo, minik ez dauko, errez dabil makuluen bear barik… Osatuta dago. Berealaxe Kourtebourne andra aundikiaren jauregira daroe. Bere berna gexoa guztiak ikusi nai dabe ta berak pozik erakusten dautse. Lentxuago andituta egozan berna ta oina ibitu jakoz, lotzaikiak berez jausi, zauriak zarratu ta osatu, azurrak atz eta erdiko utsunea bitarte euki arren, alkarrekin ondo batu, lotu ta josi, eta andiago dana, berna biak luzeran bardin-bardinak gelditu dira.

Andra Mariari eskerrak emoteko, barriro bere irudiaren aurrera doa ta aitzuloaren inguru iru bira egin ondoren, bere errirako bidea artzen dau. Etxerantz

makulu barik eta bizkor dator. Erritar guztiak arrituta dagoz; zer esan eta zer egin ez dakie. Andra Mariari eskerrak emoteko, bederatziurren bat egiten dabe ta bederatzi egunetan Jabbekeko eleizea, jairik andienetan lez, lagunez bete-beterik dago. Gero erriko abade, agintari ta nagusi-nagusiak, jazoera arrigarri onen gomutea inoz aztu ta galdu ez edin, ageria idatzi ta izenpetu eben. Ruddereri bere bernazurra noz eta zelan ausi ta noz, non eta zelan osatu jakon argi ta garbi esan eta autortuaz. Alatz edo mirari arrigarri au entzunik, Affenaer eta Van Hoestenberghe sendatzaileak berealaxe etorri ziran Rudder ikustera. Guztiz osatuta aurkitu eben. Lenengoak esan eban: «Medikuok ezin doguna, Andra Mariak al dau». Eta bigarrenak: «Ez neban nik sinesterik, baina ikusi dot eta sinesten dot».

Rudder alboringoaz il zan, bere berna ausia osatuta 23 urte geroago (1898garrenean). Il baino len lareun bidar gitxienez joan ei zan Oostackerera Andra Mariari eskerrak emoteko. Baeukan, bai, zergaitik eskerrak emon! Il zanetik urteren bat geroago Van Hoestenberghe sendatzaileak Rudderen bernaezurrak ikusi nai ebazala-ta, agintariai orretarako baimena eskatu eutsen eta oneik emon be bai. Berna bietako azurrak atera, alkarren ondoan eta aurrez aur ipini ta astiro, nai eban beste bidar, ikusi ta aztertu ebazan. Berna ezkerreko azur biak ausita egon zirala ezagun eben; baina besterik ez: zati guztiak alkarrekin ondo batuta, ora bat eginda egozan eta luzeran be eskumakoak baizen luze ziran. Augaitik Affenaer sendatzaileak Rudderi azur zati bat kendu eutsan arren, Rudderek osatu zanetik aurrera, bein be ez eban errenik egin. Andra Mariak guztiz eta osoro osatu eban. Osatze arrigarri au zala-ta, sinestebako asko etorri ziran sinestera ta kristinau on izatera. Ogei urte geroago itandu eutsoen bein baten Jabbekeko abadeari: «Zure eleiztarren artean sinesgerik, erlejino barik bizi danik, ba ete daukazu?». «Ez –erantzun eban abadeak–, gaur egunean olakorik ez daukat. Jaungoikoari eskerrak.» (*)[9]

VI[10]

Jaungoiko-Zale
«Lourdesko Osakuntza Arrigarriak»,
357 zk., 1929
(292 or.)

[Zola guzur-saltzailea ta Lourdesko osakuntzak.] 1892garren urtean Zola idazle entzutetsua, baina ospatsua baizen gaizto, lizun eta zikina, Lourdesera etorri

[9] [Jarraituko da.]
[10] [Jarraipena.]

zan, emen jazoten zana bere begiz ikusi ta ikasi nai ebala-ta. Bere etorrerea aurretiez iragarri eban, abarrots andiz iragarri be. Lourdesen ate guztiak idegi eutsoezan, nai eban guztia ikusten itxi. Sendatzailea izan balitz be, abegi oberik ez eutsoen egingo Lourdesko sendatzaileen lantegian.

Egia esateko asmuz etorrela zinoan; baina gero, egiak bildurtu baileban, gai onetzaz idatzitako bere liburuan egia urri darabil eta darabilan apurtxua be estaldu nai leuke. Zolak bere liburuan urte aretan Lourdesen osaturiko lau emakume aitatzen ditu batez be: Klementina Trouvé, Gordet andrea, Maria Lemarchand eta Maria Lebranchu. Osatu zirala ez dau ukatzen; baina osatze ori azalekoa baino ez zala izan edo beintzat goiko indar barik, izatearen indar utsez egin zeitekena zala adierazo nairik, inon diran asmakizunak darabiltz eta guzur biribilak be bein baino sarriago esaten ditu. Egia ikusteko era ederrik asko euki eban gizon gaizto onek, ez ikustearren begiak itxi ebazan eta zergaitik ez dakigu. Baina gitxien uste ebanean, bapateko eriotza negargarriaz, ezertarako asti barik il zala edonork daki.

*****

Klementina Trouvé, Ronillen jaioa, Zolak bere liburuan Sofia Kouteau deritxona, amabost bat urteko neskatilea, 1892garrengo dagonilaren 20an eldu zan Lourdesera. Bere sendatzaile Zibiel jaunaren eretxiz (Zolak Rivoire deritxo), Trouvé neskatileari orpoko azur-mintza anditu ta zoldu jakon eta ori zala-ta, orpoa zauritu ta zulatu. Zauri-zulotik zorne ta zakarra erion eta oinetakorik [oskirik] ezin eban jantzi ta erabili. Berak autortu eban Lourdesen oskiak jantzi ta baterabestera ebiltzan bere adineko neskatilak baino inartzi [inbidia] andiagorik beste ezerk ez eutsala emoten berari, ibili nai ta ezin ibili, orpoko azur gexoak ez itxi. Lourdesera eldu ta urrengo egunean urte gexorik eroazan oina ango uretan sartzen dau ta azur-mintz anditua ta zauria bapatean osatzen jakoz.

Osatze arrigarri au, Zola aurrean zala, sendatzaile askok ikusi ta aztertu eben Lourdesko egiztatze-aretoan.

Klementina erriratu zanean, Zibiel bere etxekoen sendatzaileak, aren orpoa astiro ta ondo aztertu eban, eta guztiz osatuta egoala ikusirik, ori adierazteko agiria idatzi ta bertoko abadeari emon eutsan. Abadeak dinotso: «Jauna, neskatila au Lourdesen osatu danik ez dinozu emen. Ori ezin ipini ete zeinke?». Eta sendatzaileak: «Ori ipini bearrik ez dago; orretarako osatzea ikusi ebenak daukazuz eta orrezaz gainera, lengoan bere amari esan neutsan lez, ez da ori niri dagokidan gauzea. Naiz Jangoikoak naiz deabruak osatua dauala, neskatilea ondo osatuta dago bai, ta ni asko poztuten naz».

Urrengo urtean be Klementina Trouvé barriro etorri zan Lourdesera, Andra Mariari eskerrak emoteko. Sendatzaileen gelara joan zanean, oinetakoak kentzeko agindu eutsoen. Bere oski ta kaltzerdiak eransten ditu ta orpoa ondo osatuta

egoala, zauri zarratuaren uspel edo orban zuria baino lengo gexoaren beste aztarnarik be ez eukala, an egozan guztiak ikusi eben. Zolak be ori bere begiz ikusi eban; baina Trouvé neskatilea, bearbada, mirari barik berez osatu zala adierazo nairik, inon diran asmakizunak darabiltz. Ikusi nai ez dauana baino itsu txarragorik ez dago. (*)[11]

VII[12]

Jaungoiko-Zale
«Lourdesko Osakuntza Arrigarriak»,
359 zk., 1929
(323-324 or.)

[Gordeten andrea.] Henrichemontgo alaba, bere senarragaz etorri zan Lourdesera 1892garren urteko dagonilaren 29an. Ezkondu ta laster gexotu zan. Ondo osatu baino len, burkameak jo ta zauritu eban lepoan eta andik aurrera gauza onik inoz ez eban euki. Gexo baten ostean beste bat etorri jakon; oso aul egoan eta oinez ezin zalako ibili, burtxoi baten erabilten eben. «Amairu sendatzailek ikusi nabe –esan eban berak Lourdesen–, euren esan eta aginduak amabi urtez jarraitu dodaz eta gero baino gero txartoago egon naz.» Azkenez, sabel-mintza anditu jakon; anditua zoldu zan eta iro, zorne-zakarra erion. Gexo oni erderaz *peritonitis* deritxoe.

Bere sendatzaile Kastay jaunak esan eutsan: «Pizka bat indartuko bazina, Parisera joango zinake; an osatebakuntza egingo leuskizue eta ori eginaz, osatuko zeintekezala uste dot». Berak erantzun eutsan: «Osatebakuntzarik nire etxekoak ez dabe nai ta nik be ez. Ba ete dakizu zer egiteko asmua daukadan? Lourdesera joateko asmua. An asko osatu dira ta ni be an, olako ebaketa barik, osatuko nintzakela uste dot». «Ibilaldi ori zuretzat luzeegia da –erantzun eutsan sendatzaileak–, eta gainera, Lourdesera joan arren, ez zinake osatuko.» Gexoak berak be baekian ibilaldi ori luzeegia zala beretzat; bidean ilgo ete zan bildur be bazan ta, Jaungoikoari eskatu eutsan esanaz: «Jauna, bidean iltekoa banaz, ori ez neuke nai ta, etxetik urten baino len zeugana eroan nagizu».

Peritonitis orregaz iru urte eroiazan. Sabelean andituak urteiten eutsoen sarri ta Lourdesera baino egun bi lenago bere sendatzailea ikustera etorri jakonean be,

[11] [Jarraituko da.]
[12] [Jarraipena.]

birekatx eta zornea erioela eukazan. Au zala-ta esan eutsan sendatzaileak: «Lourdestik zatozanean, ez zaitez emen gelditu. Zoaz zuzen Parisera ta osatebakuntza egin daizuela…, beste ezerk ezin osatu zengikez ta».

Dagonilaren 30garren eguna da, Gordet andrearentzat egun gumutagarria. Goizean goiz jagi ta seiretarako Lourdesko aitzuloaren aurrean dago.

Alsazi-Lorenako bidaztiak mezea dauke. Gordet andrea be bere makuluz eta senarraren eskuz lagunduta, aurreratzen da ta gure Jauna artzen dau. Gero sendatzaileen areto edo gelara doa ta ango nagusiari Kastay jaunaren ageria erakutsi ta bere gexoa aztertu dagiala eskatzen dautso. Baina Lourdesko sendatzaileen buru zan Boissarie jaunak erantzun eutsan: «Ori egin bearrik ez dago. Zure gexo ori guztiz ezaguna da ta orren barri zeure sendatzaileak baino obeto beste inork ez daki. Kastay jaunak emen dinoana naiko da, besteren bearrik ez dago. Andra Mariak osatzen bazaitu, mesede andi-andia egingo dautsu».

Pizka bat asarrez, andik urten eta bainutokirantz doa. Lorenako abade batek bere erritarrai dinotse: «Aurten gure gexoetarik bat egina be ez jaku osatu. Sinesmena biztu ta gogoz otoitz egizue, emendik alde egin baino len zorion eta atsegin ori lortu daigun».

Ori entzunik, Gordet andreak, bere gexoaz aztu bailitzan, Jaunari dinotso: «Jauna, ni osatu ez arren, nire ordez onein gexoren bat edo beste, arren, osatu egizu, atsegin ori barik euren etxeetara joan ez daitezan». Otoitz maitakor ori egin ondoren, bainutokira daroe.

Emakumeai bustialdiak emoten Koetlosket andra andikia, Mongeollen alarguna ta Mierderbrongo moja bi dagoz. Gordet andra gexoa izara baten gainean ipini, lau egaletatik eldu ta uretan sartzen asten dira. Urari ikutu eutsonean, gexoak aurrerago ainbeste bidar esan eban Aitagureko otoitza, barriro dino: «Jauna, osatu naiz ez osatu, zeure naia egin bedi». Ori entzunik, Mongeollen alargunak dinotso: «Zer? Andra Mariak osatu zengikezanik ez dozu sinesten, ala?». «Bai –dino gexoak–, sinesten dot.» Eta ori esanaz batera jagi, zutindu ta uretan baterabestera ibilten asten da. Jausi egingo dalakoan, beste emakumeak eldu nai dautse, baina ez dago orren bearrizanik… Osatuta dago, gustiz osatuta.

«Lourdesko Ama onari eskerrak emoten lagun zakidaze –dinotse berak gexozainai–. Mesedea eskatzea gauza erreza da, bear dan lez eskar ona erakustea askoz be gatxago.» Andik urten eta bere makuluak eskuan dituala, aitzulorantza doa, Andra Mariari bere eskar ona erakusteko.

Bere senarra an dago, zugatz baten ondoan, burtxoikamea eskuan dauala, zutunik. Bere emaztea, makuluak eskuan ta irribarrea ezpanetan ebazala, bere senarraganantz etorren; baina onek bere emaztea zanik ezin eban sinetsi. Urreratu jakonean, begiak zabalik, arrituta begiratzen dautso, eta zer egiten dauan be ez

dakiala, belaunikaturik, deadar baten asten da. An egoan lagun-aldreak be deadarrez dino: «Alatza, miraria!». Eta biotz osoz, gogo beroz *Magnificat* abesten dau.

Andra osatua sendatzaileen gelara daroe. Lentxuago il aginean egoan emakumea, bizkor, arpegi alaiz eta irribarrez sartzen da. Guztiak konkortuta dagoz. Boissarie jauna buru zala, Tomassin eta Dukreux sendatzaileak astiro ta ondo aztertzen dabe eta lengo gexoaren aztarnarik be ez daukala, guztiz eta ondo osatu dala autortu bearrean dagoz. Senarra pozaren pozez zoratuta dago; bere poz andia zelan agertu be ez daki. Urrengo egunean goizeko seiretarako Errosarioko eleizan dagoz senar-emazteak, Béryko beste bidaztiekin batera. Senarra aspaldietan be ez zan sakramentuetara urreratu, baina orduan bere obenak zintzoro autortuta, emaztearen ondoan Jauna artu eban, bere biotza garbaiz eta eskar onez beterik ebala. Onelan Lourdesko Amak emaztearen gorputza eta senarraren arimea, biak batera osatu ebazan. Emakume oni Zolak Guersaint deritxo.

Urrengo urtean barriro joan zan Gordet andrea Lourdesko sendatzaileen etxe ta gelara. Zola be an zan. Onek jakinminez itandu eutsan: «Emakumea, osatu zareala dinozu; baina zure kirio ta zanok, zelan ete ebiltzan?». «Jauna –erantzun eutsan andreak–, beste emakumeak lez nik be nozean bein neure kirioak oartzen dodaz; baina orrek ez ninduen galdu… Orrein jabe beti izan nazala deritxat.» «Sabel anditua euki dozula dinozu, baina ori ez da gauza ziurra», esan eban Zolak. «Bai, jauna, bai –erantzun eutsan emakumeak–. Nire sendatzaileak bein baino sarriago aztertu nau eta sabel anditua neukala andik ugari urteiten zan zorne-zakarrak argiro erakusten eban.» «Sabel anditua euki badozu be –esan eban Zolak–, barriro ez jatzula etorriko, zelan dakizu? Ori zelan on egingo daustazu?» Egun eta urteak joan ziran eta Gordet andrea ondo osatu zala aldiak erakutsi eban. Lengo gexoan ez zan barriro jausi, sabel-mintz anditurik ez eban geiago inoz be euki. (*)[13]

VIII[14]

Jaungoiko-Zale
«Lourdesko Osakuntza Arrigarriak»,
360 zk., 1929
(338-339 or.)

Maria Lemarchand, amazortzi urteko neskea, Zolak bere edesti aizunean Elise Ruket deritxona, Raenen jaio ta bizi zan. Lourdesera etorrela zelan egoan Zolak

[13] [Jarraituko da.]
[14] [Jarraipena.]

berak naiko argiro dino: «Neskatxa argal onek bere arpegia zapi baltz batez estalduta ekarren. Zapia jausi jakanean, arpegi izugarria agertu zan. Erderaz *lupus* deritxon gexoak bere ezpan, ao ta surra pizka-pizkaka jaten eutsazan eta azal-kortikapean, gexoak, aragiak janez, egindako zauri zakarra agiri zan. Neskatxa onen buruak, emakumearena baino txakur-musturra obeto dirudi. Agoa ezkerrerantz okertuta, goiko ezpana andituta, surrik geiena janda daukaz. Izerdi, odol eta zornea batera darioez zauri iguingarri onei. Bere sendatzaileak dinoanez, mosu, betazal, ezpan, sur eta mingainean daukazan zauriez gainera, gorputzean eta ezkerreko zangopean batez be zauri andiak daukaz eta bere biriak be bularreko gaitzepelak jota».

1892garren urteko dagonilaren 20an eldu zan Lourdesera. Urrengo egunean, arratsaldeko lauretan, bainutokian egoan Maria Lemarchand. Urak ikutu eutsaneko, minik bizienak artu eutsazan bere buru ta arpegia… Bapatean jagiten da, lotzaikiak kentzen ditu ta pozez beterik dino: «Osatuta nago». Eta izan be, zauriak berealaxe zarratu ziran: zorne ta ustelkeririk ez zan agiri eta arpegi, ezpan, sur eta minean anditurik be ez. Ain zuzen be, D'Hombres eritxan sendatzaileak ikusi eban gexo au uretan sartu baino lentxuago eta uretatik urtenda berealaxe. Onelan dino: «Bainutoki aurrean, bere txandea itxaroten egoala ikusi neban Maria Lemarchand. Bere arpegi itsusiak iguin emon eta atzera eragin eustan. Mosu biak, surraren beko aldea ta goiko ezpana batez be, iro ta zornea erion zauri nazkagarri bat ziran. Arpegiko lotzaikiak be zorne ta ustelkeriz loi-loi egozan. Uretatik urten zanean, bere jarrai joan nintzan gexoetxera ta lengo arpegi nazkagarriaren ordez, beste bat aurkitu neban. Oraindik azala gorrizka eukan, baina anditu ta zauririk non zanik be ez. Zauriak zarratuta, idor egozan eta arpegia azal barriz estalduta».

Sendatzaileen etxe ta gelara jaun onek lagundu eutsan neskatxa osatuari. Ainbat sendatzaile egozan an alkarrekin eta Zola be euren artean. Boissarie jaunak dinotso: «Ona emen ainbeste begik ikusi daben zauria bapatean zarratuta. Neskatila onen arpegi barriztaua begiratu egizu». Zolak zer esan ez ekialako-edo, barregarrikeri batez erantzun eban: «Ez, osatuta badago be, oraindik arpegi ori itsusia da ta, ez dot nai orra begiratu».

Osatze au dala-ta, Zolak bere liburuan guzur biribil bi gitxienez dinoz. Maria Lemarchand Lourdesko ur otzaz bere zauriak garbitzen goizean goiz asi zala ta arratsalderako bere zauriak askozaz be itxura obea eukela… Osatu zan neskatileak eta osatze ori ikusi eben lagunak, zer dinoe? Bainutokian eta urak arpegiko zaurietan ikutu baino be len, zarratu jakozala ta geiago ez eriola ez zornerik, ez ezertariko ustelkeririk. Zolak, geldi-geldika osatu zala adierazo nai dau; baina ikusi ebenak zauriok bapatean osatu ta zarratu zirala dinoe, eta egin jakon azal barria, lenengotan gorrizka baegoan be, laster zurizkatu zala. Zolak berak be urrengo egunean zauria margul eta zurizka egoala autortzen dau ta lastertxu osatzeko antz

andia eukala dino. Zolak egia argiro ikusi eban; baina gaiztoa ta gaiztoen adiskidea zalako, ez eban autortu nai eta egia zelan edo halan estaldu nairik, jakinez gainera guzurrak asmau ta egitzat saldu nai leukez. Egia autortzen Zola bildur zan. Baina La Neelle, Raengo sendatzailea Maria Lemarchand aurrerago zaindu ebana, ez zan bildurtu ta argiro autortu eban: «Osatze arrigarri onek emon eustan zauskadea –dino–, ondo gomutan daukat eta euko be bai. Neskatxa onek bere zauriak agirian eukazan, edonork ikusteko eraz; baina orrezaz gainera, bularretik egoan gexo. Gaitzepel gexo ori aurreratuta egoala ondo dakit, sarritan aztertu neban ta. Gaur, ostera, gexo orren aztarnarik be ez dauko». Amairu urte geroago idatzi eban Maria Lemarchand berak: «Neure gexo bildurgarritik Lourdesen osatu nintzan eta arrezkero ez da geiago agertu. Osasun ederra daukat. Lau umeren ama naz; boskarrena itxaroten dot. Sendatzaileak galdutzat nenduken eta eriotzeari begira nengoan zorigogorrekoonegaz Lourdesko Amak zer egin duan agirian dago. Aintza ta eskerrak beti Lourdesko Andra Maria Ama errukior ta ongile andiari!». (*)[15]

IX[16]

Jaungoiko-Zale
«Lourdesko Osakuntza Arrigarriak»,
361 zk., 1929
(338-340 or.)

Maria Lebranchu, Zolak bere liburuan La Grivotte deritxonaren gexoa zelangoa zan sinestebako gizon gaizto onek esango dausku: «Alboko bultzi-gelan etorren La Grivotte, etzunda, arnasoska ta erdi ilik. Ogeita amar urtetik gorako emakumea, arpegi biribil eta margula, bere ule kizkur eta begi biziak naiko eder egiten eben arpegia. Gaitzepelez egoan gexorik, bularretik, irugarren mailan. Bost urtean Parisko gexoetxerik gexoetxe ibili zan eta sendatzailerik ospatsuenak ezagunak zituan. "Sendatzaileok dinoenez –esan eban berak–, nire biri bata osoro galduta dago ta besteak be asko geiago ez dau balio. Birietan zuloak daukadazala dinoe. Badakizu? Zuloak! Gero baino gero argal eta erkinago… Elkaitz eta zoritxarra, besterik ez naz. Beti izerditan, gibelak jaurti bearrean eztulka… Gorrorik ezin dot atera. Dakusunez, zutik ezin naz egon; ezer ezin dot jan…, gogorik ez!"». Ori dino Zolak eta guzur andirik ez dino orretan.

[15] [Jarraituko da.]
[16] Jarraipena.

Maria Lebranchuk ogeita amabost urte eukazan. Jaiotzaz Parisko alabea; bere gurasoak bularretik il ziran eta bera be ez ebilan eriotzatik urrun. Parisko gexoetxe askotan egon zan. Hotel-Dieu deritxonean, German See irakasleak euki eban gexo onen ardurea ta bere gorroetan gaitzepelaren kokotxuak aurkitu ebazala dino. Bularreko gexodunentzat berariz ipiniriko Meerlandes gexoetxetik urten zan Lourdesera etorteko. Amar ilabete eroiazan gexoetxe onetan. Bertako sendatzaile Markery jaunak auxe zinoan bere agerian: «Emakume au bularretik dago: biriak bigundu ta zulatu jakoz. Bere gatxa aurreratua dago». Ilabete askotan ez zan oitik jagi; gorro zakar eta odola botaten ebazan aotik. Urdailetik be txarto ebilan, artzen eban jatekorik ezin eban barruan euki. Berrogeita zortzi libra galdu ebazan; ezaugarri txarra, txarrik bada! Maria Lemarchand etorren bultzi edo trenean bertan eldu zan Lebranchu be Lourdesera, 1892garren urteko dagonilaren 20an.

Egun berean joan zan bainutokira. Gexoai bustialdiak emoteko egozan andra errukiorrak, azur eta azala baino besterik ez eukan eta eztulka ito bearrean ziarduan emakume makal eta margul au, ur otzetan sartzeko bildur ziran eta ez eutsoen bustialdirik emon nai, baina berak zotinka ta negarrez eskatu eutsen uretan sartu egiela ta azkenean be bereaz urten eban. Uretan sartzea ta osatzea gauza bat izan ziran, osatze lasterragorik ezin izan. Gerotxuago sendatzaileen etxe ta gelan aurkezten da. Zola guzurtia be an dago. Begira zer dinoan: «La Grivotte (Lebranchu) aize-boladea lez sartu zan gelara; guztiak berealaxe zutindu ta urreratu ziran beragana. "Osatu naz, osatu naz! –zinoan deadarrez–. Lenengotan ez nabe sartu nai izan uretan, baina nik negarrez eta zotinka bein eta barriro eskatu dautset. Iru minuto ez ziran ur otzetan nengoala, oraindik izerditan eta bularretikoen erlatz edo sama zarratuaz; berealaxe, ukaldi ezezagun batek gorputz guztia astindu baileustan, sendatu ta indartu nazala igarri dot eta jagi naz"». Sugarra bere barruan baileukan, bizi-bizi itz egiten dau. Gereka ta urduri dago, bizi ta bizkor, toki baten ezin da egon. Pierre (Zola bera) arrituta egoan emakumeari begira. Bere artean zinoan: «Atzo gabaz bultzi-gelan etzunda, eratsita, eztulka, aotik odola eriola ikusi neban arpegizuri margula, au ete da?». Orain zutik, bizkor, mosugorri, begibizi, atsegintsu, biziteko gogo sendoz ikusirik, sinestu be ezin eban lengoa zanik. Gelan ogei sendatzaile baino geiago egozan. Boissarie jaunak guztiai emon eutsen gexoa aztertzeko eskubidea. Geienak aztertu eben. Eta zer dinoe? «Astiro ta arduraz ikertu ta aztertu dogu ta ez zauririk, ez arnasesturik, ez margultasunik ez dogu aurkitu. Bere birietan zulo ta zaurien aztarnarik be ez dauko.» Urrengo egunean barriro aztertu eben eta ez eztulik eukan, ez gorrorik; jateko gogoa, barriz, inork be ez berak baino oberik. La Grivotte osatu zala ta bere sakeletik atera eban ogi-zatia guztien aurrean gogoz jan ebala Zolak berak be autortzen dau. «Bizkortasunik biziena, arrigarriena –dino– erakusten eban emakume onek; geldirik egon be ezin zan eta ainbeste ilabetean ezer jan barik egoan gexo onek, oilasko erdi bat iruntsi ebana esan euskun. Gero, gabaz argiekin egiten dan eleiz inguruan ordu bi luzean ibili zala zutunik eta bape nekatu barik. Lourdesko Amak dantzaldirik emon

baleu –dino Zolak–, La Grivottek dantzan be pozik egingo ebala deritxat.» Onetan Zolak guzurrik ez dino; asmakizun eta guzurrak gero datoz. «La Grivotte osatu zan edo beintzat osatu zala zirudian –dino Zolak–; baina izatearen lege ta indarrak, nork ezagutzen ditu? Indar orreik norainokoak diran, nork daki?... Uretan bapatean zarratu ta osaturiko ebagitxu bat erakutsi egidazue ta ori naiko dot –esaten eban Zolak–.» Ebagiaren bertatiko osatzea baino askoz be arrigarriago zan bere begien aurrean eukan Lebranchuren bertatiko osatze ori; baina gizon gizto onek, bere adiskide sinestebakoak irri ta iseka egingo ete eutsen bildurrez, egirik ez eban autortu nai. Izatearen indarrak noraino eltzen diran ez dakigula…? Eta orregaz, zer? Izateak bere indar utsez gexo andi ta luzerik, ez birietako ez osterantzeko zauririk, astiro-astiro bai, baina bapatean ez dauala inoz osatu, ondo dakigu eta ori jakin ezkero Lebranchuren bapateko osatzea izatearen indarrez ez zala egin esateko, besterik ez dogu bear.

Bere asmakizun orri Zolak berak be ez eutsan naiko eretxi ta bere liburuan guzur biribila dino. «La Grivotte pizka baterako baino ez zan osatu –dino lotsa gitxigaz–. Lourdesko indarrak, jateko gogoa, ibilte luzeak, arpegi alaia, gorputz bizkorra, laster amaitu ziran. Bultzian [trenean] sartuta, Bordeauxera baino lenago, eztul-aldikada gogorrak emon eutsan: biotza ta biriak aotik bota bear ebazala zirudian, izerdi-patsetan, arpegia margul, begiak larri, aotik odola eriola, errukarrien errukarri, len baizen txarto edo txarrago gelditu zan. Barriro argaldu egiten zala zirudian.» Zolak ori dino bere liburuan; baina dinoan ori guzur birbila da. Maria Lebranchuk ez eban odolik bota ez txarraldirik izan Bordeauxera orduko, ez andik aurrerago, ez bere etxera eldu ta gero; inoz be ez. Lourdesko uretan osatu jakon bularreko gexoa ez jakon inoz geiago agertu, bein be ez. Urrengo urtean barriro etorri zan Lourdesera Andra Mariari eskerrak emoteko. Sendatzaileen gelara joan zan; oneik barriro aztertu eben eta onelan dinoe: «Igaz bapatean osatu zan Maria Lebranchu, emen arduraz aztertu genduan eta bere gexo txarraren aztarnarik be ez eukala ikusi. Arrezkero, osatze onek sendoro dirau. Igazko neguan gripea igaro dau –berak dinoanez–, baina ori ta guzti be, biriak sendo dagoz eta lengo gexoaren aztarnarik be ez jako gelditu».

Zolak bere irakurleai iruzur egin nai eutsen, guzur biribila sakatu. Guzur eta lotsagabekeri onek Lourdesko sendatzaileen buruzagiari min emon eutsan eta Parisera joan zan baten, Zolagaz arpegi-ikuste bat euki eban. Boissarie jaunak Zolari dinotso: «Maria Lebranchu il zala esaten, zelan ausartu zara? Zuk eta nik baizen osasun ona daukala ondo dakizu ta barriro bere gexoan jausi ta il egin zala, zergaitik dinozu?». Zolak bape kezka barik erantzun eutsan: «Eta ori esatetik, ze kalte etorri lekiket niri? La Grivotte neure asmakizuna da; neure irudimenak sorturiko emakumea, eta neuk sortu dodanez nai dodana egiteko, ondoen deritxodanez naiz bizi naiz il eragiteko eskubidea daukat. Neure liburua irakurgarri izan ezkero, beste ezergaitik ardura gitxi niri!».

Baina zuk, gizontxuorrek, Lourdesera etorri zinanean, egia esango zenduala aurretiez iragarri zendun; zure La Grivotte Maria Lebranchu da. Au bizi da, osasun ederra dauko, ta il dala esateko eskubiderik ez dago. Olako eskubidea euki nai bazenduan, Lourdesko osakuntzak diran lez, guzur eta naste barik, esan eta idatziko zenduzala ez zenduan aurretiez esan eta iragarri bear. Ori egiaren ordez guzurra esatea beste da ta.

Bere liburu au idatzi ta laster il zan Zola guzur-saltzailea eta zelan il be! Jangoikoaren aurrera agertzeko unetxu bat be ez eban euki. Jangoikoaren zigorra izan ete zan? Ori ez dakigu. Baina asmu txarrez eta arrokeriz onako guzurrak zabaltzea, egia ostikopean erabiltea da; bilatu ta deitzen gaituan Jaunari jarkitea, argiari begiak itxi ta zarratzea da, eta gaiztakeri onetzaz idatzita dago: ez bizitza onetan ez bestean ez dala parkatuko. (*)[17]

X[18]

Jaungoiko-Zale
«Lourdesko Osakuntza Arrigarriak»,
362 zk., 1929
(356-358 or.)

Teresa Freymann, Rouchelen andrea, Dieblingen jaio ta Metzen bizi zan. 1890garren urtean, seingintzatik osatu baino len eta oraindik oian egoala zoro gaizto bat sartzen jako bere gelan eta aizto andi bat eskuan ebala, il egin bear ebala dinotso. Rouchel andrea bakarrik dago etxean eta bere azkena zalakoan, ikara andiz jagita, arineketeari emoten dautso. Ikaraldi onek bere osasunari kalte andia egin eutsan. Begiak gexotu jakozan lenen. Berarizko sendatzaileagana zuzendu zan eta onek, ainbeste alegin egin ta gero, andra gexoari dinotso: «Gexo dagoana zure odola da ta ori osatu ezik, begiak be ez jatzuz osatuko». Arpegia garauz bete jakon; batzuk osatu orduko, beste batzuk urteiten eutsoen eta sudur, ezpan eta agoa zauritu jakozan. Laster arpegi osora zabaldu jakon zauria; erderaz *lupus* deritxan gatxa egin zan bere arpegiaren jabe. Ainbeste sendatzailegaz ibili zan, baina alperrik. Azkenez, azaleko gexoak berariz ikasi ebazan Berder irakasle ospatsuagana daroe. Ago barruan gatxak egindako kalte andiak ikusirik, eukazan aginak atera ta ainbat astetan, ia egunoro, ao ta uiak suaz erreten dautsaz andra gexoari;

[17] [Jarraituko da.]
[18] [Jarraipena.]

baina ori be alperrik. Berder jauna Metzetik Wiesbadenera aldatu zanean, Muller sendatzaileak jarraitu eutsan aren lanari. Oberatzeko antzik be ez eukala-ta, egun baten Rouchel andreari dinotso: «Oraingoz naiko da. Ikusiko dogu ia egunak joan, egunak etorri, izatearen indarrak berez zer egiten dauan». Azkenez, ainbat sendatzaile alkarrekin batu ziran eta guztiak aburu ta eretxi batez dinoe: «Rouchel andrearen gatxa osatu ezina da». Gero baino gero txarrago joian. Zauriak arpegiaragiak jan eta irunsten ziarduen; zorne ta zakarra, ustelkeri ta atsa besterik ez erion. Ikusten eben guztiai iguin eta narda emoten eutsen. Inork ez ebala ikusi nai ta, Rouchel andreari bere burua ibaira jaurti ta itoteko asmua be bein baino sarriago etorri jakon, berak zinoanez. Orrelan egoala, erriko abade batek dinotso: «Lourdesera osteratxu bat egin bear zeunke; bearbada, Lourdesko Ama garbiak osatu egingo zaitu. Nork daki? Beste asko be osatu dira ta, ni zu lez banintz, joango nintzake beintzat».

Esan eta egin, Metzeko bidaztiekin batera urten zan Rouchel andrea be, ta 1903garren urteko irailaren 4an Lourdesen egoan. «Lourdeserantz urten baino amaika egun lenago –dino Ernest sendatzaileak–, Rouchel andrearen arpegia benetan itsusi ta iguingarri egoan. Surra, azpi ta gain, goiko ezpana, eskomaldeko mosua, ta ao-barrua zauri, zorne ta birekatxa baino besterik ez ziran. Ago barruan zulo bat eukan; mosuan, beste bat. Surra ta goiko ezpana andituta, alkarri elduta eta zorne nazkagarriz estalduta egoan.» Bultzian zaindu eban mojeak beste orrenbeste dino.

Lourdesera eldu zanean, berealaxe joan zan aitzuloko Andra Mariaren irudi aurrera, eta an belaunikaturik, Ama samurrari eskatu eutsan: bere obenak ziralata osatzerik merezi ez baeban be, berari ta enparauai ainbeste iguin eta narda emoten eutsen arpegiko zauriak, arren bernetara edo gorputzeko beste toki batera aldatu egiozala, besteentzat ain nazkagarri izan ez zedin. Gero bainutokira joanik, ango uraz bere arpegia garbitu eban; zaurietatik zakar eta zorne gutxitxuago dariola deritxo. Urrengo egunean gexoetxeko otoiztokian autortu ta Jauna artu ondoren, uste betez doa eleiza nagusira ta bere artean dino: «Edo aitzulo aurrean edo bainutokian gaur osatuko naz». Ori uste eban, baina bere uste orrek ustel urten eutsan. Aitzulo aurrean biotzez otoitz egin eban; bainutokian ango uraz garbitu ebazan bere arpegi ta agoa, baina ez batean ez bestean ez zan osatu.

Arratsaldeko bostak inguruan, gure Jaunagaz ibildeuna ta gexoen oneskunde edo bendezinoa egingo dira. Rouchel andreak beste gexoen artean gelditzeko adorerik ez dauko; lotsa da ta Errosarioko eleizan sartu ta altara nagusi osteko zokondo batera doa, eleiz aurrean Jaunari ta bere Amari bidaztiak eiagoraz egiten dautsezan eskari samurrak bere zokotik entzuten ditu, ta berak be biotz-biotzez berresaten daragoio. Saint Dieko Gotzainak bere eskuetan eroian Jauna Errosarioko eleizan sartzen da. Rouchel andreari, zergaitik ez dakiala, bere arpegiko lotzaikiak askatu ta eskuetan eukan liburu gainera jausten jakoz eta liburuaren orria

zakarrez eta odolez loitzen dautsoe. Lotzaikiak artu, arpegian ipini ta barriro askatuko ete jakazan bildurrez, oropil bigaz lotzen ditu. Eleizatik urten eta aitzulorantz doa. Iturrietara eldurik, ura edateko asmuz makurtzen da ta arpegiko lotzaikiak bigarrenez askatu ta jausten jakoz. Lotsearen lotsaz al ebanik lasterren ipini ta erdi asarrez gexoetxera doa. Josefina ta Maria Risse, goizeko bere lagunai dinotse: «Asarrez nator; arpegiko lotzaikiok birritan askatu ta jausi jataz eta lotsatu naz. Arren, ondo ipini ta gogor lotu egidazuez». Neskatilak, gero obeto ipinteko ustez, kentzen dautsez andreari bere arpegiko lotzaikiak eta arrituta dinotse: «Ene andrea, lotzaikirik ez dozu bear, osatuta zagoz ta!». Une aretan sartu zan gelara Sofia mojea eta Rouchel andreak, neskatilen esana sinestu ez ebalako-edo, dinotso mojeari: «Ai aita, lotzaikiak ez zeunstazan ondo lotu ta jausi jatazanean artu dodan amurrua, ez da esateko». «Ia ikusi –dinotso mojeak–.» Baina arpegira begiraturik, poz-negarrez dinotso: «Andrea, Jaungoikoa ta Andra Mariari eskerrak emoiozuz. Zeregin au amaitu da; zure zauriak zarratuta dagoz. Lotzaikirik ez dautsut nik ipiniko, orrein bearrik ez daukazu ta».

Gexo au urrengo egunean aztertu eben Lourdesko sendatzaileak. Zauriak zarratu ebazan azal barriaren gorritasuna ta goiko ezpanpean anditutxu bat izan ezik, lengo gexoaren beste aztarnarik ez eben aurkitu. Gorritasuna laster joan zan; ezpanpeko aunditutxua gelditu. Rouchel andreak, Lourdes itxi baino len, Andra Mariari biotzez emon eutsazan eskerrak, esanaz: «Neure gexo nazkagarri onetatik zuk, Ama samurrorrek, osatu nozu. Gelditzen jatan anditutxu onek minik ez daust emoten eta, nai badozu, gexoaren betiko ezaugarritzat itxi egidazu».

Osatze onek abarrots andia atera eban Parantze guztian. Rouchel andrea etxerantz joiala Zetteko geltokian laguntalde andia egoan itxaroten, euren artean sendatzaile bi. Ain gexo txarretik osatu zan andra zoriontsu au aztertu eben eta bietatik batek esan eutsan: «Uri onetako neure lagun guztiak emen balegoz naiago neuke, nik dakustan osatze arrigarri au guztiak ikusi dagien. Andrea, deadar egin zeinke: “Gora Lourdesko Ama garbia!”, orretarako ziorik asko daukazu ta».

Metzera eldu zanean, ango sendatzaileak be ikusi ta aztertu eben. Oneitariko batek (protestantea bera) goiko ezpanpeko anditutxua berak osatuko eutsala esan eutsan Rouchel andreari. Baina onek erantzun eutsan: «Ez, jauna, ez; nire ezpan au olantxe dago ondo. Anditu ori lengo gexo nazkagarriaren ezaugarri da ta Zeruko Amari zor dautsadan osatzeaz obeto gomutau nadin, ezaugarri ori neugaz erabili nai dot beti». (*)[19]

[19] [Jarraituko da.]

XI[20]

Jaungoiko-Zale
«Lourdesko Osakuntza Arrigarriak»,
365 zk., 1930
(25-28 or.)

Lourdesera datozan gexoak bere burtxoian batera ta bestera, bainutokira, Agurtza edo Errosarioko eleiz aurrera ta gexoetxera darabiltzan gizon bat, askok ikusi dabe Lourdesen. Erruki-egintza ori gexoekin egiteko, urtero etorri oi da ta gogoz lan egiten dau. Gabriel Gargam, bere izena. Berau be aurrerago gexorik, oso txarto, il aginean ekarri eben Lourdesera: ol baten gainean luze, zirkinik egin ezinda; bere iztar eta zangoak arri-abeak izan bailiran, gogor eta sorgor, gizon bizia baino zerraldoan zetzan gorpua obeto zirudiala. Beste aldi baten Lazaro lez gizon au be bapatean bere zerraldotik [atautetik] jagi ta urten zan, eta arrezkero bere zereginik gozoena Lourdesera datozan gexoai laguntzea dau. Gargam bidaimorroi [korreoetako enpleau] zan.

1899garren urteko lotazilaren 17an, gabeko amar ta erdietan, Bordeauxtik Pariserako bultzi bizkorrean sartu zan bere zereginari ekiteko. Azken-aurreko bultzi-burdian joian beste iru lagunekin.

Angulema baino gorago dagoan Libernantgo aldatsean igon ezinik, bultzia astiro doa. Azkenez biurrune baten ezin urratuta, guztiz gelditzen da, eta bere atzealdeko argiak urretik baino ezin ikusi daitekez. Onelan dagozala, Bordeauxtik amar minutu geroago urten zan beste bultzi bat, tximistea lez gainera datorkie; geldi egoan bestea atzerik ara joten dau ta azkenengo bultzi-burdiak, zati-zati egin-da, burdinbidearen alboetara jaurtiten ditu.

Zoritxarrekoenak Gargam eta bere lagunak izan ziran. Urrengo goizean edurtzan aurkitu eben Gargam gaxoa: iztar, zango ta buruan zauri andiak eta bular goiengo azurra [kabila] ausita eukazan. Azur ausi ta zauriak naiko laster osatu ziran; baina astinaldi izugarri aregaz bere gorputz-zozkona gexotu jakon eta barreneko gaitz orrek ezaugarri agiriak itxi eutsazan. Garritik berakoa elbarritu, gelditu, guztiz sorgortu jakon. Jatekorik be ezin eban iruntsi. Gomazko odi bat eztarritik sartu ta zerbait emoten eutsoen; baina min andia egiten eutsola-ta, ogeita lau orduan bein baino ez eban ezer artzen eta azkenerako azur ta azal gelditu zan.

Angulemako gexoetxearen ardurea eukan Dekresak sendatzaileak zinoan: «Gargam elbarritu dago. Iztar eta zangoak sorgor daukaz, oinetan lurmin-ikarea,

[20] [Amaia.]

kirio ta zanak erkin, lepazur-una gexo. Bizienerako bidean dago. Gexo au sendakaitza da; geienez txarrerantz egiten dau». Dekresak jauna zuzen egoan; andik laster Gargami oinetan biziena agertu jakon. Oinak sorgor eukazalako minik be ez eutsola emoten eta sendatzaileak bizien orri ez eutsoen jaramon andirik egin.

Ezbear onen errua burdinbide-jabeena zala-ta, Angulemako auzitegiak epai bidez beartu ebazan burdinbide-ugazabak Gargami kalteen ordez 60.000 franko ta bizi zan arte urtero beste 6.000 emotera. Burdinbide-jabeen ordezkariak, sendatzaile askoren eretxia jakin ta gero, ugazabai esan eutsen: «Kalteen ordez 60.000 franko emon baino, bizi dan arte urtero 12.000 emon obe dozue, luzaro emon bearrik ez dozue izango ta. Opatu egiozue ori». Ugazabak gora jo eben, Bordeauxko auzitegira; baina emengo epaikariak Angulemakoak baino be gogor eta zorrotzagoak izan ziran. Angulemakoen epaia enparauetan sendetsi ta gauza baten aldatuaz, erabagi ta agindu eben, Gargami urtero emon bear jakazan 6.000 frankoak ezbearra jazo zan egunean asi ta ordaindu bear jakozala ta ez eskabidea auzitegian aurkeztu zan egunetik, Angulemako epaikariak erabagi ebenez. Ugazabak 1901garren urteko dagonilaren 12an epai ori ontzat emon eben eta beteteko gertu egozala adierazo.

Amabost urte baino geiago ziran Gargam eleizan sartu be egiten ez zala. Oraindik gexoetxean egoala Lourdesko osatze arrigarriak aitatu eutsoezan bein baten. Sineste apurrik be ez eutsen emon; ipuinak izan bailiran, otz eta muker entzun ebazan. Osatzeko antzik be ez eukala-ta, iltekotan bere etxean il obe ebala-ta, gexoetxetik bere etxera ekarri eben. Gargamek berak ez eban otoitzik egiten; baina beste askok bai bere alde. Lourdeserako bidezkunde nagusia egiteko eguna laster etorren. Amak, ekinaren ekinaz, azkenean bere semea zuritu eban. Onek osatuko zanik ezertan be ez eban uste; baina amari atsekabe barririk ez emotearren, alakoren baten esan eutsan: «Tira ba, ainbeste nai dozuen ezkero, eroan nagizue».

Amaren eskabidez eta gauzak edo ez egin edo egitekotan, ondo egin bear zirala-ta, ainbeste urtetan eleizan sartu be ez zan gizon onek bere obenak autortu ebazan. Baina gure Jauna ez eban artu nai izan; Lourdesen artuko ebala erantzuten eban. Azkenez, gertu zan orretarako be, eta irunstea oso gaitz egiten jakolako, dagonilaren 16an ostia zati txikitxu bategaz artu eban gure Jauna. Iru egun geroago bultzi-burdian sartu ta Lourdesera dakarre. Dagonilaren 20an goizeko zazpiretako an dago. Bere burtxoian aitzulo aurrera daroe. Agindu ebanez, Jauna artzen dau ostia zati txiki baten bidez. Otoitz egiteko gogoa datorkio; baina ezpan eta mingainera ez etorkion ezer eta negarrari emon eutsan. Arratsaldeko ordu bietan bainutokira daroe; geldi-geldika ta ardurarik andienaz uretan sartzen dabe. Lagunak otoitz egiten asten dira ta bera be bai; baina Jaungoikoak bere otoitzik ez dantzuala dirudi. Arratsaldeko lauretan, gure Jaunaz egin zan ibildeun bitartean, bere burtxoian etzunda, inoz baino zurbil eta jausiago dago. Bapatean ilunaldiak emoten dautso. Bere arpegi zurbila ikusirik, berealaxe ilgo zalakoan, ondoan

egozanak ikaratzen dira. Arpegian ikutzen dautse ta otz egoala oarturik, lagun batek dino: «Emen ilgo balitz, beste gexoak larritu ta ikaratuko litzakez eta beste nonbaitera eroan bear dogu». Baina beste batek erantzun eutsan: «Ez, egon geldi. Ilten bada, arpegia neuk estalduko dautsat eta beste gexoak ez dabe ezer igarriko ta ez dira ikaratuko».

Gerotxuago bere konortera dator, begiak idegi ta lagun-aldrearen otoitz beroak be entzuten ditu. Bizitzara dei egiten dautsoela deritxo ta ogei ilabetean oitik jagi ez zan gizon onek, burtxoia itxi ta zutindu nai dau. Ez dautsoe itxi nai; baina berak jagi ta zutindu nai dauala dino ta burtxoitik jasteko laguntza eskatzen dautse. Ikuskizun arrigarria! Ogei ilabete oian ezarrita eroiazan ta aurreratxuago il aginean egoan gizona bere burtxoitik jasten da ta zutunik dago; alkondara hutsik eta zutunik, ilobitik urtendako il berbiztua dirudi. Jaunaren jarrai doa, baina lagunak ez dautsoe itxi nai ta eldurik barriro bere burtxoira daroe. Gizon elbarritu au osatu da: geldi ta sorgor eukazan bere iztar, zango ta oinak igitzen asi dira; bere eztarria idegi ta ain aul eta makal egoan bere urdailean gosea erne da. Iru laurenetan galduta egoan bere gorputzeko zozkonera bizitza barriaren arnasea etorri da eta bere arpegi zurbil eta orizkea argitzen eta alaitzen asi da. Izara baten batu, bere burtxoian sartu ta sendatzaileen gelara daroe. Azurra ta azala baino ez zan gizon au guztien aurrean zutindu zanean, sendatzaile ta enparauak ez ziran gitxi arritu. Asti andirik be ez eukela-ta, ateetan lagun-aldra andia itxaroten egoala-ta, aztertze arin-laster bat egin eta urrengo egunean etorri eitela agindu eutsoen. Gexoetxera doa ta ainbeste ilabetean ezer ezin artu izan eban gexo onek, saldea, izpelak [ostrak], oilasko-egoa ta matsa gogorik onenaz artzen ditu. Gaba zelan igaroko ete eban bildur ziran, baina umetxu baten antzera, gozaro egin eban lo.

Urrengo goizean oitik jagi, erosi eutsoen soineko barria jantzi ta sendatzaileen egiztatze-aretora doa; baina ez burtxoian aurreko egunean lez, oinez baino. Aretoa sendatzailez beterik dago. Oinak ikusi ta aztertzen dautsoez: bizienik ez dauko, zauriak zarratu dira; baina bere bernak oso argal dagoz, azur eta azala baino beste gauza andirik ez. Boissarie, sendatzaileen buruzagiak besteai dinotse: «Jaunak, sendatzaile gareanez, gauza bat batez be oartu bear dogu emen: Gargam, orain dagoanez, ezin ibili daitekela dirudi, iztar-zangoetan giarra ta kiriorik ez dauko ta. Ori ta guzti be, zutunik dago ta, ibili dabil».

Sendatzaileak gexoaren erro ta sustraia zein izan ete zan eztabaidea atera eben: ia burutan bezenbat aburu agertu ziran. Onetan, euretarik ospatsuenetariko batek esan eban: «Jaunak, Gargamen zozkona alperrik galduta egoala agiri da ta onelako aldietan gexoaren sustraia non dagoan zertan itandu be ez da, toki baten baino geiagotan dago ta». Jaun onen eretxia besteak be ontzat emon eben eta gexoa osakaitza zala guztiak autortu. Iru aste geroago Gargamek amar kilo irabazi ebazan eta bere berna meak sei atz lodiago ziran. Arrezkero, bere garako gizonari dagokion azta edo pisua dauko ta laneko nekeak ondo daroaz. Lourde-

sen osaturiko beste batzuei lez, oneri be lengo gexoaren aztarnatxu bat gelditu jako. Tessier sendatzailearen aburuz, lepazur-atal batek barruko una jo ta estutzen eutsan Gargami eta sendatzaile arek zinoan tokian alako makaltasuntxu bat oartzen dau Gargamek. Baina bestelan, osasun ederra dauko ta Andra Mariari bere eskar ona erakusteko, urtero etorri oi da Lourdesera Andra Mariaren deduz, antxinako gexoa gexozain egin da. Errukizko egintza ori poz-pozik egiten dau: Lourdesera datozan gexoak zaindu, oinez ezin ibili diranak burtxoian erabili ta gizonezkoai bustialdiak emoteko, udarik geienak an igaroten ditu.

Betorkioz sinestebakoak gizon oni; miraririk ez dagoala esan begioe ta berak erantzungo dautse: «Antxina neuk be ez neukan sinesterik; baina ikusi dot eta sinesten dot. Il aginean nengoala, bapatean osatu nintzan. Beste asko be orrelantxe osatzen ikusi dodaz eta sinestuko ez baneu, zu baino be burugogorrago izango nintzake. Gexoak emen izatearen indarrez osatzen dirala…? Baina emeko osakuntzak egiten dituana, izatearen indarra balitz, emen lez beste edozein tokitan be agertu bear leuke. Dinozuenez, jakitunak zarie; jakitunak bazarie, izatearen indar ori zeuen gexoetxeetara, zergaitik ez daroazue? Izatea emen eta an gauza bat eta bardina da; bere indarra zuek jakitunok, guk gitxi dakigunok baino obeto ezagutu bear zeunkie. Zergaitik ez da agertzen, ba, indar ori zuen gexoetxe ain ondo ipinietan eta bai emen, ez sendakairik ez sendatzaile ospatsurik ez darabilgun toki onetan? Zelan da ori? Emen gexoak osatzen dituana izatearen indarra danik ez egizue, arren, esan, ori esatea ta tentel andi batzuk zariela autortzea gauza bat dira ta. Zergaitik? Ba guk jakitun ez gareanok, emen arrapau, artu ta darabilgun izatearen indar ori, zuek jakitun andiok ezagutu, artu ta erabilten ez dakizuelako. Non dago, ba, zuen jakituri andi ori? Argi ta jakituri gitxiko gizonok emen aurrez egiten doguna, ezelan be ezin egin badozue –eta ori autortu bearrean zagoze–, tenteltzar andi batzuk baino besterik ez zarie. Baina olako tentelak zariela autortu baino, emen alatz edo mirariak egiten dirala ezagutu ta autortu be askoz obe dozue. Beste biderik ez dago: edo tentel-ergel batzuk zariela autortu edo, ezpabe, emen Jaungoikoaren eskua ta Andra Mariaren bitartekotasuna darabiltzala ezagutu ta sinestu».

*****

Arrezkero be, sendatzailerik bikainenak osatu ezindakotzat eukezan ainbat gexo osatu dira Lourdesen. Urtero, ta batez be, Pantze guztiko bidezkunde nagusia egiten dan egunetan, gexo askotxu osatu doaz. Baina Lourdesen benetako mirariak jazoten dirala adierazteko, aurrerago aitatu doguzan osatze orreik be naiko dira ta, oraingoz besterik esan bearrik ez dago.

HAMAR EUSKAL LITERATO ETA JAINKOA

Sebastian Gartzia Trujillo
Ekonomialaria eta euskal filologoa
Elizbarrutiko Teologia eta Pastoraltza Institutua. Bilbo

LABURPENA

Hamar euskal literato eta Jainkoa

Lan honetan hamar euskal literatoren erlijio-esperientzia aztertzen da. Erlijioaren eragina oso nabarmena da ez soilik modernitatearen aurreko euskal idazle askorengan (Domingo Agirre, "Orixe"), modernitateko idazle askorengan ere bai, eta ez soilik erlijioso edo sinestun aitortzen diren idazleengan (Lizardi, Gandiaga, JM Lekuona), beren burua agnostiko edota ateotzat jotzen duten idazle askorengan ere bai (Txillardegi, Mirande, Aresti). Bestalde, azpimarratzekoa da, kasurik gehienetan, euskal idazleon erlijio-esperientziaren jatortasuna, batez ere zenbait kasutan (Lete, Artze).
Hitz gakoak: erlijio-esperientzia, Domingo Agirre, Nikolas Ormaetxe *Orixe*, Jose Maria Agirre *Lizardi*, Jon Mirande, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*, Gabriel Aresti, Juan Mari Lekuona, Bitoriano Gandiaga, JosAnton Artze, Xabier Lete.

RESUMEN

Diez literatos vascos y Dios

En este artículo se analiza cuál es la incidencia de la experiencia religiosa en la obra escrita de diez escritores de la literatura vasca. La incidencia de lo religioso es muy intensa no sólo en los escritores vascos premodernos (Domingo de Aguirre, Orixe...), sino también en los modernos, no sólo en los que se confiesan explícitamente religiosos (Lizardi, Gandiaga, JM. Lekuona...), sino también en los que se manifiestan agnósticos o ateos (Txillardegi, Mirande, Aresti...). Destaca además la originalidad de la manifestación religiosa, especialmente en algunos casos (Lete, Artze).
Palabras clave: Domingo Agirre, Nikolas Ormaetxe *Orixe*, Jose Maria Agirre *Lizardi*, Jon Mirande, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*, Gabriel Aresti, Juan Mari Lekuona, Bitoriano Gandiaga, JosAnton Artze, Xabier Lete.

RÉSUMÉ

Dix écrivains basques et Dieu

Dans cet article, l'auteur analyse l'impact de l'expérience religieuse sur l'œuvre écrite de dix écrivains basques. Cet impact du religieux est très intense, non seulement chez les pré-modernes (Domingo de Aguirre, Orixe...), mais aussi chez les modernes, qu'ils se reconnaissent explicitement croyants (Lizardi, Gandiaga, JM. Lekuona...), ou qu'ils se déclarent agnostiques ou athées (Txillardegi, Mirande, Aresti...). À signaler également l'originalité de la manifestation religieuse, en particulier dans certains cas (Lete, Artze).
Mots-clés: Domingo Agirre, Nikolas Ormaetxe *Orixe*, Jose Maria Agirre *Lizardi*, Jon Mirande, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*, Gabriel Aresti, Juan Mari Lekuona, Bitoriano Gandiaga, JosAnton Artze, Xabier Lete.

SUMMARY

Ten Basque writers and God

This article examines religious experience in the work of ten Basque writers. Religion and things religious are a remarkably regular feature not only in pre-modern Basque writers (Domingo de Aguirre, Orixe...) and their modern counterparts, particularly confessions of explicit religiosity (Lizardi, Gandiaga, JM. Lekuona...), but also in writers who are perfectly straightforward about their agnosticism or atheism (Txillardegi, Mirande, Aresti...). One interesting feature is the originality of the religious manifestation, particularly in the cases of Lete and Artze.
Key words: Domingo Agirre, Nikolas Ormaetxe *Orixe*, Jose Maria Agirre *Lizardi*, Jon Mirande, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*, Gabriel Aresti, Juan Mari Lekuona, Bitoriano Gandiaga, JosAnton Artze, Xabier Lete.

Artikulua jaso / Fecha de recepción: 2011.05.26.
Artikulua onartu / Fecha de aceptación: 2011.06.30.

XX. mendearen erdirantz, baten batek galdetu baligu Jainkoaren presentziaz euskal literaturan, *ugaria* zela erantzungo geniokeen; *ugariegia,* nonbait, baina *gatzik gabea.* Izan ere, Domingo Agirreren edota R. M. Azkueren idazkietan, Jainkoaren tratamendua Madril, Paris edo Erromako erdi mailako edozein idazle zein predikarirena bezalakoa izan ohi zen: eskolastikoa, *romano more* araberakoa, ohiturazko edozein espainiar idazleren antzekoa. Eta, xehetasunak xehetasun edota mendez mende, gauza bertsua esan genezake Asteasuko Agirrez, Mendiburuz, Kardaberazez, Larramendiz… eta atzerago joz, Axularrez edota lehen euskal idazleaz, Etxeparez ere bai.

Galdera bera XX. mendearen bukaeran egin bagenu, erantzuna konplexuagoa izango zatekeen. Batek baino gehiagok Atxaga, Sarrionandia, Saizarbitoria, Arrieta, Izagirreren distirek itsututa, XX. mendearen bigarren erdiko euskal literaturan Jainkoaren presentzia ezdeusa zela erantzun ziezagukeen, eta handik aurrera, oro har, are eta ezdeusagoa ere bai.

Bada, azken horretan ez nago ados. Nire tesia da XX. mendearen azken erdiko euskal literaturan Jainkoaren presentzia *bizi* eta *handia* izan dela, inoiz baino *jatorrago* edo pertsonalagoa, baita, oro har, inguruko beste literaturetan baino *interesgarriagoa* ere[1]. Azpimarragarria zaiguna, XX. mendeko azken herenean, Jainkoaz aritu diren euskal idazleak ez baitira soilik abade edota fraide izan, laiko ere bai, eta azkeneko horiek ez dira, erlijio zein sinesmen arloan, interesik gutxienekoak izan.

Tesi hori defenditzerakoan, froga modura, lagin edo literato batzuk atera eta, arinki bada ere, aztertu egingo ditut. Hasi, XIX. mendean jaio arren, literatura lanak XX. mendean idatzi eta argitaratu zituzten idazle batzuekin hasiko naiz: Domingo Agirre (1864-1920), Nikolas Ormaetxea "Orixe" (1888-1961) eta Joxe M. Agirre "Lizardi"rekin (1896-1933) eta segidan XX. mendeko petoak diren: Jon

---

[1] Ikus ARREGI, J. *Jainkoaz galdezka. 40 euskal idazleren erantzunak,* Alberdania, Irun, 2007 eta "40 escritores vascos hablan de Dios", *Cuadernos de Teología Deusto,* 36, 2009, 105-120. or.

Mirande (1924-1973), Jose Luis Alvarez Enparanza "Txillardegi" (1929), Gabriel Aresti (1933-1975), Juan Mari Lekuona (1927-2005), Bitoriano Gandiaga (1928-2001), JosAnton Artze (1939) eta Xabier Lete (1944-2010) idazleekin jarraituko naiz eta larregi ez luzatzearren, erlijio arloari dagozkion marra lodi batzuk soilik azpimarratuko dizkizuet.

Domingo Agirre edo errigorismoaren eragina

Denok bagenekien Domingo Agirre abade kontserbadore bat izan zela (gaurtik ikusita, batik bat). Jansenismoaren zipriztinak ere antzeman zizkion Jose Artetxek (arrazoirik nahikorik gabe, omen), non eta Kitolis arrantzale maitagarriaren pasartean! eta Koldo Mitxelenak integrismoaren usaina hartzen zion. Hala eta guztiz, Agirreren sermoiak agertu eta argitaratu arte[2], ez ginen ohartu norainokoak ziren Domingo Agirrerengan erlijio errigorismoaren sustraiak, ezta, oro har, zein sakoneraino sartua zen estutasuna euskal erlijiotasunean ere, gaurdaino bertaraino barreiatu ei zaiguna.

Agirreren erlijio ideologiari buruz nire tesiaren atalak irakurri dituzten lagun askok aitortu didate horixe zela, hots: integrismoraino iritsitako erlijio kontserbatzailea, beraiek bizi eta pairatu zuten XX. mendearen lehen erdian euskal erlijiotasuna[3]: bekatua, aginduak, zigorra... "Jainkoari dagokionez, batik bat, euskal erlijioa *autoritatea*ren inguruan itxuratzen zaigu... Balitzate gehiegikeria esatea euskal herrikoen kristau erlijiotasuna Jainkoaren *beldurrean* oinarritzen dela, lehen eta gehiago, maitasunean baino? Ez dut uste" (horrelaxe Pierre Lhande jesuitak, 1935garren urtean). Ez naiz gehiago luzatuko. Nahi izan dut soilik azpimarratu zein erlijiotasunetatik gatozen, eta nola erlijiotasun hori bizirik diraun gaurdaino ere. Lur ongarritua nonbait, datorkigun azaro berrirako (berrebangelizaziorako, alegia).

Domingo Agirrerekin bukatu aurretik ohartxo bat: *Kitolis* eta *Garoa* irakurtzen ditugunean, kontuan har dezagula hor agertzen zaizkigun pertsonaiak edo irakatsiak Agirreren sermoietako irakatsien *bertsio biguna* direla. Pulpituetatik, gehienetan, ondarrutarrak eta mendeetan zehar predikaririk eta misionistarik gehienek beldurrez eta aginduez bete dituzte Euskal Herriko bihotz eta kontzientziak[4].

---

[2] AGIRRE, D. *Sermoiak*, Labayru Ikastegia-BBK, Bilbo, 2000 (Paratzailea: Sebastian Gartzia Trujillo).

[3] GARCIA TRUJILLO, S. *La novela costumbrista de Domingo de Aguirre,* IDTP-Desclée de Brouwer, Bilbo, 1993 eta *Sermoiak*, Labayru Ikastegia-BBK, Bilbo, 2000.

[4] Kontraesankorra izaten genuen Unamunok euskal herrikoen errigorismoranzko joeraz bertsio positiboa eman zigun: "Se habla de nuestro espíritu reaccionario, cuando debía llamársele más bien conservador, en el mejor sentido. Queremos progresar al paso de la naturaleza, con calma, acomodando lo político a lo social. UNAMUNO, M. "Alma vasca", Madrid, 04.01.03 (3 de enero de 1904).

"Orixe", euskarazko mistikaren sortzailea

Domingo Agirrerekin ez bezala, Nikolas Ormaetxearekin kontrakoa gertatzen zaigu, neurri batean behinik behin. Pentsaeraren aldetik, "Orixe"ri buruz nagusitu zaigun irudia modernitatearen kontrako, erreakzionario eta erretxin batena da[5]. Ez diot nik iritzi horri uko egingo. Baliteke Orixek berak erru pixka bat izatea sona 'txar' horretan, 'erretxinatasun'ari dagokionez, batik bat, jendearekin desatseginarena egitea gustatu omen baitzitzaion[6].

Nikolas Ormaetxea Orixe

Egia da a) teologia arloan Orixe *erreakzionario samarra* izan zela (Espainiako jesuiten filosofia eta teologia fakultateetan irakatsitako 'eskolastikaren' eragina, nonbait) eta b) erlijio-olerkietan nahiko *hotz* agertzen zaigula (Villasante *dixit*).

Orixeren kontserbadorismoaz ohartzeko, nahikoa zaigu ikustea eboluzioaren teoria darwinista defenditzen zuten Baionako seminarioko irakasle biekin gertatu zitzaiona: "Axandalo (xoxo) arek" iraindu zituen Orixek (arerioak iraintzea gustatzen omen baitzitzaion) eta borroka trofeo (disgustu) gisa "dozenerdi bat kilo"

---

[5] VILLASANTE, L. *Historia de la literatura vasca*, Arantzazu, 1979, 421. or.: "No era de los hombres que rinden culto al progreso, si por progreso se entiende la civilización técnica, industrial, la mecanización, etc. Prefería al hombre de pueblo, inculto, si se quiere, pero no falseado. No cree que la verdadera civilización se identifique con las máquinas, ni con la instrucción, ni con el consumismo".

[6] Kontrapuntu bezala, honako Mitxelenaren iritzi hau: "Alguna vez he dicho que Orixe era anterior a Galileo y quiero que se me entienda bien; antes de la Revolución de Octubre, de las revoluciones burguesas y de la industrial, hubo una que muchos olvidan: la Revolución Científica, madre, en gran parte, de todas ellas. Orixe era absolutamente ajeno a ello; para él no se había dado y, en este sentido, era coetáneo riguroso de muchos vascos post-marxistas de la actualidad; la única diferencia reside en que las raíces pre-científicas de Orixe estaban en los Padres de la Iglesia, y las de algunos vascos de hoy están también en Padres, sólo que de distinta Iglesia. La revolución científica es teoría deductiva, recursos a la experiencia y, en el fondo, libre examen. En este sentido Orixe era un vasco actual; el que las bases no sean las mismas no supone más que una diferencia coyuntural, como se dice ahora. Era un hombre muy agradable… Nos costó lo indecible hacerle la entrevista: creía que todo el fascismo internacional estaba detrás de él".

galtzea erakusten zien miresleei. Horrez gain, aipagarriak ditugu, *Tormes-ko itsumutilla* eta *Mistral-en Mireio* euskarara itzuli zituen bertsioetan egin zituen kenketa eta aldaketa irrigarriak[7]: "Se permitió la libertad de suprimir; A) la palabra 'hideputa' que traduce por 'hijo de ruin madre'; B) 18 líneas del libro III en las que se narra el baño del escudero con dos 'rebozadas mujeres' en las frescas aguas de un río y las dos mujeres le llaman pariente. 'Orixe' cambió también el capítulo VII… Suprimió este capítulo porque se narraban las relaciones amorosas del arcipreste del Salvador con la esposa del lazarillo"… eta zuribide gisa, Orixek hauxe idatzi zion: "Erdel jaubearen idazti jatorretik, jardun hau osoa kendu dot, eta neure buruz ordaindu, edonoren eskuetarako irudi etxatalako... Kritikuak begirapena zor ei deutsoe jaubearen idazti jatorrari, nik ostera begirapena zor deutsot neure buruari eta irakurle euskaldunari"[8].

Orixeren idazkirik interesgarriena, haatik, nire iritziz bederen, ez da, askotan aipaturiko *Euskaldunak* poema luzea, *mistika idazkiak* baizik: *Quito'n arrebarekin* eta *Jainkoaren bila*, alegia, zeinei *El trato con Dios* ere gehi deizaiekegun. Laikoa izanik (Orixe laikoa izan omen zen inoiz?) formalki, bederen, bera izan da, ez Loiolako Inazio, ez Xabierko Frantzisko, eta Sorazuko Anjeles... euskaraz *lehen* testu mistikoak idatzi zituena. Hori dela eta, Orixek euskarazko mistika hizkuntza *asmatu* behar izan zuen, ondo asmatu ere, nahiz, orexarra begi onez ikusten ez zuen Villasante (nork nor?) lan horrekin kritiko samarra izan.

Teologia arloan kontserbadorea bazen ere, Orixeren mistika arloko idazkiak fidagarriak ez ezik, *aurrerakoiak* ere badira, eskola onenetarikoak: Avilako Teresa, Jon Gurutzeko eta Loiolako Inaziorenak... eta Orixerekin bukatu aurretik, hiru gauza azpimarratu nahi nituzke:

–Lehena, mistika idazkietan, Orixe *ez zen batere orijinala*. Bestek esandakoa errepikatzera mugatu zen (utz dezagun oraingoan, ea Orixek mistika esperientziak gozatu zituen ala ez[9]);

---

[7] *QA*, o. c. 103-109. or. IBINAGABEITIA, A. "'Orixe' Euskeratzalle", in *Orixe omenaldi*, o. c. 105-106. or.: "'Itxu-mutill'ren azkeneko ataltxoa gogortxo arkitu zuen 'Orixe'k, eta bere kabuz egindako atal batekin ordeatu zuen, liburuko izkera saldu gabe. Berak ezartzen duen oartxoan esaten digu zergatik ori egin zuen: 'Erdel-yaubearen idazti yatorretik, yardun au osorik kendu dot eta neure buruz ordaindu, edonoren eskuetarako irudi etxatalako. Kendu dodaz ganera, esan zantar bat lelengo yardunean, hamazortzi lerro irugarrenean, eta bi koma-tarte laugarrenean. Kritikuak begirapen zor ei dautsoe yaubearen idazki yatorrari: nik ostera zor deutsot neure buruari ta irakurle euskaldunari…". Orixe'ren ispirituarekin bete-betean zetorren Mireio'ren gaiari ere "zenbait kimatze egin zituen… geienak, ordea, olerkari romantikuek ain maite zituen apainkeri ta bapikatzenak. Nire (Orixe) ustezko geiegikeri bakar oriek euskerari ongi eztatozkiola ta, besteen iritzia beste, soildu egin ditut eskuarki. Nik (Ibiñagabeitiak) nire aldetik makur auxe egotzi nion itzultalle azkarrari, baiña bereala erantzun zidan zenbait esankizun ez euskerarekin ez benetako euskaldunekin ezin zitezkela bat etorri iñola ere, eta orregatik alderatu zituela". Are esplizituago ere, AULESTIA G. "'Orixe: escritor vasco controvertido", o. c. 97. or.: "Se permitió la libertad de suprimir; A) la palabra 'hideputa' que traduce por 'hijo de ruin madre'; B) 18 líneas del libro III en las que se narra el baño del escudero con dos 'rebozadas mujeres' en las frescas aguas de un río y las dos mujeres le llaman pariente. 'Orixe' cambió también el capítulo VII… Suprimió este capítulo porque se narraban las relaciones amorosas del arcipreste del Salvador con la esposa del lazarillo".

[8] ORMAETXEA, N. 'Orixe', Zazpigarren jarduneko oharra.

[9] Horretaz ikus GARTZIA TRUJILLO, S. "Nikolas Ormaetxea 'Orixe' Idazle mistikoa ala mistika idazle?", *Idatz & Mintz*, 48, 37-44. or.

–Bigarrena, epopeia mailan, *euskal kutsu estuegia* izan zuelako porrota edo izan zitzaion *Euskaldunak* poema luzearen parean, mistika arloko Orixeren idazkiek ez dute *euskal usainik* bat ere eta, hala ere, eta hauxe da azpimarratzen dudan

–Hirugarren gauza, Orixek, nahi izanez gero, mistika idazkiei euskal kutsua eta gehiago emateko gauza izan zen.

Quito'n arrebarekin liburuko XI. atalean, Orixek "Zerua" nola eta Euskal Herriko herri txiki batean (Bedaio-n, demagun) festa-ospakizuna bezala azaltzen digu, non zerua "uztai antzeko izar-gerrikoa ageri baita amabi izar-mordorekin: Aria, Zezena, Bizkiak eta abar... Zer enparantza –dio Nikolak– ingurutxo bat ateratzeko!".

Zeruko soka-dantza horretan ("ogeita lau lagun etxe batekoak- guraso beren aurrekin"); aurrelari nor eta Loiola dugu; atzelari, Berrio-Otxoa eta "erdizuloko beste gizon aietako bat bertsotan ari zinan –len dantza beti kantatu baitzan–. Nor?, eta Pernando Amezketarra eta zigor-maisua edo puntuak emailea Iztueta zaldibiarra. Zelan bete zeruko izar-mordoez egindako inguru haunditxo hori? "Besoak luza bearko zititen" dio Denuxi-k. Eta Nikolak "Bai zera! Izar-mordo batetik bestera errez iauzi egiten zunaten. Gaiñera, gerriko artako izar-mordoak aldez beste zoazinan; dantzariak ezker-ioeran eta izarrak eskuin-ioeran. Ortaz pauso bantetan mordo (konstelazio) bana aldatzen zunaten"... Eta nongo apaiza zegon maiburu? Iesukristo ta Andere Mari (beraiek ere zer eta euskal dantzariak!) gorputz lilluragarriekin, azken izar-gerrikoa bañon aruntzago, eguzkia ta ilargia gugandik daunden bezala. Beren norgeigoka egin ondoren". Zeruko ingurutxo horretan, denak lagun (Askarateko eta Bedaiokoak barne[10]) eta Azpirozkoak, Berastegikoak, Orexakoak...: "Etzioanat iñori ipernurik opa, Iesukristok odola aiengandik ere neregatik bezala eman baitzun". Oraingoan, bestalde, Xabier eta Garikoitz ditugu aurre-atzelari, Xabalo bertsolari, Sarasola danbolinjole, herriko agureak, zeruko aingeruak, denak laguntasunean, are eta zelaietako arkumeak ere!: "itzulipurdika zebiltzinan ioan etorri, bere gisako dantzan". Eta hori guzti hori, "zer izkuntzetan?... bakoitzak gurean", noski, zeren "zeruan an izango ditxin lurreko erriak, gurea ere bai"[11]. Zein deskantsu euskararekin kezkaturik gauden guztiontzako!

[10] Esana duk, ba: "Askarate ta Bedaio, alkar ezin eraio!".

[11] Bitxiki, Orixek ez zituen zeruan nahi "beieri ianarazteko obea den" ziztua eta "gudarako obea" den tuntuna. Ikus *QA*, 192. or.

Jose Maria Agirre 'Lizardi'. Mistikatik ➛ politikara

Sinesmenaren aldetik zer esan gerra aurreko euskal olerkaririk preziatuena eta gerra ondoko euskal idazle askoren erreferentzia zuzena izan den 'Lizardi'ri buruz[12]?

Lizardiren literatura lanak kristau batenak direla antzeman dezakegu "Yaun errukiorra" bere lehen poematik bertatik: "Agur amonatxoa! / egun Aundirarte!" bertso hunkigarriak lekuko, edota 'Xabiertxo'ren eriotza', 'Gaztiaren otoitza', 'Gora-Dei'… olerkiak eta autobiografiko samarra den *Ezkondu ezin ziteken mutila* antzerkia ere bai, non ezkongai protagonistak (Lizardi eta bere emaztegaia) elizan agertzen diren, Andra Mariri otoizlari edota Loiolan ezkondu aurreko gogojardunetan…

Lizardik, haatik, ez zuen hartu, gutxitan izan ezik, erlijioa edo sinesmena gai esplizitutzat literatura idazkietan. Eta hala ere, Lizardi *militante* ez ezik, *lider* ere izan zen, ez soilik literatura edota politika arloetan, kristau edota Eliz arloetan ere bai[13]. Tolosan 1931n ospaturiko Eukaristia Biltzarrean, hizlarien artean, Lizardi izan zen laiko bakarra: *La misa del dia festivo y el joven* gaia jorratu zuen eta, kronikek diotenaren arabera, "describió la tibieza religiosa de la juventud, las grandezas de la Misa, el precepto de la misa, todo en hermoso euskera y vigoroso estilo"[14].

*Euskal eskola*ren aldeko kanpainaren barruan, Lizardik beti kontu handian izan zuen kristau-hezkuntza[15]. 1920 urtearen inguruko katiximak ugari eta traketsegiak zirela eta, Gasteizko Gotzainak katixima bakar bat sortzea erabaki zuen. Lehiaketa bat eratu zen eta, Gaspar Astete (1537-1601) abade jesuitaren katixima oinarritzat hartuz, euskal katixima berria argitaratu zen Hegoaldeko hiru euskal probintzietarako. Katixima berri horrek, haatik, kultismo batzuk barne, ez zuen harrera onik izan. Lizardik, prentsa artikuluen bidez, katixima berriaren alde kanpaina egin zuen (abade batek baino asko gehiagok egin ez zutena: "Andoain'en ta aurretik erririk-erri egindako ibillaldi oroigarri baten bidez –idatzi zuen *Euzkadi*n–, zenbait tokietan Kristau-Ikasbide berria zokoratua ikusi degu, zaarraren

---

[12] ARESTI, G. *Zeruko argia*, 64.08.02, 3. or.: "Haren izena munduko abant-goardian aurkitzen da: Cesar, Nicolas, Pablo, Louis, Gabriel, Nazim, Mikail Viteszlav… eta Xabier. Lehengo egunean hala esan zidan Bladi Oterok. Eta harek badu zergatik jakin". 65.01.24, 9. or.: "Askotan defenditu dut Lizardi. Niretzat ez da Euskalerrian hura bezalako poetarik egon".

[13] VILLASANTE, L. *Historia de la literatura vasca*, AFE, Oñate, 1979, 342. or.: "Su profunda vida cristiana daba la sensación del católico que practicaba sus deberes movido por una intensa reflexión". Inazio anaiaren adierazpena in MUJIKA, L.M. "Lizardi-ren lirika bidean": "Anaiak (Jose Marik) igandero komunioa artzen zuan".

[14] *Crónica oficial de la Asamblea eucarística de Tolosa*. Secretaría, 1931, 284-289. or.

[15] LIZARDI, X. "Tolosa", *Euzkadi*, 1927 Urriak 22: "Los reverendos Padres Corazonistas... han prestado su concurso preciosísimo y desinteresado, acudiendo asiduamente a la escuela (Tolosako gurasoek antolatutako Euskal Ikastola) para enseñar la Doctrina Cristiana". Katezismoa eskolan azaltzearen aldekoa zen Lizardi. Espainiako Errepublikak eskola publikoetan katezismoa azaltzea debekatu zuen 1932. Urtean. Eskola pribatuetan Lizardi katezismoa irakastearen aldekoa zen, abadeek azaldutakoa. 1922an Gasteizko Eliz Barrutiak katezismo berria onartu zuen".

ordez irakasteko egiña ezpa-litz bezela. Arrigarria ba-da, bai egi aundia ere, euskaldunak gaurdaño eztegula euskerazko Kristau Ikasbide egokirik izan, edo eztala beñipein aspaldiko urteetan erabilli. Itxasoz-itxaso ta legor ibilliak ba-gera ere, iñongo mintzorik zallenak ikasiaz siñesgabe gaxoak Jainkoaganatzen, gure etxeon ordea, ez apaizgorako irakatsi izan da euskera landurik, ez kristau lauentzat egin, luzarotxoan, Ikasbide txukun bat"[16].

Katixima berriaren aldeko kanpainaz gain, Lizardik protagonismo handia hartu zuen Dimako Aita Domingo Iturrate euskaldunen zaindari edo eredu izendatzeko egin zen kanpainan ere: "Gaztea ta euskera-zalea baitzan, gure garai berea bizi-izanik euskeraren ta Euskalerri'ko oitura onen erabateko galbidea bere begiekin guk gereokin bezelaxe ikusi baitu, gaur zeruan dagolarik gure bitarteko egokia baiditeke. Guztialduna'ren aurrean... ¿ez ote litzake bide bidezkoa guk, euskaltzaleok, gure Zaindari berezitzat artzea, aldaretara lenbait len jaso dezaten otoiegiten oitzen geralarik?"[17]. Euskera eta Elizarekiko konpromiso eta berotasunaren froga bezala, gogora dezakegu Lizardik prentsara bidalitako hiru artikuluak Markiegi'tar Yosebak euskarara antolaturiko *San Luis'en bizitza* bultzatzeko euskal irakurleen artean.

Katolizismo militante hura *politikara* ere eraman zuen Lizardik: "Bi agindu sail dugu abertzaleok, Arana-Goirik aitortzen zitunak berberak: Yainkoaren aginduak eta aberriarenak... bai batzuk eta bai besteak betetzeko neke-naiez ondo yantziak bear dugu izan: ori gabe ez Yainkoak zeruan artuko gaitu eta ezta ere Aberriak bere magalean... Ta guztiok otoitz bat zuzendu dezaiogun Iñaki Deunari, euskaldunen Zaindariari: Euskalerriak iraun dezala, kristau ta euskaldun, mendeen eta gizaldien ondarreraño! Ala bedi"[18]. Dena dela, Lizardik argi zeukan agindu biok diferenteak zirela: "Au da, Jainkorik gabe ere gizona izan daitekela abertzale. Au eztugu beñere ukatu; eguzkia baño argiagoa da"[19].

Lizardik ez zuen politika gogokoa, eta, halaz ere, kristau sinesmenak bultzatuta politika lanetan jardun zuen jo eta ke: "Su misión de poeta y su amor de patriota –idatzi zuen Aitzolek– obedecían al ideal supremo, su profunda y recia fe en Dios"[20]. Atal hau bukatu aurretik, Lizardiren gizarte arloko hiru ekintza azpimarratu nahi dut, sinesmenaren eragina nabarmena delako:

–Lehena, "euskera zokotik, sukaldetik, seiretako mezetatik zabaldegira, jangela apañera ta meza nagusietara bultzateko"[21] egin zituen ahalegin anitzak;

---

[16] LIZARDI, X. "Andoain-ondoren gogoetak", *Euzkadi* (1929 Urriak 2).
[17] LIZARDI, X. *Argia*, 1928.09.09, "Zizka-Mizka. Aita Domingo gure Zaindari? "
[18] *Itz-lauz*, eta "Arrasateko itzaldia", 1930 Uztailak 30.
[19] LIZARDI, X. Gutunak, 30.XI.30.
[20] ARIZTIMUÑO, J, *El Día*, 33.03.14
[21] LIZARDI, "Euskel Egunekoa", 'Eusko-Ikaskuntza'.aretoan, 1929-neko Garagarrilla-27-nean irakurritako itzaldia.

–Bigarrena: lehen euskal *egunkaria* bultzatu eta sortzea, Lizardiren ustez, "kristau, katoliko uts-utsa behar luke"ena, eta

–Hirugarrena, estatuaren *konfesionaltasunaren* gaineko jarrera zuhurra. Lizardik, "Sabinek bezela uste zuen, katolikoek politikan aitorzale edo konfesional garbi bear dutela"[22]. Dema horretan, haatik, Lizardik, bere usteari uko egin gabe, espainiarrek inposaturiko erritmora egokitzea onartu zuen[23], Karlistek, apetistek, integristek eta liberal alfonsinoek egin ez zutena. Katolikook, neure ustez bederen, aitortu behar dugu, neurri handi batean, geure erruarengatik, hots arrazoi erlijiosoengatik (ezkertiarrenak aurren, eskuindarrenak gero) lehen Euskal Estatutu lau probintziadun konfederal eta laikoa porrotera eraman genuela, inoiz baino hurbilago izan genuen abagune bakarrean.

Ortodoxiatik heterodoxiara. Jon Mirande, antikristoa?

Jon Mirande idazle *erlijiosoa* izan zen eta, nerabezaroan bederen, *kristau sutsua* ere bai: "Josu bar-Joseph, ebili naiz zure elizetan / ezkoen suan bihotz sor sutu nahiz. / Nuen orduan, Rabbi, zure baithan sinhesten / (eta ondikotz! aingeruen baithan ere...)... Josu bar-Joseph, ba dut othoi egin gauerdiz, / argizagia begi makur so zan etoi".

Kristau sutsua izateaz gain, Mirande *kristau militantea* ere izan omen zen: "Josu bar-Joseph, ikasleak zurekin ziren / zuk ereitean nola gari goi-elheak– / ni ere izan nauzu mintzo nire anaiei".

Pentsalari eta literato moderno askori gertatzen zaion bezala: Descartes, Leibnitz, Hegel, Kant, Nietzsche, Heideggeri… erlijio galderak izan ziren Jon Miranderen ia idazki guztien ardatza, eta galdera horretarako Mirandek erantzun *trazendenteak* (erlijiosoak) onartu eta *sinetsi* egin zituen: arimaren espiritualtasuna eta hilezkortasuna, heriotzaren ondorengo bizi-iraupen pertsonala eta "mundu material desberdinak" izatea, kasu.

---

[22] Gaurtik ikusita baliteke EAJren (S. Aranaren, Lizardiren) jarrera hori atzerakoia izan zela pentsatzea. XIX. mendearen bukaeran, kristau demokraziaren (Estatuaren konfesionaltasunaren) aldeko alderdi politikoak sortuak ziren, non prestigio handiko pentsalari eta politikoek parte hartu baitzuten (Luigi Sturzo, Robert Schuman, Alcide de Gasperi, Francois Mauriac, Jacques Maritain, (lehen) Emmanuel Mounier...).

[23] Lizardik Fr. Segundo Bilbaori, in OTAEGI, L. *Lizardiren poetika*, o. c. 293. or.: "Aquel estatuto (proyecto), llamado de Estella, que se confeccionó en la esperanza (no muy firme en el fondo) de que pudiese ser elevado por los gobernantes a fórmula autonómica vasca, quedó taponado irremisiblemente por los términos en que se concretó la Constitución del Estado Español. Entonces surgió el problema de si se debía ir o no en busca, no ya del mal menor, sino del BIEN MENOR (menor que el deseado) que supone la consecución de otro estatuto, encajable dentro de la Constitución que no tenemos otro remedio que acatar precisamente porque en lo político formamos parte integrante del Estado que nos la ha impuesto. Los nacionalistas nos pusimos sin titubeos del lado de la afirmativa". Lizardik Estatutuaren alde positiboren batzuk azpimarratzen ditu: "La enseñanza en todos sus grados pueda estar organizada por nosotros, los soldados vascos no hayan de servir fuera del país, que por fin la unidad vasca peninsular (Navarra incluida) se esté fraguando definitivamente en lo político, el que nuestra lengua nacional entre en franca vía de florecimiento, declarándola oficial a la par que el castellano y teniendo honrosa entrada en las escuelas".

Maisu izan zituen Arthur Schopenhauer eta Frederich Nietzsche ez bezala, Mirande ez zen *materialista* izan: arima sinetsi zuen, espiritua dena, hots: "izangaindikoa, orokorra, bakarra, bakoitzarena (eta) beti(ra)koa".

Arima sineste horrek, haatik, ez zuen Mirande *Jainkoa sinestera* eraman, ezta ukatzera ere: "Ariman sinesten badut, jainkoetan sinetsi beharko ote dut? Ene ustez, hauzi oso desberdina da. Neretzat, nire arima aski zait", baina, noizean behin, jainko(ar)ekiko (zein jainko[ar]ekiko?) *nostalgia* halako bati eusten zion[24]: "Ni ez naiz kristaua ez fedez, ez moralaz –idatzi zion bere lagun mina izan zen Jon Echaideri–, baina naiago nuke askotan zuk bezala... fede kontsolagarri bat eduki, ene itxaropen-gabearen ordez (materialisten *fedea* baño askoz itxaropen-gabeagoa, ondikotz, ezen nik sinisten dut spirituan, ariman, ots, phykhismuan, bañan betiko zorotasun jostagaillu den zerbaitengan bezala... eta askotan apaizekin gai orretaz mintzatu naiz, aspaldi ez dela ere (1959 urtearen inguruan)... bañan ezin siñistu dezaket"[25].

Agnostizismoaren arrazoia ematerakoan, Mirandek, modernitatearen ildoan, a) Jainkoaren *isiltasuna* azpimarratzen digu: "eta zuk aldiz utzi nauzu... Zergatik arren? / Zergatik arren, on hotsezko Jainko Josu?... Josu bar-Joseph, deithu zaitut haizeen artetik / hilbeltz erdiko gauhil hartan zurtz eta zut, / –Argizagia ezpain hertsi parez zegoen– / zeure zerutik deus ez duzu ihardetsi"[26], b) *heriotzaren ondorenean* ere badirauena omen: "Hil berri baten iratxo edo arima… han izitua da, non hasten zaion, gaztaroan bezala, bere oraiko sineskabea gatik, norbait-den Jainko bati oihuka, urgaite-galde… Baina norbait den Jainkorik ez zaio agertzen; bakarrik da beti; deuserako ez du izan bere hel-eskatze eta erdi-sinestea"[27]. *(Horixe sinestea da, Jon, Jainko metafisikoa sinestea ala ez sinestea)*

Ikuspegi orokorra azaltzeko betarik ez dugunez, ez ditut banan-banan aztertuko Miranderen erlijiotasunaren ezaugarri guztiak, nahiko nahasiak eta inkoherenteak direnak, bestalde. Hala eta guztiz, azpimarratu nahi ditut Miranderen erlijioarekiko hiru ezaugarri:

–Lehena, gorabehera askorekin, Mirande *antikristaua* izan zen: "Josu bar-Joseph, gaztaroan maite zindudan. Maitakeri hark noradino nau iroan... Gaur, Judu-seme, gutartera itzal bazinde, / gurutzifika zindazeket nik ostera"[28]. Antikristautasun horretarako, Mirandek hiru arrazoi eman zituen:

---

[24] MIRANDE, J. "Nire sinestea", o. c.: "Arimaren batasunaren nekeak astun egiten dionean, jainkoak ohoratzera zirikatua da, nostalgia baten uztak edo klaneko giza handien arimen oihartzuna gure izatearen beste planetan bizitzen direnak balira bezala".

[25] Jon Echaideri Miranderen gutuna, 59.09.10.

[26] MIRANDE, J. "Ohiko Jainkoari XV".

[27] "Nil igitur mors ers" poemaren giltza, o. c. 371. or.

[28] Jon Etxaideri Miranderen gutuna: "Ez uste izan nire burua besteengandik bereziteko kristau FEDE-gabea egin naizenik… da badakit kristau sinistuna zerala, eta zure sinispena asko errespetatzen dut; zuk jarraitzen duzun morala ere, gutxi gora beera, neronek jarraitzen dut".

1.a. Nietzscheren ildotik, kristautasunaren oinarrizko *errukitasuna*: "Gorroto zituenak, ideologia ahulgarriak dira… bakezaletasuna, hain kristau den marxismu jatorra eta hain judu den kristautasuna"[29].

2.a. Eliza katolikak eta kristau Estatuek Euskal Herriaren kontra erakutsitako *amorrua*. Miranderen ustez, bi estatu latin (kristau)-berriak, hots: Frantzia eta Espainia eta Erromako Eliza izan omen dira "gure endaren bereizgarri guztien erauzteari thaigabe ekhin deraukoten(ak), nahiz alhorr politikoan nahiz sinhespenen alhorrean"[30], eta

3.a. Zenbait kristauren *axolagabekeria*: "Ni ere izan nauzu mintzo nire anaiei; / bainan anaiok erran dute hitz haur: 'Ertzo'",

–Bigarrena. Mirande, jakinaren gainean ala oharkabean, *sinestuna* zen: Arima eta heriotzaren ondorengo bizitza pertsonalean sinetsi zuen. *Haur besoetakoa*ko unerik lirikoenean, Theresak galdetzen dio Gizonari: Hil eta gero, "Biak elkarrekin betikotz? Biak bat eginik betikotasunean?", eta gizonak herioa iruditze hutsa dela erantzuten dio eta heriotzaren ondoren elkarrekin eta indibiduoak bezala biziko direla, eta Gizonak horrelaxe dio bere kolkorako: "Batzuek hala diote, eta bestetzuek bestela… izugarriena da neronek ez baitakit… baina beranduegi da, eta orain beldur naiz, ezin-gehiagoko beldurraz, ordua da delakotz heldu gure bien batasuna zulo beltz batean agian ondatuko baita, gure bien ezana eta izanarekin batean-betikotz"[31].

–Hirugarrena. Mirande da inguruko herri zein kulturekiko *bereziak* ditugun euskal mito, ohiturak, erritu, konjuru eta abarri teologia titulua ematera ausartu den lehena: "geure leinuak asmaturiko theologia zaharra"[32]. Egia da euskal kristau sinestunak: Barandiaranek, Lekuona zaharrak… lan eskergarri bezain harrigarria egin dutela euskal erlijio lorratzak biltzerakoan, baina agnostiko bati itxaron behar izan diogu euskal erlijioaren barruan teologia berezi bat dagoela errekonozitzera ausarta izateko. Ez zuen Mirandek arlo horretan gauza gehiagorik egin, eta gainera euskal mitologia irlandar edota mitologia zeltarekin nahastu egin zuen, baina bide berria markatu zigun, Bitoriano Gandiagak eta Juan Mari Lekuonak jarraitu eta errotulatu egingo digutena.

---

[29] PEILLEN, Tx. "Jon Mirande eta Aiphasorhoren bizia", op. cit. 24. or.

[30] MIRANDE, J. "Euskaldungoaren etsaiak", *Obra osoa (I),* Hiria, 1999, 422 eta 423. or.: "¿Nondik ethorri zaiku dekadentzia? Gure ahalmen politikoaren bildurr zegozen hauzoek, hots, Frantziako Rege Guztiz Khristauak eta Espainiako Rege Katholikoak ohartuki eragin zeraukutela ezagun da. Deithura huietan, hain zuzen ere euskaldungoaren etsia handienak nabari zaizkigu: Europako Sarthaldeko bi statu latin-berriok eta Romano Eliza... Ai beren antzinako paganizmuaren begiratzera herabe izan ziran Euskaldunok, behintzat protestant bihurtu izan ba lira Euskalherria salvatuko zan ezbairik gabe, herri bat denetik. Albreteko Ioanna eta Leizarraga hotsemaile genituela, berphizkunde bati buruz ginhoazen bai herriketan, bai inteligentzan: gure gogo-hertsitura dela kausa, hala ez da izan... Gurt gakizkien, hala ere, Reforman alderdi hartu zuten Zuberotarr eta Nafarrtar Aitorseme zintzo haiei: hobe baita gudukatu eta galtzea batere ez gudukatzea baino". Ildo beretik doa BAROJA, J. in *Jaun de Alzate* eleberrian; ikus PEILLEN, TX. "Jon Miranderen gaurkotasuna", in *Obra Osoa* 1, op. cit. 11-12. or..

[31] *Haur besoetakoa* V. atalean.

[32] MOLINER, M. "Teología: Tratado sistemático de la existencia y atributos de Dios".

Txillardegi, existentzialismo erlijiosoa

Behin batean, Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegiri esan nion beraren idazkietan ez nuela argi ikusten bere burua agnostikotzat ala ateotzat jotzen ote zuenetz, eta berak erantzun: "Agnostikoa naiz… horren agnostikoa ezen neure burua ia ateotzat jo dezakedan".

Nolanahi ere, Txillardegi, literatur narrazioetan, modernitateko pentsalari klasikoen antzera, beste edozein ikuspunturen gainetik, idazle erlijiosoa da (literatur idazki guztietan ez bada, gehienetan bai): gizakien oinarrizko galderak transzendentziarantz zabaltzeko kezka edota ahalbidez arduratzen baita: "Argi ikusi dut, eta biotz-utsunearen sustraiari igarri diot: Jainkoaren egarria da gizonaren zorion-miña" (117-119).

Txillardegik erlijio gaiari emandako erantzunekin ados gaudeke edo ez, baina bera izan da Jainkoari buruzko duda-mudak euskal literaturara lehenengoz ekarri dituena, XX. mendearen erdian modan zegoen existentzialismoari oratuta: "Ez dago betetasunik gizona guztiz bete dezakeanik: ezin bestez etorri behar du gerora etsipenak… Baina Jainkoa?" (*Leturia*, 118-119).

Txillardegik eta existentzialistek oro har, Jainkoarengananzko xendran

a) arrazoiaren edo adimen hutsaren (filosofia zein metafisika klasikoaren, eskolastikaren) mugak erakutsi dizkigute: "Iñora ez darama adimenduak, bere eziña adiraztera baizik" (L, 136), eta hortik
b) beste giza errekurtsoez baliatuz Jainkoaren usnan jarri gaituzte: "zeren egiak ez duen gizonagan agintzen, baloreak (gaur balioek esango genuke) baizik. Eta balore auek ez dira adimenduz aukeratzen, joera, azikuntza, gizaroa, biotza ta beste hamaika eragiñen bidez baizik" (L 125).

Ez naiz horretaz luzatuko; hala ere, azpimarratu nahi dut existentzialismoari esker (gurean, Txillardegiri esker) gaur egun, hobeto zentratuta daukagula Jainkoaren bila abiatzeko xendra, baita bilatze horretan giza errekurtsoen baliagarritasuna ere. "Obe da maitatzea ezagutzea baño. Obea ta egokiagoa. Eta egia? Osorik ez daukat nik iristerik. Eta gutxi al da, izan ere, argizagi baten bidez Jainkoa badagoena jakitea?" (139).

Gabriel Aresti: Friedrich Nietzsche baino Nazareteko Jesus hobetsi zuen sinesgabeko kristaua

Gabriel Aresti izan da seguruenik euskal idazleetan:

a) Bibliaren eskema eta erreferentziez *gehien baliatu dena* (Gandiaga edota Lekuona baino gehiago[33]). Adibide gisa, olerkitxo bi: bata: "Eta zeruko Jau-

[33] ALDEKOA, I. *Zirkuluaren hutsmina*, Alberdania, 1993, 86-87. or.: (Arestiz ari dekarik) "Profetak gora eta Jesukristo behera, ez dago ez beste poetarik, ez idazlerik, Orixe bera ere ez, halako marmar biblikoan ihardungo zuenik".

nak / Josafateko zelaian / guztiok / juzgatuko gaitu"; eta bestea: "Kanako eztaietan / banengo / bezala, / esanen diot / nire amari / nire ordua eztela oraindik / allegatu";

b) baita *nazional katolizismoaz* kutsatutako elizaren kontra sarri, argi eta ankerki (sarri, argi eta ankerkien, nonbait) aritu den euskal idazlea: "Egun batean apaizeri eskatuko dizkiet kontuak, zergatik kendu zidaten hain humetan fedea, zergatik nire barnean eztago batere ilusiorik, batere esperantzarik, batere eztakit zerik. Desperado bat izan nahi nuke. Baina gizon urrikari bat naiz. Enplegatu triste bat"[34]; baita

c) Nazareteko Jesusekiko antzekotasuna sutsu eta esplizituki (sutsu eta esplizitukien ote) errebindikatu duena ere: "Bart / … / Amets bat ukan nuen, / Joanito Kojoarenean / legatz koxkera bat / jaten nuela / bi lagunekin / adizkidantza onean, / estimazio haundian. / Bi lagun hoek / ziren / Kristo / eta / Lenin"[35].

Biblia, eta batez ere, Ebanjeliorik gabe, ezin daiteke interpretatu: a) ez Arestiren olerki libururik sakonena: *Maldan behera*, non protagonistak (Magdala) Maria eta Zaratustraren, Joan Bataiatzailearen edota Nazareteko Jesusen nahasdura zein anabasa den Joane baitugu. Bikote protagonista gurutzean hilarazi dute eta



Gabriel Aresti

[34] ARESTI, G. Joxe Azurmendiri gutunak, 61.02.27 eta 61.05.27; *Euskal Harria*, o. c. 19. or.: "Arestiren bihocak / Egun jona dirade / Jaudone Bikandi da / Bildurrikan gabe".

[35] Harrizko Herri Hau, 101. or.

beraiek berpiztu eta zerura altxatzen dira; ezta b) Arestiren libururik miretsi eta irakurrienak diren *Harri eta herri, Euskal Harria, Harrizko herri hau* ere, non aurkezpen funtzioa betetzen den lehengo olerkia honelaxe bukatzen den" / Hemen. / (eta sinadura bezala) Jesus."/

Aresti Nazareteko Jesus miretsi eta Jesukristoren egarri zen: "Bart zazpiretan (arratsaldeko zazpiretan, alegia) sartu nintzen ohean, eta utzi gabe irakurri nuen Niko Kazantzikisen *Kristo Berriz Gurutzean Josia*. Kristau guztiek dadukate obligazioa liburu hori irakurteko. Hea Kristo maitatzen ikasten duten: Nik maitatzen dudan bezala. Kristo, pobreen eta jende xehearen aiskide hori"[36], baina ez omen zuen aurkitu egarria kenduko zion kristaurik, bat baino gehiago: Joxe Azurmendi, kasu, sutsuki saiatu bazen ere; eta heriotzaren orduan bere gorpua elizara eraman gabe lurperatu zezaten nahi izan zuen.

Halaz ere, Arestik bere burua *kristo-zaletzat* jo zuen: behin *Euskal Harria* liburuan: "Kristo-zalea naiz", beste behin, Joxe Azurmendiri gutun batean "Ni kristozalea izatearekin konformatzen naiz"[37], eta, erraza ez bazitzaion ere: "Nola sartuko naiz –esaten zuen– gizerale baten arimagatik eskatzen den eliza batean?", kristautasunean bataiatu eta hezi nahi izan zituen bere alabak: "Nire haurrari Kristo maitatzen eta ezagutzen irakatsiko diot".

Hala eta guztiz ere, Arestik *sinesgabetzat* jo zuen bere burua: "Zeren oraino hasten baitira Euskal-Akademiako biltzarrak otoitz batekin, inola ere kontutan eduki gabe batzar guzti-guztietan agertzen direla eta garela, otoitz horri erantzun presturik ezin eman diezakeogun sineste-gabeok"[38].

Aresti, beraz, *kristau soziologikoa* izan omen zen, kristau *sutsua* ere bai: "Jesukristok gabetan ezta / Ebanjeliotikan. / Hura gabe elizek eztute / baliorikan. Maitatzen dut Jesukristo / bihotzetikan. / Okerra eta zuzena dira / hi hots etikan" (HH, 384).

Arestirekin bukatu aurretik, badago azpimarratu nahi dudan alde interesgarri bat. Lehengo idazkietan: *Maldan behera*n, alegia, Aresti, batik bat, Nietzscheren orbitan mugitzen zen: gizaki indartsu eta konprometituen bila: elitekoak, hain zuzen, eta eredua: supergizakia izan zitzaion: "Zimua bazara orduan ni gizona / baina hau bazara, ni naiz jaungoiko ona". Hori dela eta, gizakiei indarra eta perfekzioa aldarrikatzen dizkie, profeta bortitz eta bakarti bezala: Nietzsche, Marx edota Joan Bataiatzailea bezala.

---

[36] Azurmendiri gutuna (61.06.13). Kortazar 110: creía en un Cristo liberador, no estaba de acuerdo con la función de la Iglesia.

[37] ARESTI, G. *Euskal Harria*, Bilboko Udala, Bizkaiko Diputazioa, Susa, 1986, 53. or. Azurmendiri gutuna: 61.02.27.

[38] "Recuerdo en una ocasión en la que me dijo que él odiaba a Dios, entonces yo le contesté que si para él Dios no existía, ¿cómo podía ser que le odiase?". ARESTI, G. "Euskal-kideak, Baiona,'72", in *Gabriel Arestiren literatur lanak* 10, 113. or.

Azken idazkietan, haatik, *Harri eta herri*ren zikloko liburuetan, alegia, Aresti pobre, langile eta oro har *errukitsu* agertzen zaigu. Bikaintasuna aldarrikatu beharrean, gizakienganako *errukia* proposatu zuen: "Karidaderik ez daukatela / biotza du burdinazko"... eta, aldaketak bultzatzeko formula bateko gidaria bazen ere, langile eta pobreekin moldatu zuen *abiadura*. Orduantxe, sinesgabea izanik ere, eredua norengan eta Narazeteko Jesusengan aurkitu zuen: "Eta juzgatzen banaute / eztit inporta. / Begira / ni naiz / gizona, / gizonaren semea, / gurutze batean behin il / zena, / Golgota haretan / akabatu / zena, / ni naiz / Kristo / urdiña, / eta / ez besterik. / Jainkoa bedi / nitzaz / urrikal / mundu honetan / eta hoietzaz / bestean"[39]. Pastoraltzarako aurkikuntza iradokitzailea, modan jartzen ari zaizkigun zorigaitzen profetentzat, batik bat.

Juan Mari Lekuona, Jainkoarekin eta gizakiekin, muga beroetan

Juan Mari Lekuona idazle erlijiosotzat jotzea horren nabarmena zaigu ezen arrisku bat dakarkigukeen: azalean geratzearena. Juan Mari abade izan zen eta apostolutza baliabidetzat (baliabide nagusietarikotzat?) *literatura* hartu zuen, azpimarratzekoa zaiguna, gaztaroko poemak idatzi eta gero, Juan Marik adierazi baitzigun ez zuela poema erlijiosorik idazteko tonua aurkitzen.

Juan Mariri olerkiak *itinerarium mentis ad Deum* izan zitzaizkion:

–Lehen-lehenik, bide pertsonala: "Amari begira (amaren begira) nork ez biotz aundi? Iñor ba-data, ama Jaunaren iduri!... Amaren ametsa urruti-minean… / Ez daukat urruti. Emen: muiñ-muinean!"[40]; eta

–Bigarrenik, gizaki guztientzako bide edota xendra ere: "Jainkoa il dute aurrerapenak, / biotz-sentipenak, / mindura zuzenak… / Bedeinkatzen ditut denak! / Il bitez betiko / ilkor ziran eranspenak. / Ez dan gauzarik ez dezala adieraz / Jainkoaren izenak!". "El humanismo –azaltzen zigun–, en mi caso es una opción fundamental"[41].

Juan Mari Lekuona edo "El Vasco Comunicante" Espainiako Akademia Buruak dei egiten zion bezala, abade, hots, 'pontifex' izan zen eta bitartekotza horretan gehien maitatu zituen hiru bokazioak biltzen zitzaizkion: abade, poeta eta euskaltzale izatea: "Poetak tradizioaren bitartekaria izan behar du"[42].

Jainkoaren eta gizakien arteko zubigintzan, Juan Mariren olerki liburuek zentzurik sakonena hartzen dute. *Mimodramak eta ikonoak* liburuari buruz, Lekuonak

[39] ARESTI, G. *Harri eta Herri*, 392. or.
[40] LEKUONA, J. M. *Muga beroak.*
[41] LEKUONA, J. M. "Acotaciones".
[42] *Ibidem.*

San Buenaventuraren antzeko *Itinerarium mentis ad Deum* idatzi nahi izan zuela aitortu zigun, eta hori berori luza dakieke Lekuonak idatzitako olerki liburu guztiei, zeini buruz ezaugarri batzuk azpimarratuko ditudan jarraian:

–Lehenik, *batasuna*: Lekuonaren poema liburu guztiek bide bakarra osatzen dute eta *erlijiotasunak* elkarren arteko kareora ematen ditu liburuok. Jon Kortazarrek esaten duen bezala, sakonean, Juan Mari Lekuonak olerki liburu bakarra idatzi du.

–Bigarrenik, San Joan Gurutzekoaren kasuan bezala, Jainkoarenganantz bidea *progresiboa* da, batetik, Juan Marik bizitzean zehar aldatzen doakigun *esperientzia pertsonaletik* abiatuta idatzi zituelako poema guztiak: Izadi-abestia, Ama, Begi beltxaran, Goiz-Argi…, eta bestetik, poemak bizitzean zehar egokitu zitzaizkion lagunekiko *elkarrizketa* balira bezala planteatzen zituelako: Gameluen parabola, Jainkoa il da… edota *zerbitzu* antzera ere bai: "Nire langintza agirikoa da: / trolebusean meza emanaz, / eguneroko fabrika lanaz, / pobre artean pobre izanaz".

Juan Mari Lekuona

Dinamika horretatik, Juan Mari Lekuonaren bertsoak irakurketa gida probetxugarria izan dakizkiguke:

a) Olerkariaren sinesmena nola bilakatzen zen antzemateko,
b) XX. mendearen bigarren erdian, mendebaldeko erlijio mundua nola aldatu zen ohartzeko, baita
c) Juan Mari Lekuonak, kristau eta abade bezala, urte horietako erronkei nola erantzuten zien ikasteko ere.

- Juan Mariren hasierako poemek, seminarioko *espiritualtasun pertsonala* azaltzen digute: meditazio luzeak, kontenplazioa, izadia: "Jainkoagan murgil, eder zorabio; / nire barneari atseden dagio"… edo Erromako teologia fakultatean ikasitako gaiak: Plotino, San Anselmo…, edota inguruko edertasunari irekia dagoen gazte artista batenak: triptikoak, pintura, modako zinea eta abestiak.
- Baserri eta lantegiz osatutako Añorgan, Juan Marik *gizarte olerkiak* idatzi zituen: Meretriz Illa, Porland, Jainkoa hil da…
- Erromako bigarren itzulian: Juan Mari otoitz egiteko era berrituaz: yoga, zen… aritu zen: "Nere denboraren erlojua; o-dol, o-dol, o-dol…… Nigan naizenaren oihu guzia"… baita puntako pentsalarien mezuak sakondu eta hurbiltzen saiatu ere: Teilhard de Chardinenak, kasu: ludia, lurra, sua, ura, eguratsa … nigan...
- Unibertsitatean aritu zenean, Lekuonak intelektualekiko elkarrizketari eutsi zion, beroriek markatzen zuten joku-arauen barnean: "Lo bello disperso que he procurado recoger en mis poemas no posee en primera instancia ningún valor probativo, ni nostálgico, ni reivindicativo. No intento la verdad o el bien, sino que me limito a señalar lo bello acumulado en nosotros, sin concesiones a la creencia o a la increencia. Y ahí, aunque con dificultades, me siento a gusto"[43].

[Ildo horretan, esaterako, *Ilargiaren eskolan* Juan Marik ez zuen sinesmena gaitzat aukeratu, erlijiorako aurre-baldintza zaigun gizakien arteko *komunikazioa* baizik: "Gorputzak han balio gorena duen zibilizazio honetan, hitzez esplizitatzen da giza soinaren konnotazio-ugaritasuna: baldintza da, historia, komunikazioa, maitasuna… poetan gorputzaren komunikazio ilunak argitu nahi ditu, gugan daramagun gauari printza saltatiak ohostuz".]

Zergatik ez zuen erlijio-olerki espliziturik idazten galdetzen zionari honelaxe erantzuten zion Juan Marik: "Nire poesia *impasse* batean dago. Batez ere ez dudalako ikusten gaurko kanon estetikoa hautsi gabe nola agertu barrunbeko ahots hori. Eta oso zaila da. Zaila kanon estetikoa eta intimitatea lotzea"[44].

- Juan Marik, haatik, ez zion erlijio-gaiari muxin egin. Idatzi bai, idatzi egin zituen erlijio-olerkiak (eta ez naiz une honetan Juan Marik liturgia ospakizunetarako idatzi zituen olerki gogoangarriez ari), baina *unibertsitario more. Mimodramak*

---

[43] LEKUONA, J. M. "Acotaciones". JUARISTI, J. "Lekuona", *ABC,* 05.12.11: "Como poeta, como filólogo y como sacerdote, (JML) había conseguido incorporarse, muy firmemente, a la mejor tradición de la moderndiad, que consiste, por encima de todo, en un respeto sagrado a la libertad ajena".

[44] *Egunkaria*, 96.04.28, 31. or.

eta ikonoak liburuan *erlijio sentimenduaren historia bat* idatzi nahi izan zigun, non Torres Queirugak planteatzen digun bezala: "No interesa... un análisis detallado de las 'distintas figuras' que van apareciendo… Interesa más bien el dinamismo que las anima. Porque no cabe reducir todos esos intentos a una unidad coherente en un conjunto sincrónico. Se entienden mejor como hitos o exploraciones laterales del esfuerzo por llevar a cabo, en el sentido hursseliano, una 'reducción' de la conciencia religiosa, rehaciendo su génesis intencional e intentando de algún modo recorrer de nuevo la experiencia humana de lo divino"[45].

Azken orduan, haatik, J. M. Lekuona erlijio- zein sinesmen-literaturara bueltatu zen, bera hil ondoren argitaratua izan den *Ibaiak basamortuan* liburuan. Bukatu gabeko liburu horretan, argi dakusagu olerkariak gizaki zauritua lepoan daramala: "Basamortuan: *Gorputzeko ezin bizia*: hondarea, egarria, gosea, bakardadea, noraezean, desanparoa, sugea. *Elkarteko borroka… Modernitatea*". Baina, zauriturik egon arren, olerkariak, 'plus' bat esperimentatzen du giza animaliarengan: transzendentziarako joera edo arima: "Bihotza esna: kontenplazioa, Haitz-biziko ura, arbola sutan (eukaristia)…" eta goranzko (sakoneranzko?) bidean, Juan Marik gizakiaren *funtsezko bulkoa* aurkitzen du: "Argia, graziaren jauralkia, otoitza, holokaustoa... Numen txundigarria, Hitzaren txundigarria, Hitzaren biblia, Eliza, Liturgia, Santiagoko bidea, Karitatea, Jesus Nazaretarra"… eta hurbiltze horretan harrigarria gertatu zitzaion. Bibliako Jainkoaz aritzeko orduan, Juan Marik ahotsa galdu zuen (baita bizitza ere)… baina gutxienez (gehienez ote) Jainkoa (eta gizakia) zer izan zitzaion zer zitzaizkion adierazteko 'bar-bar totel' bat utzi digu olerki (kantu) ahaleginean: "Kanturik kantagarriena. Desertuan eztaietara darama Jainkoak. Lot nakion pertsona orori barne-muinetan. Maitasun dohain librea. Amodioaren lan eta erosotasunak. Harantzago beti. Zatoz. Goazen ihesi. Besarkada".

Bitoriano Gandiaga: Kristau sinesmenaren euskal inkulturizazioa

Bitoriano Gandiaga idazle erlijiosoa izan zela esateak ez digu ezer berririk azaltzen. Beste gauza bat da esatea Bitoriano Gandiaga erlijioso *berezia* izan zela. Zertan zaigu *berezia* Bitoriano? (zertan ez, hobe).

Bitoriano Gandiagaren sinesmen-esperientzia *bitxia* izan zen (Joxe Azurmendiren azken liburua lekuko). Hiru aldetatik:

a) Bitoriano "oihartzun handikoa eta sensibilidade apartekoa (izan zen). Guk ikusten ez genituen alderdiak eta xehetasunak ikus arazten zizkigun sarritan"[46].

---

[45] TORRES QUEIRUGA, A. *El problema de Dios en la modernidad*, EVD, Estella (Navarra), 1998, 144-145. or.
[46] ZURRIARRAIN, J. T. "Bitoriano Gandiagaren hilletan", *Aranzazu*, 2001ko apirila, 20. or.

Gauza guztiei erreparatzen eta denetan nabarmentzen zuen Jainkoaren lorratza: "Jaunaren gauzen aurrean, / lur gorrian belauniko, / su artutako anpo zaar bat lez / –barri ta leialtsu–, nago. / Arri, bedar, zugaitz, sasi..., / denak garbi, denak eder. / T'elorri zaarrak, apal eta argi, / loretan, esi ta bazter /".

b) Gandiagak dena *barneratzen* eta *gordetzen* omen zuen: ez zuen ezer erraz galtzen: baserriko sinesmen ohiturak, kantak, ipuinak, esaerak... eta

c) gauza horiekin guztiokin Bitoriano *zintzoa* eta *ausarta* izan zen: "Sinesten dut lurra" eta Euskal Herriko petoa izanik, euskaldunek aspaldidanik sorturiko sinesmen esperientziak transmititzen eta esperimentatzen jakin zuen, gutxik bezala (inork ez bezala, nonbait).

Denboraren premiarengatik, soilik alde bi ekarriko ditut gogora:

–Lehena: *Arantzazuko frontisa.* Asmatu Oteizak asmatu zuen, baina *erlijioso* Gandiagak bihurtu zuen: "Debo esta revelación definitiva –aitortzen zuen Oteizak[47]– al gran poeta franciscano P. Gandiaga, él me ha asistido en mis desalientos con sus breves pero diarias visitas al taller, él conoce este muro, ha vivido esta soledad y ha escrito estas palabras (viviendo estas figuras las ha explicado)"[48], behin betiko bihurtu ere, harriek dirauten artean, behinik behin.

Izan ere, *Hamaseiharrieta* poema multzoa, Arantzazun dagoen Oteizaren frontisarekin batera, Euskal Herriaren egoera kultural eta politikoari buruzko interpretaziorik erlijiosoena (otoitza) dugu, baita, nire ustez bederen, ederrena ere: "Zeu (euskal herriko hori) lasaitzeko idatzi du historia hau, / gertatzen dena gertatzen dela, zutik irauten jakin dezazun / itxaropenetik sortzen delako bizitza; / ahantz ez dakizun / heriotza baino gehiago garela / sinesten dugunean; / bizitzaren aitorpen dakizun. / Baina jadanik aski duzu berpiztuaren sinismen lekukotasun hau / eta igaro zaitez jadanik horma honen atez / edo horma hau den atez, / eta ikus berpiztea egia dela, / ikus barruan nola gaztetu den Ama, / hila nola den berriro Haur bat, / eta nola berriro dena hasten den, berrien berriz berriro, / udaberri bat bezala".

–Bigarrena, *Euskal teologia.* Euskal teologia egin gabe dugu, geure bultzadaren zain. Euskal Herrikoen beste amets zoro bat? Eta hala ere normaltzat jotzen dugu: hebrear teologia, greziar teologia, erromatar teologia, islamiar teologia, teologia zelta, indiar teologia… Normaltzat ez ezik, aberasgarritzat ere bai[49]. Izan ere, teologia Jainkoari (jainkoei) buruzko zientzia edota jainko(ar)en izate eta izaerei buruzko tratatu sistematiko izanik[50], han non dauden jainko(ar)en gaineko espe-

---

[47] Arestian komentatu duguna: 'Muro funerario del pueblo vasco para un imaginable cementerio de pueblos'.

[48] ANASAGASTI, P. de, "Nuestras entrevistas. Jorge de Oteiza", o. a. 44. or.

[49] TORRES QUEIRUGA, A. *El diálogo de las religiones*, Cuadernos FyS, n. 18, Sal Terrae, Santander, 1992, 31. or.: "Un diálogo real en el que todos aprenden".

[50] MOLINER, M. "Teología: Tratado sistemático de la existencia y atributos de Dios".

rientziak, ohiturak, erritoak, konjuruak, otoitzak, ospakizunak, mitoak… (Euskal Herrian, kasu) hantxe dugu Jainkoari buruz sistema tratatu sistematiko bat, hots: teologia bat eraikitzeko gaia[li].

Eta hortixe galdera bi: lehena, bada euskal kulturan zein zibilizazioan erlijio tratatu sistematiko bat eraikitzeko *materia nahiko*rik? eta bigarrena: materia hori *berezia* da, hots: inguruan kulturekiko ezberdina, halako moldez non euskal herrikook eraiki dezakegun euskal jainkoei buruzko tratatu sistematiko bati euskal teologia dei egin diezaiokegun uneraino? Galdera bioi: baitez! eta frogei nagokie.

Ildo horretan, Bitoriano Gandiagak jauzi harrigarria egin zuen. Euskal mitologia, sistematizazio koherentea formulatu aurretik, *otoitz* bihurtu zuen: *Artasoko Salmuak*. Kasualitate hutsa? jenio baten intuizioa? teologia on bat egiteko, zein da lehena: sistematizazioa ala otoitza?

Bitoriano Gandiaga

Ez naiz luzatuko: Gai horretaz *Herri maitea herri dorpea* liburuan aritu naiz luze bezain gogoz. Dena den ezin dut atal hau bukatu, Gandiagak azpimarragarriak zeritzen euskal mitologia ? euskal teologiaren ezaugarriren batzuk aipatzeke:

Lehena. Jainkoaren *amatasuna*. Hebrear, kristau (Nazareteko Jesus tarte) eta islamiarren Jainkoari buruzko irudien artean aita (arra) izan da irudi nagusia, oraintsu arte ia bakarra ez esatearren. Euskaldunen artean, ostera, jainko nagusia

[51] ARANA, A. *Euskal mitologiaz. Jentilak eta Kristauak*, Elkar, Donostia, 2008, 10. or.. "Greimas-en definizioan (GREIMAS, J. A. *Des dieux et des hommes. Études de mythologie lituanienne*, Paris, 1985, 17. or.), mitologiak hartzen duen forma da erlijioa, giltzadura hierarkikoak eta sistematikoak dauzkanean, beraiei doazkien erakunde sozialez lagundurik".

Andre dugu[52]: "Jentilen ama bizi, / tuntur eta magun, / sortalderantz etzin zen / eder eta bigun".

Ez gara, oraingo honetan, ezberdintasun horretatik ondorio guztiak ateratzen arituko. Eztabaidak eztabaida, nahiko zaigu azpimarratzea, Sigmund Freuden arabera, aita-irudiak, subkontzientean, ildo bitan markatzen gaituela: aita *legegile* izaten dugu eta seme-alaben *kontrako*, Ama, ostera, *babesle* eta *emaile*[53].

Bigarrena. Antzinako euskaldunen erlijio esperientzia *politeista* izan omen zen[54], baina jenio edo jainko/jainkosen artean badirudi Marik horrelako *lehentasun* (monoteismo?) bat bereganatu zuela[55]. Lehentasuna bai, baina hierarkiarik ez. *Primus inter pares* erlazio bat, ez baitugu inoiz ere ikusten Mari beste jenio bati aginduak ematen, ezta euskal jenioen arteko borrokarik ere, greziar, erromatar edo zelten mitologietan ez bezala. Baliteke horixe izatea euskaldunen artean ez heresiarik, ez erlijio borrokarik gertatu ez izanaren arrazoia... Sorginen (heterodoxiaren) kontrako erasoak kanpotarrek ekarri zizkiguten, euskaldunei sorginekin bizitzeak ez omen zien arazorik bat ere sorrarazten eta[56]. O tempora, gaur ur zikina edota deabruak ikustaraztea nahi digute fraidez jantzita.

Hirugarrena. Jainko(ar)en eta (g)izakien arteko *distantzia* edota *ezbestelakotasuna.* Indoeuroparren sinesmenaren arabera, Jainkoa eta arimen egoitza zerua da, ez soilik 'status' bat zaiena, 'locus' bat ere bai, mundu honetako bizidunen 'status' zein locus'ekin guztiz *bestelakoa* eta *goi-goi* eta *urruti-urruti* zaiguna: "Querubin-gaiñean eseriz, leizeak ikusten ditu(ela)" dio Deuteronomioak hebrearren Jainkoaz (Dn 3, 52-57) eta Jupiter Greziako, hots: munduko mendirik altuenean bizi da, hodeiez edota intsentsuz estalita.

---

[52] BARANDIARAN, J. M. *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca,* o. c. 157. or.: "Es un genio de sexo femenino que ha logrado acaparar muchas funciones que han sido atribuidas a diversos númenes en Vasconia y en otros países".

[53] McFAGUE, S. *Modelos de Dios,* Sal Terrae, 1994, 192. or.: "La metáfora de Dios como madre no está construida sobre los estereotipos de la ternura materna, la dulzura, la compasión y el sentimentalismo, sino sobre la experiencia femenina de la gestación, el nacimiento y la lactancia". Baliteke jainkoaren euskal irudi horrek euskal matriarkatuarekin lotua izatea. ORTIZ-OSES, A. *Ibidem,* 32. or.: "(El matriarcalismo vasco) se funda en primera instancia en la mitología eúskara en torno al arquetipo matriarcal de Mari, el cual nos retrotrae, a través de tradiciones antiguas (Cf. *Livro dos Linhagens*, s. XIV) a niveles no solamente psíquicamente muy arcaicos, sino también antropológicamente preindoeuropeos: según Caro podría ubicarse bien en la Edad de Bronce, mientras que Barandiarán llega a apuntar ciertas correlaciones entre la Diosa y las figuras animales rupestres… Con el Thalamas posterior, creo que el arquetipo encuentra su lógico "Sitz im Lebem" en el Neolítico vasco, y, más en concreto, en el centro de una cultura agrícola-matriarcal vasca de connotaciones mediterráneas primitivas a que muchos datos etnológicos, antropológicos y mitológicos conducen".

[54] BAROJA, J. C. *Los vascos,* Ediciones ISTMO, Madrid, 1971, 324. or.: "No cabe duda de que el pueblo euskaldun practicaba todavía una religión politeista más que animista, allá por los siglos II y III a. de J. C.".

[55] BARANDIARAN, J, M. *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca,* o. a. 157. or.: "Mari es considerado (sic) como el jefe de los demás jenios".

[56] CARO BAROJA, J. *Los vascos,* o. c. 332. or.: "La bruja, por lo común, ha seguido existiendo en casi todo el país hasta nuestros días"; 326. or.: Los alcaldes (del País Vasco) hicieron la vista gorda con respecto a las denuncias que se les presentaban (contra las brujas); *Las brujas y su mundo,* 206. or.: Apenas había familia que no estuviera complicada en el asunto (de las brujas)."

Euskaldunok, aitzitik, jainkoak *auzokide* ditugu eta koba, erreka-ertz, edota mendi-harkaitzetan bizi dira, euskal irudimenean, mundua izaki guztientzat *leku bakarra* baita, infernurik eta zerurik gabeko lurra edota erlijioa, hain zuzen[57]. Horregatik olerkariak asaben lurra hartu, mun emon, besarkatu, bularrean estutu luzaro eta "geure burua baino / gorago jasoz eskua, / burutik behera utzi dut / sorbaldaz behera jausten, / neure lur guztiz behera, / lurrezko bataioaren / seinaletan".

Laugarrena. *Immanentziatik* (lur, historia zein gauzez barna) ? transzendentziara (lur, historia zein gauzez landa). Teologia ikuspuntutik, immanentziaren eta transzendentziaren poloak konektaturik daude; antropologia ikuspuntutik, haatik, gizakiok polo biotariko batera makurtuago egoten gara bestera baino eta Euskal Herrikooi, oro har, Jainko(ar)ekiko eragin handiagoa etortzen omen zaigu (zitzaigun) *immanentzia*-muturretik transzendentzia-muturretik baino; edota, behinik behin, eta baieztapen hau ere jeneralean hartuta, immanentziarako joera eraginkorragoa zaigu euskal herrikooi inguruko judu-greziar kulturadunei baino[58]. Hori ere lasaiago ikasteko (eta ondorioak ateratzeko) dugu, azken urteotan, batik bat, noiz eta metafisika bigarren mailara igarotzen ari zaigu antropologia edota historiari lekua emanez.

Bosgarrena. Transzendentziaren zaleen artean (Platon lekuko) munduarekiko *mesprezu* halako bat zabaldu eta indartu da mendeetan zehar: *contemptus mundi*. Immanentziaren zaleen artean, alderantziz, munduarekiko atxikimendu positibo bat sortu eta bizkortzen da: "Hilgo naz, / eta edertasunak / jarraituko dau lurrean. / Aleluia", munduarekiko lilura halako bat. "He amado los alrededores del santuario plantando muchísimos árboles, limpiando senderos, tratando de tenerlo agradable", aitortzen du B. Gandiagak. Erlijio edota sinesmena lurreko edertasunarekin lortzen duena (ekologiarekin), baita gizakien zoriontasunekin, oraintxe, hots: lurrean hasita: "Gazteak ditut gogoan: /bizitzak / jaso daizala aidean / lur nengoken zoru gainean / dantzari"[59].

---

[57] BARANDIARAN, J. M. *Diccionario ilustrado de mitología vasca*, o. a. 149. or.: (Lurra) "Es también un enorme receptáculo, morada habitual de las almas y de la mayor parte de los númenes y de otros seres míticos". CARO BAROJA, J. *Sobre la religión antigua y el calendario del pueblo vasco,* Txertoa, San Sebastián, 1980, 15. or.: "Corrientemente el nombre del cielo en la mayoría de los dialectos vascos es 'zeru'. Este nombre es tan parecido al acusativo latino 'caelum' que no hay gran cosa que decir sobre él. Por la fonética se ve que, como otros muchos, ha pasado al vocabulario vasco directamente del latín y no por medio de derivados romances, pero de latín vulgar, naturalmente... la palabra 'zeru' no tiene, pues aquí, gran importancia para nosotros". J. Caro Barojak zeruaz esan zuena, euskal infernuaz ere esan dezakegu.

[58] JONHSON, E. A. *La que es*, Herder, Barcelona, 2002, 196. or.. "La cercanía de Dios que mora en nosotros, descrita como inmanencia en términos filosóficos, ha sido ampliamente despreciada por el teísmo clásico".

[59] GANDIAGA, B. "Artasoko salmuak", in *Hiru gizon bakarka* eta "Muy amado Jorge: paz y bien", *Gara*, 01.02.22, 60. or.

Seigarrena. Euskal erlijiotasunaren oinarrian *ez omen zegoen bekaturik*, hots, Jainkoekiko zorrik[60]. Hori dela eta, euskaldun erlijiosoen artean ez da inoiz izan jainkoei eskaintzeko odolezko *sakrifiziorik*. Euskaldunen eta jainkoen arteko erlazioak *elkarrekikotasun*ean omen dautza: "Alegia, opariak elkarri egiten dizkiote jainkozkoek eta gizazkoek, norkbere esku dagoena eskeiniz bestearen onurarako" edota Gandiagaren hitzez esateko: "Pagadian pagoak, / zelaian belarra. / Dolmen gerta zitzaion / bistan duen bularra. Nik ez dut esnatuko, / baina bai maitatu; / baina bai darion lehen / arnasarik hartu".

Zazpigarrena. Jainko(s)en *izena*. Jainkoari nola deitu ez da garrantzi gutxiko afera. Izenak izana markatzen baitu. Euskal Herrikoek jainko(s)ak etxekotzat jotzen zituzten: izen zehatzekin, goitizenekin ere, txikigarriekin usu, beti lagunkoi (hitanoz): Mari, Maju, Atarrabi, Mikelats, Urtzi, Sanmartintxiki… Hebrearrek, ostera, Jainkoaren izena aipatzea saihesgarri eta beldurgarria izaten zuten, baita zigorgarria ere. Horren 'geurea' dugun 'Jaungoikoa' hitza ez omen da euskal erlijio senaren araberakoa, besteren erlijio esperientziatik ekarria baizik... ez ondoriorik gabe, zeren eta orduko hautsak oraingo lohiak: "Ce culte réveréentiel et un peu craintif de la loi divine a pour effet de mantenair très haut le niveau moral dans la tradition domestique des Basques"[61].

JosAnton Artze, Jainkoaren esperientziaren esteta

JosAnton Artzek eta Xabier Letek konbertitu biren lekukotza dakarkigute euskal literaturara. Behin baino gehiagotan, sinesmenak ez digu biziera markatzen, gehiengoaren usteak edo modak baizik. JosAntonek, ostera, argi adierazi digu sinesmenak nola alda ditzakeen giza bizitzaren gaineko geure aurre-iritzia edota planteamendua. Sinestun amaren heriotza zela eta, JosAntonek, 1969an, honako bertsook idatzi zituen: "Ama hil zaigu / lanak itota, / lanaren amoreakatik / hil zaigu, / zertarako den bizitza / jakitera iritsi gabe". Hogeita bost urte geroago, olerkariak honelaxe aldatu zituen bertsoak eurak: "Ez ote zekien / Gure amak / Zertan ari zen? / Ez ote, // 'beti bizi behar balu bezala, / bazuen lan egiten, / eta egun berean hil behar balu bezala / bazen bizitzen'? // Ez ote zekiten / gure gurasoek / zergatik ari ziren? / Ez ote, // beti bizitzeko bazuten egiten otoitz, /

---

[60] Gaia edota arazoa ez da bekatua den ala ez. Bekatua (legearen kontra bekatua, batik bat) zein garrantzi duen bizitzan edo etika proiektuan. METZ, J. B. *El clamor de la tierra*, Verbo Divino, Lizarra (Nabarra), 1996, 13. or.: "El cristianismo se transformó de una moral del sufrimiento en una moral del pecado extraordinariamente individualizada; el cristianismo sensible al sufrimiento se convirtió en un cristianismo harto sensible al pecado. La atención primordial no se dedicaba al sufrimiento de la criatura, sino a su culpa. La predicación cristiana se convirtió en una heurística de los sentimientos de culpa y de la angustia por el pecado, Esto paralizó su sensibilidad hacia el sufrimiento de los justos y oscureció la visión bíblica de la gran justicia de Dios, que atiende a todos los que padecen hambre y sed".

[61] LANDHE, P. *Le Pays Basque à vol d'oiseau*, Gabriel Beauchesne, Paris, MCMXXV, 162-163. or.

eta aldi batez bizitzeko, lan egiten?... Ez ote zekiten, gero, gure gurasoek / zertan, / zergatik / eta zertarako ari ziren?".

Baina ez gaitezen bertso batera muga. JosAntonek errealitate guztietan, minimoetan ere: lore, harri, txorietan… *edertasuna* bilatzen erakusten digu: izadian kasu: "Udako goiz, / goiz goizeko ihintzetan, / zenbat izar! / zer zeru! / lore bakoitzean", eta edertasunaren bidez *transzendentziara*ko ateak erdi irekitzen dizkigu: "Garai batean gauzen koloreak eta itxurak besterik ez nituen ikusten... orain berriz gauzen barru barruko muina ikusten ari naiz. Hau da, kanpotik barrura ordez, barrutik kanpora"[62].

Edertasunaren bila, JosAntonek gizakien *galderak* edo *ahaleginak* sartzen ditu, eta ahaleginon tartean, erlijioak ere. Eredugarria zaigu JosAntonek zein mimoz arakatzen duen misterioaren presentzia Ipar Ameriketako indioen, islamiarren edota txinatarren erlijioetan[63].

Prozesua, haatik, ez da hortxe bukatzen. JosAntonen iritziz, edertasunak a) errealitatearekiko *maitasuna* sorrarazi digu: "Nola zaitzakedan bada / nik zu maita / ez ezagutzen eta? / Eta nola zu ezagut / maite ez bazintudan jada?", eta b) gizaki *hobeak* (osoagoak) izateko gogoa bultzarazi: "Edertasunak oroitarazten digu / zer behar dugun maitatu / eta, beraz, nor izan", are eta c) errealitatearen *dimentsio mistikoaz* ohartarazi arte: "Maite dugun arte / ez dugu ikusten / ikus ez daitekeena... / maite gaituena"[64].

Egia da bide hori mistiko batek baino gehiagok jorratu dutela, JosAntonek, haatik, *euskal* errealitate eta edertasunaz ohartarazi digu: askatasunaren txoriaz, esateko, edota baserriko kortetatik Veneziako San Markos plazaraino eraman zuen txalapartaz, baita Jainkoarenganantz garamatzaten xendrez ere: "Galdera bakar batek dit hustu burua; bete, bihotza; / galdera bakar horrek nauka / orain zure atarian deika, / o maite! / egunsentiaren atea noiz, / zabal zabal, / zabalduko didazun zai".

Edertasuna azpimarratzen digunean, JosAnton ez zaigu edozein edertasunez mintzatzen. *Ixiltasunean* sortzen den edertasunaz baizik: "Xirulak ez du / bakartasunean baino hobeki inon kantatzen, / non isiltasunak bakarrik / duen entzuten. / Eta non isiltasunak dion / izarren ñirñirraz erantzuten" (*Ortzia lorez...,* 181. or.), ixiltasun edo kontenplazioan eta bizitzarekiko *dotorezi finean* ere. Ez dugu erreparatu besterik JosAntonek nola lantzen dituen olerkietako hitzak, nola zaintzen

---

[62] *Maiatz*, 32 (1999-azaroa): "JosAnton Artze gure artean", 4. or.

[63] Ikus in *Ortzia lorez lurra izarrez* "Yin-Yang" 1, 2, 3, "Tuareg olerkariak basamortuan", "Vaixwanara, Taijasa, Prajna, Turiya"…

[64] *Mundua gizonarentzat egina da, baina ez gizona munduarent*, Zubi Zurubi,1998, 25. or. KORTAZAR, J. *Cartas*, Alfaguara, Madrid, 396: "El fondo de un hombre es el uso que haga de su libertad. Por ahí se va a la acción y a la visión, al héroe y al místico".

letra-mota, irudi eta koloreak… edota nola arduratzen musika eta bertso jaialdietako xehetasun guztiez. Irakurleak, esaterako, emozioz irekitzen du anaia Jexux hil berriari JosAntonek eskaini zion eskuz egindako liburuxka. Ingura gaitezen edertasunaz, edertasunean argiago agertzen baitzaigu Jainkoaren eragina: "En un mundo que no se cree ya capaz de afirmar lo bello –dio von Balthasarrek– los argumentos en favor de la verdad han agotado su fuerza de conclusión lógica".

JosAntonekin bukatu aurretik, dimentsio bi azpimarratu nahi ditut. Lehena: egia da olerkari-musiko honek izadia maitatu eta abestu duela zoragarri, baina JosAntonen iritziz, munduko errealitaterik eder eta maiteena *gizakia* da: "Munduko artistarik handiena, munduko poetarik handiena izanda ere, horrekin baldin gure psikia beteko balitz, oraindik geratzen zaigu beste parte bat, beste mundu bat, mundu izpiritual hori. Hori ere bete behar genuke asetzeko… Horregatik esaten dut mundu hau ez dela aski gizonarentzat"; eta bigarrena: espirituaren ildo horretan, gizakiok edertasuna ez ezik, *zoriontasuna* ere badugu eskuragarri: "Ba daukak etxe handia hirian… / ba daukak beste bat itsasertzean, bestea mendian, bestea ilhargian… / badauzkak oporrak bitan ez bada hirutan / badaukak emazte txabelina eta seme olinpikoa / badaukak kotxe potentea ate ondoan… / Ba dauzkak bizitza eta heriotz-asegurua… eta gainetik, zeeer? / gainetik zoriotsu izan nahi duk? Ez al duk, ge-hi-txo, / e, hi, txo?"

Xabier Lete, zer edota nola sinetsi

Xabier Letek, bere belaunaldiko askok bezala, sineste premodernotik alde egin eta agnostikoa bilakatu zen: "Hil bedi sineskeria, / argizariko hegoen gainean / zankolaka bizi erazten gaituen / nahitasun minberagarri hori"[65]… baina bere belaunaldiko askok ez bezala, Xabierrek sinesmenarekin topo egin du berriz (ala sinesmenak Xabierrekin?): "Sinestuna naiz, neure modura. Ez dakit modu hori erabat ortodoxoa den, nik ezetz uste dut. Baina hori beste arazoa da".

Nolako edota nondiko sinestun dugu Xabier Lete?

–Ez *filosofia* zein *arrazoi hutsaren* bidetik: "Nik uste dut fede erlijiosoa, neretzat behintzat eta jende askorentzat, ez dela razionalki ez eta sikologikoki ziurtasun bat: 'Ni ziur nago sinestuna naizela eta Jainkoa dagoela eta ni ziur nago'. Ez, nik ziurtasun hori ez daukat, eta gainera uste dut ziurtasun hori izatea oso zaila dela"[66].

---

[65] *Bigarren poema liburua*, 56.

[66] LETE, X. Euskadi irratia, o. c.: "Razionalki, arrazoiarekin fededuna naiz? Ba, ez dakit, baina otoitzaren beharra baldin badet, ni baino indartsuagoa den norbaiti, gorago dagoen norbaiti apelatu behar baldin badiot, eskatu behar baldin badiot, bere aurrean negar egin behar baldin badut, eta nere barnetik hori ateratzen baldin bada, ba ni, neurri batean, fededuna izango naiz".

–Xabierrek gogokoa duen *filosofia* zein *arrazoiaren* gehi *nahi* edota *gogoa*ren bidetik baizik: "Badago Liburu Sakratuan esaldi bat: 'Portatu zaitez edo konportatu zaitez fededun bezala eta fedea emanen zaizu'. Orduan pixkat nere posizioa hori da". Xabier ez da "ibar-beltz ilunotan" lehena izan, Teresa Lisieuxkoak ere, "ezerezaren gauan" "sinetsi *nahi zuena*" kantatzen zuen soilik[67].

–Sinestuna izateko arrazoiak gehi gogoak *otoitzera* garamatzate: "Sinestuna otoitz egiten duena da eta Jainkoarekin liskarrean dabilena…", "Nik pentsatu izan dut Jainkoarekiko galdera amaierarik ez duen otoitzean gauzatzen dela; otoitza ez delako eskea bakarrik, eskatzen diogun harekiko harreman posiblearen bermea edo bermagaia baizik": "Jauna, berriz deitzen dut nik zure errukira / hura baita gelditzen zaidan hondare bakarra, / zure adeitasun hain preziatua… Bakardade luzearen urte hain txiroek / ekarri dute gaur zorion apala, / zorion sakona, horrela bainezake / iragan zen guztia pozez antzaldatu" ("Otoitzen liburua" in *Biziaren ikurrak* olerki liburuan).

Sinesmenaren koordenatuen aldaketa horretan Xabierrek sinesmenaren estatusa garbitzen lagundu egin digu[68]: "Eta zer, Jainkoa / otoitzekin eraikia / gure biluztasunean baizik ez bazina, esku dardaratiak lotzen zaizkionean ikonari / ate argi batek piztarazten duenean gauez / madonnaren irudi sotila. / Hor naukazu zure errukiari atxikia / azken desolaziotik babestua eta salbatua / izan nadila eskatuz".

Sinesmenaren estatus berri horretan Xabierrek modernitatearekin batzen laguntzen gaitu (sinestun askori hainbeste kostatzen zaiena): "la teología de la revelación aprende a ejercer su racionalidad frente a los pensamientos de la racionalidad y con su ayuda. Supera su puesta al margen por la razón crítica renunciando a su deseo de demostraciones por medio de las causas y de los fines del mundo, para establecer su búsqueda de Dios en el campo de la libertad, de la ética y del sentido de la existencia del hombre en este mundo"[69].

Kasu handirik egiten ez badiogu ere, ez dugu erraz, munduan zehar, topatuko, azken urteetako literaturan, kristau sinesmenari buruz *testigantza kritiko eta hunkigarriagorik* Xabier Leterena baino: "Beti al dago hor Jainkoa, gizakumea bere umezurtz izatetik eta bere biluztasunetik babesteko? Galdera horrek zalantza eta iluntasun asko darama bere baitan, ezagutzari dagozkionak, baina bai eta izate emozionalari dagozkiokeenak ere, hutsetik sentitzen eta nabaritzen garenean baikaude, hain zuzen, Jainkoaren babesaren beharrean"[70].

---

[67] XXIII. Salmoa. C Eskuizkribua, *Idazlan guztiak,* Markina-Xemein, 1996, 200. or.

[68] LETE, X. *Berria:* "Jainkoari buruzko galdera horrek zalantza eta iluntasun asko darama bere baitan, ezagutzari dagozkionak, baina bai eta izate emozionalari dagozkiokeenak ere, hutsik sentitzen eta nabaritzen garenean baikaude, hain zuzen, Jainkoaren babesaren beharrean".

[69] MOINGT, J. *Dios que viene al hombre,* Sígueme, Salamanca, 2007, 171. or.

[70] LETE, X. *Berria,* 05.02.27, 'Jainkoaz galdezka".

Hunkigarria zaigu sinesmenerantz bihurtu izanaz Xabierrek emandako lekukotza: "Nik orain hamar urte hospitalizazio oso konplikatu bat izan nuenean, konplikatuena eta oso gaizki egon nintzan momentu batean, beno, hiltzen egon nintzan eta atera nintzenean, ba inguruan izan nituen adiskide batzuk, ez erlijioaren kontsolamendua ekarri nahi izan zidatenak, baizik beren testimonio pertsonala eman zidatenak, han egon zirenak nirekin, ia konortea etorri zitzaidanean esan zidatenak, ni gaixo nengoen bitartean, otoiz egin zutela. Eta horrek asko konmobitu ninduen, eta *hasi nintzen sentitzen barruan otoitz eginbehar bat bezala*"[71].

Lagun otoizlarien artean, Lourdes Iriondo emaztea zegoen, noski, eta haren esperientzia edo lekukotza izan zen Xabierri azken bultzada eman ziona: "Eta gero, azkenik, kontatu dudan gaixotasunaren esperientzia egon zen, eta erabaki nuen berriro sinestun bezala bizitzen hasiko nintzela. Egun haietako batean Lourdesek hauxe esan baitzidan: 'Nik otoitz asko egin dut azken aste hauetan, eta hemendik aurrera ez daukat mutu gelditzeko asmorik'. Pentsatu nuen esaldi borobila zela, eta sinestuna otoitz eginen duena dela"[72].

Baina sinesmenera hurbiltze prozesua ez da bat batekoa izaten. Lurra landu beharra dago eta Xabierren sinesmenera hurbiltzeko prozesuaz lau urrats azpimarratu nahi ditut:

–Lehena: *edertasunarekiko harridura zein zaletasuna*: Xabierrek izadian[73], artean[74], filosofian[75], otoitzean[76] zorroztu zuen arima edo gogoa, egun baten Jainkoaren presentziaz ohartzeko: "Otoitz egiten duena ez ote da sinesteduna?"…

–Bigarrena, gizakien *duintasuna*, Xabierrek behin eta berriz errepikatzen aitarengandiko ikasitako leloa: "Haiek, antzinako irri eta negarretan / duintasunaren

---

[71] LETE, X. Euskadi Irratian; eta *Abestiak eta poema kantatuak*, 204. or.: "Pixka bat hobeagotzen hasi nintzenean, hilzorian egon ondoren, Lurdesek esan zidan egun haietan otoitz egin bagenuen ez zela bidezkoa gero mutu geratzea. Arrazoi osoa eman nion. Eta horrela hasi ginen berriro elizkizunetara hurbiltzen eta fededun bezela bizitzen". METZ, J. B. *Memoria passionis*, o. cit, 99. or.: "El discurso sobre Dios a partir del mundo linguístico de la oración siempre tiene un trasfondo biográfico".

[72] LETE, X. *Hemen*, o. c. 99. or.

[73] LETE, X. in *Abestitzak eta poema kantatuak*, o. c. 204. or.: "Agnostiko moduan bizi ginelarik, izan genituen esperientzia harrigarri ia mistikoak. Leirera igotzen ginenean, adibidez, bededitarren otoitzak eta kantuak entzutera: Bezperak, Konpletak, Salbea... Batzuetan elizatik txundituta irtetzen ginen gure buruari galdetuz: Zer gertatzen da hemen? Zer misterio, zer presentzia arraro? Esan behar da, gainera, Leireko udako gauak harrigarri ederrak izaten zirela: hango haizearen xistua, isiltasun sakon baina murmuriotsua, Aragoi aldeko mendien kolore urdinskak".

[74] LETE, X. *Hemen*, o. c.. 95. or. "Izugarri gustatzen zait... Gustatu, liturgiarako musikak asko gustatzen zaizkit, monategietakoak, adibidez. Eta polifonia erlijiosoa. Eta Bach. Eta gainera, musika klasikoa, Monteverditik hasi eta Stravinski arte... Baina agian gehien emozionatzen nauena, musika eta kanta herrikoiak dira: euskaldunak, kortsikarrak, siziliarrak, armeniarrak. Barojak idatzi zuen bezala: Zer nolako malenkonia dakarten neure arimara!".

[75] LETE, X. *Plazara*, o. c. "Asko interesatzen zaizkit, gaur egun, pentsalarien elaborazio filosofikoak bizitzari buruz, intenporalak deitzen diren horiek. Behar baldin bada, badut, baita ere, kontenplatibo izateko joera bat, ekintza-gizona izateko baino gehiago, eta, orduan, filosofia dexente irakurtzen ari naiz azken bolada honetan eta horrek ematen dit posibilidade bat bizitzarekiko harremanak, intelektualki, elaboratzeko, lehen ez nuena. Horrekin ez naiz sosegatu egiten, baina bai zentratu".

[76] LETE, X. "Jainkoaz galdezka", *Berria*, 05.02.27: "Nik pentsatu izan dut Jainkoarekiko galdea amaierarik ez duen otoitzean gauzatzen dela; otoitza ez delako eskea bakarrik, eskatzen diogun harekiko harreman posiblearen bermea edo bermagia baizik. Rainer Maria Rilke poetak idatzi zuen Jainkoa beti bazterreko gelan dagoena dela, beti hurbil baina beti izkutuan, eta ez dugula erabat atxikiko; baina guk eskain geniezaiokeen edalontziaren zain legokeela agian".

araudia bizitutakoek, / iraganeko irudi deseginkorretatik digute irakasten / ez dagokiola gizakumeari giltzarria duten jainkoen epaia: / pietate haundienaren arrena digute gauetik zuzentzen" (*Egunsentiaren esku izoztuak*, 124. or.)

–Hirugarrena, gizakienganako *errukia* zein *solidaritate existentziala*: "Nik uste dut –dio Xabierrek– (errukia) oso garrantzitsua dela, baina ez garai batean zuen esanahiarekin, errukia limosnari eta benefizentziari lotutako zerbait baitzen, konportaera belaka eta burgesa. Ez. Errukia zerbait askoz sakonagoa da. Elkarren kide izan, elkarren arduradun izan. Norbaitek sufritzen badu, nik ere sufritu. Bestearen penak ulertzen eta niganatzen saiatu. Elkarren ondoan egon. Eta errukitsu izan (zabal, ulerkor) intelektualki ere".

–*Hildakoenganaino* luzatzen den errukia, elkarte zein solidaritatea. Heriotza oso presenta da Xabierren idazkietan: "Geratzen ari zait halako hondar melankolikoa. Nik badakit bizitza zer den, bizitza hau bukatu egiten dela beti. Nire literaturan –eta poesian zer esanik ez– beti egon da heriotzari buruzko gogoeta hori. Eta kantuetan ere bai"[77]. Xabierren sinesmenaren oinarria Jainkoarekin eta lagunekin berrelkartzeko antsia dago: aita, Lourdes, eta aita eta Lourdesen antzeko gizaki askorekin… Jainkoaren gizakienganako esker onean oinarritzen dena, fidagarriagoa zaiguna filosofia hutsetik ateratako arima espiritualtasuna baino[78].

Eta bukatzeko esandako guztion sintesi polit bat. Xabierrek azaldu digu nola Lourdesek honako hitz hauek esan zizkion hil baino lehentxoago: "Jarrai bizitzen eta egin nik iada ezingo ditudan gauza politak; ni itxoten egongo natzaizu" edota bertsotan: "bizi zaitez, esan zenidan / saia gauza ederrak, maitatu jendea / eta ni…. Ni itxaroen egonen natzaizu" (14)… Nazareteko Jesusek esan zizkigun hitzak eurak: "Ez izan kezkarik: sinetsi Jainkoarengan eta sinetsi niregan ere. Nire Aitarenean toki asko dago; horrela izan ez balitz, esango nizuekeen. Orain zuentzat tokia prestatzera noa. Joan eta tokia prestatu ondoren, berriro etorri eta neurekin eramango zaituztet, ni nagoen lekuan zuek ere egon zaitezen. Zuek badakizue ni noan bidea" (Jn 14, 1-4). Ebangelioaren poesia edota X. Leteren poesiaren ebangelioa.

---

[77] *Ibidem*

[78] TORRES QUEIRUGA, A. *¿Qué queremos decir cuando decimos 'infierno'?*, Sal Terrae, Santander, 1995, 91. or.: "Se trata de lo que podríamos llamar el *agradecimiento de Dios*. Recuérdese simplemente la motivación que aparece en la simbología del Juicio Final: '… porque *tuve* hambre.. porque *estuve* (yo) enfermo'. Palabras que hacen eco estrictamente simétrico a las que acompañan a la llamada central del amor: '… a *mí* me lo hicisteis', '… *a mí* me acoge'… y que delatan por parte de Jesús una implicación personalísima, una identificación total y agradecida con la persona beneficiada".

PARROKI PAPERAK HERRI PRENTSAREN AITZINDARIAK

Jose Mari Kortazar
Teologoa. Arratia

LABURPENA

Parroki paperak herri prentsaren aitzindariak
Atal bi ditu lantxo honek. Lehenengo zatian Durangaldeko parroki paperen azterketa kronologiko bat egiten da, deskriptiboa gehien bat, 1942. urtean hasi eta gaur egunera arte. Bigarren zatia apustu ausarta du Parroki paperak herri prentsaren aitzindariak ote diren argitu guran, eta Elizaren eta komunikabide idatzien arteko hartuemonak azaldu guran. Amaitu bako historia bat da.
Hitz gakoak: Durango, Tavira, Uribarriko Andra Mari, erlijiotasuna, parroki papelak.

RESUMEN

Las hojas parroquiales antecedentes de la prensa local
Esta pequeña monografía tiene dos partes bien diferenciadas. En la primera sección se toman como ejemplo las hojas parroquiales publicadas en la zona de Durango, con un análisis cronológico descriptivo a partir de 1942 hasta nuestros días. La segunda sección hace una apuesta atrevida, preguntándose si dichas hojas parroquiales pueden ser, de alguna manera, las precursoras de la prensa comarcal actual y se ahonda un poco en las relaciones habidas entre la Iglesia y los medios de comunicación escritos. Una historia sin acabar, por cierto.
Palabras clave: Durango, Tavira, Santa María de Uribarri, religiosidad, hojas parroquiales.

RÉSUMÉ

Les bulletins paroissiaux, précurseurs de la presse locale
Cette petite monographie comporte deux volets bien différenciés. Dans la première section, qui prend pour exemple les bulletins paroissiaux publiés dans la zone de Durango, figure une analyse chronologique et descriptive qui court de 1942 à nos jours. La seconde partie propose l'hypothèse audacieuse que ces bulletins paroissiaux sont en quelque sorte les précurseurs de la presse locale actuelle et approfondit un peu l'étude des relations entre l'Église et les médias écrits. Une histoire qui, d'ailleurs, est loin d'être terminée.
Mots-clés: Durango, Tavira, Santa María de Uribarri, religiosité, bulletins paroissiaux.

SUMMARY

The parish newssheet as a forerunners of the local press
This brief essay is divided into two parts. The first section looks at parish newssheets published in and around Durango, with a descriptive chronological analysis from 1942 to the present day. Section two puts forward a highly suggestive proposition, discussing the possibility of parish newssheets being the forerunners of today's local press, while also looking into relations between the Church and the written media, an ongoing story even today.
Key words: Durango, Tavira, Santa María de Uribarri, religiosity, parish newssheets.

Artikulua jaso / Fecha de recepción: 2011.03.25.
Artikulua onartu / Fecha de aceptación: 2011.04.26.

Aspaldi izan dot gogoan susmo hau idatzi eta konpartitzeko asmoa. Holan eztabaida gai izanik, intuizino hau findu, landu, aberastu edota atzera botatzeko erabakia sakontasunez eta arrazoiz egiteko.

Bitarteko urriak izanik, Euskal Herri mailako ikerketa bat abiatu beharrean, azken urteotan (2003-2010) abade moduan ibilitako parrokiaren eta inguruko herrien egoera landu izan dot. Atxakia erakusketa bat izan zan. Orri solteak aurkezteaz gain, halako gida apal bat egitea be bururatu jakun, aldi eta urte ezbardinetako parroki orrien azalen faksimilak egiteko finantziazinorik ez neban lortu eta (Uribarriko Andra Mari Eleiza, *Parroki paperak. 1942.etik sarera*, Durango, 2009).

Parrokiko lagun eta eleiztarren laguntzari esker, erakusketa polita osatu genduan danon artean: estanpak, ekintza-programak, karteltxoak, eta batez be, parroki paperak edota *hojas parroquiales,* Durangoko Uribarriko Andra Mari Eleizan edo inguruan zabaldutakoak.

Urte bitarteari begira emoitza ederra batu genduan. 1942. urtean hasita gaur egunera arte! Ze beste erakundek, Durangaldean, eskeini leike holako aberastasunik?

Handik eta hemendik, Uribarriko Andra Mariko eta Durangoko parrokietako hainbat paper heldu ziran nire eskuetara azken urteotan. Programa zehatzak alde batera itxita, parroki paperak edota *hojas parroquiales* deritzenak hartu nituen kontuan. Hutsune asko egongo da, bai tituluetan, bai urteetan. Halandabe, dagoena batu eta ordenatzeari ekin deutsat hurrengo batek, inoiz, gaia zabalduko dauan itxaropenez.

I. Hamaika ahalegin

Batutakoen azalpen laburra

1942

Dolara Elosu jaunaren inprentan argitara emondako orritxoa dakart lehenengo, esku artean dodan zaharrena bera da-eta. "1942. agorrilak 7" data dauka, Uribarriko Andra Mariren bederatziurrena dala-eta argitara emona. Izena eta orri osoa, lau aldeak, gaztelaniaz dagoz: "El párroco de Santa María de Durango a todos sus buenos amigos". Parroko hori *Monseñor Wenceslao Mayora* dogu, *Párroco de Santa María, Camarero Secreto Supernumerario de Su Santidad*. Letra txikia, irudirik gabe, diru eske dator orritxoa hain zuzen be.

Tavira

Parroki papera baino gehiago da. Hasierako asmoa "periódico durangués de carácter quincenal" dino lehen zenbakiko editorialak, 1959eko urtarrilaren 1ekoa, urte barri egunekoa, hain zuzen be. Aldizkari kutsu gehiago dauko, baina abadeek bultzatua, abade askoren ekarpen eta guzti.

Egan aldizkarian holan agertu zan "Santa Anako Parroko dan Don José Etxeandia abade euskaltzaleak" argitaratua. Aldizkariak herriko gaiaz aparte, ugari dakarz Andra Mariko eta Iurretako aipamenak. Sarritan idazten dauena dogu Olazaran abadea, adibidez.

1970eko azaroan, XVIII zenbakia atarata amaitu zan bere ibilbidea. Lehenengoz parroki paperak parroki askoren barri ekarren bere barruan. Ez da gaur egun Tabira sektorea deitzen dogun parrokia taldea (Iurreta, Garai, Abadiño, Otxandio, Izurtza, Mañaria eta Durangoko hamaika parrokiak), sasoiko Durango barruko hiru parrokien batuketa baino.

Zenbaki bakotxean, zortzi eta hamabi bitarteko orrialde handi, folio neurrikoak dira eta artikulu bana agertzen da euskeraz. Bat aitatzekoan, XII. zenbakian, euskeraz eta gaztelaniaz, Arzadun abadeari eskeinitako orrialde osoa. Andra Marin bateatu eben abade honek atara eban euskeraz Asteteren dotrina, 1731. urtean! Hamalau argitalpen baditu dotrina honek, azken biak Durangoko Florentino Elosuren inprentan atarata.

Aldizkari kutsua daukanez, *Tavira* aldizkariak orri ugari, publizidadea eta salneurria ditu, ohikoa ez dana parroki paperetan.

Tabira

Hamar urteko jauzia egin ondoren, beste *Tabira* bat agertzen jaku, hau "b" eta guzti, euskerea eta gaztelania parean, folio neurriko lau orrialde, irudiz ondo horniduta. Bitartean ez ete zan beste orririk edo paperik agertu? Baliteke, baina ez dogu aurkitu.

"Gráficas Durango" da oraingo inprenta eta bertan agertzen da lehenengoz gaur egun Tabira sektore moduan ezagutzen dogun eleiz taldea. Plumillaz eginda ageri dira honako parrokia honeek: Urkiola, Mañari, Abadiño, Santa Ana, Garai, San Fausto, Andra Mari, Otxandio, Iurreta, Matiena, Izurtza eta Magdalena (hau parrokia ez dana).

1981eko urtarrilaren 12ko data dakar orriak eta batez be sasoiko gotzain ziran Luis Maria Larrea eta Juan Maria Uriarteren bisita pastorala iragartzen dau.

Uribarriko Andra Maria / Santa María de Uribarri

Parrokiko izen bera daukan paper honek A5 neurriko lau orrialde ditu, 1995eko apirileko datarekin. Paper apala, irudiz ondo hornidua. Andra Marin egindako zaharbarritze lanak amaitu ondoren Garizumako gogoeta laburra eta



eleizkizun orduak ageri dira. Era berean, parrokiko,ospitaleko eta Madalenako meza orduak. Euskera urri ageri da bertan.

Tabira

2003. urteko azaroan, abendualdian hasi zan, bigarren zenbakia jarrita, aurreko *Tabira* paperari omenaldia egin gurean, eta 2005eko maiatzean amaitu eban bere bidea, 11 zenbaki atara ondoren.

Diseinu zaindua, profesionala, Tabira sektore osoaren informazinoarekin. A5 neurriko lau orrialde ditu, azken zenbakiak koloretan. 2.000 ale zabaltzen ziran eskualde osoan eta bederatzigarren alea berezia izan zan, 2004ko udan atarata, 34 orrialde zituan, danak koloretan.

Eleizbarrutiko komunikabide zerbitzuek *Kronika* izeneko bat argitaratzeko zirela eta, *Tabira* hau isiltzea erabaki eben bertako abadeek.

Tabira txiki

Parroki paperik orijinalena eta gazteena. Katekesi eta Famili Pastoraltzako ekintzaileek bultzatuta, agerkari barritzailea. Argazkiak, kolorea, jolasak, Tabira eskualde osoko kronika eta barriekaz, agenda, umeak eta gaztetxoak kontuan harturik batez be. Zenbait artikulu umeak eurak egindakoak dira. Zer esanik be ez, oso zainduta dago euskera eta gaztelaniaren arteko proportzinoa.

2007. urtean agertu zan lehenengo zenbakia, 16 orrialde, A5 neurrikoak.

Imajinazinoz beterik, alaia bezain koloretsua. Gaur arte hiru zenbaki ezagutu ditu agerpen honek eta oraindino aurrera egiteko asmoa dauka, urtean ale bat gitxienez kaleratuz. 800 ale banatzen dira katekesian eta zenbait ikastetxetan.

Uribarri

2005eko azaroan agertu zan lehena. Zuri-baltzean, apala, diseinu arruntagaz. Hasieran A5 neurriko lau orrialde, gero A4 neurriko bi, inoiz lau be bai. Zabaltze egun finkaturik ez dauka eta gaur egunera (2011. martia) arte 100 zenbaki atara dira (2011.03.06 egunari jagoko, hain zuzen be, ehungarren zenbakia izatea).

Euskeraz eta gaztelaniaz, Uribarriko Andra Mariko barriak eta fede gaiak jorratzen ditu. 800 eta 1.000 ale bitartean ataratzera heldu zan, mezatara datorren jendearen artean eta katekesiko familien artean zabaltzeko batez be. Gaur egun 400 eta 500 bitartean zabaltzen ei ditu.

Bigarren aldiko *Tabira* agerkariak itxi eban hutsunea betetzeko asmotan jaio arren, ez dau inoiz parrokiatik haragoko mugarik zeharkatu eta parroki mailan geratu da. Noiz arte iraungo ete dau? Batek badaki!

Sarean

Paperean bakarrik ez. Paperaren osagarri, interneten be jarri zan *Tabira* aldizkaria 2003ko abenduaz geroztik. Paperekoa amaitu arren, aurrera jarraitu eban sarean, argazkiz horniduta, 1.000 artikulu baino gehiago dituela gaur egun. Tabira sektoreko barriak izan arren gehien bat, bitarteko honek dituen abantailak aprobetxatuz, gai zabalagoak be jorratu ditu "sareko parroki paper" honek.



Egunotan 60.000 bisita inguru ditu hilero eta sartzeko erea eskaintzen dau kantak entzun, bideoak ikusi, argazki montajeak aurkitzeko, parrokiko azken liburuen barri izateko…

Falta direnak

Parroki paperak, orri parrokialak, boletinak… gehiago be izango dira, urteotan parrokiek kaleratuta Uribarriko Andra Marin eta Durangaldean. Osatu

bako gaia dogu berau, paper zaharrak eta datu barriak jaso ahala osatu daitekeena.

II. Hiru gogoeta

Deskripzino hutsetik harago joan gura neuke bigarren atal honetan, jakin arren lur labainkorretan sartuko nazela. Baieztapen zenbat eta zabalagoak egin, huts egiteko aukera gehiago. Durangaldetik harago balioko ete dabe gogoetok? Neurri batean baietz uste dot.

Papera edo sermoia

Eztabaida aspaldikoa, eztabaida antzua. Homilia, berbaldi edo sermoietan ahalegin serio eta handia egiten da gure parrokietan. Baina badira gaiak, sermoi baten tokirik izan ez arren, eleiztarrari interesgarri jakozanak. Osagarriak litzatekez, inoiz be ez aurkakoak.

Papelak bota egiten direla eta badira batzuk kexaz. Egia da. Baina sermoia bera be, dan-danak jarraitzen ete dabe adi eta erne?

Papelak iraun egiten dau, eleizatik kanpora urteten dau, sermoiko hamar minutu baino harago doa, ereiten dogun hazi baten antzekoa dogu.

Papera urrunago doa. Gaixorik bere ohean datzanaren ondora edota kanpoan dagoen senide edo lagunarengana. Sermoiaren bizitasuna euki ez arren, harek ez daukan bidaia luzea dauka.

Papera irakurtzeak ahalegina eskatzen dau, eta euskeraz danean ahalegin bikotxa. Parrokiari ahalegin ekonomikoa be eskatzen deutso. Baina ez da papera botatzea, ez da dirua botatzea, komunikatzeko tresna baino.

Eleizea eta komunikabideak

Eleizeak eta komunikabideak ez daukie hartuemon erreza. Eleizeak ez dau onartzen beste erakunde bat balitz moduan hartua izatea, min emoten deutso indiferentziak... Komunikabideak, instituzinoa baino gehiago testigantzen eta gaurkotasunaren bila dabiz.

Horregaitik, Eleizea bere komunikabideak eukiten ahalegindu da. Arazo ekonomikoa dago hor. Gaur egun horreek enpresa dira, dirua irabazi behar dabe eta

publizidadea galdu ez. Komunikabideen helburua agintea eta dirua eskuratzea da.

Eleizeak ez dau publizidadean gastetan, horregaitik hainbat komentario merkeren jomuga izan leike eta izan da. Arazoa da fededun askok be, bere Eleizaren barruko informazinoa kanpoko komunikabideen bitartez jasoten dauela. Erakargarriagoak, leku guztietan dagoz, gure pentsaera moldatu gura dabe.

Joan Paulo II.ak esana da 2000. urtean: "kazetaritza ezin da gidatu bakar bakarrik indar ekonomiko, irabazte enpresarial edo interes partikularren eragin hutsez..."

Nik beste gauza bat esango neuke: pobreak, baztertuak... eskandalu ez badira ez dira notizia. Eleizeak arlo horretan egiten dauan lana be ez dabe notizi legez atarako.

Komunikazinoa ez da negozio hutsa. Erizpidea egiteko eta egia bilatzeko tresna ez bada, txarto goaz. Zuhur jokatu daigun eurekaz, erabili dagiguzan eleiza barruko komunikabideak, kritikoak izan gaitezen bai batzuekaz eta besteekaz.

Barri Ona zabaldu daigun, apaltasunaz, errespetuz eta duintasunaz. Euskadi Irratiaren sorreran eta Vatikano Irratian zuzendari hainbat urte emon ondoren, euskal erretiroan liburu bikain bat oparitu dausku Ignazio Arregi jesuiteak. Hona bere komentario bat, berbaz berba, liburu horretatik hartua:

> "Baina egia da bestalde, arrazoiz edo baita arrazoirik gabe be, asko direla Vatikanoa eta Eleiza bera ere erasotzen dutenak; oso erraza baita izan ere, Eleizari edozein kritika edo iseka botatzea, edo kalte egitea, jakinaren gainean daudelako Eleizak inori ez diola kalterik egiten, nahiz eta hainbat aldiz gezurrak, isekak, zurrumurru hutsak edo kolpe handiak jasan behar izan. Garbiago esanda: badakite kazetariek zein arriskutan jartzen diren gobernu bat, edo enpresa bat, edo handizkiren bat erasotzen badute. Eta kontuan izango dute hori. Eleizarekin, ordea, ez dute izango horrelako beldurrik " (Arregi, Ignazio, *Eta orain, zer? Gure urte haiek (1931-2009)*, Irun, 2010, 91. or.).

Herri prentsaren aitzindariak

Beharbada baten bateri gogortxo egingo jako esaldi hori. Herri prentsa eta eskualdeko prentsa indarturik ageri diran aldi honetan, Eleizearen irudiaren klitxean erakunde zaharkitua dala behin eta barriro esanda, bere parroki paperei eskeiniko deutsagu prentsa lokalaren *aitita edo amama* izatearen ohorea?

Abade bizimoduan tokiz aldatu eta Arratiatik nabil aspaldi. Hamabostean behin *Begitu* aldizkaria sartzen dauskue doan etxeko buzoian. Milaka zabaltzen ei

dira. Gitxik onartuko dabe, ostera, aspaldi, 70 urte beteko ditu aurten, *Arratiako Deia* izeneko aldizkaria zabaltzen zala Arratian, euskeraz, Zeanuriko seme eta Areatzako abade izan zan Gorostiaga jaunari esker.

> "Harpidetza edo suskripzino bidez zabaltzen zan aldizkaria eta urtean pezeta 2koa zan harpidetzaren prezioa. Bestetik, aldizkari bakotxa txakur handian saltzen zan eta Bilboko Euzko-gaztedian egoten zan salgai. Azpimarratzekoa da, modu berean, publizidadea be erabilten ebela finantziazino bide lez. Goian esan dogunez, orri oso bat iragarkiak sartzeko ixten eben eta, horrezaz ganera, beste orrialdeetan be tartekatzen zituen iragarkiren bat edo beste" Erdozia Aitor: *Arrati'ko Deya. Arratiako euskera hutsezko lehenengo aldizkaria.*

Herri prentsa dala eta, zeintzuk dira bere ezaugarriak?

– doan banatzen da;

– finantziazinoan bi iturri nagusi ditu, publizidadea eta erakunde publikoen laguntza;

– maiztasun bizkorra: astekaria, hamabostekaria, hilabetekaria…

– antolakuntza: amateur izatetik enpresa antzeko egitura sakonak izatera igaro da, informatikaren laguntzaz adibidez. (Askoren Artean: *Euskal prentsa lokalaren problematika. Mahai ingurua.* Jakin 69 (1992) 51-67 or.)

Gai eta artikuluen hurkotasuna da herri prentsaren ezaugarri bat. Ez da bardina gotzaitegiak edo Erromak ataratako aldizkari polit koloreduna, edota herriko edo auzoko bateatu edo hildakoen izenak irakurri edo domekan herrian egongo dan ekitaldi baten barri eukitea. Parroki paperak hurrekotasun hori eukan, gaur egun herri prentsak daukan legez.

Sarritan banandu izan da doan, eleiz atarian edota boluntarioen bidez. Produktua apainago zanean edota orri gehiago eukanean harpidetza eta laguntzaile erak be bazituen, lagungarri.

Maiztasuna da beste giltzarri bat. Batzuk oso serioak izan dira, astero edo hamabostero zabaltzekoak. Beste batzuk aldi liturgikoen harira edota baliabide ekonomikoak edo arduradunen astiaren arabera.

Haustura, ostera, profesionaltasun horretara salto ez egitean gertatu da batez be. Gaur egun, nahiz eta informatika eta inprenta arinak egon, gitxi dira parroki paperak profesionaltasun puntu horretara jauzia egiteko ausartu direnak. Tamalez. Arrazoi ezbardinak egongo dira, baina parrokian paperak kaleratzen direnean kostua (denpora, gaiak, inprenta) parrokiaren gainera doa. Oso leku gitxitan, antza, onartzen da publizidaderik edo bestelako laguntzarik.

Interesgarria deritxot internetera egin daben saltoa. Bitarteko apalekin zabalkuntza handia lortzen dabe sareak emoten dituan baliabideei esker. Bestela, parroki arteko laguntza eta koordinazino handiagoa dago, informazinoak, argazkiak, bideoak etab. konpartituz.

Hasieran jendeak medio hau ez eban baloratzen eleiztarren artean ez dala oso erabilia argudiatuta. Egia esan, gero eta gehiago erabiltzen da eta paperean zabaltzen dan orriaren osagarri merke, bizkor eta zabala bihurtu da.

Hona bada, irakurle, labur-labur, gure parrokietako paper edo orri parrokialen kronika labur amaitu bakoa.

Arratia, 2011-03-03

PERFIL DE DOMINGO DE EGUÍA (CON UNA DESATRIBUCIÓN, Y UNA RELACIÓN DE SERVICIOS)

Jesús Antonio Cid
Instituto Univ. Menéndez Pidal
Universidad Complutense. Madrid

LABURPENA

Domingo Eguiakoaren irudia
Domingo Eguiakoa gobernadorea izan zen eta Hondarribiko 1638ko setioan hiria babesten egon zen. Toki nabarmena du euskal historiografian eta letretan.
Eguia da "Canción vizcaína" edo "Cantar de Eguía" deritzanean protagonista, bizkaiera literariorako aurkikuntzarik handienetako batean. Hala ere, bere garaiko kronikagileek eta Felipe IV.aren erregealdiko gertaeren kontalariek ez dute haren biografia, militar ibilbide eta izakeraren berririk ematen.
Aita Moretek ondoren egindako historian bere ikuspegian aurreko kronikagileengandik urrundu, eta bere historiari esker, eta Simancaseko Artxiboan gordetako memorial argitaratugabe bati esker, gaur egun soldadu bizkaitarraren gutxieneko biografia eta izaera sikologikoa osatzeko moduan gaude.
Hitz gakoak: Domingo Eguía, Kantu Bizkaitarra, Hondarribia, setio.

RESUMEN

Perfil de Domingo de Eguía (con una desatribución, y una relación de servicios)
Domingo de Eguía fue gobernador y defensor de Fuenterrabía en el asedio de la plaza en 1638, y ocupa un papel destacado en la historiografía y las letras vascas.
Eguía es el protagonista y destinatario de la "Canción vizcaína" o "Cantar de Eguía", uno de los hallazgos recientes más relevantes para el vizcaíno literario. Los cronistas coetáneos y autores de relaciones de sucesos del reinado de Felipe IV, sin embargo, no proporcionan apenas información sobre su biografía, carrera militar y carácter.
Gracias a posterior historia latina del P. Moret, que manifiesta una óptica muy distinta a la de los cronistas anteriores, y a un memorial inédito, conservado en el Archivo de Simancas, es posible ahora trazar un mínimo perfil biográfico, y psicológico, del soldado vizcaíno.
Palabras clave: Domingo Eguía, Canción Vizcaína, Fuenterrabia, asedio.

RÉSUMÉ

Profil de Domingo de Eguía (avec une désattribution et une liste de services)
Gouverneur et défenseur de Fontarabie lors du siège de la place forte en 1638, Domingo de Eguía occupe une place particulière dans l'historiographie et les lettres basques.
Eguía est le héros et le destinataire de la "Canción vizcaína" ou "Cantar de Eguía", une des trouvailles récentes les plus intéressantes sur le biscayen littéraire. Par contre, les chroniqueurs de l'époque et les rédacteurs des listes d'évènements du règne de Philippe IV ne nous ont laissé que très peu d'informations sur sa biographie, sa carrière militaire et sa façon d'être.
Grâce à l'histoire latine postérieure du P. Moret, qui exprime une vision des choses bien différente de celle des chroniqueurs précédents, et à un mémorial inédit conservé aux Archives de Simancas, il est maintenant possible d'élaborer une esquisse biographique et psychologique du soldat biscayen.
Mots-clés: Domingo Eguía, Canción Vizcaína, Fuenterrabía, siège.

SUMMARY

Profile of Domingo de Eguía (with a dis-attribution, and a list of services)
Domingo de Eguía was governor and defender of Fuenterrabía in the siege of 1638, and has a lkeading role in Basque historiography and letters vascas.
Eguía is the leading character and addressee of the *Canción vizcaína* (Biscay Song) or *Cantar de Eguía*, (Song of Eguía) one of the most important recent finds for literary Biscay Basque. Contemporary chroniclers and authors of lists of events in the reign of Philip IV, however, provide virtually no information about his life, military career or character.
Thanks to a later Latin history by P. Moret, who takes a very different perpective from previous chroniclers, and an unpublished memorial, in the Archive at Simancas, we can now map out a minimal biographical and psychological profile of this soldier from Biscay.
Key words: Domingo Eguía, Canción Vizcaína, Fuenterrabia, siege.

Artikulua jaso / Fecha de recepción: 2010.11.20.
Artikulua onartu / Fecha de aceptación: 2011.03.16.

Domingo de Eguía y la "Canción vizcaína" de 1638

El Maestre de Campo (o 'coronel', en aproximada equivalencia moderna) Domingo de Eguía es bien conocido como ejemplar gobernador y defensor de Fuenterrabía en el asedio de 1638. En el imaginario histórico hispánico y del País Vasco su nombre se asocia a un cierto espíritu numantino, con final feliz en su caso, y al dechado del militar valeroso. Los *Bertso bizkaitarrak* de 1688 echan en cara a los guipuzcoanos el olvido de su gran defensor ("A! Aztu yaçu, Guipuzcoa, / Domingo de Eguia!"), pero todavía Gracián en 1653 usaba la expresión "más valiente que Domingo de Eguía" (*El Criticón*, II, 1) casi como una frase hecha y proverbial. En fin, aún hoy aflora ocasionalmente la autoridad de Domingo de Eguía —como avalista a favor o en contra—, en las polémicas un tanto-cuanto absurdas sobre la presencia femenina en el Alarde que conmemora la victoria sobre el ejército del príncipe de Condé.

En los estudios vascos, la significación de Eguía viene dada ante todo por ser el protagonista de la "Canción vizcaína" compuesta en 1638 por el licenciado Alzola y Muncharaz y publicada en un pliego suelto. El poema es a la vez un panegírico y un canto noticiero, y se considera con justicia uno de los textos más originales, además de uno de los más antiguos, del dialecto vizcaíno literario. Su hallazgo casual, y todavía reciente (1982) dio lugar a varias ediciones en los años inmediatos: Zubikarai 1983, y, en especial Arejita 1983 y 1988, y Urgell 1986. Los dos últimos editores se han enfrentado a los varios problemas que ofrece el texto y proporcionan abundantes aclaraciones lingüísticas e históricas que permiten interpretar y contextualizar adecuadamente una composición repleta de dificultades de todo orden, empezando por la pérdida de algunos versos en el único ejemplar conocido del pliego suelto. Adolfo Arejita en su segunda edición renovada alcanzó a descifrar, después de efectuarse un cuidadoso tratamiento y limpieza de las dos hojas del pliego, varios versos que antes eran total o parcialmente ilegibles, y añade un completo y utilísimo vocabulario razonado del léxico y formas verbales. Blanca Urgell, por su parte, además de atender a cuestiones lingüísticas y formular conjeturas con alternativas a los pasajes más difíciles, dedicó especial atención al cotejo del contenido de los versos con las fuentes históricas.

EL LICENCIADO IVLIAN DE
Gortaçar, y Billela al Auctor.

SONETO.

SOlicito, contento, y cuydadoſo,
eſconde el Labrador con franca mano,
en las entrañas de la tierra el grano,
ſin temor del Inuierno riguroſo:
Ya falga el año eſteril, ya abundoſo,
à Dios ofrece liberal, y hufano,
de los fructos que coge en el Verano,
los diezmos y primicias, que es forçoſo:
Vos Alçola ſembraſtes en el Cielo,
que es tierra que ſemilla no delecha;
y dà ciento por vno de contado;
Y pueſto que los fructos goza el ſuelo,
à Vizcaya, de do ſale la coſecha,
pagays el diezmo de lo bien ganado.

F I N.

DOMINGO LOPEZ DE HEGVIA
al Auctor.

Alço la fama y dio
à quien es digno en el hecho,
y yo ſolo me aprouecho
en dar gracias por Domingo.

El Licenciado Iuan Bautiſta de Açola,
y Muncharaz.

Primer pliego de la "Canción Vizcaína" de Alzola, 1638.

Estamos, pues, ante un texto más que satisfactoriamente bien dilucidado, y sería deseable ampliar el estudio a aspectos estrictamente literarios. Ello no está, desde luego, a mi alcance, ni sería en cualquier caso el propósito central de esta breve nota. Baste indicar que, al margen del obvio interés lingüístico del poema, los versos del licenciado Alzola evidencian más allá de su transparente voluntad de hacer poesía popularizada, o popularizable, un notable dominio de la retórica más adecuada para su objetivo: el elogio de Eguía y la magnificación de la victoria de Fuenterrabía. Así, en registros muy distintos, junto a la versión literal de un texto evangélico ("Miserationem volo, et non sacrificium", Mt. IX-13), presentado y citado como tal en vv. 63-67, se ensartan locuciones pertenecientes a un lenguaje coloquial coincidente con expresiones castellanas del tipo de "dar pan de perro" ("chacurren oguia emongo deussu", v. 53); "eso es el sueño del perro" ("chacurren amessagaz, paluac asco / eroango doçuz…", vv. 57-58); "echar de la oseta", o "farfullar", "sin trabas en la lengua" ("cheldor bagaric minac farfulleteco", v. 49), "dar jubón de azotes" ("jupoac bear dituez aforraduric", v. 78); "¡vítor X, cola Z!" ("Victor Hespaña ta cola Francia", v. 83); "tener malas Pascuas" o "¡Malas Pascuas os dé Dios" (…içan daguiçala Pascoa guestoac"), etc. O se recurre a parodias idiomáticas ("… larretan diñoe: '*Si, non, bule, bu; / sibule bu, e no bule bu'*", vv. 86-87), y a adjetivaciones degradantes en denuesto del enemigo ("Frances *ordiac*", v. 32; "gustioc *gabachu*", v. 196; "Olandacoac… *chacur ossoac*" v. 212). Puede también introducir pinceladas humorísticas y así, cuando nos dice que entre los despojos capturados al francés se cuentan ricas capas de grana o "capotes colorados" (según la carta del marques de Mortara) y otras vestiduras, Alzola añade que ese botín de ropas lujosas servirá ahora para vestir a los pícaros ("capusay granazcoaac, erropa asko / mutil picaroac janci eiteco", vv. 109-110), teniendo bien presente que "pícaro", como "maltrapillo", designaba en primer término al mal vestido, desharrapado o medio desnudo.

Nada más popularizante que la apelación final directa a la alegría de los oyentes. El poeta pide albricias a las viejas, porque con sus versos les ha dado materia sobrada para contar historias junto al fuego todo el invierno; y los jóvenes pueden bailar y saltar de gozo, porque después de las victorias que el buen cura de la iglesia de Castillo, en Arratia, ha referido en su canción, lo menos que puede esperarse es la conquista de París… Y para quienes no se alegren con tan buenas nuevas, ya se sabe: ¡Malas Pascuas!, tan malas como las que se merecen los herejes holandeses:

Dagigun gustiok atsegin hartu:
Atsoak, albiste neuri indazu!,
zegaiti deutsudan negu guztiko
zer esan ifini sugaterako.
Gazteak, egizu dantza eta saltu,

Paris behar dogu urtera hartu!
Eztaukezanak pozik gogoak
izan dagiezala Pascoa gestoak!
Alan daukezala Olandakoak,
zegaiti direan txakur osoak!

No es mal final para una canción patriótica noticiera. Tales denuestos al contrario y esperanzas mesiánicas cifradas en su rey son lo habitual en muchos romances castellanos coetáneos que festejaron las victorias, bien efímeras, de la Monarquia hispánica en este y en otros frentes. Los romancistas recurrieron varias veces al incipit del romance viejo del almirante Guarinos ("¡Mala la hubistes, franceses, / la caza de Roncesvalles!"), acomodado ahora al contexto de la Guerra de los Treinta años y su derivación hispano-francesa (Cf. Cid 1989). Tanto ellos como Alzola intentaban, en realidad, crear opinión y movilizar ánimos y conciencias contra el poderoso vecino y sus aliados, y apuntalar—si tal cosa era posible— o retrasar el desastre final del reinado de Felipe IV. Así, al menos, los más conscientes de la propia debilidad, que eran minoría. La mayoría, y entre ellos Alzola, lo hicieron pensando ingenua y sinceramente que su rey era todavía invencible ("escubetu doçu mundi gustia", v. 2), y que no cabía mayor honor que ser súbdito modélico, como Eguía o el Almirante de Castilla, de tan gran monarca ("erregue andissuen ispillu arguia", v. 62).

En otro registro muy diferente del que hemos considerado "popularizante", Alzola muestra ser un autor que conoce sus clásicos y utiliza recursos compositivos cultos bien codificados. Un largo parlamento del Almirante, recién entrado en la villa, dirigido a Domingo de Eguía ocupa casi cuarenta versos (125-162) y es aprovechado para hacer el panegírico del héroe; lo esencial es comunicarle al protagonista el contenido de una carta del rey en que se le premia con diversas mercedes. Claro es que todo ello es ficción: Felipe IV tardó aún unos días en conocer la victoria, y su carta se escribió una semana después. Pero los parlamentos discursivos que suplen la narración o informan de los sucesos más pertinentes son un viejo truco que todo lector de Virgilio —o de las comedias de Lope de Vega— conocía sobradamente. En otro orden, el poeta Alzola utiliza, cuando le conviene enfatizar, triadas de sustantivos, "laguna, anagea, adisquidea", rellenando un verso (157); usa juegos bisémicos de palabras en la mejor tradición conceptista ("*Domingo* Pazcoen izen andia / coronica garri, ceure *eguia*, vv. 51-52); o introduce neologismos cultos como el que acabamos de leer, "*coronicagarri*".

En resumen, Juan Bautista de Alzola y Muncharaz es, a mi ver, un escritor dotado de un más que notable garbo y desenfado; con buen oficio, y con el talento para seleccionar y presentar con viveza unas escenas puntuales, las más adecuadas para el objetivo que se había propuesto: la apoteosis de Domingo de Eguía y, por elevación, de Vizcaya. Sólo cabe lamentar que no se prodigara más, o que no se

hayan conservado otros productos de una actividad poética que sin duda habrían contribuído al asentamiento temprano de un euskera vizcaíno "literario", a la vez popular y dignificado por una retórica patente pero asequible a las viejas y jóvenes que Alzola tenía en mente como público: "Atsoak, albiste neuri indazu!..; Gazteak, egizu dantza eta saltu!"

2. Para una etopeya de Domingo de Eguía. El retrato de un vizcaíno adusto.

Las infinitas relaciones de sucesos, cartas y poemas que se escribieron sobre la victoria de Fuenterrabía señalan siempre el papel destacado de Domingo de Eguía en la defensa de la villa. Él fue artífice principal del triunfo, por su resistencia a la desesperada en los setenta días de asedio, y a él se debió que el ejército de socorro mandado por el Almirante de Castilla, tras varios contratiempos y retrasos, tuviera el margen suficiente para alcanzar in extremis a dar la batalla decisiva y liberar la villa.

La personalidad de Eguía, sin embargo, parece que se nos escapa. Las fuentes históricas nos lo presentan como un héroe de cartón-piedra; se transcriben sus cartas de respuesta a Condé, dignas de un caudillo romano, pero que en realidad hay que suponer redactadas por algún escribano innominado y por delegación del común de los defensores de Fuenterrabía, si es que no son producto de la Minerva retórica del cronista. Se refiere alguna decision táctica, personal de Eguía, en su calidad de gobernador de la plaza; se enumeran los elogios y premios que recibe después de la victoria…; y muy poco más. Las fuentes ignoran por completo la carrera militar previa del Maestre de campo; alguna vez se le considera como navarro; y falta, desde luego, cualquier atisbo de retrato psicológico o caracterización del personaje como ser humano a secas.

La excepción única en la presentación acartonada y plana del soldado vizcaíno es la extraordinaria crónica del Padre Moret. La *De obsidione Fontirabiae Libri tres*, publicada en 1654, ha sido considerada desde fecha antigua como la obra básica, por su información copiosa y exacta, sobre el asedio y sus antecedentes. Lo es, sin duda, pero es mucho más que eso. Será por deformación profesional, o gremial, de alguien perteneciente a la especie a extinguir de los filólogos, pero siempre he considerado como una desdicha que la historiografía medieval y de los siglos XVI y XVII haya quedado, por lo general, en manos de historiadores sin formación filológica o una mínima sensibilidad literaria. El resultado son ediciones disparatadas e inutilizables, y valga el ejemplo de las muchas y espléndidas crónicas de Indias y peninsulares publicadas por editores que evidencian no haber comprendido lo que editan. El no entender que la cronística es un discurso verbal y un constructo tan literario como una novela o un poema da, al parecer, patente de corso para publicar e interpretar los textos como si su único interés

estuviera en la presunta "verdad" de los hechos relatados y como si el cronista fuese un simple notario. Ya se sabe que lamentarse es sermón perdido, y no es menor la responsabilidad de los filólogos, que salvo excepciones contadas parecen considerar campo vedado el análisis de la historiografía áurea desde los supuestos de la crítica lingüística y literaria.

Lamentaciones aparte y volviendo a Moret, la *De obsidione Fontirabiae* es, sencillamente, un prodigio de penetración en el examen de causas y conductas. Con la perspectiva de una distancia temporal considerable, y sin tener ya que hacer de gacetillero o pregonero de buenas nuevas, ni de propagandista, para Moret los acontecimientos bélicos de 1638 son sólo un telón de fondo que utiliza al servicio de una historia política compleja y nada idílica, contextualizada en el conjunto de toda la Guerra de los Treinta años, al paso que manifiesta su aborrecimiento al Conde Duque ("Guzmán" a secas, para él) y exalta a su Navarra.

En lo que ahora nos afecta, Moret inicia su retrato de Eguía con una matizada definición de su caracter, aparentemente simple pero ya de entrada problemático:

> Dominicus Eguia, Deustua ex oppido in Viscaia, vir manu strenuus, & quanquam inveniendis consiliis non satis promptus, oblatis acquiescens, net ut alienis contumax; gravia & hic de potestate cum oppidanis diffidia passus ea tamen, ubi hostis in conspectus fuit, communi bono posthabita, patriaque saluti condonata, externa vi pacem domi, ut assolet adferente (p. 66).

En la traducción dieciochesca de Manuel Silvestre de Arlegui, sabrosa siempre a pesar de ciertos excesos "jacarandosos", y que utilizaré en lo sucesivo:

> El capitán Don Domingo de Eguía, natural del lugar de Déustua en la Vizcaya, hombre brioso, y aunque no de mucha travesura en los discursos; pero se acomodaba a los que le propusiessen, y no se encaprichaba porque fuessen ajenos. Había tenido este graves altercados con los Paysanos sobre jurisdiccion; pero todos ellos se pospusieron al bien común y se sacrificaron todas las diferencias por la Patria, apenas se vio al enemigo; poniendo en casa la paz la fuerza estraña, como suele suceder (p. 35).

Esa insólita capacidad de Eguía para aparcar diferencias personales o agravios, sin olvidarlos, tiene para Moret su máxima expresión en el momento en que después de diez días de asedio llega a Fuenterrabía un nuevo gobernador, Pérez de Egea, y Domingo de Eguía, que desempeñaba el puesto interinamente, es sustituido en el mando. La página merece ser transcrita en su integridad:



Plano de Fuenterrabía y su asedio, a mediados del siglo XVII.

Fue muy gustosa á la tropa y a los del país la venida del nuevo Gobernador, ya por las noticias de su fama, ya por el socorro que había acarreado; solo fue desapacible para Eguía, a quien le parecía que se le usurpaba la gloria de defender el sitio. Ni alcanzó Pérez a suavizarlo, siendo así que de intento se anticipó a decirle que venía como un compañero para su consejo y no como superior; contemplando Eguía que esto era no solo haberlo pospuesto en la elección, sino despojarlo de la posesión. Y sin embargo de ser un hombre nada doblado y de una bizarría militar nada hecho á disimular y ocultar en su ánimo las ofensas, enseñó, no obstante, en el semblante el sentimiento mientras vivió Pérez, huyendo cuanto le fue posible de su presencia. Pero es laudable la templanza de este hombre en su resentimiento, porque sin la menor réplica se apartó del gobierno, y ni por envidia ni por competencia habló jamás palabra en desmedro del honor de su competidor; y proporcionándose a sentir no los ascensos del otro, sino su decaimiento propio, solo daba a su respeto lo que bastaba para que no

> pareciese que con su espontánea tolerancia había aprobado el agravio. De allí en adelante, abrazando los consejos más sanos, y haciéndose cargo que tanta alabanza merece el que obedece con modestia como el que manda con acierto, y que lo demás es juego de fortuna, estuvo muy lejos Eguía de aquella peste de competencias, que en nuestro tiempo han atrasado más de una vez los progresos de España, habiendo sido en verdad, si no por el entero disimulo de su sentimiento, a lo menos por su templanza, merecedor de que recayese al cabo en él la gloria de que Fuenterrabía se defendiese (trad. Arlegui, pp. 55-56).

La subordinación al bien común de la "defensa de la tierra" y "ofensa del enemigo" es en Eguía la misma que Garibay elogiaba en otro defensor de Fuenterrabía del siglo anterior, el capitán Pérez de Azcue, cuya conducta se contraponía a la del jactancioso y egotista Monsiur de Chanfarron.

Que Domingo de Eguía no debió de ser persona de fácil trato, a pesar de su "templanza" y "modestia", ya lo veíamos en las "gravia diffidia", o graves altercados, que tuvo inicialmente con los habitantes de Fuenterrabía por cuestiones de jurisdicción. Moret se refiere al "tesón de su ceñudo semblante" [*contumatia irati vultus*], y ese carácter rígido y puntilloso pudo costarle muy caro. Los soldados irlandeses de la guarnición, resentidos por el racionamiento que Eguía impuso, lo acusaron de traición y de ser responsable del fracaso de una salida por sorpresa, o "surtida", a causa del estallido de unos barriles de pólvora, que se sospechó fuese un sabotaje:

> Pero no me ha parecido pasar en silencio el grande riesgo que corrió Eguía con la ocasión de este fuego. Había tenido éste grandes debates con la tropa de Hibernia, porque, siendo un hombre de parsimonia a lo antiguo [*erat quippe homo veteris parsimoniae*, en Moret, *De obs.*], pretendía que los irlandeses, que comían mucho, como sucede casi a todas las gentes septentrionales, se acomodasen a la misma ración que los españoles, que son cuerpos más sufridos del hambre; y así, desde el principio del asedio, por lo que pudiese suceder, se daba la ración algo escasa. Por este motivo, descontentos los irlandeses con Eguía, con temeridad (por ser sus sospechas efecto del odio que le tenían) acriminábanlo para con el Gobernador bastante a las claras como autor del incendio, por hombre sospechoso, y que intentaba otras cosas mayores, y con tanto más libertad, porque sabían que estaban encontrados Eguía y el Gobernador, como lisonjeando al resentimiento ajeno, cuando en realidad procuraban satisfacerse del suyo (trad. Arlegui, p. 71).

Por fortuna para Eguía, la amistad del alcalde Diego de Butrón, el otro gran artifice de la defensa de Fuenterrabía, le permitió salir indemne de estas denun-

cias después de una pesquisa capciosa ordenada por el gobernador. Es más, cuando Eguía recupera el mando de la plaza por la muerte de Pérez de Egea, lo hizo "con mucho beneplácito de todos; porque aun los Irlandeses se había congraciado con él por mediación de Butrón" (p. 100). Eso sí, el resentimiento por su postergación a Pérez de Egea lo llevó hasta sus últimas consecuencias: cuando el gobernador agoniza van a visitarlo Butrón y otros nobles y jefes militares, pero "Eguía no fue a verle, pareciendo a todos demasiada expressión de su enojo" (p. 97; *morientis conspectum Eguia vitavit, nimis offensae memor cunctis visus*, en Moret, *De obs.*).[1]

Como resumen: con unas cuantas pinceladas Moret logra aproximarnos a la personalidad de Eguía de un modo que buscaremos en vano en las demás relaciones, cartas, poemas y obras históricas que se compusieron sobre el asedio y batalla de Fuenterrabía. Es muy cierto que Moret, al margen de lo que le pudiera comunicar Don Martín de Redín, testigo y actor de la batalla, bebió en varias fuentes coetáneas, en particular de la extensa *Relación diaria del memorable cerco y feliz victoria…* (Burgos 1639) escrita por otro testigo que vivió el asedio en la propia Fuenterrabía (cf. Díaz Noci, 2002 y 2003). Pero ni en ella, ni en la demasiado oficial crónica de Palafox, ni en ninguna otra fuente conocida se concede la menor atención a los rasgos específicos de la personalidad de Eguía, y es de suponer que, al margen de su mayor curiosidad y ausencia de autocensura, Moret dispuso de otras informaciones directas.[2]

3. Una anécdota mal atribuida

Domingo de Eguía se nos aparece, vía Moret, como un soldado viejo característico, disciplinado y capaz de imponer la disciplina; poco complaciente con sus superiores y subordinados. Con su "ceñudo semblante" y siendo poco "promptus" o "travieso" en los 'discursos', no cabe suponerle un excesivo ingenio verbal ni sentido del humor ninguno, aunque es muy cierto que las circunstancias que le tocó vivir en Fuenterrabía no se prestaban a muchas humoradas. Sin embargo, todo esto ultimo estaría radicalmente desmentido por un rasgo de humor negro que se le atribuye. Tras la batalla, Eguía —se dice— escribió a su mujer, y en su carta incluyó un párrafo que "se ha hecho célebre":

---

[1] En realidad, el propio Conde Duque de Olivares acabó por reconocer que la postergación de Eguía, al nombrarse a Pérez de Egea gobernador, había sido injusta. En la carta que le dirigió después de la victoria, dice Olivares: "… y pido a V. md. perdón del ayo, confesando que V. md. lo puede ser de cuantos somos". El pasaje, ciertamente oscuro ("zati hau iluna da", Urgell, p. 139), lo aclara el jesuita Sebastián González después de copiar la carta: "Estando sitiada la plaza vino a ella el propietario (a quien llama "ayo" el Conde [de Olivares])… Esta advertencia tenía, para más inteligencia, la copia de donde yo la saqué" (*Cartas de Jesuitas*, III, pp. 65-66).

[2] Sí advierto algunas coincidencias privativas de Moret con el muy detallado relato del maldiciente Matías de Novoa en su *Historia de Felipe IV*, obra inédita hasta el siglo XIX (Madrid: CDIHE, 1881), vol. II, pp. 454 y ss., lo que permitiría conjeturar una fuente común no localizada.

> Amiga: Como no sabes de guerra, te diré que el ejército enemigo se dividió en cuatro partes: Una huyó. Otra matamos. Otra prendimos. Y otra se ahogó. Quédate con Dios, que yo me voy a cenar a Fuenterrabía.

La anécdota la recoge Leonardo Urteaga (*Guía sentimental del Bidasoa*, 1976), y aparece consignada en varios otros lugares. Sorprende que Eguía dijera que se iba a cenar a la villa donde ya estaba, y de la que no había salido, muy a su pesar, en los más de dos meses de asedio; y nos extraña su tono en un personaje tan adusto. Si fuera cierta, la frase sería oportuna para redondear el perfil del héroe con un apotegma digno de un nuevo Julio César, y del arquetipo del vizcaíno, "corto en palabras, pero en las obras largo". El inconveniente está en que la frase es auténtica, pero no es de Eguía. El padre jesuita Sebastián González es, hasta donde sabemos, el primero, y único en el siglo XVII, que refirió la anécdota, diciendo haber visto la carta original, y la atribuye a persona muy distinta:

Aquí nos han enseñado carta del Almirante a su esposa doña Luisa de Padilla, que no por ser corta deja de tener sustancia. Es así: "Amiga, como no sabes de guerras, sólo te diré que el campo del enemigo se dividió en cuatro partes; una huyó; otra matamos, otra prendimos y otra se ahogó. Quédate con Dios, que yo me voy a cenar a Fuenterrabia".[3]

El padre González estaba sin duda en lo cierto. El Almirante de Castilla entró, efectivamente, a cenar en la villa, convidando a Eguia y sus compañeros, como lo dice entre varios otros testimonios la canción de Alzola ("Bera çure mayan, çu aen aldean, / ce ondo cirudian…", vv. 167-8), y a él se debe la lacónica humorada. En realidad, casi debemos felicitarnos de que Eguía no tenga nada ver con la frase en cuestión, y poder desatribuírsela: desdecía, en el fondo, del personaje cuyo retrato y etopeya nos ha legado Moret.

4. La trayectoria de un "soldado viejo"

A falta de frases redondas, pero ajenas, compensaremos la desatribución anterior dando a conocer un memorial en que se expone toda la carrera militar del soldado vizcaíno. El memorial fue presentado en 1645 ante el Consejo de Guerra, uno de los organismos de la Monarquía "polisinodial", por Gerónimo de Eguía,

---

[3] *Cartas de Jesuitas*, III, p. 54. Podemos conocer con exactitud la génesis de la atribución errónea: en época moderna el primero en utilizar la anécdota fue Antonio Ferrer del Río en un artículo, "Procesión historica de españoles celebres. Desfile de privados", publicado en la *Revista de España*, año IV, XVIII (1871), núm. 70, pp. 161-187 (170). De allí la tomó Miguel Rodríguez-Ferrer, autor de unos artículos muy divulgados, "Fuenterrabía: su situación, sus recuerdos y sus glorias", el primero de ellos aparecido en *La Ilustración Española y Americana,* XV (1871), núm. VI (febrero), p. 94. Rodriguez-Ferrer utiliza una sintaxis algo torpe; ello y la contigüidad de los nombres de Eguía y el Almirante, hacen fácil atribuir al primero la frase en cuestión, y explican toda la "tradición" posterior.



Primera página del Memorial de Simancas.

sobrino de Domingo, en su calidad de heredero de los servicios y méritos de su tío, quien había muerto sin hijos. En realidad, disponemos sólo de la "consulta" que el Consejo, después de deliberar, elevaba al rey para su decision definitiva, que se plasmaría en una negativa o una dilación (con la consabida fórmula de "acuérdese para adelante"), o en un decreto anotado por el rey al margen aprobando lo que el Consejo proponía. En las consultas de los reales Consejos se extractaba —por lo general de forma muy detallada— el contenido del memorial que presentaba el "suplicante". En este caso, Gerónimo de Eguía, elaboró su memorial recurriendo a la "relación de servicios" de su tío Domingo. Las relaciones de servicios, de las que se conservan varios millares en los archivos de Simancas e Histórico Nacional, son, sencillamente, los curriculum vitae en los que militares y varios otros servidores públicos exponían, en orden cronológico, los méritos, puestos desempeñados y cualquier otra circunstancia que podia justificar y favorecer una pretensión de ascenso, ocupar un nuevo oficio, obtener honores varios o un simple incremento del sueldo. La relación de servicios debía ir acompañada de las correspondientes "certificaciones" o "fees", que garantizaban la veracidad de todo lo expuesto en la relación. Ya queda indicado que sólo he localizado la "consulta" que extractaba el "memorial", basado a su vez en la "relación"; pero los secretarios de los Consejos solían ser prolijos y exactos al elaborar las consultas, y por ello creo obvio que podemos conocer a través de esta lo esencial de la relación de servicios de Domingo de Eguía:

> Consejo de Guerra de 25 de octubre de 1645
> Valparaíso, Cárdenas, Isasi
>
> Señor
>
> Don Gerónimo de Eguia, sobrino y heredero de los servicios del Maestro de Campo Domingo de Eguía, caballero de la Orden de Santiago, ha dado un memorial en el Consejo refiriendo que el dicho Domingo de Eguía, su tío, sirvió a V. Magd. cuarenta años continuos en las Galeras, Armada del Océano, en España, Lombardía. Alemania y Flandes, de soldado, sargento y alférez, y con dos compañías de infantería.
>
> Habiéndose hallado en las jornadas de Alarache, en cegar la barra de la Mamora; y en la toma de dos navíos de turcos sobre Vélez Málaga, donde fue volado por el enemigo; en la espulsión de los moriscos de Valencia; y en la [jornada] que hizo a Levante el príncipe Filiberto.
>
> Y en Lombardía en la toma de Onella, Doni y Mombaldon, interpresa de Tiran y defensa de la Roca del Tavardon, donde fue nombrado para reconocer puestos; // en el sitio de Aste y facciones de las Colinas; y en la toma del Castillo de Question hiço prisionero a una centinela perdida

del enemigo, y acometió a sus fortificaciones y mató a una persona particular que tenía a su cargo las trincheas; y en el rencuentro de las Melgas, y toma de San Germán, San Tian, Gatinara, Chavena, y en la Baltolina fue nombrado en Crabecor para reconocer lo que hazían los rebeldes, donde estuvo preso y para ahorcar.

Y también se halló en la rota de la Abadía de Luzedio, en tiempo de Don Pedro de Toledo, Marqués de Villafranca; socorro de Pestaño, restauración de los puestos del Boquete, defensa de la Baldeseçia, y sitio de Verçeli. Y en la rota que se dio a los grisones en el Tiran fue uno de los diez soldados que acometieron al enemigo. Y sirvió en el primero y segundo sitio del Casal.

Y estando después en el gobierno del Castillo de Pisijiton [?], hizo dejación dél por seguir al Serenísimo Infante en su pasaje a Flandes. Y habiéndole inviado a Alemania con despachos para el Duque de Feria, fue con mucho riesgo a reconocer las fortificaciones que el Francés tenía hechas en el País de Grisones. Y después con su compañía el día de la feliz batalla de Norlinguen se señaló con una manga de mosqueteros en la colina en que estuvo el tercio de Don Martín de Idiáquez, y habiéndole acometido tres veces el enemigo, le rechazó, y defendió el puesto hasta que le llegó orden para retirarse, por lo cual el Serenísimo Infante le señaló tres escudos de ventaja sobre cualquier sueldo.

Y llegado a Flandes se hallo en el Socorro de Lobania y en echar al enemigo de Bravante, sitios de Diste y Ostrial, y en socorrer y amunicionar el Esquenquen, y fortificar a Jenepe.

Y haviendo venido con licencia a España, fue V. Magd. servido mandarle pasar a Portugal por las noticias que se tenían de la Armada franzesa.

Y de allí, a la tenencia del Castillo de la Mota de San Sebastián; y por ausencia del Maestro de Campo Don Gaspar de Caravajal, fue Capitán y Alcaide en la villa de Fuenterrabía, con patente de V. Magd., donde asistió hasta el año de 38, que con un exército de franzeses vino el Principe de Condé a sitiarla, y la defendió setenta días con el valor que es notorio, dando tiempo a que el exército de V. Magd., gobernado del Almirante de Castilla, se juntase y viniese a socorrerle; y alcanzaron las Armas de V. Magd. la Victoria que el mundo vio.

Y de allí, con un tercio que V. Magd. le hizo merced, fue al sitio de Salsas, y después de rendida aquella plaza entró en ella y la gobernó hasta que por orden de V. Magd. pasó a Fraga, y allí fue reformado y assistió despues en Zaragoza hasta la venida de V. Magd. a Madrid, donde en octubre de 643 pasó a mejor vida, sin haber recibido otra merced que la de la encomienda de Fradel en el reino de Valencia, de 250 escudos de

> renta; dejando por heredero de sus servicios [al suplicante], por no tener hijos, y suplicando a V. Magd. en su testamento, debajo de cuya disposición murió, fuese servido de remunerarlos, pues no tenía otra cosa que dejarle. Y suplica a V. Magd. le haga merced de un hábito de las tres órdenes militares.
>
> Habiéndolo visto el Consejo, parece será muy propio de la grandeza de V. Magd. hazer merced al suplicante del hábito que pide, en remuneración de los muchos y particulares servicios del Maestro de Campo Domingo de Eguía, que defendió a Fuenterrabía con el valor que es notorio, cuyo sobrino y heredero es.
>
> [En] Ma[dri]d, en 29 de octubre de 1645. [4]

Si vale la opinion de quien ha tenido que leerse algún que otro millar de relaciones de servicios de soldados del siglo XVII español, la carrera militar de Eguía es en verdad insólitamente dilatada (aunque la cifra de "cuarenta" años de servicios sea algo exagerada), y excepcional.

Sus primeras armas las hizo en una de las primeras campañas de Larache, probablemente en la más exitosa de 1610. El intento de cegar la barra de la Maamora (actual Mehdia, en Marruecos) tuvo lugar en 1611. Muy poco posteriores, son el combate naval en la costa de Vélez Málaga (agosto de 1611), donde en efecto los turcos volaron un navío, "y se volaron a ellos y a muchos soldados cristianos que habían saltado dentro", entre ellos Eguía, y la participación de Eguía en la expulsion de los moriscos del reino de Valencia (1609-1610, con derivaciones que duraron hasta 1614). La jornada a Levante (es decir el Mediterráneo oriental) de Filiberto de Saboya, virrey de Sicilia, parece estar descolocada cronológicamente pues sólo puede aludir a la expedición de fines de 1621 a la costa de Grecia y varias islas del Egeo en poder de los turcos, muy posterior a las campañas italianas que se mencionan a continuación. La razón de anticiparla es, según cabe suponerlo, que se han agrupado todos los servicios navales.

Las operaciones militares en Lombardía, Monferrato y Suiza, que Eguía enumera con detalle, corresponden en primer lugar a la Guerra por la sucesión de Mantua que enfrentó a España y Saboya, iniciada en 1614. De ese año es la toma de Oneglia, y desde 1614 a 1617 se extendió la guerra en Piamonte y Lombardia, con la toma de Vercelli como hecho más destacado. En escenario próximo tuvieron lugar la campaña de Don Pedro de Toledo en la Valtelina y el país de Grisones; unas posteriores hostilidades en Génova y Milán (1622-1624); y la reanudación de la Guerra de Mantua y Monferrato, con los asedios de Casale de Monferrato (el segundo de ellos en 1629).

---

[4] Minuta de consulta del Consejo de Guerra (6 folios en papel maltratado por la humedad, pero legibles), conservada en el Archivo General de Simancas, sección "Guerra Antigua", legajo correspondiente a 1645.

Tras unos pocos años de sosiego como gobernador de un castillo en el Norte de Italia, Eguía inicia en 1632 sus andanzas en Alemania y Flandes, ya en plena Guerra de los Treinta años. El Duque de Feria, tuvo a su cargo una expedición a Alsacia con el objetivo de allanar el camino al pasaje del ejército del Cardenal Infante, Don Fernando de Austria, hermano del rey y nuevo Gobernador de Flandes. Feria se sirvió de Eguía para labores de espionaje en los cantones suizos protestantes, y hostiles, en 1633; ya muchos años antes había desempeñado en la Valtelina funciones similares de "reconocimiento" de las fuerzas del enemigo, y ello pudo costarle muy caro pues, como dice, "estuvo preso y para ahorcar".

Incorporado ya al ejército del Infante, Eguía participa y se distingue en la gran victoria contra los suecos y protestantes alemanes en Nördlingen (6-IX-1634), constando que sirvió en el tercio de su paisano Don Martín de Idiáquez, al que todos los cronistas coinciden en señalar como responsable en buena parte de la victoria. El año siguiente, ya en Flandes, Eguía participa en los episodios más destacados de la campaña tras la invasión conjunta de holandeses y franceses: Socorro de Lovaina (junio de 1635); asedio de Diest (julio); ataque a Stralen (agosto); y las fortificaciones de Gennep y, en la frontera con Holanda, de Schenken (septiembre-octubre).

De regreso a España, y tras una breve misión en Portugal, Eguía se incorpora como gobernador o "castellano" en San Sebastián y Fuenterrabía, aquí como interino, donde le sorprende el ataque de Condé en junio de 1638. El resto de la vida militar de Eguía se consume en la campaña de Cataluña, con papel destacado en la toma de Salses (enero 1640); es nombrado gobernador de Fraga (marzo 1642), y acompaña al rey a Zaragoza y Madrid, donde muere en octubre de 1643.

Domingo de Eguía tuvo la extraña fortuna, buena o mala, de encontrarse en el ojo del huracán de los sucesos bélicos más notables y con mayor trascendencia histórica de los reinados de Felipe III y Felipe IV (Larache y La Maamora, Casale de Monferrato, Vercelli, Nördlingen, Flandes en el año de la invasion franco-holandesa, Salses…), pero no hay duda de que su momento de gloria le llegó el siete de septiembre de 1638, en el puesto más cercano a su lugar natal de todos los que desempeñó en su larga carrera.

En 1645, el Consejo de Guerra de una monarquía en horas bajas en todos los frentes, recordaba, es de suponer que nostálgicamente, "la victoria que el mundo vio" en Fuenterrabía. Declaraba que Eguía defendió la villa "con el valor que es notorio", y accedía a ennoblecer a su heredero con un hábito de caballero en

[5] El hecho de que dos de los consejeros hubieran conocido muy probablemente a Domingo de Eguía (el Marqués de Valparaíso fue virrey en Navarra, antes y después del asedio; y Martín de Isasi era paisano del maestre de campo) facilitaron, sin duda, el acuerdo favorable del Consejo de Guerra.

atención a los "muchos y particulares servicios" desempeñados por el maestre de campo Domingo de Eguía[5]. Sabemos, por lo demás, que las recompensas que éste obtuvo en vida no fueron grandes, y que no tenía más herencia que dejar a su heredero que los méritos de sus servicios como soldado viejo[6].

REFERENCIAS

Arejita, Adolfo, "*Cancion vizcayna*. Domingo Egikori gorazarre kantua (XVII mendeko poema)", *Euskeraren Iker Atalak*, 2 (1983), 139-181.

—, "Domingo Heguiari Kantua. Textoa eta lexikoa". *Litterae Vasconicae. Euskeraren Iker Atalak*, 4 (1988), 9-51.

Cartas de algunos PP. de la Compañía de Jesús sobre los sucesos de la Monarquía, ed. P. de Gayangos. *Memorial histórico español*, vols. XIII-XIX (Madrid: Imprenta Nacioal, 1861-1865) [*Cartas de Jesuitas*].

Cid, Jesús Antonio, "«Centauro a lo pícaro» y voz de su amo: Interpretaciones y textos nuevos sobre *La vida y hechos de Estebanillo González*. I: La *Sátira contra los monsiures de Francia* y otros poemas de 1636-1638". *Criticón*, 47 (1989), 29-76.

—, "El *Cantar de Mosiur Chanfarron*; circunstancia y sentido (Comentarios a una página de Garibay)". *ASJU*, 28.1 (1994), 179-197; "El *Cantar de Mosiur Chanfarron*. De Garibay a Iztueta (con don Julio de fondo)". *Homenaje a Julio Caro Baroja; Cuadernos Hispanoamericanos*, núms. 533-534 (noviembre-diciembre 1994), 143-161 (Versión reducida).

Díaz Noci, Javier, "Las relaciones sobre el sitio de Fuenterrabía (1638-1639): La construcción de un acontecimiento en la España de los Austrias", *Euskonews&Media,* 149 (2002), [1-11].

—, "Del suceso a la fiesta: La construcción del acontecimiento en el Siglo de Oro español a través de las relaciones sobre el sitio de Fuenterrabía (1638)", *Actas del Tercer Coloquio internacional sobre Relaciones de Sucesos*. Cagliari, sept. 2001 (Alcalá de Henares. Univ., 2003), 128-148.

Lakarra, Joseba A., ed., "Bertso Bizkaitarrak (1688)", *ASJU*, 18.2 (1984), 89-184.m

Moret, Joseph, *De obsidione Fontirabiae Libri Tres* ([Valladolid]: Ioan. Couronneau, 1655).

---

[6] Gerónimo de Eguía había presentado otro memorial el 25-I-1645, en el que nuevamente esgrimía su calidad de "sobrino y heredero de los servicios del Maestro de Campo Domingo de Eguía, que defendió a Fuenterrabía", y solicitaba esta vez que una merced de "cuatro reales al día", concedida por el rey "a Doña Juana Costança, Teresa Plaçida y María Francisca de Eguia, sus hermanas, y sobrinas del dicho Maestro de Campo", se consignara con cargo a las rentas de Castelamar de Palermo, para que pudieran "con efecto" cobrarla. El Consejo aprobó también esta petición.

—, *Empeños del valor y bizarros desempeños, o Sitio de Fuente-Rabia que escribio en latín…*, trad. Manuel Silvestre de Arlegui (Pamplona: J. Miguel Ezquerro, 1763).

Relación verdadera del suceso que tuvo Don Pedro de Toledo, Marqués de Villafranca, junto a la ciudad de Málaga, con dos navíos de Turcos y Olandeses piratas, y como los rindió… [15 de agosto de 1611] (Granada 1611); reed. J. Palanco Romero, *Relaciones del siglo XVII* (Granada: Univ., 1926), 3-7.

Urgell, Blanka, "Egiaren kantaz: I. Testua eta iruzkinak", *ASJU*, XX-1 (1986), 75-148.

FRANTZIAKO IRAULTZA ETA KONBENTZIOKO GERRA BERTSOETAN: TESTUAK, GAIAK, TESTUINGURU HISTORIKOA

Xabier Altzibar Aretxabaleta
Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo

LABURPENA

Frantziako Iraultza eta Konbentzioko Gerra bertsoetan: testuak, gaiak, testuinguru historikoa
Artikulu honen helburu nagusia da Frantziako Iraultza (1789) eta Konbentzioko gerrari (1893-1895) buruzko euskal testu literarioak, kantuak eta bertsoak batez ere, gaika sailkatzea eta haien berri laburki ematea: estrofa-kopurua, edukia, noizkoa, nork egina, gertaeren datak, eta testua denboraz eta lekuz kokatzeko lagungarri diren beste xehetasun batzuk. Hemen sailkatuko ditugun testuak ahozko nahiz idatzizko literaturaren esparrukoak dira, eta batzuetan balio historiko handiagoa dute literarioa baino.
Hitz gakoak: Frantziako Iraultza, Konbentzioko gerra, bertso, Napoleon, soldadu.

RESUMEN

La Revolución Francesa y la Guerra de la Convención en los versos: textos, temática, contexto histórico
Este artículo estudia los textos literarios –versos y cantos– conservados referentes a la Revolución Francesa (1789) y a la Guerra de la Convención (1893-1895). El autor, además de clasificar temáticamente los textos, analiza en ellos una serie de aspectos: número de estrofas, contenido, fechas tanto del texto como de los sucesos que en él se cuentan, autor, así como otra serie de detalles que nos permitan localizar el texto en el tiempo y el espacio. Los textos aquí estudiados proceden de la literatura tanto oral como escrita, y en algunos casos puede decirse que su valor es más histórico que literario.
Palabras clave: Revolución Francesa, Guerra de la Convención, verso, Napoleón, soldado.

RÉSUMÉ

La Révolution Française et les guerres de la Convention dans les vers: textes, thématique, contexte historique
Cet article se penche sur les textes littéraires –vers et chants– qui ont été conservés sur la Révolution Française (1789) et les guerres de la Convention (1793-1795). L'auteur, après avoir classé les textes par thèmes, y analyse une série d'aspects - nombre de strophes, contenu, dates, tant du texte que des évènements racontés, et auteur-, ainsi que d'autres détails qui nous permettent de situer le texte dans le temps et dans l'espace. Les textes ici étudiés proviennent de la littérature, aussi bien orale qu'écrite et, dans certains cas, leur valeur est clairement plus historique que littéraire.
Mots-clés: Révolution Française, Guerres de la Convention, vers, Napoléon, soldat.

SUMMARY

The French Revolution and the War of the Convention in verse: texts, themes and historical context
This article examines the surviving literary texts, largely verse and song, on the French Revolution (1789) and the War of the Convention (often known in English as the War of the Pyrenees), which lasted from 1793 to 1795. Besides classifying the texts by themes, the author analyzes a series of features of the works, including the number of strophes, content, dates of the text and of the events recounted in them, authors and other details that enable us to locate the text in time and space. The texts studied here come from oral and written literature, and in some cases may be described as more valuable for their historical detail than their literary merit.
Key words: French Revolution, War of the Convention, verse, Napoleon, soldier.

Artikulua jaso / Fecha de recepción: 2011.02.02.
Artikulua onartu / Fecha de aceptación: 2011.04.14.

Bertsoak, argitaratzaileak eta testuinguru historikoa

Frantziako Iraultzak (1789), Konbentzioko gerrak (1893-1895), Napoleon Bonapartek (1769-1821) eta frantsesteak (1808-1914) arrastoa utzi dute euskal literaturan, bai garai hartan eta bai geroago ere, XIX. mende osoan. Kantuak edo bertsoak dira aipatu gertaeren lekuko hoberenak; tamalez, bertso asko galduko ziren garai odoltsu eta nahigabez beteriko haietan, ez baitzuten inprimatuak izateko aukerarik. XIX. mendean ere Iraultzaren eta Napoleonen garaiaren oroimenak bizi-bizirik iraunen du poema, pastoral eta istorioetan. Emaitza horiek zehatz bildu eta aztertuz gero, haien balioaz jabetzeko moduan izango ginateke.

Artikulu honen helburu nagusia da Iraultza eta Konbentzioko gerrari buruzko euskal testu literarioak –heldu zaizkigunak– gaika sailkatzea eta haien berri laburki ematea: estrofa-kopurua, edukia, noizkoa, nork egina, gertaeren datak, eta testua denboraz eta lekuz kokatzeko lagungarri diren beste xehetasun batzuk. Ez dugu testu-kritikarik ez edizioen kritikarik egiteko asmorik, ezta azterketa literariorik ere. Hemen sailkatuko ditugun testuak ahozko nahiz idatzizko literaturaren esparrukoak dira, eta batzuetan balio historiko handiagoa dute literarioa baino. Guztiak dira baliotsuak historiaren lekuko direlako, baita ikuspegi desberdinak erakusten dizkigutelako ere.

Garai historikoa eta gaiak aintzat hartuta, ondoko multzoak bereiz daitezke: 1. Frantziako iraultza eta Konbentzioko gerra hizpide dutenak. 2. Napoleoni eta frantsesteari buruzkoak (1808-1914). 3. XIX. mendekoak eta Iparraldekoak, Iraultzari nahiz Napoleonen irudiari buruzkoak. Hemen lehen multzoari buruz jardungo dugu. Bigarrenari buruzko artikulu bat argitaratua dugu (Altzibar 2009) eta hurrengo batean hirugarrenari buruz jardun nahi genuke.

Bazterrean utziko dugu teatroa. P. Urkizuk aldi hartan antzeztutako pastoralen antzezpenen berri eman eta *Seme Prodigoa*ren 1796ko kopian ageri diren Iraultzaren eraginaren arrasto batzuk erakutsi dizkigu, baita jakinarazi aktoresak ere izan zirela lehen aldiz (1991:221-237). Pastoralen testuak xehekiago aztertzea komeniko litzateke, Iraultzaren edo Napoleonen eragina aztertzeko. Badakigu ere asto-

lasterrak antolatu zizkietela apaiz zin-egileei Barkoxe eta Eskiulan (Goihenetxe 1985: 95). Bazter utziko ditugu Iraultza garaiko itzulpenak ere, gehienak manu ofizialenak eta beraz Iraultzaren aldekoak (Vinson 1874, 1875; 1891, 133-146, 179-180; M. Rica 1975:3-172; P. Salaburu 1982:209-230; L. Zugaza 2006). Itzulpen horiek baliagarriak dira bertsoetako gertaera eta gai batzuk kokatzeko (adib., elizgizonen konstituzio zibila).

Iraultza garaiko bertso inprimaturik badenez ez dakigu, ez baitugu ezagutzen, baina hainbat kantu kaierren bidez iraun eta transmititu dira. Batez ere XIX. mendearen erditsutik aitzina hasi ziren euskalzaleak bertso zahar haiek biltzen eta argitaratzen. Biltzaile edota argitaratzaileen artean honako hauek aipatu behar dira, gutxienez: J. A. Mogel (eskuizk., 1802 ing.; 1881), Xaho eta bere *Ariel* kazeta (Urkizu 2006), Fr. Michel (1857), Vinson (1875), J. Duvoisin, J. Haristoi (1894, 1895), R. M. Azkue (1924; eskuizkribuak), P. Lafitte (1931; 1972; Lafitte Artxiboa. 401), A. Irigarai, J. Riezu (1973), Orpustan (1991). Pariseko BnF-n eta Baionako Euskal Erakustokian badira eskuizkribuak (Haritschelhar 1988). Bertso gehienen bilduma on bat da Aita Antonio Zabalarena, zehaztasun eta azalpen ugarirekin hornitua, nahiz ez beti grafia eta hitzen forma errespetatuz (1989).

Iraultza baino lehenagoko bertsoak berez ez dira hemen aipatzekoak, nahiz Zabalak Iraultza eta Konbentziokoekin batera ematen dituen. Adibidez, "D'Estaing jaun kontearen laudorioak" (*Herria* 1975; Urkizu 1987:61-64, 144-147; Zabala 1989:121-125). D'Estaing itsas-armadako buruzagia zen, kolonietan ingelesen kontra jarduna. Bertso horiek 1779an eginak dira, Luis XVI.aren garaian, konteak Afrika mendebaleko kostaldean Byron almirantea garaitu eta horren karietara Baionan Te Deum kantatu zutelarik (Urkizu 1987:63). Kantu hori itsasaldeko herrietan kantatua omen zen, Baionatik Behobia eta Bidasoaraino (Zabala 1989:123). Xaho eta F. Michelen arabera, J. Larregi Basusarriko erretorearena da. Egileak ez zuen susmatuko d'Estaing, aristokrata izanagatik, Iraultzaren alde jarriko zenik; are gutxiago 1794an heriotz-zigorra eman eta burua pikatuko ziotenik. Hori 1794an gertatu zen, beraz urte batzuk aitzinagokoa da.

Gertaerak eta bertsoak kokatzeko aintzat hartu behar ditugu iraultzaren ondoko gobernu-aldikadak: Nazio-Biltzar Konstituziogilea (1789-1791), Biltzar Legegilea (1791-1792) Konbentzioa (1792-1795) bere aldiekin (Terrore aldia; Thermidor, 1794/07/27an hasita), Gidako Kontseilua edo Direktorioa (1795-1799), Kontsulgoa (Brumarioaren 18ko edo 1799/11/09ko estatu-kolpearen ondotik Napoleon Lehen Kontsul izan zen aldia: 1799-1804) eta Napoleon I.aren enperadorego edo Inperio aldia (1804-1814). Bertsoen testuingurua ulertzeko komeni da ere gertaera batzuk gogoan hartzea: elizgizonen konstituzio zibila edo zin-egitea (1790), soldadu joanarazteko agindua (1793), Napoleonen Konkordatoa Eliza Katolikoarekin (1801/07/15).

Pasarte edo testu-zati bat aipatzen dugunean, erromatar zenbakien bidez adieraziko dugu zenbatgarren estrofari dagokion kantu edo bertso-sail baten barruan.

1. Iraultzaren (1789) kontrako bertsoak

1.1. Heldu zaizkigun guztiak anonimoak izan arren, bada egile eta poeta ezagun eta aipatu bat: S. Monho (Isturitze 1749-Bardotze 1821). Monhok ez du bere izena agertzen bertsoetan. Haristoik Monhoren datu biografiko batzuk eman zituen eta haren poema batzuk aipatu (Haristoi 1895, I, II). 1930ean P. Lafitteri kaier bat eman zioten Monhoren kantu eta kantiken kopia bat zeukana, eta haren ikerlanari esker (Lafitte 1972) badakigu Monho Donibane Lohitzunen ikasia zela, ama ere, berriz ezkondua, han bizia baitzen; 1777an apaiztu eta gero Azkainen eta ondotik Uztaritzen bikario egon zela 1778tik 1780ra, berriz Azkainen erretore 1786an eta ondoren Bardotzen bikario 1790etik 1791ra. Badakigu ere 1792ko hasieran Monho oraino Bardotzen zegoela, elizkizunak legez kanpo egiteagatik akusatuta. Lafittek dio ez dakiela noiz erbesteratu ez non egon zen, ez zenbat denbora (Lafitte 1972:13). Dena dela, 1803an berriz Ainhoan dago apaiz, baina urte horretan bertan haren lekua beste apaiz batek hartzen du, eta berriz hiru urtez haren arrastoa galtzen. 1806tik 1819ra Irisarriko erretore izanen da; han zelarik, 1813an Mina gerrilari nafarra mendeku bila zebilela, haren aitzinean belaunikatu eta herritarrik gehiago ez zigortzea erdietsi zuen, baita harekin bazkaldu ere.

Orpustanek Monhoren kantuak kronologiaren arabera sailkatu eta azterketa literarioa egin du (Orpustan 1991:239-255; 1996:113-122). Berriki Haranburu-Altunak Monhoren kantu eta kantika zenbait argitaratu ditu (Haranburu-Altuna 2008). Guk, kantikak alde batera utzita, kantu profano ezagunak, dozena erditik gora, gaien arabera multzokatuko ditugu, gaia, edukia eta noizkoak diren laburki azalduz. Jakina denez, satiriko politikoak dira Monhoren kantu profano ezagunenak.

1) Garat bi anaien eta besteren laudorio edo gaitzespenezkoak: 1789ko "Garat gaztenaren eta Ithurbiderentzat" ondu zortzi bertsoetan (Lafitte 1972: 56-58) Joseph Garat eta Ithurbideren laudorio eta propaganda egin zuen Monhok, Estatu Jeneraletan diputatu izan zitezen. Hamabi bertsoko "Ihardestea"n, ordea, autokritika egiten du, Dithurbide gaitzetsiz eta Garat zaharra (Dominique) eta bere anaia gaztea goretsiz (Orpustan 1991:243-244). Baina berriro damutu zitzaion egileari Garat gaztea goretsi izana, zeren 1793ko bertso bakarrean munstro deitzen baitu: "Garatek Erregeri hiltzeko arrasta irakurtu ondoan" (Lafitte 1972:60-61). Garat gaztea Dantonen agintaritzapean Justiziako ministro izan zen, 1793/02/17an erregeari Asanblearen erabakia jakinarazi ziona; berak ere dimisioa eman zuen biharamunean. Monho Garaten zale, erreformista eta aldi berean erregetiar, eta hiru-

garren estatuaren aldekoa agertzen da hemen (Orpustan 1991:244-245). Halaber 1789 edo 1790ko "Azkaingo menetei" izeneko poema aski luze hamar estrofakoan (Lafitte 1972:52-54), bere etsai gezurtien kontrako ziriak eta autobiografia ezpalak dauzkana.

2) Mentaberri eta hura bezalakoen aurkako kantuak edo dotrina berriaren eta haren defendatzaileen kontrakoak. 1790/07/12an gobernuak, erregearen sinaduraz, elizgizonen konstituzio zibila ezarri zuen; Aita Santu Pio VI.ak kondenatu egin zuen konstituzio zibila eta elizgizon zin egileen jokaera. 1791ko otsailean juramentu egin behar zuten baina Delissalde erretoreak eta Monhok ez egin, eta Sanadon Baionako apezpiku konstituzionalak, haien ordez, Mentaberri Bardotzeko erretore eta Etxezahar bikario izendatu zituen; Delissaldek eta Monhok erbesterako bidea hartu beharko zuten. Hauek dira kantuak: "Erromako gortetik", lau estrofakoa; "Mentaberriren posesionetan sartzearen okasionean", zazpi estrofakoa; "Bardotzen glub", bi estrofakoa, eta "Eskandala", hogeita hamahiru estrofakoa (ik. kantuok Lafitte ibid. 26-33, 37-44). "Bardotzen glub" parodia komikoa da, hitzen errepikapenak lagundua, non egileak Iraultzaren eta geroago Inperioaren irudi bat erakusten baitu, parada militarrarena (Orpustan 1991:246).
"Eskandala" da Monhoren bortitzena eta luzeena. Egileak tonu zorrotza erabiliz, Iraultzak Eliza katolikoan nahi duen kanbiamendua gaitzesten du. Monhok bere jarrera politikoa aldatu duela nabari da.
"Erromako gortetik" kantuak Aita Santuaren gutunak (1791ko martxo-apirilekoak) eta zin-egileentzat eskomikua aipatzen ditu. Monhok Mentaberriren ezjakintasuna maiseatzen du eta Luther-en dotrina segitzen duela egozten dio, baina "Ez du nazioneak, / Ez du gure printzeak / Hori pretenitu" (XIII). Hau da, Monho monarkia konstituzionalaren aldekoa da oraindik (Orpustan 1991: 248).

3) Robespierre eta Pinet-en kontrakoak. "Orroitzapenak" hamahiru estrofakoa da eta bi parte ditu (Lafitte ibid. 64-67): lehenbizikoan (I-VII) Robespierre, Jourdan eta bereziki Pinet "munstro" eta "tirano"ek eginiko gilotinatzeak, presondegiratze masiboak, gazteluen erretze eta haietako aristokraten eta jendeen hiltzeak ditu hizpide. Deitoratzen du Robespierrek lagunak zituela Donibane Lohitzunen, "herritarrak, eskaldunak" (VII). Lafittek ohartarazi zuenez, -ll- bustia ironiaz erabiliz imitatzen du Monhok donibandar haien hizkera: "Pineten esku-makillak, / arrogatzaile abillak, / orai aski haur umillak / (…)", VII (Lafitte 1972:66). Mendekuaren gaia agerrarazten du Monhok. Alde batetik, bortxaren erabilera kondenatzen du –"ezpataz jotzen duena / ezpataz perituko dela" erran komuna Robespierren beraren gilotinatzearekin frogatua gelditzen da–, baina ia penaz da Robespierre-kin batera beste asko gilotinatuak ez izanagatik: "Ez ziteken

hanbat damu, / lagun hainitz izan balu, / akaba zadin gerla." (VIII). Bestetik, mendekuari zilegitasuna kentzen dio: "Damurik ez da zilegi, /…/ berek egin daukutena / bihurtuz bakotxari" (XI).

Bigarren partean bertsogilea denborak aldatu direla-eta pozten da, Ekialdetik etorritako buruzagiak edo Konsulak –Napoleonek- terrorista traidoreak zelatatzen dituelako (X), eta arrotz erresumekin bakea egiteko esperantza adierazten du, ondotik barneko etsaiei ekiteko, baina mendekurik bilatu gabe (XI): "Ordu da egin dezon leku / tristeziak gozoari" (XII). Azken bertsoan lapurtarrei zuzentzen zaie esanez, terroristei boterea kendu zaiela norbaitek indar egin duelako; beste era batera esanda, Napoleoni esker (XIII).

Kantu hau 1800 bukaerakoa edo 1801 hasierakoa da, zeren, alde batetik Napoleonen kontrako bonba-atentatua aipatzen baita, 1800/12/24an gertatua: "terroristei bere parte / kario gostako zaizte / maxina infernalak" (X) (Monhok jakobinoei egozten die atentatua baina ez ziren haiek izan, erregetiarrak baizik); eta bestetik, kanpoko etsaiekin bakea erdiesteko gogoa ageri da: "Bakea laster ein baladi / kanpoan tugun etsaiekin, / barneko etsaien temari / baginakike zer egin." (XI). Hala gertatu zen: 1801/02/09an Lunévilleko bakea sinatu zuen Napoleonek erresuma elkartuekin. Eta poeman Konkordatorik aipatzen ez denez (1801/07/15), 1800 bukaerakoa edo 1801 urtarrilekoa edo otsail hasierakoa izan behar du, eta ez 1803ko hasierakoa, Orpustanek dioen bezala (1991:250). Aipagarriak dira hitanoaren erabilera -Robespierre Pineti mintzatzean- eta esajerazioa, satira egiteko asmoaren adierazle (Orpustan 1991:251). Estrofa-moldeak, hiru errimaren gurutzatzearekin (9A/8B/9A/8B/8A/8C/8C/8C/8A), poesia landuen itxura ematen die neurtitz hauei, errima bakarreko herri bertsoetatik bereizten baititu.

Monhoren beste kantu batzuek apaiz eta nobleen kontrako jazarpenak –iraultzaileek eginak– dituzte aipagai, adib. "Distrikerat", zazpi ahapaldikoa, edo "Madama Beltzunzeri", bost ahapaldikoa (Lafitte ibid. 34-35, 46-47). Azken hau "mundutarragoa" da, hori baita Monhoren beste ezaugarri bat, zenbait poematan ageri dena (Orpustan 1991:252-254). Kantu horrek Hernanin iheslekua aurkitu zuen damarengatiko bihozmina adierazten du.

1.2. Monhoren gai berak darabiltzaten beste kantu batzuk ere badira, egile ezezagunenak. Hau da, Robespierre, Pinet eta terroristen kontrakoak, ikara handi edo terrore aldiko gertaerak aipagai dituztenak (1793-1794), baita apaiz zin-egileen aurkakoak.

1.2.1. Apaiz zin-egileen kontrakoak dira "Aphez juratuak" (Vinson 1875), hemezortzi ahapaldikoa, eta "Artzain ardi-jalea dantzari", lau ahapaldikoa (Duvoisinen bertso-bilduma, ik. Haritschelhar 1988; Haristoi, 1894, 1895). Lehenak

hainbat apaiz zin-egile salatzen ditu bere izenez eta karguz. Kantu horren zazpi estrofa, aldaera desberdinekin, gordetzen dira Lafitteren Artxiboan (303-022). Bigarrenari bertso-lerro bat falta zaio Zabalaren edizioan (1989), bi Haristoiren edizioan (1894).

Sail horretan koka daiteke "Nazioneko besta" ere, hamahiru estrofakoa (Xaho, *Ariel* 1845/02/09; F. Michel 1857). Kantu honek Senpereko erretore S. Marithurri *Trunkoa* delakoa eta emakume iraultzazaleak irrigarri jartzen ditu. J. Haritschelharrek kantuaren balio literarioak azpimarratu ditu (1991:211-219). 1791koa da eta egilea ez dakigu nor den; Lafittek jasotzen duen ohar baten arabera, Monho izan daiteke (1972:19); J. Robin apaiz donibandarrari egozten dio P. Urkizuk (1991:246-248). Jakina denez, konstituzio zibilari zin egin ez zioten apaiz asko erbestera joan ziren horrexegatik.

1.2.2. Robespierre eta Pineten kontrakoetan aipagarri da "Nahasmenduaren ondoan", hamabi estrofakoa (Lafitte 1931:131-132; Zabala 1989: 111-114). Bertsogileak terrore denboretako errugabeen odol isurtzeak, presondegiratzeak eta jazarkundea oroitarazten ditu, tristeziaz, bereziki Robespierre eta Pineten kontra joz. Honek "Baiona eta Lapurdi ditu ruinatu" (X).

Jacques Pinet konbentzionala (1754-1844) fama hitsekoa izan da Euskal Herrian, beldurgarria eta gorrotatua. Bergerac-eko (Dordogne) auzapeza, protestantea, Monestier-ekin batera Pariseko gobernuak bidali zuen "herriaren errepresentant" gisa "misio(et)an" Pirineo Apaletako armadara, Espainiarekiko gerra garaian, botere bereziekin; Baionan tribunal bat ezarri zuen, besteak beste Madalen Larralde neskatxa gilotinara bidali zuena. Pinetek "fin gaizto egin du" esaten baita (X), hura kargutik kendu ondokoa da kantua. Badakigu, 1794ko irailean Donostiatik karguari uztea eskatu zuela eta azaroan Parisen zela; haren eta Cavaignac-en kontra salaketa jarri zuen Baionako sozietate batek, herri osoak hutsarazteagatik (Haristoi 1894:10-11).

"Nahasmenduaren ondoan" bertsoen egilea pozten da denborak aldatu direlako, Jainkoari esker, eta gaiztoak karguetatik kendu dituztelako (IX); bai eta beste munduan (infernuan) Galtzagorrik dantzan eginaraziko dielako Robespierre eta Pineti (X). Kantu honen eta S. Monhoren "Orroitzapenak"en arteko loturak nabarmenak dira: terrore denborako oroitzapen tristeak, hiru buruzagi nagusien aipamena, haien gaiztakerien eta izualdiaren deskripzioa, Pineten ohointzak, Robespierren lagunak Euskal Herrian, denboren aldaketa, gaiztoen kargugabetzea… Horregatik uste dugu Monhorena izan daitekeela. Aipatu lotura horiek eta beste batzuk ere agertzen dira ondoren argitaratzen dugun kantuan.

1.2.2.1. Lafittek bildua da Robespierre-n kontrako kantu bat: "Roarrespiarresen cantac", bost ahapaldikoa (Laffite Artxiboa, Bertso Bilduma 401-005-67, Euskaltzaindian ikusgai). Ez dakigu Lafittek edo bestek nonbait argitaratu ote zuten.



67

Roarrespiarresen Cantac.

Espainian zortzi urthe pasatu onduan,
Franciarat jen nintzen aurthen abenduan:
Lehen deus ez zirenac orai Carguac handi,
Urgulu frango eta jakitate gutti.

Roarrespiarresen adarrac zoin ziren?
Charles Cascoma eta Benat Bidart ziren.
Onen preso emaiten, gaiz tuen sustengatzen,
Erraiten zutelarie, Guira libertitzen.

Ni ezarri nauena orai planta huntan,
Pasaturic balago ezpataren puntan!
Aiset equiten duke irre mundu huntan,
Zerbitzatzen duyela ifernuco Satan.

Satan beguiac gorri, arrapatzaillea!
Munduan due orai hire zerbitzatzaillea.
Equin dezanian guero munduco aldia,
Gainian pausaturen dioc aztapar handia!!!

Roarrespiarresen eta Pinet daco,
Satha eder bat bada bertze mundutaco;
Lehhua frango bada Contradantzatzeco,
Galtza gorri-ee handa soinuya joiteco. — Fini. Fini. Fini. —

Robespierreren kantuaren eskuidatzia.

Roarrespiarresen cantac

I. Espainian zortzi urthe pasatu onduan
Franciarat yen nintzen aurthen abenduan
Lehen deus ez zirenac orai carguac handi
Urgulu frango eta jakitate guti.

II. Roarrespiarresen adarrac zein ziren?
Charles Cascoina eta Beñat Bidart ziren:
Onen preso emaiten, gaiztuen sustengatzen,
Erraiten zutelaric: Guira libertitzen.

III. Ni ezarri nauena orai planta huntan,
Pasaturic balago ezpataren puntan
Aiset eguiten duke irri mundu huntan
Zerbitzatzen duyela ifernuco Satan.

IV. Satan beguiac gorri, arrapatzaillia!
Munduan duc orai hire zerbitzatzaillia.
Eguin dezanian guero munduco aldia,
Gainian pausaturen dioc aztapar handia!!!

V. Roarrespiarresen eta Pinet-daco
Salha eder bat bada bertze mundutaco;
Lekhua frango bada contradantzatzeco;
Galtza gorri-ere han da soinuya joiteco. (3)

Lehen bertsoko bigarren lerroko *yen* aditza *yin* izan daiteke edo *yun*, ez baita ongi ikusten. Hirugarren bertsolerroan *deusez* dio testuak. Azken bertsoko azken bertsolerroaren aitzinean behin eta ondotik hiru aldiz *Fini* hitza ageri da.

Bertso hauek autobiografikoak direteke: lehen estrofan egileak dio Espainian zortzi urte egin ondoan abenduan itzuli dela, baina egoera ez dela aldatu: "Lehen deus ez zirenac orai carguac handi / Urgulu frango eta jakitate guti". Beraz, bertsogilea ez da ados Lehen Kontsularen (Napoleon) edo administrazioaren jokabidearekin. Bigarren eta hirugarren estrofetan etsaiak –Robespierren esku-makilak– bere izenez salatzen ditu; baita haiek zer egiten zuten adierazten: onei jazar, gaiztoak sustengatu eta jostatu (II). Bere jazarlea (aipatu horietatik bat? Pinet?), oraindik bizi dena, ezpataz hila izatea nahi lukeela dio, oraino irri egiten segitzen baitu (III). Ondoren, bertsogilea Satani zuzentzen zaio, munduko aldia eginda gero beregana dezan jazarle hura (IV). Azken estrofan, Satanek beste munduan Robespierre eta Pinet dantzaraziko dituela esanez kontsolatzen da (V).

Beraz bertsogileak, zortzi urte atzerrian eginda gero, bere "mendekua" adierazten du kantu labur honetan, sutsuki, ironiaz eta bere amorruari eutsiz. Gure ustez, egilea Monho bera izan daiteke. Hona hipotesi honen aldeko zantzu batzuk:

1) Kantu honek gorago aipatu dugun "Orroitzapenak"ekin (1.1.) lotura du eta batez ere "Nahasmenduaren ondoan"ekin (1.2.2). Azken honekiko kidetasunak ez dira gutxi:

a) Robespierre eta Pineten jokaera: "nola pesta egiten zuten inozent odolez", "gaiztoek brillatzen zuten ona preso emanik" ("Nahasm.", I, III); "onen preso emaiten, gaiztuen sustengatzen, / Erraiten zutelaric: guira libertitzen" ("Roarresp.", II).
b) Azken bertsoa berdina da bietan, aldaerak gorabehera, eta esaten du Robespierre eta Pinetentzat badela beste munduan sala eder bat prestatua kontradantzan ari daitezen, eta Galtzagorrik joko diela soinua. Azken irudi klixe honen aldaera bat agertzen da "Artzain ardi-jalea dantzari" kantuan (1.2.1.), izenburuan nahiz azken bertsolerroetan, alegia, Iharasarri eta bere kideak Galtxagorrirekin jauzian.
c) Estrofa moldea ere bera da bi kantuotan: zortziko txikia, bi errimaduna (7/6A 7/6A 7/6B 7/6B), garrantzi handirik gabeko salbuespen batekin (lehen estrofa monorrimoa du "Nahasmenduaren ondoan"ek).
d) Hizkuntzaz ere badituzte antzekotasunak: *duyela* ("Roarresp.", III), *zuien* 'zuen' ("Nahasm.", II). "Roaspiarresen…" honetan ere badirudi bertsogileak forma bustiak hautatzen dituela (*arrapatzallia!, zerbitzatzaillia*, vs kantiketako *aditzailen* etab., ik. "Predikua hasterakoan", Lafitte 1972:116), agian Donibane Lohitzuneko fonetikaren imitazio ironikoa egin nahiz, hango jakobinoez trufatzeko, Monhok "Orroitzapenak"en bezala (Monhoren Donibane Lohitzunekiko loturaz ik. 1.1.); *Roarrespiarres* izena bera ere trufazkoa dateke. Bestenaz badira zenbait forma ez ohikoak, hiztegietan ageri ez direnak: *aiset* 'aise', *adar* (*Roaspiarresen adarrak*) 'zerbitzari', 'beso (exekutatzaile)'.

Gorago aipatuak ditugu "Orroitzapenak" eta "Nahasmenduaren ondoan"en arteko kidetasunak (1.2.2). Hiru kantuetan kidetasunak ugariak dira: jazarkunde garaiko oroitzapenak, Robespierre eta Pinet borreroen aipamena, Robespierren lagunak Euskal Herrian, haien nagusitasuna eta gozatze sadikoa, etsaien kargugabetzea, denboren kanbiamendua etab. Motibo batzuk ere berberak dira Monhoren "Orroitzapenak" kantuan eta "Roarrespiarresen cantac"-en: adib. ezpataren aipamena –mendekuaren sinboloa–. Laburragoa da "Roarrespiarresen cantac" (5 estrofa honek; 12 eta 13 haiek). Gaia, edukia eta abarrengatik kantu hau beste bien osagarri dela esan daiteke. Kronologiaz, besteak baino zerbait geroxeagokoa dirudi. Agian egile berarenak dira hirurak.

2) "Roarrespiarresen cantac"-en bertsogileak esandakoak Monhoren biziko gertaerekin bat datozke. Napoleonen estatu kolpearen ondokoa da poema hori, Kontsulgo garaikoa (1799-1804). Egileak dio Espainian zortzi urte egin ondoren abenduan itzuli dela Frantziara. Beraz Konbentzioko beldur ikara aldian ihes egina zatekeen, hainbat mugaldeko herritar eta lapurtar bezala, baina thermidorta-

rrek apezei ez zieten itzultzen utzi, gainerako ihesliarrei bai (ik. gorago Izoarden agindua, 1795koa). Beraz geroagokoa dateke, edo Napoleonen estatu kolpearen (1799/11/09) ondorengoa; edo bestela Napoleonen amnistia (1802/04/26) garaikoa, orduan erbesteratuei itzultzeko baimena eman baitzitzaien, apaizak barne, baita preso erregezaleei eta proskritoei. Konkordatoaren (1801/07/15) ondotik, hau da, Eliza katolikoaren eta elizkizunen berrezartzearen ondotik eman zen amnistia; horren bidez Napoleonek hiritarren berradiskidetzea nahi zuen.

Nolanahi ere, Espainian zortzi urte egin ondoan itzuli zen egilea. Eta, hain zuzen, Monhoren arrastoa Iparraldean 1792ko hasieran galtzen da eta 1803an berriz agertzen, Ainhoako erretore gisa –ez dakigu, ordea, noiz eman zioten kargu hori, Lafittek dioenez–, eta 1803an berriz handik joanez (Lafitte 1972:13 ap Daranatz 1924:70, 102; Haristoi 1895 Les Paroisses... II, 299). Beraz, Monho balitz bertsoen egilea, uste dugun bezala, 1792/1793/1794—1799/1800/1801 bitartean edo ingurutsu horretan egongo zen Espainiako Erresuman erbesteratua (Euskal Herriko herriren batean?). Gainera, Monhok espainiera ongi zekien (gogora bedi Minarekiko elkarrizketaz esan duguna).

Bestalde, egileak mendeku goserik ez du erakusten, baina bai bere jazarle nagusiaren –oraino bizi zenaren– kontrako nahikunde bizia eta herra ttintta bat: “Ni ezarri nauena orai planta huntan, / Pasaturik balago ezpataren puntan” (III). Horiek guztiak, Monhoren “Orroitzapenak”en ere ageri diren gauzak. Gero, egileak espreski salatzen ditu Robespierren Euskal Herriko adarrak edo esku-makilak: Xarles Kaskoina eta Beñat Bidart (Bidart hori ez ote zen “Bardotzen glub”en, VI. ahapaldian ageri den bera?). Hala ere, mendekua beste mundurako uzten du; egilea apaiza bazen, ez zen gutiago gizona. Nolanahi ere, Monhoren estilokoak dira bertsook, satirikoak eta trufariak.

Ondorioz, S. Monho izan daiteke bertsoon egile, M. Duhalde (Uztaritze 1745-1804) edo Robin (Donibane Lohitzune, 1738-1821) baino aiseago, biak ere apaizak eta erbestean egonak.

1.2.3. “Sarako ihesliarren kantua” (Haristoi 1894, 1895), “Nora zoazte hor gaindi ardi nahasiak” hasten dena. Zortzi estrofa dira, lau puntukoak. Sara, Itsasu eta Azkaingo jendeen Frantzian barneratzearen (*internement*) karietara ondua. Donibane Lohitzuneko Kontseiluak, segurtasun arrazoiak argudiatuz, Saratik jendea jalgiarazi eta beste departamendu batzuetara eramatea eskatu zuen, estakurutzat emanez aristokratak babesten zirela han, espainol espioiz beterik zela, Errepublikaren kontrakoak zirela, zin egin ez zuten apaizek lagunduak zirela etab. Pinet eta Cavaignac-ek, muga aldeko herriak ia guztiz Espainiarekin adiskide eta soldaduen deserzioak ugariak zirela aintzat hartuta, Sara, Itsasu eta Azkaineko herri “prestuezetako” (fr. “infâmes”) jendea kanporatzeko eta barreatzeko erabakia eman zuten 1794/04/3an (Goihenetxe 1993:269-274). Batzuek Espainiara

ihes egin zuten, gehienak herriz herri preso erabili zituzten, eta haiekin batera beste herri askotakoak. Batzuen arabera 1400 edo 1600 bat hil bide ziren, horietatik 600 bat saratar (Zabala 1989:97,101). 1794/09/30ean itzultzeko baimena eman zitzaien, baita ihesliarrei (A. Izoard-en agindua, 1795/04/18koa, euskaraz eta frantsesez, Vinson 1891, 145 eta 146; xehetasunak ik. Haristoi 1894). Bertso hauetan erruduna salatzen da: "Gure galgarri haizen, Martin Dulunia" (V). Hau da, Duronea apaiza, elizgizonen konstituzio zibilari zin egin ziona.

1.2.4. Erlijio katolikoaren ikuspegitik epaitu eta Iraultzaren obra gaitzesten du ehun eta hiru bertsoko kantu zinez luze batek: "Frantziako erreboluzionea" (Haristoi 1894, 1895; Zabala 1889:13-32). Egilea Frantziari zuzentzen zaio, hitanoz. Luis XVI.aren heriotzaren ondokoa, beraz 1795az gerokoa. Apaiz katoliko iheslari batek egina, Haristoiren arabera; erregetiarra eta aristokratiarra izan behar zuen.

2. Iraultzaren aldeko bertsoak

2.1. Iraultzaren aldekoak gutxiago dira. "Apezak eta nobliak" kantuak (Irigarai 1975; Zabala 1989:107-110) hamar estrofa ditu, baina hiru falta omen zaizkio papera zahartua eta hautsia delako. Etsaien kontra guardiatzera dei egiten du, bereziki aristokraten kontra, ihes egin eta atzerrian azpi-lanean ari direlako "gerla emanik Frantziari" (I). Haien buruzagi Artoisko kontea eta bere anaia aipatzen ditu, hau da, Napoleon ondoren erregetuko diren Luis XVIII (1814-1824) eta Karlos X.a (1824-1830), baita haien alde elkartu diren erresumak ere. Bertso hauek Luis XVI.a hil ondokoak dira, 1793ko otsailaren ondokoak.

Halaber "Vandeako partia" (Irigarai 1975; Zabala 127-131). Bost estrofa heldu zaizkigu baina beste zenbaiten hutsunea nabari da. Vandeako gerra lazgarria aipatzen du, hango jendeak Iraultzaren aurka erreboltatu eta krudelki zigortuak izan baitziren. Bertsogileak dio Vandeako partea "pozoindatia, debruz poseditia" dela eta vandeatarrek 2000 gizon galdu dituztela galtzagabe edo sankuloten eskutik. Gerra hori 1792-1796 bitartean gertatu zen, beraz kantua Konbentzio garaikoa dateke. Ingelesen eta espainiarren kontra ere mintzo da, eta soldadu hazpandarrak aipatzen ditu, Itsasurat buruz eta espainolen kontra aitzina abian direnak. Badirudi zenbait bertsoren hutsunea dagoela.

Kontua da kantu honetako eta beste batzuetako estrofa batzuk ia berberak direla, hots, "Berria dut aditu"ko eta "Soldadoak berririk / Hazparneko herritik" edo "Les volontaires de Hasparren" (1793) kantuetakoak, aldaerak gorabehera (ik. "Berria dut aditu", Zabala 1989:155-156 ap. *Herria* 1962; "Soldadoak.." edo "Les volontaires d'Hasparren", Orpustan 1993:268, ap. Baionako Euskal Erakustokia, M.S.134). Zehazki, berdintsuak dira "Vandea"ko XI.a eta "Berria"ko I.a;

"Vandea"ko VIII.a eta "Soldadoak"eko I.a (eta antzekoa "Berria"ko II.a ere); "Berria"ko III.a eta "Soldadoak"eko III.a.; "Vandea"ko I.a eta "Soldadoak"eko III.aren lehen hiru bertso-lerroak. Gero, ahoz aho erabiliaren ariaz, aldaera batzuek desitxuratzen dute testua: *banderatik, banderak* (*Vandeatik, Vandeak*-en ordez, "Berria", II, III); *itsasora* (*Itsasura*ren (?) ordez, ibid., I); *patriarkha onetarik* (*patria onetarik*en ordez, "Soldadoak", I).

Beraz kantu bateko eta besteko ahapaldiak elkarrekin trukatzen edo txertatzen dira. Batzuetan eta besteetan, alde batetik Vandeako gogorkeriak, eta bestetik euskaldun soldaduen Espainiako gerrara abiatzea kontatzen dira. Kantu bera ote, ala bi edo gehiago? Ohargarriak dira enumerazio klixetuak, aipatu kantu batean eta bestean errepikatzen direnak: "musketak bandaturik, / sabreak zorrozturik / eginen dugu erditik" eta (Vandeaz) "Hiriak behar luke / jatsaz ongi xahutu / sabriaz karrakatu, / bolboraz isentsatu, / artilleriaz porroskatu.".

3. Konbentzioko gerrako bertsoak

Konbentzioko gerra deritzo Konbentzioa izeneko aldian (1793/3/7–1795/7/22) frantsesek eta elkartuek (ingeles, holandes, prusiar, austriar eta espainolek) elkarren kontra eginikoari. Euskarazko bertsoetan batez ere Frantzia eta Espainiaren arteko gerra aipatzen da, Pirinioen alde bietan gertatua. 1793an espainolek erasoa jo eta Frantzian sartu ziren, Katalunia aldetik batez ere; Nafarroa-Gipuzkoa aldetik ere jo eta Iparraldeko zenbait herri hartu. Baina 1794ko uztailean frantsesak Nafarroako zati handi batez, Donostiaz eta Tolosaz jabetu ziren; 1795ean Bilbo, Gasteiz eta Mirandaz, baina orduantxe Basileako Bakea sinatu bi aldeek (1795).

3.1. Iparraldeko soldadu euskaldunen ikuspegia erakusten duten bertsoak, muga aldeko batailetan ari direnenak, jarriko ditugu lehenik: "Laphurdi, BN eta Zuberoa gureki" (Urkizu 2006:65 ap. Xaho; F. Michel 1857; Zabala 1989:135-140; Kalzakorta 2009:52-53). Lau bertso dira. Azkenak dio: "Donibaneko apez batek kantu hauk eman ditu" (IV, hasiera). Baina, egia esan, kantuari izena ematen dion lehen estrofa izan ezik gainerakoak Konbentzioa baino lehenagoko beste kantu batean ageri dira: "Gerlako koplak Luis XIVen ohoretan. (Laphurdikoa)", Xahok bildua (Urkizu 2006:54-57). Beraz, estrofa horiek beste kantuetatik hartu eta kantu honetan txertatuak dira, zerbait aldatuz. Zeren, Konbentzioko euskaldun soldaduek ez baitzuten kantatuko: "Frantziako erregen dire laudorioetan" (IV, 3. bertso-lerroa). Lehen estrofak ere bazituen aldaerak; Azkuek jasotako bat Harisperen soldaduek kantatzen omen zuten (Zabala 1989: 138-139, ap. Azkueren eskuizk.). Ez da dudarik tradizioko bertsoak direla. Behintzat Adéma-Zaldubik lehen estrofa ematen du, jakinaraziz XIX. mende erditsuan kantatzen zela (*La Tradition…*1897 [Elkar, 1982:36]). Beraz, badirudi jatorri desberdinetako estrofak elkartu zirela.

"Eskualdun xasurretatik…" (A. Donostia, *Gure Herria*, 1931); Zabala 1989:141-142). Bi bertso. Nabarmena da *u* bokalaren asonantziaren eta *tuntun* hitzaren errepikapenaren bidez (*tuntun eta beti tuntuluntun*) sortu nahi den gerra giro iluna eta desatsegina. *Xasurrak* 'ehiztariak' soldadu euskaldunak ziren, Iparraldekoak. Irun eta Oiartzun hartu behar zituztela esaten dute; hartu ere egin zituzten, 1794ko abuztuaren 1 eta 2an. Data hori baino aurrekoak dira beraz. Xasur konpainiak 1792an sortuak izan ziren, Frantzia hegoalde-mendebaldeko muga defenditzeko, batez ere Donibane Garazi ingurua; Harispe baigorriarra izan zuten buruzagi nagusienetariko bat; Jenako garaitian parte hartu zuten (1806), eta haietako 300ek 1808an Murat-en guardia osatu eta maiatzaren 2ko errebolta zapaltzen parte hartuko dute; gero Errusiako kanpainara igorriak izan ziren.

"Fruitidorren hogei ta laugarrenian…" (Azkue 1924 [1990:105]; Zabala 1989:151-154). Heldu zaigun bertso bakarrean esaten da Erroimendin etsaiari erasotzeko asmoa zutela *xasur* eta grenadierrek (hauek Latour Auvergneren agindupean); Zabalak azaltzen duenez, bataila hori, 1794ko irailaren 11an gertatu zen.

"Berria dut aditu" (Zabala 1989:155-158 ap. *Herria* 1962) euskaldun soldaduen kantua da, ulerkaitz samarra. Espainiara partitu behar dutela esaten da lehen bertsoan, baina ondoko bietan iduri du Vandeako gerrarako direla (ik. "Vandeako partia" eta "Soldadoak berririk" edo "Les volontaires de Hasparren" izenekoekin duen harremana: 2.1.). Laugarrenean Bordeleko hiria aipatzen da, ederra baina euskaldun xasurren kontrakoa (Espainiarekin Basileako ituna sinatu ondoan, Harispe, bere euskaldunekin, Bordelera igorria izan zen). Azken bertsoak "Euskaldunen herriak, / herri maitagarriak," direla eta maiteñoen fideltasuna adierazten du.

"Gerlara ethorri ginean…" hasten direnak (J. A. Mogel, *Peru Abarca*, 1802). Bost bertso, bi bertso molde desberdinekin, zortziko txikia nagusi dela. Hor ageri da euskaldun *xasur* horiek, "Nafarroako bolontarioak" izendatuak, Frantziako Asanbleak begitan hartuak zituela, haien artean ihesi joanak bazirela, eta Eguberri egunean meza entzuteko baimenik ez zutela izan. Hor aipatzen dira gerratokiak: Astobizkar, Otsondo eta Urdaxuri.

Hona Joanis baigorritarrak solaskideei diotsena: "Baciren Baigorrin ecinbestez, edo indar utsez, ta porchaz [portxaz] guerlara cijoacenac. Nai duzu enzun urte char aietaco Baigorritarren canta soñuequin lagundua? Ona emen". Eta bertsoak emanda gero: "Onla itz eguiten zutenac etziren ez biotz gogorren jabeac. Naiagoco zuten beren etcheetan lanzan [lanian?] ari, ecen ez guerlaan Españarren odola issurtzen [ixurtzen]. Nola nai, orain adisquide guera." (Mogel, *Peru Abarca*, eskuizk.). Beraz ez ziren denak zinezko boluntarioak. Doinurik ez da gelditu.

Itsas soldadu euskaldunen kantuak: "Gure ontziaren izena", bi bertsokoa (Zabala 1989:159-160, ap. Azkue eskuizk.). Toloneko batailari buruzkoa da, Napoleonek hartu baitzuen azkenean hiria, ingeles eta espainolei eskuetatik kenduz, frantses iraultzaileen eginahalei esker.

Kolonietako gerra aipatzen dutenak ere badira, esateko "Xorteko kantu xaharra", bost bertsokoa (*Herria* 1962/08/02; Zabala 1989:161-3). Azken hauetan bietan gerrako penak ez ezik maiteen berri jakiteko gosea adierazten da.

"Ingles krubel barbaruak" kantuaren bertso bakarra ia osorik heldu zaigu (Zabala 1989:165-166 ap. Azkue eskuizk.), baina ez dakigu zein gerraz ari den.

3.2. Hegoaldeko probintzietako elizgizonen ikuspegia erakusten dute Bilboko gabon kantek. Gabon kantak elizan kantatuak izaten ziren Eguberriz eta bertsopaper moduan zabalduak; genero ezagunekoak dira (Arejita 2002:281-324). Konbentzio gerraren aldikoak, erdaraz eta euskaraz eginak. 1794koak, Bilboko Done Jakuekoak, hamabi ahapaldikoak dira (*Letras de los villancicos*...; Irigoien 1977:417-419; Zabala 1989:167-172). J. A. Mogel apaizarenak, ustez. Konbentzioko gudualdi betean onduak izanik, "Frantzesen gerria" aipatzen dute: "Bilboko Urijak, / lagunduten deutsela / bizkaitar guztijak." (IX), "fraide ta abadiak, / besteekaz batera / jagi dira pozarren / armak artutera" (X). Orduan frantsesak, Donostia eta Tolosaz jabetuta, Deba ibarrean ziren.

1795ko gabon-kantek, urte eta inprimatzailearen izenik gabe Bilboko S. Fraiskutik atereak, Basileako bake-ituna aipatzen dute, Espainiak Frantziarekin sinatua eta gerrari amaiera eman ziona (*Villancicos* ...1795; A. Irigoien 1977:417-419). Hamabi ahapaldi dira; Fr. P. Astarloarenak, ustez.

3.3. Badira Konbentzioko gerra zeharbidez ukitzen duten poema eta bertsoak. Bada poema luzetxo bat, hirurogeitabost ahapaldikoa: "Donostiar batzuen emigracioa, 1794 eta 1795 urthetan. D. C." (Urkizu: 1987:65-67, 152-162). Kontatzen du nola Konbentzio gerratean Gipuzkoako agintari batzuk, beren andreekin, Donostiatik irten, eta Gipuzkoan eta Bizkaian barrena Kantabriako probintziara joan eta bakea egin zenean berriz bide beretik itzuli eta iritsi ziren Donostiara, 14 hilabeteren buruan, 1795/10/04an. Bidaia ironia eta umorez kontatua da, gipuzkera eta lapurterazko euskara nahasian. Hor ageri da berriz ere Pinet, zehar aipu bidez bada ere, Pluton zakurra ere izutzen baitu, eta, bidaiarien artean, "gure Robin", "don Robin". Alusio hauek apaiz erbesteratuen eta gipuzkoar burjesen arteko harremanak erakusten dituzte (Orpustan 1996:117). Agian Robin bera da egilea; Urkizuren arabera, litekeena da egilea poeman ageri den morroietako bat, Ganix Larrea, izatea.

"San Inazio Loiolakoaren alabantzak" (Zabala 1991, II:39-60) bertso paper argitaratuak dira; 1816 edo 1828an, eskuzko oharren arabera. Bertso-sail luzea,

hogeitazazpi bertso hamarreko txikian. S. Inazioren irudi baliotsu baten joan-etorriak kontatzen dituzte, frantsesen ihesi, Konbentzio gerran hasi eta frantsesteko azken urteetarainokoak. Agian Txabalategi bertsolariarenak (1769-).

San Inazio eta Ondarroaren omenez Juan Antonio Mogelek 1801ean ondutako beste bertso batzuetan ere aipatzen da "franzesen esetsia" 'erasoa' (IX) eta nola Ondarroa erre zuten (X): "San Ignacio Loiolacoari Gozuac" (Mahn 1857; Altzibar 1991). Hamasei estrofa dira.

Ondorio batzuk

1. Frantziako Iraultzak aro berri bat ekarri zuen mundu osoan eta uste izatekoa da kantu ugari sortaraziko zituela euskaraz ere. Orain arteko kantu edo bertsoak eskuizkribu edo kaierren bidez heldu zaizkigu ezinbestean (salbu Hegoaldeko Gabon-kantak, 1794 eta 1795koak), gerra eta jazarkunde giroak eragotziko zuen-eta euskarazko bertsoen argitalpena eta egilearen izenik ez jartzera behartu. XIX. eta XX. mendeetako sorterrizaletasunari esker, memoria historikoa berreskuratuz joan da, eta horri esker ezagutzen ditugu aldi lazgarri haietako lekuko diren kantu hauek, beste asko galdu egingo baitziren. Guztira hogeita hamahiru kantu, 376 ahapaldirekin. Iraultzaren ingurukoak, hogeitabat; gainerako hamabietatik, gehienak Konbentzioko gerraren ingurukoak. Horietatik guztietatik, hogei gutxienez Iraultzaren kontrakoak; erdira ere ez dira heltzen aldekoak, xasur eta euskaldun soldaduenak barne. Euskaldun askorentzat Iraultza bortxaz betea eta latza gertatu zelako seinale. Ohargarria da, bestalde, zubererazkorik ez dela ageri, gehien-gehienak lapurterazkoak baitira.

2. Iraultzaren kontrakoen artean, poetek edo egile ikasiek onduak –arruntki apaiz edo elizgizonek– nabarmentzen dira; haien bertsoak osoago heldu zaizkigu. Egile batzuk nor izan ziren badakigu. Monho alde batera utzita, hor dugu Bernard Larregi donibandarra (+ 1793), kantu baten egilea. Balizko egiletzat jotzen da Duhalde (Uztaritze, 1745-1804). Aipagarria da Robin ere (1738-1821), poema profanoen egilea (Urkizu 1987, 2006). Hirurak apaiz erbesteratuak, Monho bezala. Hegoaldekoen artean aipagarriak dira gabon-kanta generokoak eta haien egile Juan Antonio Mogel eta Frai Pedro Astarloa. Horiek guztiak poetak ziren, nahiz bertsolaritzaren moldeak ezagutzen eta beren poemak kantatzeko ontzen zituzten.

3. Egile landuetan Monho gailentzen da kopuruz eta kalitatez. Eta, gure ustez, Lafitteren bildumakoez gain, beste bi kantu politiko satiriko ere, itxuraz, harenak izan daitezke: "Nahasmenduaren ondoan" eta hemen argitaratzen dugun "Roarrespiarresen cantac", biak Lafittek bilduak. Izan ere, aipatu bi poemen eta Monhoren "Orroitzapenak"en arteko kidetasunak edo loturak sendoak dira eta elkar osatzen dute. Bestalde, xehetasun batzuek (adib. Galtzagorri soinulari agertzen da

"Nahasmenduen ondoan" eta Robespiarresen cantac"en, eta dantzari "Artzain ardi-jalea dantzari"n) kantu desberdinetako moldeen eta egileen arteko harremanak erakusten dituzte. Beraz, ez litzateke harritzekoa Monho, egozten zaizkion kantu profano eta kantikez gainera, beste batzuen egile ere izatea. Gero, "Roarrespiarresen cantac"en egilearen jazarleak aipatzen baitira, Xarlex Kaskoina eta Beñat Bidart, norbaitek zilatu beharko du nor ziren.

4. Egile landuez beste aldean, baditugu soldaduen kantuak eta abar, ez hain landuak. Hain osorik ere ez zaizkigu iritsi; estrofa bakar edo bakan, puska edo txatal ugari, lagunak galdu dituztelako seinale. Ahozko tradiziokoak dira, tradizio bizikoak. Iraultza baino lehenagoko kantuetako estrofa berak ageri dira Konbentzioko gerrakoetan. Kantu bateko eta besteko estrofek edo puskek elkar osatzen dute ("Vandea-ko partia" eta "Berria dut aditu"). Aldaeren ugaritasunak tradizioaren indarra erakusten du askotan (hori egile landuen kantu batzuetan ere gertatzen da; adib., "Aphez juratuak"en aldaera ugari daude (1.2.1.). Klixeak ere ez dira falta: etsaien tokia "debruz poseditia" da ("Vandeako partia", I, eta "Berria dut aditu", III). Estrofak trukatuta edo txertatuta ere izan ditzakete. Txertatze eta trukatzeengatik, eta denboraren higaduragatik, koherentzia falta eta ulertzeko zailtasuna somatzen da kantu batzuetan, baina beste zenbaitetan aldaeren arteko konparaketak testua hobeki ulertzen laguntzen du. Gero, bestalde, neurkeraz ere ez dira izaten hain zehatzak. Nolanahi ere, gehiago eta gutxiago landuak barne hartuz, bertsolaritzaren historia modernoan zaharrenetarikoak dira garai honetakoak, Zabalak dioenez, eta bertsogintza, nahiko landua eta oraintsu artekoaren antzekoa (1991:8-9). Azkenik, gehituko dugu testu-kritika oinarrizko eginkizuna dugula, argitalpen eta azterketa literario onak egin ahal izateko.

BIBLIOGRAFIA

Altzibar, X. 1991. "Juan Antonio Mogelen bertsoak eta idazlanttoa Ondarroa eta San Inaziori buruz". *Ondarroa (Ondarroa'ko gaiei buruzko aldizkaria).* Ondarroako Kultur Etxea. 2-6.

—, 2009. "Napoleon eta frantsestea euskal literaturan". *Bidebarrieta (Bilboz, giza eta gizarte zientzien aldizkaria)* 20. 91-120.

Arejita, A. 2002. "Gaboneko kantak Bilbon". *Bilbao. El espacio linguístico. Simposio 700 aniversario—Bilboren 700. urteurrena. Hizkuntza gunea.* Universidad de Deusto-Deustuko Unibertsitartea. 280-324.

Ariel aldizkaria (Xahok zuzendua). 1845/02/09.

Azkue, R.M. 1924. *Cancionero popular vasco.* I, II. (3. ed.). La Gran Enciclopedia Vasca, 1990.

Daranatz, J. B.1924. *L'église de Bayonne.* Librairie Lasserre.

Donosti, A. (San Sebastián, J. A.). 1931. *Gure Herria*, maiatz-ekaina.

Goihenetxe, J. 1985. *Historia de Iparralde*. Txertoa.

—, 1993. "Documents sur l'internement des Labourdins et Madeleine Larralde", in *La révolution française dans l'histoire et la littérature basques du XIXème siècle*. 269-294. Ik. *La révolution française...*

Haranburu-Altuna. 2008. *Salvat Monho. Poema iheskorrak*. Donostia: Hiria.

Haristoi. 1894. *Le Martyre d'un peuple ou internement des basques sous la Terreur suivi de chants antirévolutionnaires*. Par M. L'abbé Haristoy curé de Ciboure. Extrait des Études historiques et religieuses. Pau: Vignancour. (Lacour-Editeur, 1996). (Liburuska hau hurrengo liburuan ere agertarazi zuen, I. liburukian).

—, 1895. *Les Paroisses du Pays Basque au XVIIIe siècle et pendant la période révolutionnaire*. I., II, III. Pau: Vignancour; Baiona: Harriet, 1981-1982.

Haritschelhar, J. 1988. "Recueils manuscrits de chansons basques", *Anuario del Semanario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"* XX-2. 445-461.

—, 1991. "Nazioneko besta. La fête de la nation". In *1789 et les basques. Histoire-Langue-Littérature*. Presses Universitaires de Bordeaux. 211-219.

Irigarai, A. Irigarai, A. 1975. *Diario de Navarra*, 1975/05/16.

Irigoien, A. 1977. "Bilbo eta euskara". *Euskera* XXII. 411-419.

Kalzakorta, J. 2009. "Frantsesteko euskal bertso zahar-berriak: maiatzaren bikoak eta abar". *Karmel* 265, 2009-1. 49-70.

Lafitte, P. 1931. *Eskualdunen loretegia. Lehen zatia (1545-1800)*. Baiona.

—, 1972. *Poèmes basques de Salvat Monho (1749-1821) présentés, transcrits, traduits et annotés*. Baiona. Éditions Ikas.

Lafitte Artxiboa. 401: Bertso bilduma. Euskaltzaindian ikusgai.

La révolution française dans l'histoire et la littérature basques du XIXème siècle. Actes du Colloque international de l'URA 1055 du C.N.R.S. (Université Michel de Montaigne-Bordeaux III) tenu à la Faculté Pluridisciplinaire de Bayonne les 28 et 29 juin 1993.

Letras de los villancicos en romance, y basquenze, que se han de cantar en la iglesia parroquial y matriz del señor Santiago de esta noble villa de Bilbao, en los solemnes Maytines del Sagrado Nacimiento de nuestro Señor Jesu-Christo, este año de 1794. Puestos en Musica por D. Pedro de Estorqui, Maestre de Capilla en dicha iglesia; y opositor à Magisterios de Capilla en Santas Iglesias de término. En Bilbao: Por Simon de Larumbe, Impresor del M. N. y M. L. Señorio de Vizcaya.

Mahn, C.A.F. *Denkmaeler der baskischen Sprache*. Berlin, 1857,

Michel, F. 1857. *Le Pays basque. Sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique.*—Elkar, 1981, P. Lafitteren hitzaurrearekin.

1789 et les basques. Histoire-Langue-Littérature. Colloque de Bayonne 30 juin-1er juillet 1989. Presses Universitaires de Bordeaux.

Mogel, J.A. 1802 (ing.). *El doctor Peru Abarca, cathedratico de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte.* Eskuizkribua.-Durango: Elizalde, 1881.

Orpustan, J.-B. 1991. "Un poète basque au temps de la Révolution: Salvat Monho (1749-1821). In *1789 et les basques. Histoire-Langue-Littérature.* Presses Universitaires de Bordeaux. 239-255.

—, 1993."Chants des conbattants révolutionnaires". In *La révolution française dans l'histoire et la littérature basques du XIXème siècle.* 267-268. Ik. *La révolution française.*

—, 1996. *Précis d'histoire littéraire basque.* Baigorri: Edit. Izpegi.

Rica, M. 1975. "Traduction en basque de termes politiques sous la Révolution". *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio Urquijo"*, IX, 1975, 3-172.

Riezu, J. 1973. *Nafarroako euskal kantu zaharrak. Viejas canciones vascas de Navarra.*

Salaburu, P. 1982. "Frantziako iraultza garaiko euskal dokumentu batzu". *Euskera* 27, 1982, 1. 209-230.

Urkizu, P. 1987. "Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798). Durangoko Udala.

—, 1991a. *Bertsolaritzaren historia: Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako bertso eta kantak*, I, II. Etor.

—, 1991b. "Iraultza frantsesaren garaiko euskal bertsoak (1789-1799)", in *1789 et les basques. Histoire-Langue-Littérature.* Colloque de Bayonne 30 juin-1er juillet 1989. Presses Universitaires de Bordeaux.

—, 2006. *Agosti Chahoren kantutegia.* 1844-1855. Susa.

Villancicos que se han de cantar en la solemne Misa del sagrado nacimiento de nuestro Señor y Redentor Jesu-Cristo, / en el Real é Imperial Convento de nuestro Padre San Francisco. Puestos en música por el P. Fr. Antonio de Zabala, Vicario de Coro de dicho Convento. [1795].

Vinson, J. 1874. *Pièces historiques de la période révolutionnaire. 1. fascicule.* Baiona: P. Cazals.

—, 1875. *Pièces historiques de la période révolutionnaire en français et en basque, en regard. 2me fascicule, Chansons, Proclamations.* Baiona: P. Cazals.

—, 1891. *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque.* Paris.

Xaho, A. Ik. *Ariel.*

Zabala, A. 1989. *Frantziako Iraultza eta Konbentzioko gera bertsotan.* Etor.

—, 1991. *Frantzesteko bertsoak.* I, II. Auspoa.

Zugaza, L. 2006. *Cahier des voeux et des instructions des Basques-François du Labourt, pour leurs Députés aux Etats-généraux de la Nation. / Laphurtar Escaldun Francesec, Erresumaco Estatu-generaletarat egortcen dituzten Deputatuei, emaiten dioten botuen eta instruccionen, Cayera.* Gizonak & Lanak 4.

Laburdurak:

ap.: *apud*-en laburdura, zitazioetan *halakoren liburuan edo obran* adierazten du.

BnF: Bibliothèque National de France. Paris.

ANTONIA GOROSTOLA: "NIRE AMAREN ESAERAK ETA KANTAK"

Jabier Kalzakorta
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

Fredi Paia
Labayru Ikastegia. Bilbo

LABURPENA

Antonia Gorostola: "Nire amaren esaerak eta kantak"
Antonia Gorostola getxotarrak (1907-1997) 1971ko egutegi-liburu batean 41 esaera eta kanta transkribatu zituen. Idatzi hau, "Nire amaren eserak eta kantak" titulupekoa, bere amak erakutsi zizkion euskal esaera eta kanten zerrenda bat da. Artikulu honetan, esaera eta kanta guztiak transkribatu ondoren, azterketa konparatibo bat eskaintzen da.
Hitz gakoak: Antonia Gorostola, Getxo, kopla, esaera zahar, kantu, herri literatura, ume literatura.

RESUMEN

Antonia Gorostola: "Refranes y cantos de mi madre"
Antonia Gorostola (1907-1997) dejó escrita en un dietario de 1971 una pequeña colección de refranes y canciones euskéricas oídas a su madre. Esta pequeña colección, cuyo título es "Nire amaren esaerak eta kantak", consta de cuarenta y un anotaciones. En el artículo, además de la trascripción de las anotaciones, se ofrece un estudio comparativo de las principales coplas y paremias.
Palabras clave: Antonia Gorostola, Getxo, copla, refrán, canto, literatura popular, infantil.

RÉSUMÉ

Antonia Gorostola: "Proverbes et couplets de ma mère"
Dans un agenda de 1971, Antonia Gorostola (1907-1997) a recueilli une petite collection de proverbes et de couplets basques entendus de la bouche de sa mère. Cette petite collection, intitulée "Nire amaren esaerak eta kantak", réunit quarante et une notes. Outre la transcription de ces notes, l'article offre une étude comparative des principaux adages et chansons.
Mots-clés: Antonia Gorostola, Getxo, couplet, proverbe, chant, littérature populaire, enfant.

SUMMARY

Antonia Gorostola: "Proverbs and songs of my mother"
In 1971 Antonia Gorostola (1907-1997) wrote down a small collection of Basque proverbs and songs she had heard from her mother. Entitled "Nire amaren esaerak eta kantak", the collection has forty-one entries. Besides transcribing the entries, the article provides a comparative study of the main *coplas* and proverbs.
Key words: Antonia Gorostola, Getxo, *copla*, proverb, song, popular literature, children's literature.

Artikulua jaso / Fecha de recepción: 2011.06.02.
Artikulua onartu / Fecha de aceptación: 2011.06.29.

1. INTRODUCCIÓN

Antonia Gorostola Lartategi nació en Getxo, el 25 de febrero de 1907, en el caserío Goñibarria. Cursó sus estudios en la escuela pública Andra Mari de Getxo. Inteligente y de gran curiosidad, fue una gran lectora y adquirió, en opinión de quienes mejor la conocieron, una amplia cultura. Amante del euskara, lengua a la que profesaba un acendrado amor y a la que consideraba sagrada, dejó escrita una bonita muestra de expresiones de literatura oral que, aunque necesariamente parcial, es un fiel testimonio de la tradición oral de Getxo. Antonia Gorostola falleció en esta misma localidad el 13 de abril de 1997, a los noventa años de edad.

En el año 2002 Unai Hormaza, nieto de Antonia Gorostola, se puso en contacto con nosotros para entregarnos un dietario de 1971, donde su abuela había

Antonia Gorostola, c. 1992.

hecho unas anotaciones con el nombre de *Nire amaren esaerak eta kantak (Las canciones y dichos de mi madre)*. Se trata de una pequeña colección de 41 canciones y refranes que Antonia aprendió y anotó mientras su madre, Andresa Lartategi –oriunda de Fagoeta, barrio de Erandio y casada al caserío Bosgarrena de Getxo– se las cantaba o recitaba a sus nietos, es decir, a los hijos de Antonia. Uno de los valores añadidos de esta colección de canciones y dichos son las anotaciones descriptivas, que al aclarar el contexto de las canciones, dan nueva luz contextualizadora.

Las anotaciones de Antonia Gorostola en *Nire amaren esaerak eta kantak* constituyen un testimonio auténtico poco común, dado que se trata de una labor de anotación y explicación del patrimonio oral familiar. Esta colección de notas es una prueba fehaciente de que era una mujer de mentalidad avanzada para su tiempo, interesada por la cultura vasca, sensible ante su posible pérdida y con una intuición admirable para la escritura en euskara.

La escuela de bertsolaris de Algorta se encargó de la custodia del texto original que de ese modo quedó a salvo y ha permitido llevar a cabo este trabajo sobre una fiel copia del mismo.

Esperamos que este pequeño trabajo sirva para poner de relieve la riqueza de las anotaciones de Antonia Gorostola. No querríamos acabar esta introducción sin agradecerle a la familia de Antonia, y en especial a su nieto Unai, la buena disposición e inestimable ayuda con la que nos ha obsequiado siempre que la hemos necesitado.

2. COMETIDO DE NUESTRO TRABAJO

Transcribiremos, en primer lugar, las cuarenta y una anotaciones de Antonia Gorostola. Muchas de ellas son refranes populares vizcaínos, concretamente de Getxo, que presentan interesantes variantes de los refranes vizcaínos conocidos. Varias anotaciones de Antonia Gorostola son coplas de baile o coplas de pandereteras (*pandero joleen koplak*, en euskara) y algunas otras son supersticiones o recitados infantiles. El objetivo de nuestro trabajo, después de la transcripción de las notas en el mismo orden que la autora las apuntó, consistirá en ofrecer un comentario valorativo y comparativo de las anotaciones. No hay duda de que cualquier refrán, creencia o copla puede ser comentada más extensamente, explicando con un mayor número de variantes y con mayor acopio de referencias. Además de las diferentes variantes y comentarios que podríamos suministrar en cada nota, se podrían añadir observaciones de la variedad del euskera de Getxo. El cometido de nuestro trabajo dista mucho de agotar toda la riqueza que apunta esta pequeña colección de notas. Quedaríamos satisfechos si con nuestras apreciaciones

apuntáramos o insinuáramos la fuerza expresiva que bajo su aparente ingenuidad encierran muchos recitados infantiles, así como la precisión que muestran, en tan pocas palabras, las refranes populares.

3. TRANSCRIPCIÓN DEL TEXTO DE ANTONIA GOROSTOLA

Transcribiremos en este punto las cuarenta y una notas de Antonia Gorostola llevadas a cabo en el dietario de 1971, que aparecen sin ningún tipo de numeración en diecisiete páginas del dietario. Las notas están transcritas del 1 al 21 de enero. La página del 10 de enero se encuentra vacía. El final de cada página de la agenda la indicaremos mediante el signo //. Cuando un determinado recitado o canción tiene una nota explicativa en castellano, en el manuscrito viene después de la canción. Nosotros en nuestra transcripción hemos invertido el orden y hemos colocado primero la explicación en castellano.

Creemos que nuestra enumeración nos facilitará el comentario posterior. Intentaremos ser, por otra parte, lo más fieles posible a todas las anotaciones, respetando el texto y el orden de las notas. En caso de que hiciéramos algún cambio, lo indicaríamos a pie de página.

1

Egur ierra suaren bildur,
eguzkiaren edurre,
alaba ederrak daukazen amak
mutil zantarren bildurre.

2

Baletike ta balitz, alkarren
atzean dabiltz.

3

Begire nago begire,
legorretik lur barrire,
noiz etorriko ete da
neure maitea errire. //

4

Umearen zentzune, etxean entzune.

5

A txintxor txindortxu,
bulertxu gorrie,
gaztetan ein bazendun
zartzarorako abie. //

6

Intxaurrek bost ta zaratak amabost.

7

Zelango baldea, alango tresnea.

8

Goiek ariñek deitu
beak ariñago;
dantzan obeto daki
arto jorran baño.

9

Asaoko lau laso, ez da parajeko lazeko.

10

San Bizenti otza, neguaren biotza. //

11

Goiz gorrie, arratsaldeko eurie.

12

Etxe utse, gerra utse[1].

13

Gizon kanpoederra, etxean gerra.

14

Aite batutzalleari, seme ondatzalle.

15

Esto se cantaba cuando se caía un diente, y al mismo tiempo se tiraba el diente al tejado de la casa, y si no se alcanzaba, al tejado del horno, donde se tostaba el maíz:

Maritxu telletako,
gona gorrie,
eutsi agin zarra
eta ekatzu berrie. //



Anotaciones manuscritas del Dietario de Antonia Gorostola.

[1] En el manuscrito se lee *Etze utze, gerra utze.* Aparece claramente *utze* y creemos que también *etze.* Tanto uno como otro vienen de *etse* y *(h)utsa.*

16
Alperrik Mari makillatu ez bada berez biurtu.

17
Este era un hombre a quien se le extravió la caballería, él la buscaba de noche en el monte, y oyó el canto del búho, que emite una especie de carcajadas, y le confundió con un hombre y por eso le preguntó (versión de mi madre):

A, gizon zantzolarie, ikusi dok nire zamarie[2]?

18
Alperkerie, askoren ondamendie.

19
Arrausi luzea, logure edo gosea. //

20
Umeak azi, nekeak azi.

21
Txakur argala, ardi utsa; gizon pobrea guzur utsa[3].

22
Txikitxu polit, nongoa zara?
Jauna, ni Markiñekoa?
Diruak baño naiago neuke
baziña neure errikoa.

23
Neure txiki polita,
zelan zara bizi?
Igaroko aspaldijan
ez zeitut ikusi. //

24
Esto cantaba mucho mi madre a mis hijos, yo, a mi vez, a mis nietos teniéndoles sentados en las rodillas, igual que ella:

Tan tan tirikitin, Bilbora noa,
tan tan tirikitin, zer egiten?
Tan tan tirikitin, makallotxu bat
tan tan tirikitin erosten.

Aitite dala tutulunberde,
amama dala mazuste.
Aita juan da Bituriera,
ama txikoan artute.

Aita etorri egin da etxera[4],
ama bidean galdute.
Kolkoa bete mazuste. (birritan) //

25
Estos son los versos de un chico con despecho por ser rechazado por la que él miraba como suegra:

Nire erriko ogitzaleak
eukazan iru alaba,
errespetoaz eskatu nion
emon zaistela bat,
bere erantzuna izan zan olan
mutil pobrea nintzala.

Mutil pobrea banintzan bere
a panaderan alaba
ogi berotan jango leukela
nire ta bere jornala,
ardau zuriten edango leuke
Ondarruako kanala
Ebro-ko urak ez lei garbitu
aren atorra maskala. //

---

[2] En el manuscrito leemos *samarie*.
[3] También leemos como en el nº 12 *ardi utze* y *guzur utze*.
[4] En el manuscrito *etzera*, fiel reflejo de la pronunciación auténtica proveniente de *etsera*.

26

Bele bele jaune,
Non jaok aitajaune?
Zeruetan, jaune.
Zetan zeruetan?
Urune eralgiten.
Zetarako dok urune?
Olloarentzako.
Zetarako dok olloa?
Arrautzak egiteko.
Zetarako dok arrautzea?
Abadeantzako.
Zetarako dok abadea?
Mezea esateko.
Zetarako dok mezea?
Pulturioko arimentzako.
eta beste guztientzako. //

27

Din dan, nor hil da?
Peru zapatarija.
Zer egin du pekatu?
Auzoko txakurra urketu,
txitxalupean sakatu,
elizara daraudiela
kakarraldoak salatu.[5]

28

A, Peru, Peru, Peru,
zu beti alperra,
ostera be eukiko dozu
arkondara zarra.

Arkondara zarra eta
prakatan zillo bi,
txapela dariola
belarri ondotik. //

29

Mikela Presaburuko,
nire nobiea izena,
ez da gusture biziko
ak artzen dauen gizona.

30

Nik ikusi nenduzen
san Juan gabean,
Txomin eta Bartolo
taberna batean.
Ormea zalakoan
batak besteari,
txiza egiten zioten
biak alkarreri.

31

Tiriki tauki tauki
malluaren otsa[6],
noz ezkonduko ete da
ori neska motza. //

32

Matxalen Busturiko
amari negarrez,
amental barri barik
ezkonduko danentz.

Matxalen Busturikok,
gabean gabean,
errolde ibiltzen deu
bere portalean.

Matxalen Busturiko
ona izan bazan,
ez zala etorriko
Busturitik onantz. //

---

[5] Leemos en el manuscrito *Ausoko, zakatu* y *salatu.*
[6] En el manuscrito leemos *otza*, tal como se pronuncia.

33
Urkiola gañeko
aizearen otza,
bakarrik dantzan dabil
fraille buru motza.

34
Agindue bat eta emona bi, aginduegaz konforme izan adi.

35
Etxe txiki bat daukot
Artxanda gañean,
ez da euririk sartzen
aterri danean. //

36
Una mujer fue a misa y encargó a su marido que asara los talos que le dejaba preparados, pero a él se le quemaron, entonces fue al pórtico de la iglesia y desde allí le dijo lo que pasaba, pero sin aclarar de qué se trataba, ella entendió y le dio la respuesta. Todo esto según mi madre nos contaba:

Nire andra Mari,
gona gorridune,
dantzan ondo dakizune,
zikin zikiñek irten egin du
etxean itxi dozunek.

Erantzun:

Arkean dozu iriñe,
kakoan dringi drangiñe,
arin arin emendatu egizu
lengo oker egiñe. //

37
Neska, zegan dozu aume ori?
Nik dautzat aume oneri,
aumeak deust niri.
Nire aumea erosteko
ez dauko berorrek dirurik.

Asko dakizu, neska,
geiago be bai dakit,
esan zaizu ba.
Nik baneukez lau begi,
bat emongo neskio beorri
eta bestea azpiko zaldi orri. //

38
Lekuen-lekuen ardiak, baltzan artean zuriak[7].

39
Ona da zaldie ezpaleukaz agoa eta eperdie.

40
A Txertrudi narru eratzie / non dozak ulea ta orrazie[8] / ez badozak ekartzen / nire ulea eta orrazie, nik galduko dot / ire askazi[9] guztie. //

41
Esto les cantaba mi madre a los nietos, poniéndoles sobre las rodillas:

Arre, arre, arre,
asto barrabana,
okerreko lekuetatik
nora naroana.

Arre, arre, arre,
asto benenoa,
okerreko lekuetatik
nora ete naroa?

[7] Hemos obrado unas pequeñas correcciones de bulto. En el original pone: *Lekuen lekun ardian baltzan artean zuriak.*
[8] En el manuscrito escrito en las dos ocasiones *orrasie.*
[9] En el manuscrito *askasi.*

4. COMENTARIOS A LAS ANOTACIONES

En este apartado anotaremos los refranes populares, las coplas y creencias transcritas en el parágrafo anterior. Cada número remitirá al refrán, creencia, etc. del punto anterior. Además de los comentarios oportunos aportaremos nuevas variantes que pueden enriquecer la comprensión de las notas. Sólo excepcionalmente traduciremos el significado de los refranes o de las canciones.

1. Copla de baile que presenta un nivel de estilización o refinamiento que bien merece ciertas notas. Transcribiremos a continuación una de las coplas de baile más populares y conocidas que tiene cierta semejanza con nuestra copla:

Mendi altuen edurre,
bota surtera egurre;
alaba galanten amak
mutil zantarren bildurre.

Esta copla de baile presenta algunas variantes que indican cierto carácter local. En las colecciones de coplas de Zeanuri –coplarios[10], según la terminología de Manuel Lekuona– publicadas por nosotros, recogimos la variante *Gorbei altuen edurre /…*[11], en donde en lugar del sustantivo *mendi* encontramos el monte Gorbea, en euskera *Gorbeia*. Es sabido que en las canciones populares de la literatura euskérica existe la contraposición entre la imagen de la nieve –*edurra*, en vizcaíno– que cae lentamente en las altas montañas y el miedo al engaño, etc. que se expresa con la palabra *beldurra*. Las palabras *edurra/el(h)urra/elhürra* y *beldurra* conforman en la misma estrofa, por lo tanto, una sugerente y plena rima. Estas estrofas, que se pueden encontrar en todos los dialectos vascos, suelen ser indefectiblemente de temática amorosa. Entre los ejemplos que podríamos aportar espigaremos una estrofa de la canción popular "Charmagarri bat badit", pág. 134, que aparece en el cancionero de J. D. J. Sallaberry *Chants populaires du Pays Basque* de 1870. La estrofa sexta es:

–Bortürik gorenetan erorten elhürra
Trompatüren naizüla badizüt beldürra;
Hargatik nahi züntüket ikhusi ardüra,
Eginen badüt ere, oi! ene malürra!

La copla que presentamos en este primer punto tiene, sin lugar a dudas, una estilización mayor que "Mendi altuen edurre/ ..", dado que partimos de una doble imagen que contrasta (la primera *Egur iarra suaren bildur* y la segunda *eguz-*

[10] La palabra *coplario* es una invención feliz de Manuel Lekuona. Utilizaba, a su vez, otra palabra de cuño nuevo para el euskera: *kopladi*. Sergio Pitol en *Autobiografía soterrada* emplea una palabra de la misma factura. Para indicar un libro o conjunto de cuentos emplea cuentario, palabra que tampoco –que sepamos– aparece en ningún diccionario.

[11] En el libro *Dantza-kopla zaharrak* aparece esta copla en la página 122. Anteriormente había sido poblicado en el *Anuario de la Sociedad de Eusko Folklore*.

kiaren edurra, donde en esta imagen se entiende *eguzkiaren bildur da edurra*) con la imagen focal que denominaba Sebeok: *alaba galanta daukan ama/ mutil zantarren bildur da*. Esta copla es, a su vez, una de las más estilizadas y antológicas que conocemos. Resurrección María de Azkue consciente del valor de la copla apuntó en uno de sus cuadernos de campo, en la página 153, bajo la palabra *elipsis* la siguiente copla de Zeanuri, que es prácticamente la misma que apunta Gorostola:

Egur igarra suaren bildur,
eguzkiaren edurra,
alaba galanta daukan ama
mutil zantarren bildur da.

La copla que hemos espigado del cancionero de Azkue es inédita como también lo es la de Antonia Gorostola. A pesar de nuestras pesquisas no hemos encontrado en ningún otro sitio ninguna variante de las dos coplas que hemos transcrito en este punto. Es interesante señalar, por último, una especie de aliteración que existe entre las palabras *galant* y *zantar*, en donde la palabra *zantar*, en realidad una variante de *zatar*, toma connotaciones nada fáciles de explicar.

2. Esta paremia es uno de los refranes más comunes en vizcaíno. Se refiere normalmente a las personas que andan haciendo conjeturas y suposiciones sin fundamento. En Markina, por ejemplo, se dice *balego (e)ta balitz, alkarren onduen dabis*, o también la variante *balego (e)ta balitz alkarren ondo(r)ik dabis*. Eulogio Gorostiaga recogió en Zeanuri (véase "Folklore. Refranes y frases recogidas en Vizcaya." *Euskalerriaren Alde*, 1929, XIX, pág. 447) *Banauko ta balitz, alkarren ondoan dabiltz*, "Si tuviera y si fuera, juntos andan". En la colección de Sebero de Altube, en los números 47 y 67, encontramos la siguiente: *Balego ta balitz alkarren urr(i)an dabiltz*.

De los refranes clásicos vizcaínos para indicar lo mismo, mencionaría la copla convertida en refrán: *Txokolatie balitz gorue ta berriketia ardatza, gure atsuak egingo leuke etxie bete mataza*. El refrán que significa lo mismo y es, según los testimonios, de factura anterior, es según Lope de Isasti 12. *Balizco oleac, burnia guichi*. "El decir si hubiera herrería trae poco hierro".

3. Creemos que el pronombre interrogativo *noiz* transcrito por Antonia Gorostola se pronunciará a la manera vizcaína *nos*. En cuanto al contenido hemos de señalar que es una de las coplas de baile más populares. Esta copla presenta, sin embargo, ciertas variantes. Una de las coplas de baile más populares de la literatura oral es, en efecto:

Begira nago begira,
kamiño bide barrira,
noiz etorriko ete dan
neure maitea errira.

Dentro de las variantes de la misma copla en lugar de *kamiño bide berrira* puede ser *kamiño zuri berrira* o *goiko kamiño berrira*. En nuestra copla vemos la variante *legorretik lur barrira*, que no aclara mucho y añade sin embargo un aire misterioso. Si en lugar de *lurbarrira,* fuera *legorretik itxasora,* perdería un poco en precisión rítmica, pera ganaría en misterio y poesía. Esta copla indica, de alguna forma, la impaciencia y el deseo del amante para ver a su amada aparecer en el camino. Algo similar vemos en:

Leio bat egin biar dot
itxasuari begira,
andixik ikusiteko
neure maitea noiz doian.

Copla que está documentada en más de un lugar y que puede presentar alguna semejanza con la nuestra.

4. Es uno de los refranes más comunes del dialecto vizcaíno. Es, por otra parte, uno de los refranes del mínimo paremiológico vizcaíno. El participio *entzun* rima perfectamente con la voz vizcaína *zentzun* –de donde la persona sensata es *zentzunduna* o *zentzunezkoa*, *zentzundun mutila* o *zentzunezko mutila*–, que en otros dialectos es *zentzu(a)*. Aunque la voz *zentzun* con *–n* final es voz vizcaína, la suelen utilizar en sus rimas muchas veces los bersolaris guipuzcoanos. La forma vizcaína *zentzun* la ha utilizado, por ejemplo, el bersolari Manuel Lasarte (natural de Leitza, Navarra, y que se caracteriza por el uso de pulcras y medidas rimas). Tiburcio Izpitzua recogió en Larrabetzu (Bizkaia) *umean zentzune, etxean entzune* "El juicio de los niños, lo en casa oído[12]".

5. Es, que sepamos, una de las coplas de pandereta irónica y no documentada en ningún lugar. La rima es propia de las coplas de baile 7, 6B, 7, 6B. Es posible que en un principio fuera copla de baile y se utilizara también como refrán. Existe en la obra de Axular un refrán que se asemeja a esta copla. Copiaremos textualmente del pasaje 120: Gaztean behar da erein eta trabaillatu, eta zahartzean bildu, gozatu eta pausatu. *Fin gaitz eginen duk, xoria, baldin gaztedanic ezpadagik, kafia* dio errefranak. La traducción propuesta por Villasante es la que sigue: (De) joven hay que sembrar y trabajar, y en la ancianidad recolectar, disfrutar y descansar. *Mal acabarás, pájaro, si de joven no haces el nido,* dice el refrán. En el trabajo "Los refranes del cuaderno de Oihenart" de Luis Mitxelena para Navarra en el número 297 vemos la paremia *Pin pin pin, aro deno / ezpadaguic habia / arondoan eztaquidic / valia.*

---

[12] Tiburcio de IZPITZUA. "Refranes y dichos populares" in *Anuario de la Sociedad de Eusko-Folklore* 1921, I, 43-58. Los referidos a Larrabetzu se encuentran en las páginas 48-51.

6. Es uno de los refranes que se pueden incluir en el mínimo paremiológico vasco. Añibarro en su colección lo atestigua: 47-*Inchaurrac lau, ta otsac amalau.* Es un refrán que está bien atestiguado. Lo curioso, sin embargo, es que los números suelen ser casi siempre *lau* y *hamalau.* En Markina, por ejemplo, hemos recogido a Lorenza Elorza con los números *bi* y *amabi*: *urriñeko intxaurrak amabi, urratutakuen bi.* Pascual Kalzakorta, natural de Asterrika, Berriatua, dio la siguiente variante: *Urriñeko intxaurrek otsak aundixek ta urratutakuen ezebez.* En una pequeña colección de refranes sin publicar de Abadiño encontramos la variante *Urriñeko intxaurrak garaunek aundixek.*

De los refranes de Leitza recogidos por Rosa Sestorain ("Leitzan erabiltzen diren esaera zaharrak", in Plazaola, 1983, 3. zenbakia) relacionados con nuestro refrán encontramos dos. *Urrutiko intxaurra, beti betea* y *Urrutiko intxaurrak hamalau, bertaratu eta lau.* En la colección paremiográfica de Sebero Altube, en el nº 73, encontramos nuestro refrán: *Urriñeko intxaurrak amalau, urreratuta lau.* También lo encontramos en el libro *El idioma vasco hablado* de Nils M. Holmer, pág. 142, que incluía una pequeñísima colección de refranes: *Urrutiko intxaurrak amalau, bertara joan ta lau.*

En realidad, este refrán viene a indicar el chasco que uno se lleva cuando comprueba la verdad. La verdad es, por lo general, más mezquina de lo que se nos ha dicho. Las nueces que se nos prometían como muchas, son menos. Puede ser, además, que estén hueras, vacías. Jesus Mari Makazaga en su libro *Elgoibarko euskara, berbak, egiturak eta irakurgaiak*, además del común *Urrutiko intxaurrak hamalau, gertura juandakuan lau* aporta otra paremia interesante: *Urrutiko intxaurrak betiak, gertura juandakuan hutsak.*

7. Es uno de los refranes más interesantes de la colección de Antonia Gorostola. En el *Diccionario* de Larramendi, de mediados del siglo XVIII, de 1745, en la voz *abad* encontramos estas paremias:

A tal abad, tal Monacillo, nolacó jabeá, alacó tresneá. Lat Dignum patella poerculum. El abad de donde canta de allí yanta, nondic lan, andic jan. Como canta el abad responde el Monacillo, nola da hiztuna, ala da enzuna, esale, enzule.

De las diferentes paremias que aparecen citadas en este pasaje, nos interesa *nolacó jabeá, alaco tresneá* que puede ser el refrán anterior a *zelango baldea, alango tresnea.* En donde aparece, en los dos casos, la palabra *tresna* con artículo *tresnea*, propio de la tradición vizcaína y del Goierri de Gipuzkoa. En la colección de Añibarro tenemos el mismo refrán de Larramendi, pero en lugar de *nolaco/alaco* sus correspondientes vizcaínas *zelango/alango*: 28-*Celango jabea, alango tresnea.* Esta paremia aparece en la colección de refranes de Añibarro con otra de igual sentido *Celango Peru, alango Maria*, cuya traducción es: Cual es el ama, tal es la criada.

De las colecciones paremiográficas vascas, en la de Juan Manuel Etxebarria, de Zeberio, Bizkaia, encontramos el mismo refrán: *zelango baldea, alango tresnea*. Este autor me ha proporcionado dos ejemplos: a) *Balda za(h)arrean tresna barriak itxura eskasa* o el contrario *balda barrian tresna za(h)arrak itxura eskasa*. La explicación proporcionada por él es la siguiente: *Baserrian, urteen joanean-joanean, tresna barriak erosten joan dira, baina, sarritan, tresnak iminteko armario edo baldak ez dira aldatzen, nahiz eta zahartu arte egon. Orduan esaera hori esaten da* "*balde zaharrean tresna barriak itxure eskasa daukala*".

8. La panderetera que canta las coplas de baile suele incitar con coplas irónicas a los jóvenes que bailan. En ellas, muchas veces se juega con el doble sentido de las palabras. Una de las coplas irónicas es *Ankak arinak eta / burua arinago. / Dantzan obeki daki / artajorran baino*. El sentido de *arin* en *ankak arinak* es que las piernas son rápidas, mientras que en *burua arinago* "arin" significa que la cabeza es "ligera", de poco peso. En nuestra copla en vez de *ankak* vemos *beak* y en vez de *burua* vemos *goiek*. Aunque, en un principio, pueda parecer que el sentido es el contrario, nos encontramos con el mismo contenido.

9. Refrán de difícil comprensión. Intentaremos, primeramente, escribir unas notas sobre el significado de *asao* y *paraje*. Una de las peculiaridades del vizcaíno interior –desde Bermeo y zonas limítrofes hasta Barrika, que sepamos– que más llaman la atención es el uso de *asao/asau* para significar "lejos" y *paraje* para significar "cerca". Mitxelena explica la voz *asao*, en las "Adiciones y correcciones" de la obra *Fonética histórica vasca,* como un comparativo de *lasai/nasai*. Con la voz "lejos" en castellano ocurre lo mismo, dicha palabra ha evolucionado a partir de una forma comparativa[13]. Este refrán viene a significar, creemos, que no es lo mismo lo que parece de lejos y lo que, en realidad, es de cerca.

10. Es uno de los refranes del mínimo paremiológico vizcaíno. El día de san Vicente, 22 de enero, suele estar marcado por los rigores del invierno. Llamará quizá la atención por el empleo del posesivo *(neguaren)* y no *neguko (biotza*). Este refrán está, por otra parte, ampliamente atestiguado; Añibarro *114. S. Vizente otza, neguaren biotza*. Sebero de Altube también lo documenta en los números 75, 82 y 98. *San Bizente otza, neguan biotza.*

Normalmente se suele documentar *San Bizente (h)otza/ neguaren biotza*. Es, además, hoy en día, uno de los refranes atmosféricos más populares. Lo curioso del caso es el empleo de *Bizenti*. ¿Será la terminación en -ti una forma más antigua? Algo así como *Laurenti* por Lorentzo?

---

[13] He aquí el texto de la segunda edición de *Fonética histórica vasca*, 1976, pág. 552: "Con *lasai/nasai*, 'ample', terme de tailleur et de cordonnier" según Salaberry, se relaciona según toda probabilidad el vizc. *asa(g)o* 'lejos' (y 'lejano', como *lueñes tierras*), comparativo en su origen. Véase Corominas, s. u. *lejos*, y cf. Ingl. *néar* 'cerca', de ant. *néar*, comparativo de néah '*nigh*'.

11. Este refrán aparece documentado en todos los dialectos. Es uno de los refranes atmosféricos o dichos de predicción más famosos. Transcribiré, a continuación, tres versículos de un pasaje de san Mateo, cap. XVI, ver. 1:

1. Y llegándose los Fariseos y los Saduceos para tentarle, le pedían que les mostrase señal del cielo. 2 Mas él respondiendo, les dijo: Cuando es la tarde del día, decís: Sereno, porque el cielo tiene arreboles. 3 Y a la mañana: Hoy tempestad; porque tiene arreboles el cielo triste. Hipócritas, que sabéis hacer diferencia en la faz del cielo; ¿y en las señales de los tiempos no podéis?

En el versículo segundo de este pasaje está enunciada una creencia general que puede parecer en algunos casos un axioma. Esta creencia se puede resumir en uno de los refranes atmosféricos vascos más conocidos: *Arrats gorri, bihar eguzki,* o traducido al castellano "Tarde roja, mañana (lucirá) el sol". Mientras que en el versículo tercero encontramos otra creencia relacionada con la anterior y que también se puede enunciar con un refrán: *Goiz gorri, arrats euri,* "mañana roja, tarde lluviosa". En realidad, lo que vemos en el Evangelio de san Mateo es un refrán atmosférico doble. En el pasaje de san Mateo, los versículos 2 y 3, los hemos enunciado con dos refranes vascos. El mismo pasaje lo podríamos enunciar con refranes castellanos. La creencia del versículo dos se podría representar con el refrán castellano *Por la tarde arreboles, mañana soles*; el versículo tres, en cambio, sentencia de otra forma: *Arrebolada por la mañana, a la tarde agua.*

Esta paremia atmosférica se encuentra prácticamente en todos los dialectos y en todas épocas de que se tiene constancia escrita. Para citar una de las variantes más antigua y completa transcribiremos la de Lope de Isasti, que aparece en *Textos arcaicos vascos* de Mitxelena: 41. *Goiz gorri, euri daidi; arrats gorri eguraldi.* "Arreboles de la tarde, buen tiempo". Añibarro también lo atestigua: 96. *Gox gorri, biar euri; gau gorri, biar aterri.* Juan Antonio de Moguel lo formula en dos refranes, que en realidad, no es más que uno doble: 30-*Gois-gorri, laster euri* y 31-*Arrats-gorri, goisian eguzki.*

En una de las variantes posibles de *arrats gorri, bihar eguzki* en lugar de *arrats gorri* "arreboles en la tarde" aparece el arco iris. Oihenart lo atestigua. He aquí la glosa que trae Mitxelena en su artículo "De Paremiología Vasca. Oihenart conoció los 'Refranes y Sentencias en Vascuence' de 1596[14]":

223 Arrats orcadar biharamun/ eki

Léase *orçadar* "arco iris". Cf. Voltoire XXXI: "*Holçadarraq ceruan arratçian dembora ouna iracusten du; baignan esteçaçula seculan signez dembora issaratoary, ezeta bro-*

[14] Luis MICHELENA. "De Paremiología Vasca. Oihenart conoció los 'Refranes y Sentencias en Vascuence' de 1596" in ASJU 1967, 1-44.

dat sollié gaysqui bestituary". L'arq au ciel le soir faict beau temps apparoir, mais ne croiez jamais en temps estoilé, ny en brodier mal accoustré." Oih. 200: "*Gois orsadar, arrats iturri,* L'Arc en-Ciel du matin, presage de pluye pour le soir." Abundantes refranes sobre el tiempo, vascos y de otras lenguas cita Urquijo en su comentario a Garibay, p. 60 ss.

12. En el euskera estándar escribiríamos *etxe hutsa, gerra hutsa*. Creemos que *etxe hutsa*, literalmente "casa vacía" no se refiere comúnmente a la casa vacía de objetos, sino a la casa en que faltan los niños. El significado del refrán viene a decir que la casa sin niños es un constante infierno. Añibarro lo anota dos veces en su colección, en el números 66 y 111: *Etse utsa, guerra utsa*. En el mismo número también anota *chacur argala, ardi utsa*, que no tiene por qué tener ninguna vinculación de contenido –quiere decir "a perro flaco, todo pulgas"–, donde también se emplea la voz *(h)utsa* con nuestro refrán. Juan Antonio de Moguel en su listado de refranes vizcaínos también lo anota, en el número 36: *Eche utsa, atralaca utsa*, en donde *atralaka* significa "discusión", "barullo", etc. En Markina hemos podido constatar que el significado principal de *etxe utsa* puede ser otro. La casa vacía puede entenderse en el sentido de "casa pobre", "casa en que no entra el dinero[15]". Es interesante señalar, por otra parte, que la palabra *utsa* toma significados diferentes en los dos miembros del refrán. Mientras que en el primer miembro tiene el significado del adjetivo "vacío", en el segundo es el adverbio "solo". El empleo de la misma palabra con significados diferentes se da en otros géneros como en las coplas de baile. En el número 8 de este trabajo hemos visto que el significado de *arin* en *ankak arinak eta/ burua arinago* es diferente. Este tipo de juegos de palabras lo hacía Axular en su obra *Gero*.

Tiburcio de Izpitzua recogió en Larrabetzu (Bizkaia) *etxe utze, gerra utze* "casa vacía, guerra pura[16]." Sebero de Altube en una carta que casi tiene cien años, escrita en Gernika y dirigida a Julio de Urquijo, cuya fecha exacta es el 14 de septiembre de 1912, daba por paremia de Gernika *Etse utse, gerra utse* y como paremia de Mondragón –localidad natal de S. Altube en donde tenía como informante a su padre–, *Eche utsa alagarri betia contzolagarri*. Este refrán doble en la grafía actual sería *Etxe hutsa alagarri; betea, kontsolagarri*, que podríamos traducir como "la casa vacía es problemática, la (casa) llena, es consoladora". Creemos que Sebero de Altube es la fuente primigenia de este refrán y que después lo insertó Azkue en su obra de madurez *Euskalerriaren Yakintza*. La fuente escrita del adjetivo *alagarri* es esta paremia, fuera de ella no lo encontramos documentado en ningún otro sitio.

[15] Mientras estábamos escribiendo este trabajo Lorenza Elorza, oportunamente, soltó en la conversación este refrán. A la pregunta de lo que significaba *etxe utze* respondió: *etxe pobrie, diruik sartzen eztan etxie*.

[16] Op. cit, p. 50.

13. *Kanpoederra* es una palabra vasca que literalmente significa "el exterior hermoso" de *kanpo* "exterior" y *ederra* "hermoso". Esta voz resulta difícil de traducir al castellano, dado que no es exactamente ni hipócrita, ni falso, ni ninguna otra palabra parecida. Designa normalmente a la persona que tiene un comportamiento radicalmente opuesto en casa y fuera de ella.

Es una paremia bien documentada. Una de las variantes más interesantes que conocemos se encuentra en la colección de Sebero de Altube 92. *Etxien gerria ta kanpuen barria*. Nils M. Holmer en su *El idioma vasco hablado*, pág. 152, recogió además de la paremia común *kanpoan uxo, etxean otso* una variante interesante *kanpoan goxo, etxean otso*. Uno de los dichos vascos que utilizan diferente imagen lo vemos entre los refranes de Oihenart comentados por Mitxelena en el artículo de 1967: *Exian coroca, / campoan kordoka*. "En casa, clueca; fuera, movediza. " Cf. RS 133: "*Atean uso echean ocshso/ ala viciquidea gaso*. "Fuera de casa paloma en casa lobo / tal manera de vivir malo".

14. Paremia muy documentada. Es de señalar que lo normal en lugar de *batutzaille* es el empleo de *batzaille*. La palabra *batutzaille* es, en realidad, posterior al común *batzaile*. Larramendi en su diccionario trae: A padre endurador, hijo gastador; *Aita zurrari, semea gastari*. Lat. Tenacem patrem filius excipit prodigus. (320)

Esta paremia de Larramendi la encontramos en la colección de Añibarro con una ligera variación en el segundo elemento: 42-*Aita zurrari, seme gastari*, "A padre endurador, hijo gastador".

15. Esta nota responde a una costumbre y recitado bien documentados por los etnógrafos vascos. Además de los ejemplos que se pueden encontrar en los trabajos etnográficos de Barandiaran y Azkue hay gran cantidad de testimonios. En el diario *Euzkadi*, 26 de mayo de 1927, vemos para Larrabetzu, con la explicación *Agiña tellatura yaurtieran umiak Larrabetzu'n esaten ei dabe*:

Maritxu tellatuko,
señora gorrie,
eutsi agin zarra
ekazu barrie.

Para Urduliz tenemos el mismo recitado con ligeras variantes:

Maritxu telletako
gonadun gorrie,
eutsi agin zarra ta
ekazu barrie.

En los dos ejemplos aducidos aparece una especie de dama o señora *Maritxu Tellatuko* o *Maritxu Telletako*. Puede aparecer también *sagu zarra,* que aunque pare-

ce más común, no por ello es menos misterioso. En el mismo año, en 1927, encontramos en el diario *Euzkadi*, el 20 de mayo de 1927:

Sagu zarra,
eutsi agin zarra,
ekazu agin barrie.
Saguzar barragarrie.

16. Este refrán está bien documentado. Es quizá uno de los refranes que más autores clásicos lo traen, Larramendi, Kardaberaz, Mogel, Añibarro, Azkue, etc. En el diccionario trilingüe de Larramendi, en la voz *apaleado* encontramos lo siguiente:

Apaleado, agaatua. Lat. fuste caefus.

Alper da Maria maquillatu, berez beardu. Refrán que enseña que no sirven los palos para hacer, v. g. discreto a un tonto, si de suyo no tiene fondos. En Navarra lo dicen assi: *Alper da Maria maquillatu, ezta berdin centzatu.*(83)

Tras cornudo apaleado, adartu ostean maquillatua.(83)

Larramendi, por lo tanto, nos da dos variantes, una guipuzcoana y otra navarra.

Para saber el significado del refrán basta consultar el diccionario de Azkue en la voz *makillatu*, donde vemos la siguiente explicación: *Alper da Maria makillatu ezpada berez biurtu,* "Es inútil apalear a María, si de grado no se reduce". Después de esta traducción al pie de la letra, Azkue da la siguiente explicación: "Se dice para mostrar la inutilidad de insistir en algo".

Hemos recogido en Markina este refrán inserto en una pequeña narración oral que de alguna forma lo explica. Según ella un aldeano golpeaba a su burro, que tercamente se había parado con la carga que transportaba. El aldeano golpeaba incesantemente al burro con una vara y el burro no arrancaba. En esto, apareció un gitano y le amonestó al aldeano para que no castigara más al animal: si el burro no quiere, no se moverá, le advirtió. *Alperrik da astoa makillatu, berez bear du.* Es importante señalar que para los vizcaínos –por lo menos, en la conciencia de los vizcaínos orientales–los gitanos euskaldunes hablaban una especie de guipuzcoano.

Después del diccionario trilingüe de Larramendi, la fuente escrita más antigua de este refrán quizá sea la obra *Euskeraren berri onak*, de 1761, de Agustín Kardaberaz, en donde se lee en la pág. 30:

Jaincoac arren itsuak arguitu, ta mutuac ascatu[17] ditzala: gure artean ascoc ondo premia daucate. Bestela, Jauna, *alper da Maria maquillatu*, &c.

[17] En la primera edición aparece *escatu* pero tiene que ser, necesariamente, *ascatu.*

En donde la elisión del segundo elemento, por ser archiconocido refuerza el refrán. Creíamos que Juan Antonio Mogel introducía este refrán en su obra en más de una ocasión, pero lo hemos encontrado una sola vez. En los anexos de la obra de *Peru Abarca*, por ejemplo, en el diálogo entre los eclesiásticos Fray Pedro de Urlija y D. Juan de Zandija: en la pág. 197, el fraile dice:

Alan da; baña ¿noc buruban sartu au euscaldun chaarrai? Equin dot eztarria sicatu ta garraztu artean, ori sinistu gura izan deutseedala ascori. *Baña alper da maria maquillatu.*

En donde el segundo miembro omitido, exactamente igual que en el pasaje de Kardaberaz, carga las tintas sobre el refrán. Otro que recogió el mismo refrán fue Añibarro. En su lista de refranes recientemente publicado, en el nº 8 viene enunciado nuestro refrán: *Alper da Maria maquilatu beres bear du.*

Este refrán, además de en los trabajos paremiográficos, lo encontramos en la obra *Zirikadak* de Juan San Martín, pg. 24, y *Ardi Galdua*, 46, de Azkue. *Alper da Maria makilatu, ezpada berez biurtu.* Gotzon Garate también aporta otra variante *Alper da Maria makillatu, ezta berdin zentzatu.*

17. Llama la atención en esta frase la palabra *zamaria,* que normalmente se documenta en los dialectos orientales. Originalmente *zamari* del latín sagmarius[18] significaría "bestia de carga" y después "caballo de carga". De significar "caballo de carga" ha pasado a significar caballo, en general. En las composiciones de Etchahun (denominadas por él normalmente *khantoreak*, en plural), por ejemplo, aparecen indistintamente *zaldi* y *zamari*. Lo raro es que aparezca como palabra vizcaína. La palabra *zantzo*, por el contrario, es usual en el vizcaíno interior. En el vizcaíno oriental de Markina, por ejemplo, *irrintzi* significa lo que en vizcaíno interior *zantzo. Zantzolari* sería por lo tanto el *irrintzilari*, el que emite cierto tipo de gritos, generalmente en fiestas o concentraciones festivas.

18. La haraganeria está muy censurada en los refranes vascos. En la recopilación de Gotzon Garate *30.466 atsotitzak* vemos 99 refranes –los que van de los números 647 al 746– referidos a los vagos y la vagancia. Nuestro refrán lo encontramos exactamente igual en el número 665. *Alferkeria, asko(re)n ondamendixe (Alperkeixe)*, del caserío Argana-Goiti Ajangiz, Bizkaia y del caserío Odriozolatxo de Azpeitia *Alperkeria askoren ondamendia.*

No estará de más citar un refrán popular que anotó Errose Bustintza "Mañariko" en el diario nacionalista *Euzkadi*, el 13 de octubre de 1932; refrán que, por otra parte, lo hemos oído infinidad de veces en Markina: *Gexorik txarrena, alperkerija.*

---

[18] Es normal, por otra parte, en el euskera normativo el uso de la palabra *zama* para significar "carga". En *Fonética histórica vasca*, en la segunda edición, en la página 402 vemos lat. *sagmarius, zamari* 'caballo'.

19. Este refrán está atestiguado en los refraneros más antiguos de la lengua vasca. Aparece, en efecto, en el librito de *Refranes y Sentencias* de 1596: nº 276. *Arrausi luzea loa edo gosea "Boztezo luengo hambre o sueño"*. El hecho de que no sea exacto da cierta credibilidad, es decir, que aparezca *logure* en lugar de *loa*. Creemos que la variante *arrosiñ* en lugar de *arrausi* sería más común en el vizcaíno del interior. Oihenart lo atestigua entre sus refranes: 11. *Aharrausi usua, gose edo lo-mezua.*"Le bâillement frequent est le messager de la faim ou du sommeil". Aparece también en los papeles de Oihenart publicado por Mitxelena en 1967: 266. *Aharrausia ahotic ahora* "El bostezo (va) de boca en boca."

Además de estos refranes que aparecen en los repertorios clásicos y antiguos de los siglos XVI y XVII, Gotzon Garate aporta tres paremias más en el libro *30.466 atsotitzak*, en los números 352, 353 y 354.

20. Refrán ampliamente atestiguado. La forma normal atestiguada en casi todos los dialectos es *umeak (h)azi eta nekeak bizi* en donde hay rima en *(h)azi* y *bizi*. En nuestra variante aparece sin la cópula *eta* y con *(h)azi* repetido. El refrán de Oihenart *Erroia haz ezak, begiak dedetzak (*Cría cuervos y te sacarán los ojos) y el refrán nº 136 de RS de 1596 *Az ezac er[r]oya, diratâ beguia ta mutil guextoac quendu deyque arguia* ("Cría cuervo, sacar te ha el ojo, y quitar te ha la luz el mal moço). Aparece documentado también como refrán de Aezkoa publicado por Azkue en el artículo "Aezkera edo Petiriberro-inguruetako mintzaera" en la revista *Euskera* de 1927. En el apartado de refranes, en el número 22, *Umeak azi ta nekeak bizi* con la nota de *(Bizkaian ere berdin),* Azkue traduce "Criar hijos y vivir trabajosamente. (Lo mismo en Bizkaya)".

21. *Txakur argala, ardi hutsa* es la forma vizcaína de "A perro flaco, todo pulgas". Aunque parezca mentira este refrán vizcaíno no se ha documentado, que sepamos, hasta nuestros días. Puede parecer que este refrán vizcaíno es la traducción literal del castellano, dado que coinciden "perro flaco" con *txakur argala* y "todo pulgas" con *ardi hutsa*, en donde *ardi,* además de significar "oveja" en todos los dialectos, significa "pulga" en vizcaíno. Puede parecer pero no lo es, en absoluto. Este refrán que sepamos lo documentamos por primera vez en la colección de refranes de Añibarro, en el número 111, como segundo elemento del refrán doble: *etse utsa, guerra utsa; chacur argala, ardi utsa.* En nuestro caso, sin embargo, *gizon pobrea, guzur utsa* es el segundo refrán de *txakur argala, ardi utsa.*

Por paremias sinónimas de *txakur argala, ardi utsa* citaríamos la paremia suletina relativamente conocida *or flakia, oro küküso* y el refrán más general *ahulak ahulgarria berekin.*

22. La copla que aparece en este número es una de las canciones de cuna más extendida de Bizkaia. Llama la atención la alusión a Markina en *–Jauna, ni Markiñakoa,* donde suponemos que ser de la citada villa, era una carta de identidad de

persona honorable. Llama la atención el empleo de *diruak* en plural en *diruak baino naiago neuke/ baziña neure errikoa.* El empleo de *diruak* en plural significa que se trata de una gran cantidad de dinero y aparece en las colecciones de coplas más antiguas de que tenemos constancia. En efecto, como indicamos en el artículo "Una colección antigua de coplas viacaínas" encontramos diruak, en plural, en más de una copla:

10
Esan sostan suc baña
enotsun sinistu
biarco nindusula
diruac banitu.

11
Diruac gaiti baño
biar espanosu,
suas indijetara
saites indijanu.



Página del Dietario con canciones manuscritas.

En estos dos ejemplos vemos claramente el empleo en plural en *diruac banitu* y *diruac gaiti baño*[19].

23. Esta copla de baile esta profusamente documentada. Es una de las que bien puede entrar en la competencia oral de cualquier aficionado a las kopla zaharrak eusquéricas. En la obra *Dantza-kopla zaharrak* sólo dimos un ejemplo. En la página 150 encontramos la siguiente:

Txikitxo polit ori,
zelan zara bizi?
Yoan dan aspaldian
etzaitut ikusi.

En nuestra copla en lugar de *joan dan aspaldian* encontramos una preciosa forma: *igaroko aspaldian*. La expresión *joan dan (h)amabost urtean*, *joan dan aspaldian, joan dan amar egunetan o joan daneko aspaldian,* etc. común en guipuzcoano y en vizcaíno oriental no es, según he podido comprobar, general en el vizcaíno interior. La forma *igaroko aspaldian* es sinónima, por lo tanto, de *joan dan aspaldian*.

24. De las tres estrofas que están transcritas en este apartado, las dos últimas las encontramos en diferentes fuentes. Una de las peculiaridades de esta canción es el ensamblaje o la mescolanza de la primera estrofa con las otras dos. En la primera se dice que el padre va a Bilbao a comprar bacalao; es para bailar a los niños teniéndolos en las rodillas. Las dos siguientes suelen conformar un grupo unitario.

En la tercera estrofa se dice que el padre ha ido a Vitoria con la madre a horcajadas, en euskara *txikoan*. Normalmente en las diferentes variantes encontramos *ama mandoan (h)artuta,* es decir, que el padre lleva a la madre en mula a Vitoria para venderla. Este tipo de canciones infantiles con su aparente ingenuidad –como lo demostró Lorca en su celebre conferencia *Las canciones de cuna*– a veces presentan un mundo triste y desolador. En las diferentes variantes en euskara se dice que después de vender a la madre, el padre ha comprado una nueva madre: *Aita etorri da Biturietik/ ama bidean galduta. Aita etorri da Biturietik/ ama berri bat hartuta,* etc. Existe entre todas las variantes tristes y desquiciadoras un happy end: *Aitak ama ganbaran topau dau / zortzi gona jantzita.*

26. Este tipo de recitados encadenados, donde una determinada respuesta provoca una nueva pregunta con una palabra clave, vienen atestiguados en los recitados infantiles de diferentes provincias. En Bizkaia, por ejemplo, Kirikiño el 26 de mayo de 1927, en el diario *Euzkadi*, dos años antes de su muerte, con la explicación "*Mañari'n, lenengo esakerearen antz-antzeko bat esaten dabe ume txikiyek, ara*", anotaba este recitado:

---

[19] Aparece también en plural en otros casos. En el coplario de Ataun en el número 47: *Ai, ai, ai, motil zarra / tabernan al ago?/ Vitorian oyala / diruetan dago.* La expresión en plural *diruetan dago* significa que la tela está carísima.

Bale-bale jaune
Non da aite jaune?
Kamaran.
Zetan?
Artuek urkuntzen[20].
Artue zetako?
Olluentzako.
Ollue zetako?
Arrautzak zetako?
Abadientzako.
Abadiek zetako?
Meza emateko.
Meza zetako?
Andixik artez-artez
zerura igoteko.

Este tipo de recitados ingenuos no son nada desdeñables. Evaristo Bustintza "Kirikiño" después de copiar el recitado cierra la columna con esta amonestación: *Irakurle, onetariko naiz bestetariko umetxuen arteko esakuntxurik zeure errian yakin ba'dagizu, batu eta bialdu ona.*

Podríamos transcribir infinidad de estos recitados. Copiaremos, por último, los ejemplos del día 30 de junio de 1927:

De Oiartzun:

Kukurruku!
Zer diozu?
Buruan min.
Zeñek egin?
Axarkok egin.
Axarko zertako da?
Maxakanak biltzeko.
Maxakanak zertako dira?
Arrautza eiteko.
Arrautza zertako da?
Apaizari emateko.
Apaiza zertako da?
Meza emateko.
Meza zertako da?
Mundu guztia salbatzeko.

[20] Escribe *artuek urkuntzen* pero creemos que tiene que ser *artuek urkultzen.*

De Altza:

Kukurruku!
Zer diozu?
Buruan min.
Zeñek egin?
Axerkok.
Axerko nun da?
Errota azpiyan.
Zertan?
Txotxak biltzen.
Txotxak zertako?
Sua eiteko.
Sua zertako?
Arrautza berotzeko.
Arrautza zertako?
Apaizarentzako.
Apaiza zertako?
Meza emateko.
Meza zertako?
Gu eta mundu guztia salbatzeko.

De Deba:

Kukurruku!
Zer diozu?
Buruan min.
Zeñek egin?
Axarixak.
Axarixa nun da?
Txotxak biltzen.
Txotxak zertako?
Arrautzia erretzeko**.**
Arrautzia zertako?
Abariari emateko.
Abaria zertako?
Mezia emateko.
Mezia zertako
Gu salbatu eta zerura juteko.

27. Es uno de los recitados infantiles comunes en el País Vasco. El recitado de Antonia Gorostola difiere de los recogidos por Azkue y Manuel Lekuona. Azkue

en *Euskalerriaren Yakintza* (Literatura popular del País Vasco), Tomo IV, Madrid, 1947, pág. 316, trae el siguiente recitado:

Din dan balendan, elizako atean
Gizon bat dilindan.
–Zer egin du?
–Bekatu, emaztea urkatu.
Hori ezta bekatu.
–Xakurra zanpatu.
–Hori da hori bekatu.

El texto vizcaíno que aporta Manuel Lekuona en el trabajo "Cantares populares" del *Anuario de Eusko Folklore* de 1930, pág. 59 sigue la misma estructura que el de Azkue. En el recitado de Antonia Gorostola aparecen elementos nuevos. El perro ahorcado, es guardado debajo del escaño: *txitxalupean sakatu*, y la delación del escarabajo se comete cuando lo llevan a la iglesia: *elizara daraudiela / kakarraldoak salatu.*

Como demostró Mikel Zarate en un ensayo publicado en el libro *Euskal Literatura*[21], en este recitado infantil se basó el poeta Lauaxeta para componer el poema "Udabarriko autorkutza".

29. Es, a todas luces, una copla de baile. Es común que en este tipo de coplas se haga referencia a personas que vivían en el entorno de la panderetera. En este caso, Mikela Presaburuko sería una determinada persona con el nombre del caserío o lugar donde vivía. Desde el punto de vista sintáctico es importante que Presaburuko puede ir con artículo o sin artículo. La forma sin artículo ha estado ampliamente testificada; es muy propia del vizcaíno oriental.

30. Creemos que esta canción humorística está poco documentada. La solía cantar el poeta Valentin Aurre Apraiz en la sobremesa de la reunion anual de los escritóres eusquéricos de la revista *Karmel.*

31. Es una conocida copla de baile.

32. En las coplas de baile, una de las protagonistas principales es Matxalen Busturiko. Las tres coplas de esta nota son muy populares.

33. Es una variante de una de las coplas de baile conocidas. En el coplario recogido por Eulogio Gorostiaga[22], de Zeanuri, encontramos una parecida:

---

[21] Mikel ZARATE. *Euskal literatura, azterbideak, aztergaiak, azterketak*, Durango 1977, 49-61 or.

[22] La fuente original es "Yantza-abestia-k Euzko-gaztediei" in *Euzkadi*, 1931-O6-29, nº 5.785. Esta copla está recogida en *Dantza-kopla zaharrak*, pág. 128.

Txiki ta trauki
malluaren otsa:
Urkiolako punten
fraile muru motza.

Una copla más acorde a la de esta colección aparece en el coplario de Arantzazu. La panderetera es Maria Ugarte:

Urkiola gañeko
aiziaren otza,
antxen ikusi neban
neska buru motza.

Es interesante señalar que en *Urkiola gañeko aizearen (h)otza* la palabra *(h)otza* tiene un uso substantivo. En efecto, cuando una palabra se encuentra en caso genitivo, en nuestra copla, *haizearen*, el adjetivo no tiene que llevar el prefijo *–(t)asun*. Una de las frases más estremecedoras de las canciones patibularias vascas es, por otra parte, *Urkamendi gaineko haizearen hotza* que aparece en más de una composición poética popular.

Variantes interesantes de esta copla las encontramos en el trabajo "San Antón de Urkiola y el misterio de los caminos viejos", BRSVAP, 1958, 107-115 en donde vemos las dos siguientes coplas: *Urkiola mendiko / axearen otza, / antxen ikusi neban praille kaskamotza* y *Arantzazura noa / au nere poza / antxen ikusiko det/ praille kaskamotza.*

34. Es curioso lo que ocurre con este refrán. Normalmente se suele enunciar como aparece en este punto y su significado es que se da menos de lo que se promete. La enunciación correcta debiera ser *emona bat eta agindua bi, emonagaz konforme izan adi.* Encontramos el mismo refrán en la colección de Sebero de Altube, 27 y 81. *Agindua bat, emona bi, aginduagaz kontentu izan adi.*

35. Esta copla está ampliamente documentada. En una de las colecciones de coplas más antiguas, la publicada por Kirikiño en el diario *Euzkadi* de 26-V-1913, aparece prácticamente igual. Su sobrina, la también escritora Errose Bustintza, publicó en el mismo diario 3-VI-1931 una variante interesante, que es similar a la publicada por Eulogio Gorostiaga[23]:

Etxetxo zar bat dago
Barazar ganean,
etxako urik sartzen
aterri danean.

[23] Eulogio GOROSTIAGA. "Cantares recogidos en Zeánuri (Vizcaya)" in *Anuario de Eusko Folklore* 1930, pág. 7-23.

Esta copla también puede participar en una de una serie de coplas con la misma estructura.

36. No hemos podido constatar en el acervo popular vasco ninguna canción como esta. En cuanto a la forma es extraño que diga *arkean* donde esperaríamos, para el inesivo singular, *arkan*.

37. Se trata, según creemos, de una canción incompleta, que no la hemos podido completar con ninguna otra fuente. Se trata de una canción trunca, deturpada, erosionada, donde se ha perdido el artificio rítmico y ha devenido en un diálogo entre una chica que tiene un cabritillo, al parecer, y un señor de cierta importancia, dado que la chica se dirige a él en berorika**.** ¿Se tratará de los restos de un romance? La conversación entre una joven que puede estar vendiendo en un mercado y un señor se parece un poco al romance popular euskérico "Ana Juanixe".

38. Juan Antonio de Mogel lo documenta a principios del siglo XIX, hacia 1802, en el listado de refranes de la obra *Peru Abarca*, en el número 29, exactamente igual, provisto con los foneticismos de rigor: *Lecuban lecuban ardijac, baltzen artean zurijac*. En la preciosa colección paremiográfica de Añibarro encontramos una variante interesante 113: *Lecuan lecuan ardiac, baltzac eta zuriac, gurean guztiz andiac* en donde el latiguillo *gurean guztiz andiac* hemos podido documentarlo solamente en este refrán. Lo curioso del mismo es la idea un tanto enrevesada que viene a dar. El hecho común es que siempre hay más ovejas blancas que negras. La excepción en el rebaño, por lo tanto, son la oveja u ovejas negras que hubiera. En este refrán, sin embargo, se dice exactamente lo contrario que entre las ovejas negras hay, excepcionalmente, blancas. Esta imagen introductora viene a decir que en un sitio determinado ha ocurrido un hecho malo, poco ejemplar, fatídico. Este mundo al revés que aparece en los diferentes refranes que hemos traído a este punto no es casual. En una de las coplas de Ataun (que es sin lugar a dudas la colección más antigua y estilizada de las coplas de cuestación de santa Águeda que conocemos), dirigidas al mozo de la casa aparece la misma imagen[24]:

Zelaian eder ardie,
beltzen artean zurie;
Orra bada ta (izena) ori
lagunen ondragarrie.

[24] En las coplas de baile los adjetivos *beltza* y *zuria* pueden aparecer indistintamente. En *El idioma vasco hablado* de Nils M. Holmer, pag. 124, vemos la copla: *Beltxak eta txuriak / mendian ardiak; / oriek eztituzte / bentajak guziak*. Mientras que en la colección de las coplas de baile de Ataun que publicamos en el libro *Dantza-kopla zaharrak*, en el nº 53,: *Zuriak eta beltzak / mendian ardiak; / ez dituzu zuk ere / bentaja guziak*.

Este refrán se suele decir comúnmente hoy en Bizkaia *Mundu aundian, kontu aundiak* y solamente en parte es la paremia correspondiente a "*En todas las casas cuecen habas"*. El refrán vizcaíno tiene, sin embargo, un matiz de difícil explicación. Se suele emplear normalmente para dar a entender que las desgracias o los hechos poco ejemplares ocurren en todos los sitios, pero sobre todo en la casa del que enuncia el refrán. De ahí que se añada el latiguillo eta *gurean andiagoak*, o como lo trae Añibarro *gurean guztiz andiac*. Esta paremia la hemos oído, por ejemplo, en Berriatua *Mundu aundixen, kontu aundixek* con el añadido o latiguillo *eta gurien aundixauek*. De Jose Mari Landa, de Ea, Bizkaia, hemos copiado la variante *Mundu aundixen, kontu aundixek*. Este refrán suele tener como latiguillo *ta gurin geurin geixen* (en euskara estándar, *eta gurean geurean gehien*) y también *ta Olabarrin geixen* (*eta Olabarrin gehien*, en donde Olabarri es un barrio de Ea). Creemos, también, que otro refrán que encontramos en el libro Peru Abarca y que no hemos visto comentado en ningún lugar, 41-*Lecuban lecuban malua, gurian andijagua* viene a decir lo mismo. La palabra *malua* es sin foneticismo alguno *maloa* "espantapájaros" –más común en compuesto: *txorimalo*–. El refrán traducido sonaría un tanto extraño: "En todos los sitios hay espantapájaros y en nuestra casa mayor."

Es interesante señalar que *lekuan lekuan*, una determinada palabra reduplicada en inesivo, significa *leku guztietan* "en todos los sitios". Es posible, por lo tanto, que en recopilaciones del siglo XX en lugar de *lekuan lekuan* aparezca –como lo atestigua Errose Bustintza "Mañariko" en una colección publicada en agosto de 1936, recién comenzada la Guerra Civil– *toki danetan ardixak, baltzak eta zurixak*. Lo curioso del refrán comentado en este punto es el parecido que tiene con las variantes más antiguas.

39. Refrán de fácil comprensión. El caballo es provechoso para su dueño, pero el mantenimiento es costoso. El caballo ha sido, desde épocas remotas hasta no hace mucho tiempo, uno de los bienes más preciados. Hay refranes que hablan del valor del caballo. GG 16214 *Zaldia ta andria, gañian begia*, GG 1811 *Zaldia ta andria alokatzen eztia*, etc. Este refrán, sin embargo, no lo hemos documentado en ningún sitio.

40. Una de las narraciones orales más abundantes sobre las lamias es el robo o el hallazgo de un peine de oro junto a la orilla de un río o arroyo. Este objeto fabuloso, el peine de oro, es llevado por el protagonista de la narración a su casa. Durante la noche una lamia o varias se dirigen a la casa del sujeto y le piden que devuelva el objeto robado o hallado bajo la amenaza de matar o perder tanto al que lo ha encontrado como a toda su descendencia.

Se trata, sin lugar a dudas, de una amenaza proferida por una lamia a algún sujeto llamado Txertrudi. Esta amenaza es rimada y se encuentra en varias narraciones orales. Nuestra amenaza rimada, sin embargo, tiene una riqueza especial, ya que posee elementos que no se encuentran en las diferentes narraciones orales que

hemos consultado. Además de la riqueza que vamos a analizar también tiene elementos discordantes. En el empleo del *hitano,* tuteo del que se sirven los númenes mitológicos para dirigirse a los humanos o héroes de las narraciones, aparecen verbos en "hika" *dozak* como el registro normal *dot*. Lo normal sería que *galduko dot* apareciera en hika: *galduko joat* si Txertrudi es varón y *galduko jonat* en caso de que sea mujer.

Una de las cararacterísticas más reseñables está en el empleo de la palabra *askazi,* que normalmente rima, en otras amenazas, con *orratzi* que es propio de los dialectos más orientales, sobre todo en Zuberoa[25]. Mitxelena en uno de sus artículos ("Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos", FLV, 1971, 149-169) se admiraba de que en fórmulas rimadas pudieran aparecer en zonas más occidentales del país como Ataun. Nuestra amenaza, sin embargo, está recogida en una zona mucho más occidental. He aquí el texto de Mitxelena:

> En una palabra, las posibles incomprensiones nacen de la diferencia radical de lo que se entiende por reconstrucción, restitución o restablecimiento en lingüística y en filología. Desde el experimento de Schleicher por lo menos, se sabe o se debería saber que un lingüista sólo alcanza a reconstruir elementos, formas o esquemas de lengua, en el sentido técnico de la palabra; jamás textos. Pero lo que el filólogo quiere, y muchas veces consigue, restablecer son precisamente textos. La utilidad que tales textos restablecidos pueden tener para la lingüística histórica es variable, pero, sobre todo en un caso como el nuestro en que los materiales relativamente antiguos escasean tanto, nunca será despreciable. Aun para un profano como yo, parece claro que el tenor literal se conserva mejor cuando el lenguaje del texto está ajustado a algún esquema formal (verso, fórmulas rimadas, etc.), pero el estudio mismo que se ha hecho de tales esquemas entre nosotros parece insuficiente. No es, sin embargo, excepcional que en la misma narración libre se conserven muestras de un estado de lengua anterior, incomprendidos acaso ya y más o menos deteriorados. Un ejemplo que debería ser clásico entre nosotros es el de la palabra *askazi*, "pariente", atestiguado directamente en dialectos orientales, con bastantes derivados, ascazcunte (askazkünte) "parentesco" está ya en Belapeyre (1696), I, p. 63. Con todo la palabra ha aparecido muy lejos, en Ataun entre otros lugares, como puede verse en J. M. de Barandiaran, *Mitología vasca*, Madrid, 1960, p. 136, con bibliografía, en una acepción que acaso se acerque más al valor original del término. Bien es verdad que ocurre en una fórmula rimada.

[25] "Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos", FLV, 1971, 149-169.

Es importante señalar que en Bizkaia en las leyendas recogidas en la falda del monte Gorbea, en Zeanuri concretamente, aparezca documentada esta maldición. He podido constatar que en la localidad mencionada la expresión o amenaza *askasiek aterako deutsudaz* significa "sacar las entrañas", o algo parecido. Dicha expresión viene de la amenaza que profieren las lamias al que posee el peine de oro.

41. La primera estrofa del número 20 también es para brincar a los niños en la rodilla. Las dos estrofas presentan pocas diferencias entre sí. Hemos oído variantes de estas estrofas. Jose Mari Landa, de Ea, nos ha dado: *Arre, arre, iso, iso / asto benenue ,/ okerreko bidetik / sek ete darue* y también *Arre, arre, iso, iso asto barrabana, okerreko bidetik / beti naruana*[26]. Llama la atención en estas dos coplillas la gran semejanza que guardan entre sí todas las variantes.

[26] Podríamos traer a colación una tercera copla que es una mezcolanza de euskera y castellano. *Arre, borriquín, / asto barrabana, / okerreko bidetik / okerreko bidetik / beti naruana.*

Irudien argibidea

Aldizkari honetan erreproduzitutako irudi, liburu eta aldizkari guztiak, aparteko ezer esan ezik, Labayru Ikastegiak Derion daukan Euskal Bibliotekaren ondaretik dagoz hartuta.

Azalekoa: Baionako katedrala c. 1836. F. Morel. *Bayonne, vues historiques et descriptives*. Bayonne: 1836.

Hamar euskal literato eta Jainkoa: Irudiak Labayru Ikastegiko *Idatz & Mintz* literatur aldizkaritik hartuak.

Parroki paperak: Durangoko parrokietako materiala, egilearena.

Domingo de Eguía: Joseph Moret. *De obsidione Fontirabiae Libri Tres*. [Valladolid]: Ioan. Couronneau, 1655. Sancho el Sabio Fundazioak emondako irudia.

Simancaseko Artxiboa, egileak emandako irudia.

Frantziako Iraultza eta Konbentzioko Gerra: "Roarrespiarresen cantac"en kopia. Lafitte Artxiboa: Bertso bilduma, 401-005-67. Euskaltzaindian ikusgai. Euskaltzaindiari esker argitaratzen dugu.

Antonia Gorostola: Argazkia eta koadernoa familiarenak.

OHARRAK *LITTERAE VASCONICAE*KO IDAZLEENTZAT

1. Originalak. Aldizkarian argitaratzeko idazlanak originalak izango dira eta Erredakzio Batzordeak erabagiko dau argitaratu edo ez.

2. Bialtzeko modua. Posta elektroniko bidez bialduko dira, eta horretara ezin izan ezkero, papelean. Artikuluagaz batera, egileak lanaren laburpena bialduko dau, hamar bat lerrokoa, euskeraz eta gazteleraz.

3. Irudiak. Idazlanagaz batera, egileak testua jazteko beharrezko ikusten dituan facsimil, irudi, argazki, marrazki... bialduko ditu. Berak euki ez arren interesgarri eretxi ezkero, proposatu egin leikez aldizkariaren Erredakzio Batzordeak topatzeko ahalegina egin daian.

4. Bibliografia-aipamenak. Oin-oharretan eta bibliografian, liburu eta aldizkarien aipamenak ondoan datozen adibideen eredura egingo dira.

Liburua danean:

Juan Antonio MOGEL. *El Catequista Bascongado / Cristau Eracasle Euscalduna.* Bilbao: Labayru Ikastegia; Bilbao Bizkaia Kutxa, 1994, 255-300. or.

Aldizkaria danean:

Jabier KALZAKORTA. "Neskazahar baten penak bertsotan" in *Litterae Vasconicae,* 7. Bilbao: Labayru Ikastegia; BBK, 1999, 191. or.

Bibliografia artikuluaren amaieran jarriko da.

5. Zuzenketak. Erredakzio Batzordeak inprentako frogak emon orduan, egileak hamabost egun eukiko dauz zuzenduteko. Zuzenketak akats, puntuazino-marka, letra mota aldatzea eta antzekoen ganekoak izango dira, baina ez testuan aldaketa handia ekarriko dabenak.

6. Argitalpena. Behin aldizkaria argitaratuta, egile bakotxari ale bat eta separata batzuk emongo jakoz (20 bat).

Litterae Vasconicae-ko Erredakzio Batzordea

RECOMENDACIONES A LOS COLABORADORES DE *LITTERAE VASCONICAE*

1. Originales. Los trabajos aportados para la revista serán originales y el Comité de Redacción decidirá en su caso su publicación o no.

2. Modo de presentación. Los artículos serán remitidos por correo electrónico, y en caso de no ser posible en papel. Juntamente con el artículo, el autor enviará un resumen del mismo, de unas diez líneas de extensión, en euskera y castellano.

3. Ilustraciones. El escrito se acompañará de los facsímiles, figuras, fotos, dibujos... que el autor juzgue conveniente para la mejor ilustración y comprensión del texto. De no disponer de ellos puede sugerirlos para que el Consejo de Redacción de la revista trate de localizarlos.

4. Citas bibliográficas. Las notas a pie de página y citas bibliográficas de libros y revistas se ajustarán al modelo adjunto.

Cita de libro:

Juan Antonio MOGEL. *El Catequista Bascongado / Cristau Eracasle Euscalduna.* Bilbao: Labayru Ikastegia; Bilbao Bizkaia Kutxa, 1994, 255-300. or.

Cita de revista:

Jabier KALZAKORTA. "Neskazahar baten penak bertsotan" in *Litterae Vasconicae,* 7. Bilbao: Labayru Ikastegia; BBK, 1999, 191. or.

La bibliografía irá al final del artículo.

5. Correcciones. Cuando el Consejo de Redacción facilite las pruebas de imprenta, el autor dispondrá de un plazo de quince días para realizar las correcciones. Éstas deberán afectar únicamente a erratas, signos de puntuación, variación del tipo de letra y aspectos similares sin que puedan hacerse alteraciones sustanciales del texto.

6. Ejemplares. Una vez publicada la revista, cada autor recibirá un ejemplar de la misma y las separatas correspondientes (unas 20).

El Consejo de Redacción de *Litterae Vasconicae*

RECOMMANDATIONS AUX COLLABORATEURS DE *LITTERAE VASCONICAE*

1. Originaux. Les contributions apportées à la revue seront des textes originaux que le conseil de rédaction décidera de publier ou non.

2. Mode de présentation. Les articles seront adressés par courrier électronique ou, si cela n'est pas possible, sur papier. Avec son article, l'auteur enverra un résumé de celui-ci, d'une dizaine de lignes, en basque et en espagnol.

3. Illustrations. Le texte sera accompagné des facsimilés, figures, photographies, dessins, etc., que l'auteur jugera opportuns pour une meilleure illustration et compréhension du texte. S'il n'en dispose pas, il pourra les suggérer afin que le conseil de rédaction de la revue essaie de les localiser.

4. Citations bibliographiques. Les notes en pied de page et les citations bibliographiques de livres et de revues suivront le modèle ci-après.

Citation de livre:

Juan Antonio MOGEL. *El Catequista Bascongado / Cristau Eracasle Euscalduna.* Bilbao: Labayru Ikastegia; Bilbao Bizkaia Kutxa, 1994, 255-300. or.

Citation de revue:

Jabier KALZAKORTA. "Neskazahar baten penak bertsotan" in *Litterae Vasconicae,* 7. Bilbao: Labayru Ikastegia; BBK, 1999, 191. or.

La bibliographie sera jointe à la fin de l'article.

5. Corrections. Une fois que le conseil de rédaction lui aura remis les épreuves d'imprimerie, l'auteur disposera de quinze jours pour effectuer les corrections. Celles-ci ne concerneront que les fautes d'orthographe, les signes de ponctuation, les variations de la police de caractères et autres aspects similaires, sans altération substantielle du texte.

6. Exemplaires. À la publication de la revue. chaque auteur en recevra un exemplaire ainsi que les tirés à part correspondants (approx. 20).

Le Conseil de Rédaction de *Litterae Vasconicae*

RECOMMENDATIONS FOR PUBLISHING IN *LITTERAE VASCONICAE*

1. Originals. Articles submitted to the journal must be original, and the Editorial Committee will decide to publish or not.

2. Presentation. Articles should be sent by e-mail, and if this is not possible on paper. The author should also provide a ten-line summary in Basque and Spanish of the article.

3. Illustrations. Articles should be accompanied by any facsimiles, figures, photographs, drawing, etc. the author deems necessary to illustrate the article and facilitate understanding of the text. If the author has no such illustrations, he or she may make suggestions for the journal's Editorial Committee to try to locate them.

4. References. Footnotes and bibliographical citations of books and journals should be presented as follows.

Book:

Juan Antonio MOGEL. *El Catequista* Bascongado */ Cristau Eracasle Euscalduna.* Bilbao: Labayru Ikastegia; Bilbao Bizkaia Kutxa, 1994, 255-300. or.

Journal:

Jabier KALZAKORTA. “Neskazahar baten penak bertsotan” in *Litterae Vasconicae,* 7. Bilbao: Labayru Ikastegia; BBK, 1999, 191. or.

The bibliography should be placed at the end of the article.

5. Corrections. Once the Editorial Committee returns the proofs from the printer’s, the author has fifteen days to make any corrections. These should only involve the correction of misprints, punctuation, variations in the type of print used and similar problems. Substantial alterations to the body of the text may not be made.

6. Copies. Once the journal has been published, each author receives a copy of the journal and the corresponding offprints (20 or so).

Editorial Committee, *Litterae* Vasconicae